

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

35 zbk.

2008

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, nahitaez, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.



euskal itzultzaile, zuzentzaile eta
interpreteen elkarteak

Azala eta marrazkiak: Juan Azpeitia, 2008. Serie “Warschaud”.
Zuzenketa: Maite Imaz

Umberto Eco-ren testua:
@ R.C.S. Libri S.p.A., Milan
Bompiani 2003

© EIZIE
© Artikulugileek, testuena.
© Juan Azpeitiak, marrazkiena.

ISSN: 1132-2152
Legezko gordailua: SS-1152/01

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz


SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Zuzendaria:
Karlos del Olmo

Zuzendariordea:
Maite Imaz

Aholku taldea:
Gotzon Egia
Juan Garzia
Josu Barambones



Helbidea:
Zemoria, 25
20013 DONOSTIA
Tel.: 943 27 71 11
Fax: 943 27 72 88
senez@eizie.org
<http://www.eizie.org>



euskal itzultzaile, zuzentzaile eta
interpreteen elkarte

Malcolm Lowry, poeta KARLOS DEL OLMO	9
Antton Elosegirekin solasean GAI-JARTZAILEA: KARLOS DEL OLMO.....	35
Itzulpengintza Iparraldean EDURNE ALEGRIA.....	51
Itzulpen-politika euskal administrazioan euskeraren erabilera normalizatzeko planetan ROBERTO MANJÓN LOZOYA.....	59
Lengoaia, terminologia eta berriketa JUAN GARZIA	69
Espainia frankistako itzulpena eta zentsura ideologia- eta kultura-berridazketa gisa MARÍA PÉREZ L. DE HEREDIA	77
Ikus-entzunezko itzultzaileei egindako galdeketa: emaitzak eta ondorioak JOSU BARAMBONES ZUBIRIA	89
Terminologia hizkuntza-kudeaketaren baitan JOXEAN ZAPIRAIN	103
Itzulpen automatikoa, oximorona ote? INAKI IRAZABALBEITIA.....	115
<i>Softwarea</i> lokalizatzea SILVIA BORRÁS GINER	129
Garai berriak, ohitura zaharrak. Zer egin? Nola hasi itzulpengintzan? LURDES AUZMENDI.....	151

Hiru donostiar itzultzaile	
ALES BENGOETXEA	157
Idazlea itzultzaile	
UNAI ELORRIAGA	181
<i>Gainbehera dator dena: Chinua Acheberen Things fall apart</i> eleberraren itzulpena	
ALBERTO MARTÍNEZ DE LA CUADRA	189
Lehen esperientzia literatur itzulpenean: Franz Kafka	
NAROA ZUBILLAGA	219
Lagun desleialak eta leialak	
JAUME CABRÉ	229
<i>Ia gauza bera esatea. Liburuaren Sarrera</i>	
UMBERTO ECO	233
Babeletik EIZIera Mendekostetik pasata	
KAXILDO ALKORTA	249

Kopuruz infinitu ei diren gurearen unibertso paralelo horietako batean, bada gizarte antolamendu bat non gizakiok ez duten itzulpengintza ezagutzen eta lantzen. Hango sinesmen sistemaren arabera, itzulpena eta interpretazioa krimenik handienak, ankerkeria pentsaezinetan pentsaezinenak dira. Tabuak. Erlijioek eta legeek debekaturik dituzte bi langintzok, gainera. Hizkuntza unibertsalik, partzuergokorik ez dute, gizalde bakoitza bere hizkuntza eta kultur sistemetan murgildurik bizi den aldetik; hizkuntza unibertsalaren ideiak berak higuina eta gaitzespena sortzen dizkie. Nork bere gaitasunen eta bidaiatzeko gogoen arabera, gainerako aldaki, azpihizkuntza, dialekto eta auzoan auzoko hizkerak ere jakin edo ikas ditzake, baina halako hitzunik ezer ezingo du itzuli beste barentzat, ezta ezer interpretatu ere. Eta hizkuntz aditu izatea ez dute oso begi onez ikusten, orokorrean. Zertan esanik ez, hiztegi, glosario eta datu base elebidun edo eleaniztunak ezinezko gertatzen dira.

Herri bakoitzak etengabe asmatu behar izaten ditu seguru asko beste nonbait saiatutako asmakizunak edo arte gauzak. Dena dela, itzulpenaren aurkako tabua indartsuagoa da gainerako gogoeta eta beharrian guztiak baino. Hala, gertatu ohi da idazle ezberdinek antzeko idazlanak sortzea garai bertuan edo oso garai ezberdinetan kultura batean edo bestean eta, besteren ezjakinean, elkarren berririk ez izateak sorgin gupil moduko batean murgildurik ditzunez gero. Poesian eta kantagintzan ere, berdintxo. Zientzietan, medikuntzan, teknikan... antzera samartxo jazozen da: herri bakoitzak bakardadean egin behar dio aurre munduari; merkataritza truke moduko batzuk onartuta dauden arren, beste kulturen

asmakizunak oso latzak gertatzen zaizkie erabiltzaile arrotzei eta, beraz, hutsaren hurrengo gertatzen.

Unibertso kide horretan ere gerrak gertatzea ez da gauza harrigarria: isolamendua oso handia den arren, ezin konponduak erraz gertatzen dira. Eta, gehienbat, bakezaleak diren arren, nekez lortzen dute bakea adostea: ez daude-eta oso ohituta beste kulturekin negoziatzen. Herriok elkar ia-ia hutsa hurrengotzat izaten dute, sasikotzat: norberaren hizkuntza izaten da perfektuena eta besteona gauza basa eta landugabea.

Eta, guztiarekin ere, banaka, herri bakoitzak gurearen moduko aurrerapen maila lortu du, baina jakintza edo alor bakanen batean. Unibertso osoa orobat hartuta, antzekoak garela pentsa liteke, baina herririk herri begiratuta, elkartzerik bagenu, ez geniokeen elkarri ententituko.

Aspaldi honetan, ondoko unibertso horretako botereetsuak oso kezkatuta daude: talde iraultzaile bat eta publikazio debekatu bat gorabidean doaz, gero eta leku handiagoa lortuz doazelako han-hemenkako herritarron bihotzetan. Erakundeak EIZIE du izena —zer diren gauzak— eta publikazio iraultzaileak, *Senex*. Erakundea osatzen dute herrien eta kulturen arteko harremanak estutu beharra defendatzen duten idealista batzuek, itzulpengintza eta interpretazioa adiskidetasun unibertsalerako ezinbesteko tresna solidarioak direla aldarrikatzen duten ero batzuek. Urregorriaren antzera, eskuz esku dabil, klandestinitatean, *Senex* aldizkaria, honelako eduki exotiko eta, askoren ustez, mistiko samar eta, hargatik, apur bat ulergaitzak jasota: Lowry izeneko idazlearen zenbait poema itzuli; luzaro itzulpengintza jorratu duen Antton Eloseg

ikerlariari eginiko elkarrizketa; Iparraldeko itzulpengintza zertan den azaltzeko Edurne Alegriak paratutako artikulua; Osakidetzako Roberto Manjonek itzulpen eta normalizazio politiken gaineko hausnarketak; Juan Garziaren terminologi auzi baten gaineko teorizazioa; María Pérez López de Herediaren analisisa, frankismoaren garaiko antzerki itzuliaren zentsuraren gainekoa; Josu Barambonesen ondorioak, ikus-entzunezko itzulpenari buruzko galdeketa bat oinarri; UZEIko Joxean Zapirainek terminologia hizkuntza-kudeaketaren baitan aztertzekoa; Elekako Iñaki Irazabalbeitiak itzulpen automatikoa itzultzaileen ikuspegitik aztertzen du; softwarea itzultzea eta lokalizatzea barru hartzen dituen Silvia Borrásen ekarpena; itzulpengintzan ibiltzen hasi gura duenarentzako Lurdes Auzmendiren gida arin eta lagungarria; hiru donostiar itzultzailearen azterketa, Ales Bengoetxeak gertatua; Unai Elorriaga idazle eta itzultzailearen go-goeta, norik bere sorkuntza lanak itzultzearen ingurukoak; itzulpen praktikaren ondorioak teorizatzeo ahalegin eskergak, Alberto Martínez de la Cuadrak eta Naroa Zubillagak eginak; Jaume Cabré idazle katalanaren artikulua bat, lagun leial eta desleialen gainekoa; Umberto Ecoren liburu bateko sarrera, eta, azkenik, saio labur, mamitsu eta literario samar bat, egunero lanera joan behar izatetik erretiratu den arren, lanbidea nekez utziko duen Kaxildo Alkorta lagunaren ipuin antzekoa.

Malcolm Lowry, poeta

KARLOS DEL OLMO

Hogeigarren mendeko idazle batzuen bizitzak haien idazlanak eurak baino ospe-tsuago izatera heldu dira. Idazlari haietako batzuei gagozkiela, duda-mudarik ez, bizialdia eta obra bat egiteraino heldu ziren, esaterako, Lowryrengan. Behin *Sumendiaren azpian* lanaren gainean esan zuenez, eleberria idatziz doa idazleak hura bizi ahala. Nolanahi ere den, nahiz eta Malcolmen ospe literarioa batez ere (ia soilik) 1947an argitaraturiko *Sumendiaren azpian* eleberrian oinarritzen den, idazleak bere burua gehien batean poetatzat zuen. Poesia konposatu zuen helduaro oso-osoan, eta haren gutunek agerian jartzen dute poesiarenganako kezka handia. Behin lagun bati idatziz itaundu zion ea ez zuten inoiz bakean utzi behar poesia idatzi beste guraririk ez zuten gizon bat.

Sumendiaren azpian argitaratu aurretik editoreari gutun luze batean idazlan haren egitura eta esangura azaldu zizkion: berariaz nabarmendu zuen poesia oso garrantzitsua

zela bere irudimen sortzailea ulertu ahal izateko. Eleberria irakurtzen zaila izatea ezin konponduzko arazoa iruditzen zitzaion izkiriataileari: neurri batean, arazoa eleberraren subjektibismoan zetzan, alegia, poesiari berez dagokion subjektibotasunean, prosak berezko duen objetibotasunean bariarik. Pentsatzea ere legoke, beraz, *Sumendiaren azpian* lanaren eta garai hartan idatzitako poemen artean badela harreman berezi-berezi bat: edo poemak nobela ulertzeko giltza dira edo, osterantzean, eleberrari buruzko iruzkinak, txatalak, zuztarreko ohar adigarriak.

Lehenengo poema ikastetxeko aldizkari batean argitaratu zuen, 1925ean. Urte hartatik lehenengo eleberria, *Ultramarine*, 1933an plazaratu arte, idazten trebatzen eman zuen zortzi urteko hartan, hamahiru poema argitaratu zituen hainbat aldizkarietan. 1929an Conrad Aiken amerikar poeta eta nobelistarengana joan zen Massachusetseko Cambridgera, ikasle. Poemak argita-

ratu zituen, eta narrazio laburrak eta kantak, musika ere jotzen eta konposatzen zuelako. Kantu haietako batzuk marinelen ohiko aireen bariazioak ziren. Esan liteke, nonbait, prosa, musika eta poemak jorratu zituela bere bizialdi osoan. Gazte-gaztetatik eta hil zen unetxora arte ia. Musika popularrak, batez ere jazzak, maite zuen; ukelelez lagundutako jazz piezak ere konposatu zituen. Eta hura guztia, gazte-gaztetandik ere, alkoholez blai.

Gaztetasunaren ezaugarrien eta esperientziarik ezaren ondorio moduan baino ezin uler daitekeen azaleko tonu halako bat erakusten zuten gaztetako poema batzuek. Ordea, ez da okerbide handia izango esatea eleberri ospetsuan landutako gai, obsesio eta funts nagusiak poemetan ere apurka agertuz joan zirela, idazlearen obra eta bizitza gero eta batuago —eta elkarrengan nahasiago— egotearen ondorioz. Ezin bestelako jazo pertsona batek literatura bizimodu ia bakartzat hartzen badu, ondo jakitun dagoela, gainera, salbazioa ez dagoela ez batean, ezta bestean ere. Banakoa kondenaturik dago, erruak jota bizi da.

Prosan eleberri proiektu zabalak, eleberri zikloak, landu zituen moduan —gero suak betiko galdu diren eleberri mardul bi erre zizkion—, poemetan ere hainbat proiektu eta poema bilduma utzi zituen hasita. New Yorken, esaterako, itsas motiboenkin eta jazzarekin zerikusia zuten poemak idatzi zituen, baina oso gutxik irauan dute bizirik edo artxiboatarraino heldu, haren bizimoduaren ondorioz, itxura batean, Malcolm i zail gertatzen zitzaizkion paperak gordetzea (tartean zirela alkoholak eragindako aurreneko arazo larriak eta lehen emaztearekiko banaketa). Hala, *Sumendiaren azpian*

idazten hasi bitartean (oso idazketa luzea izan zuen eleberriak, berridazketa ugari jasane izanaren ondorioz), hainbat eskuizkributan gordetako *The Lighthouse Invites the Storm* poema sailaren zenbait bertsiore ere paratu zituen, bakoitza prestaketa fase batean. Lowryren gutun literatura aldetik aberatsei esker ondo dakigu ez zuena lortu sorta argitaratzerik, lagunkideek laguntasuna eman bazioten ere.

Bigarrenez ezkondu eta hainbat bidaiarekin egin zituen emaztearekin —Mexikora ere bai—, nahiz eta tarterik luzeena Kanadako Dollarton deritzon itsasbazter ezkutatu batean eman. Dollartonen askoz ere gehiago idaztea lortu zuen, bai prosan, bai poesian. Emazte Margerieri maitasun neurtitz asko idatzi zizkion. Poemak hainbat paper motatan agertu dira, eta neketsu gertatzen da jakitea zeintzuk idatzi zituen Kanadan eta zeintzuk Ingalaterran. Oso aldi emankorra izan zen; hirurehun bat poemetatik, heren bat, bederik, Kanadan eskribitua dugu.

1946. urtean bi editorek onartu zioten *Sumendiaren azpian* (lehenago, dozena batetek-edo uko egin zioten plazaratzeari), eta Ingalaterran izan ezik, apurka-apurka ospetsu bihurtzen hasi zen. Dena dela, maldan behera amiltzen hasita zegoen alkoholismoaren altzora.

1947. urtean Dollartonerarekin itzuli ziren eta senar-emazteek autobiografikoki antolaturiko hirurogei bat poema jo zituzten idazmakinez, izenburudun hiru sailen arabera. Editorearen zenbait iradokizunez horniturik agertzen dira, baita haietako batzuk Lowryk berak berridatzirik edo azterturik ere, baina haiek ere ez ziren egilea bizi zelarik argitalpen bidez mamitu.

Egilearen bizialdian argitaratu gabeko

poema bildumei begiradaxo bat eginda, berehala konturatuko gara diziplinan huts egiten zuela Lowryk: poemak —prosa ere bai— sarri ere sarri idazten hasi, baina gero, ez gutxitan, ez zituen atzera ere haiek lantzen edo biribiltzen ala orrazten. Eta ezelan ere, prosara beti hurbildu ohi zen ikuspegi poetiko batetik. Beste kontraesan bat, seguru asko, *Sumendiaren azpian* lan mardul ospetsua askozaz ere balioitsuago egiten duena. Eskuizkribu batzuen bitartez badakigu, *Sumendiaren azpian* ez ezik, beste prosa batzuetako lehen idazketetan ere poemak testuetan txertatuta eta haiekin bat eginda agertzen zirela, argudioarekiko koherentzia osoan. *Sumendiaren azpian* eleberrian hantzen zenbait poemetako lehen lerroak edo tarteko ahapaldi batzuk agertzen dira, egilearen prosa poetikoaren edo prosazko poesiaren erakusgarri modura.

Bizitza, Lowryrentzat, alde, “aurritze prozesu halako bat” da, Kontsularen gorpua sumendien aurreko amildegian behera botatzen duteneko amaiera sinbolikoak ezin hobeto erakutsia. Eta birrintze horretan, alkoholak garrantzi handia zuen, mezkalak, esaterako, une jakin batean arreta handiko uneak, mistikoenen antzekoak, sortzen bide dizkiolako mozkortiarri. Errealitateko kaosa egituratzeko ezintasunaren aurrean, Lowryk edan besterik ez zuen izaten. Baina alkohola, babesa izateaz gain, azkenean erruduntasun sortzailea ere bada. Eta guztiarekin ere, Kontsularen mozkorraldia bigarren mundu gerraren garaiko gizadiaren hordialdiaren ikurra besterik ez da. Alkoholismoa, itsasoa, baztertuak, itsasargia, maitasuna, itsason-tziak, bihotz hautsia, Mexiko, paisaia, sumendiak, amildegia, idazleak, idazketa bera, jakintza ezkutuak eta bestelako gaiak

bat datoz eleberri, ipuin eta poemetan, guztia estilo barroko batez ehunduta (estilo *churrigeresca*, berberak esan bezala: idazlearen lagun batek zioenez, Lowryk, mozkorturik zegoenetan, halako berba jario poetiko, ñabarduratsu eta etengabe bat erabili ohi zuen). Idazlanek eta gutunek erakutsi legetxe, Lowry infernua lepoan hartuta bizi zen, eta literaturan arrakasta ezagutzen hasi zen unean, zegoeneko amildegirako azken pausak ematen ere hasita zegoen.

Senar-emazteek Kanadatik azken biderez irten zutenean, Lowry oso egoera penagarrian zegoen, ia idazteko gauza ez zela edatearen edateaz: emazteari den-dena diktatu behar izaten zion. Margerie bera, guztiz neke eginda, gaixotu egin zen. Idazleak susperraldiren bat edo beste izan arren —alkoholismoa gorabehera, lantzean-lantzean lasai bizitzea ere lortu bide zuen bikoteak— 1957ko ekainaren 27an eman zuen azken hatsa Malcolm Lowryk, Ingalaterrako Ripe herrian, alkohol krisialdi batean barbituriko larregi hartu izanaren ondorioz. Heriotza egiaztatu zuen medikuaren txostenak hone-la zioen: “*Death for misadventure*”, alegia, zorigaitzak hila. Eta beste ezbehar bat ere jasan behar izan zuen, hil ostekoa, ordea: haren obra gehiena idazlea zendutakoan argitaratu izana.

KRONOLOGIA

1909

Clarence Malcolm Lowry uztailaren 28an sortu da Ingalaterrako Cheshireko New Brightoneko Warren Courten. Evelyn Boden eta Arthur Osborne Lowry senar-emazteen semeetan —mutilak dira denak— azkena da. Kotoi industriako jabe aberatsak

dira, eta familia esne mamitan bizi da. Lowryren beraren arabera, ehiza gustatu bai, baina, literatura interesatzen ez zaion sendia da, ordea.

1915

Herriko eskolara doa.

1923

Cambridgeko Leys Schoolera doa, hango Unibertsitatean ikasi behar duten gazteak prestatzen dituen ohiko *public school* haietako bat denez gero.

1925-1926

Balzac, Joyce eta O'Neill irakurtzen ez ezik, bere lehenengo lanak argitaratzen ere hasi da, Leys Schooleko *Fornightly* aldizkarian.

1927

Aitaren baimena lortuta, unibertsitatera joan aurretik S. S. Pyrrhus ontziko eskifaian izena eman du, eta martxotik urria arte Ekialde Urrunetik eta Indiako ozeanotik itsasontzi hartan lanean jarduten du. Ontziratzer aitarene autoan heldu izanak eskifaia-
rekiko harremanak zailduko dizkio. Bidaia haren itzalak *Ultramarine* eta *Sumendiaren azpian* eleberrietan agertzen dira.

1928

Alemaniarra doa, Bonnekko English Collegen ikastera. Alemaniako zine espresionistak xarmatuko du, eta horrek handiro eragingo ditu Lowryren obra eta teknika literarioak.

1929

Udan bidaiari moduan Antilletara eta Bostonera doa, itsasontziz, Conrad Aiken iparramerikar poeta ezagutzera. Uda elkarrekin emango dute. Urrian Cambridgeko Unibertsitatera abiatuko da.

1931

Udan Norvegiara doa, itsasontzi bateko eskifaian sugin moduan izena emanda. *Skibet gaar videre* (*Barkuak norabideari eusten dio*) liburuaren egile Nordahl Grieg ezagutu gura du. Idazlariarekin egon ostean, irailean Cambridgea itzuli da. Nordahlen lanak eragin handia izango du Lowryrengan, etxera itzultzeaz batera hasiko duen *In Ballast to the White Sea* eleberrian eta bi urte geroago argitaratuko duen *Ultramarine* idazlanean igarri moduan.

1932

Cambridgeko gradua lortu du ingeles filologian, *third class honors* (nahikoa) nota eskuratuta.

1933

Jonathan Cape editoreak Londresen Lowryren lehen eleberria argitaratu du, *Ultramarine*. Apiriletik ekaina arte Espainiara doa Conrad Aikenekin eta haren emaztearekin. Aiken Lowryren "aitaorde espiritual" bihurtu da, eta Lowryk jasotzen duen famili saria administratzen du. Granadan aldi luzea eman eta Jan Gabriel estatubatuar aktorea ezagutu du. Harekin maiteminduko da. *Sumendiaren azpian* obran Kontsulak azalduko du zelan ezagutu zuten elkar berak eta Yvonnek Granadako Generalife lorategietan, Lowryren eta Janen antzera.

1934

Urtarrilaren seian Jan Gabrielekin ezkondu da. Sei hilabete geroago, Jan New Yorkera doa eta Lowry Londresera. Urrian emaztearekin elkartzera abiatuko da Amerikara.

1935

Ekainean hamar egun eman ditu New Yorke-

ko Bellevue erietxeko psikiatriako aldean. Esperientziaren ondoren, *Lunar Caustic* eleberraren lehen bertsioa idatzi du.

1936

Irailean Janekin Los Angelesera doa eta, handik, San Diegora, Acapulcorako ontzia hartzera. Mexikora helduta, Gabonak baino lehenago Cuernavacan jarriko da bizitzen Janekin. *Sumendiaren azpian* idazten ekingo dio.

1937

Cuernavacan kantuan, tekila, mezkala eta enparauak deskubrituko ditu. *Sumendiaren azpian* nobelaren lehen bertsioa idazten amaitu du. Mexiko hirian Janek Malcolm abandonatuko du. Lowry Oaxacara doa, mina “Mexikoko mezkalik onenean itotzera”. Gaztelaniarik jakin ez eta beti mozkortuta egotearen ondorioz, zio politikoak dirrela bitarte atxilotuko dute, eta Gabonak espetxean emango ditu, Oaxacan. Hiri hartan Juan Fernando Marquezen adiskidea egingo da: hura omen da *Sumendiaren azpian* eleberriko Vigil medikua eta Juan Cerrillo pertsonaien iturburua.

1938

Apirilean Acapulcora doa, ostera ere. Uztaillean aitaren abokatuek Mexikotik aterako dute. Los Angelesera itzulita, *Sumendiaren azpian* nobelaren bigarren bertsioa lantzen hasiko da.

1939

Uztailean Britainiar Columbiako Vancouver hirira doa. Handik hilabetera, Los Angelesen ezagututako Margerie Bonner elkartuko zaio. *Sumendiaren azpian* nobelaren hirugarren bertsioa idazten hasi da.

1940

Janegandik dibortziatu eta abenduaren bian Margerierekin ezkondu da. Vancouveretik hurbil den Dollartонера aldatu dira. Basoaren eta itsasoaren arteko alderdi edereder batean etxola bat hartu dute. Huraxa da *Sumendiaren azpian* obran eta ipuin labur batean aipaturiko *Eridanus*, alegia, Iparreko Paradisua.

1941

Hamabi editorek *Sumendiaren azpian* argitaratzeari uko egin diote.

1944

Dollartonen aurrendarien moduko bizimodua eginda, zibilizaziotik urrun, 1941 eta 1944 bitartean *Sumendiaren azpian* liburuaren laugarren eta azken bertsioan dihardu. Itsasoaren eta basoaren arteko bizialdi idiliozko hura krisialdi alkoholiko batzuek baino ez dute eteten. Martxoaren 7an sute batek etxola erre eta *In Ballast to the White Sea* liburuaren eskuizkribua kiskali du. *Sumendiaren azpian* liburu argitaragabea salbatzea lortu dute.

1945

Ostera ere Dollartонера, etxola berreraikitzen. *Sumendiaren azpian* liburuaren azken bertsioa bere agente literarioari bidali dio. Azaroan Mexikora itzuli da, bigarren emaztearekin, eleberraren kokalekuak bisitatzeke asmoz. Cuernavacara doaz —Larueleren *zacualin* biziko dira, apartamentu eraikina bihurtu dutenez gero— eta, handik, Oaxacara, Juan Fernando Marquezen bila, baina, esango dietenez, Kontsularen antzera, taberna batean auskan egin ostean, hil egin zuten. Bidaia hura erabiliko du

Dark as the grave wherein my friend is laid eleberria idazteko gai moduan, nahiz eta bizirik dela argitaraturik ikusiko ez duen.

1946

Apirilaren 6an jakin du egun berean bi argitaratzailek, Ingalaterrako batek eta Estatu Batuetako beste batek, *Sumendiaren azpian* onartu diotela.

Maiatzean atxilotu eta Mexikotik deportatu dute, aurreko egonaldian ordaindu barrik utzitako isunen bat dela kausa. Itxuraz, ordea, *mordida* eskupeko sari "ezaguna" pagatu ez izanagatik omen da (P. M. Carthyk iruzkinduta, 1996an argitaratuko dioten eleberrian jazoera azalduko du).

Maiatzean Dollartонера doa, Margeriekin batera. Abenduan bidaide doaz biak, New Orleanserantz eta Haitirantz.

1947

Otsailean New Yorkera abiatu da, *Sumendiaren azpian* argitaratzera. Ingalaterrako kritikak ez dio aitortzen merezi duen aintza, nahiz eta liburua berehala nederlanderara, polonierara eta portugesa itzuliko duten.

Azaroan Vancouverren Frantziarako itsasontzia hartuko du, Panamako itsasartetik jardunaldiak beste kontakizun batean narratuko ditu.

1948

Parisen egonaldi bat egingo du. Italiara eta Britainiara ere badoa.

1949-1954

Dollartонера itzulita, *Hear Us O Lord Heaven Thy Dwelling Place* kontakizun laburren sorta eta elkarri loturiko sei eleberrik osaturiko *Inoiz amaitzen ez den bidaia* idazlan zikloa idazten eta prestatzen dihardu.

1954

Dollartondik irten du azken biderrez, eta New Yorken Conrad Aiken ikusteko geldialditxo bat egindakoa, Genoara doa ontziz, Sizilian ostatu hartzera.

1955

Londresera itzuli da. Azaroan erietxe psikiatriko batera sartuko dute, tratamendua jasotzera. Halere, alkoholak etengabe eroaten du krisialditik krisialdira.

1956

Otsailean Sussex konderriko Ripe herrira aldatu da. Lanean ekin dio osterara ere.

1957

Ekainean Ingalaterrako Lakuen Eskualdetik dabil.

Ekainaren 27an eman du azken hatsa Malcolm Lowryk, Ripen bertan, alkohol krisialdi batean barbituriko larregi hartu izanaren ondorioz.

Eye-Opener

How like a man, is Man, who rises late
And gazes on his unwashed dinner plate
And gazes on the bottles, empty too,
All gulphed in last night's loud long how-do-you-do,
—Although one glass yet holds a gruesome bait—
How like to Man is this man and his fate—
Still drunk and stumbling through the rusty trees
To breakfast on stale rum sardines and peas.

Begi-zabaltzaile

Bai gizonaren berdina berandu jaikitzen den Gizona
Eta afariko plater zikinari begiratzen diona
Eta botilei ere so egiten diena, haiek ere baitaude hutsik,
Den-denak irentsita bartko diosal apaletan luzaturik
—Nahiz eta baso batek artean trago ikaragarriren batek daukan—
Bai Gizonaren berdinak gizon hura eta haren patua—
Artean mozkor eta estropezuka zuhaitz idortuen artetik
Ron zaharra sardinak eta ilarrak gosaltzera doalarik.

Beneath the Malebolge lies Hastings street

Beneath the Malebolge lies Hastings street
The province of the pimp upon his beat
Where each in his little world of drugs or crime
Drifts hopelessly, or hopeful, begs a dime
Wherewith to purchase half-a-pint of piss
Although he will be cheated, even in this.
I hope, although I doubt it, that God knows
This place where chancres blossom like the rose
For in each face is such a hard despair
That nothing like a grief finds entrance there.
And on this scene from all excuse exempt
The mountains gaze in absolute contempt.
Yes this, yet this is Canada, my friend
Yours to absolve of ruin, or make an end.

Malebolge azpian Hastings kalea datza...

Malebolge azpian datza Hastings kalea
Gaizkinak ihes egiteko darabilen eskualdea
Non bakoitzak, bere droga edo krimen mundutxoan
Alderrai, itxarorik gabe, edo itxaropentsu, eskatzen duen txanpona
Harekin inguratzeko pinta erdi bat txiza
Nahiz eta, baita hartan ere, izango den porrot egina.
Badut itxaro, zalantza egin arren, Jainkoak duela ezagun
Sifilia arrosaren antzera loratzen den toki hau
Aurpegi bakoitzean etsipen handi halako bat baitago
Non minaren antzeko ezerk ere ez duen sartzerik harako.
Eta inolako estakururik ez duen honako eszenan
Mendia begira dago mespretxu erabateko batean.
Halere hau, halere hau Kanada da, lagun nirea
Zeurea da porrotetik salbatu edo dena amaitzeko agintea.

Strange type

I wrote: in the dark cavern of our birth,
The printer had it tavern, which seems better:
But herein lies the subject of our mirth
Since on the next page death appears as dearth.
So it may be that God's word was distraction,
Which to our strange type appears destruction:
Which is bitter...

Tipografia bitxia

Nik idatzia: gure jaiotzaren kaberna ilunean,
Inprimatzaileak bihurtu zuen taberna, hobe dirudiena:
Baina hortxe datza zioa gure barrearena,
Zeren hurrengo orrian agertzen baita herio barik merio.
Beraz baliteke Jainkoaren esana izatea distrakzio,
Gure tipografia bitxian agertzen dena destrukzio:
Zeina garratzagoa baita...

Rilke and Yeats

Help me to write.
Show me the gates
Where the orders are;
And the cage
My soul stares at,
Where my courage
Roars through the grates.

Rilke eta Yeats

Lagundu niri idazten.
Erakutsi atea
Non dautzan erregelak;
Eta leotza
Nire arimaren begirakunean dena,
Non nire adorea
Orro dagien barratarren artean.

Happiness

Blue mountains with snow and blue cold rough water—
A wild sky full of stars at rising
And Venus and the gibbous moon at sunrise.
Gulls following a motorboat against the wind,
Trees with branches rooted in air;
Sitting in the sun at noon
With the furiously smoking shadow of the shack chimney,
Eagles drive downwind in one,
Terns blow backward,
A new kind of tobacco at eleven,
And my love returning on the four o'clock bus—
My God, why have you given this to us?

Zoriontasuna

Mendi urdinak elurrez eta ur urdin hotz asaldatuz—
Zeru basa izarrez beterik altxatzen
Eta Artizarra eta iretargi konkorduna egunabarrean.
Kaiok haize kontra txalupa motordunari jarraiki,
Zuhaitzek arramak airean sustraiturik;
Eguerdian eguzkitan jesarrita
Etxolako tximiniak furiaz botatzen duen kearen gerizpean,
Arranoak haize behera bat eginik,
Haizeak itsas enarei atzerantz putz,
Hamaiketan tabako mota berri bat,
Eta neure laztana lauretako busean nigana bueltan—
Jainko gurea, zergatik eman zenigun hau dena?

Nocturne

This evening Venus sings alone
And homeward feathers stir like silk
Like the dress of a multitudinous ghost
The pinions tear through a sky like milk.
Seagulls all soon to be turned to stone
That seeking I lose beyond the trail
In the woods that I and my ignorance own
Where together we walk on our hands and knees
Together go walking beneath the pale
Of a beautiful evening loved the most,
And yet this evening is my jail
And policemen glisten in the trees.

Nokturnoa

Eguarte honetan Artizarra bakarka kantari
Eta etxera doazen lumak ikarati zeta lez
Mamu populatu baten jantziaren modura
Hegoak abia bizian esne antzeko zerua zeharkatzera.
Kaioak laster bihurtuko dira harri
Bidean galdu nuena bilatzen ari
Nireak eta nire ezjakintasanarenak diren basoetan
Non eskuz eta belauniko ibili ginen paseoetan
Elkarrekin ibiltari zurbiltasanaren pean
Maiteen izan genuen arratsalde eder batean
Eta halere arrastiri hau dut espetxe
Eta poliziak dir-dir arboletan.

Without the nighted wyvern

Notions of freedom are tied up with drink
Our ideal life contains a tavern
Where man may sit and talk of or just think,
All without fear of the nighted wyvern;
Or yet another tavern where it appears.
There are no no trust signs no no credit
And apart from the unlimited beers
We sit unshackled drunk and mad to edit
Tracts of a really better land where man
May drink a finer, ah, an undistilled wine,
That subtly intoxicates without pain,
Weaving the vision of the unassimilable inn
Where we may drink forever,
With the door open, and the wind blowing.

Gauetzko herensugerik gabe

Askatasun nozioak edariari daude loturik
Gure bizimodu idealak taberna bat du barruturik
Non gizakia jesar daitekeen hizketan edo gogoetan soilik
Guztia gauetzko herensugearen beldur barik,
Edo beste edaritegi bat non hura ez den agerturen.
Zorreak Ez edo Krediturik Ez kartelak
Eta garagardo mugagabetik aparte
Nasai mozkortuta eta editatzeko irrikan gara jesartzen
Lur benetan hobe bati buruzko entseguak non gizakiak
Ardo destilatu bako bat, a!, fin bat edan dezakeen,
Ezari-ezarian minik emateke duena toxikatzen,
Edaritegi antzemanekin baten ikuskaria ehuntzen
Non behin betiko edan genezakeen
Atea zabalik, eta haizeak joka.

Comfort

You are not the first man to have the shakes,
The wheels, the horrors, to wear the scarlet
Snowshoe, nor yet the invincible harlot
Dogged by eyes like fishnets. Leaning, aches
The iron face with agate eyes, and wakes
The guardian angel, sees the past,
A parthenon of possibilities.
You are not the first man to be caught lying
Nor yet to be told that you are dying.

Gozabidea

Ez zara lehen gizakia dituen dardaraldia,
zorabioa, izua; daramatzana eskarlata
koloreko kalotxak, ezta ere puta garaiezina
arrain sare moduko begiek jazarria. Makurtuta, mina
du agata begidun burdinazko aurpegiak, eta da itzarria
aingeru guardiako, ikusten du lehenaldia,
Parteenon bete hautabide.
Ez zara gezurretan harrapatutako lehen gizakia
ezta hiltzen ari zarela esaten dizutena ere.

The flowering past

There is no poetry when you live there.
Those stones are yours, those noises are your mind,
The forging thunderous trams and streets that bind
You to the dreamed-of bar where sits despair
Are trams and streets: poetry is elsewhere.
The cinema fronts and shops once left behind
And mourned, are mourned no more. Strangely unkind
Seem all new landmarks of the now and here.

But move you toward New Zealand or the Pole,
Those stones will blossom and the noises sing,
And trams will wheedle to the sleeping child
That never rests, whose ship will always roll,
That never can come home, but yet must bring
Strange trophies back to Ilium, and wild!

Lehenaldia loretan

Ez dago poesiarik han bizi zarenean.
Harri horiek zureak dira, zarata horiek zure gogoa,
Tranbia kirinkariak eta kaleak lotzen
Zaituzte amesturiko tabernari non baita jesartzen desesperoa
Tranbia eta kale dira: beste nonbait da poesia.
Zinema eta denda aurrealde inoiz atzean utziak
Eta dolutuak, ez dira gehiago dolutu. Arrozki anker
guztiek dirudite orainaren eta honako honen mugarriak.

Baina zoaz Zeelanda Berrira edo Polora,
Harri horiek loratuko dira eta zaratek kantatuko,
Eta tranbiek kulunkatuko umetxo lokartu
Inoiz ere atsedenic gabea, itsasontzia beti baitabilkio inguruka,
Inoiz ere etxera itzultzerik ezin duena, baina bai nahitaez eraman
Ilium aldera trofeo bitxiak, eta basatiak!

A dried up river is like the soul

A dried up river is like the soul
Of a poet who can't write, yet perceives
With imperfect clarity his theme and grieves
To parched death over the drought. But his goal
Once a wholesome sea of clearest crystal
Recedes, grows grey in hartseye, like old love leaves,
Leaves the mind altogether. He conceives
Nothing to replace it: only at the pole
Of memory flickers some senseless compass.
So the river, by her grey pitying trees,
Is an agony of stones, horrors which sank
But are now declared, bleached. For it is these,
These stones and nothingnesses which possess
When river is a road and mind a blank.

Ibai lehor bat arima bezalako da

Ibai lehorra zer bezalako eta
Idatzi ezin duen poetaren arima bezalako da, nahiz eta igarri
Argitasun inperfektu batez bere gaia eta negar egin
Lehortean, heriotzaraino egarri. Baina haren xedea
Behinola kristalik argienezko itsas osasuntsua
Atzera doa, gero eta grisago txiribian, maitantza utzietsiak lez,
Gogoak elkarrekin abandonaturik. Ez du sortzen
Hura ordezkatzeko ezer: bakarrik
Gomutako poloan ñirñirka sengabeko konpasen bat
Hala ibaia, haren zuhaitz gris errukitsuetan
Harrizko, izuzko agonia bat da, hondoratzen dena
Baina orain agerikoak, zurituak dira. Hargatik horiek,
Harri horiek eta haietaz jabetzen den ezereza
Ibaia errepide denean eta burua zuriunea.

Songs for second childhood

XII

Oh, pyre of Bierce and springboard of Hart Crane!*
 I will not die here! He prayed for his ill life.
 This is far from home, by Christ! to die so,
 Too far from love, lane, sanity, wife.
 He trembled. But his hurdling Olympic brain
 Raced with the imponderable athlete doom,
 To be of life once more the bridegroom,
 And ran death down and ran him to defeat...

'But not defeat of such doleful wreathing,'
 Grinned death, (a sardonic loser), 'Of faces
 And English stones, with smiles and flowers, as graces
 My slow prize day at home for stopping breathing,
 Such as all who have been buried under the forget-me-not,
 Will tell you of jovially; and well they should know.'

Bigarren umezaroaren kantak

XII

Helas Bierceren garraldia eta Hart Crane-ren tranpolina!
 Ez naiz hemen zenduko! Otoi egin zuen bere bizitza erituaren alde.
 Hau bai etxetik urruneko lekua, Kristoren izenean!, hala hiltzeko.
 Urrunegi maitasunarengandik, zidorretik, zentzutasunetik, emaztearengandik.
 Dardara egin zuen. Baina bere buru olinpikoak oztopo
 Lasterketa egin zuen atletaren patu ezin esan ahalakoz,
 Ostera ere bizitzaren bikotekide izatera,
 Eta herio pertsekutatu eta pertsekutatu bera porrotera...

"Baina ez gaitzestera halako girlanda minberatutik",
 Herio irribarretsua, (galtzaile sardonikoa), "Aurpegiez
 Eta harri ingelesez, irribarrez eta lorez, grazien antzez
 Etxean egoteko nire sari egun astitsua, arnasaldia etetekoa,
 Oroiloreen azpian lurperatutako guztien antzera,
 Alaitasunaz berba egingo dizute; eta ondo jakingo dukete".

* Lowryk poema sail hau idatzi zuen sasoian, Ambrose Bierce Mexikon desagertu zen eta Hart Crane hantxe ere bere buruaz beste egin zuen.

A young fellow named Crane

There was a young fellow named Crane
Who stood on a bridge in the rain
It wasn't at midnight
He wasn't a bit tight
Nor was he awaiting a Jane.

Crane izeneko adiskide gaztea

Bazen adiskide gazte bat deitua Crane
Euripean egon zena zubi baten
Ez zen gauerdi
Ez zegoen lipar bat hordi
Etza esperoan noiz etorriko harako Jane.

The young man from Oaxaca

There was a young man from Oaxaca
Who dreamed that went to Mintaka
An lived in Orion
(And not in the Lion
The pub where he drank, which was darker.)

Oaxacatar gizon gaztea

Bazen gizon gazte bat Oaxacarra
Amestu zuena bazihoala Mintakara
Eta bizileku zuen Orion
(Eta ez Lion
Edaten zueneko puba, hau baitzen ilunago).

Delirium in Uruapan

—I met a man who suffered more than I
At a street corner. Then another. Yet one more.
After, I found a blackened street of poor
Fiends who had suffered an eternity.
I asked the first man for his company
But he refused; so wondering why
I thought to ask the second man, whose stare
Of perfect contempt held such frigidity
I climbed the blackened street in haste to tell
Those who suffered most, to ask what had been done
To deserve this. But there was a curse in their laugh.
Then I remembered that I was in hell.
Yes — what had I done to earn even the damned's scorn?
... And turned back down the blacker street of self, knowing well enough.

Delirioa Uruapan-en

—Topatu nuen nik baino gehiago sufrituriko gizaki bat
Kale izkina batean. Gero beste bat. Eta beste bat gehiago.
Beluago, idoro nuen kale ilun bete mamu
Zorigabeko, eternitate oso bat sufritutako.
Lehen gizonari eskatu nion konpainia
Baina uko egin zidan; hala, zergatikoaren galdez
Bigarren gizakiari itauntzea gogoetatu nuen, haren so
mesprezu paregabeak begiratzen baitzuen ikaragarri hotz
Arin igo nuen kale ilunduan gora galdetzera
Gehien sufritutakoei, itauntzera zer egin zuten
Hura merezitzeko. Baina maldizio bat zegoen haien barrean.
Gero akordura etorri zitzaidan infernua nengoela.
Bai — zer egin nuen mesprezu madarikatu hau niretzeko?
... Eta itzuli nintzen neure izatearen kale ilunagoan behera, ondo jakitun.

Delirium in Vera Cruz

Where has tenderness gone, he asked the mirror
Of the Biltmore hotel, cuarto 216. Alas,
Can its reflection lean against the glass
Too, wondering where I have gone, into what horror?
Is that it staring at me now with terror
Behind your frail, tilted barrier? Tenderness
Was here, in this very retreat, in this
Place, it form seen, cries heard by you. What error
is here? Am I that forked rashed image?
Is this the ghost of love which you reflected?
Now with a background of tequila, stubs, dirty collars,
Sodium perborate, and a scrawled page
To the dead, telephone disconnected?
... He smashed all the glass in the room. (Bill: \$50)

Delirioa Veracruzen

Nora joan da samurtasuna? itaun egin zion ispiluari
Biltmore hotelekoari, *cuarto* 216an. Ai!
Ba ote, beiraren aurka bermaturik, haren islak
Ere, galdekatzea nora joan naizen, zein izugarritasunen barrura?
Bera ote da niri begira dagoena izututa
Zure langa hauskor etzanaren atzetik? Samurtasuna
Hemen izan zen, bakarleku honetan bertan, honako
Leku honetan, haren itxura ikusi, oihuak entzun zenituen. Ze akats
Dago hemen? Ni ote irudi bikoiztu moldakaitz hura?
Hura ote zuk islaturiko maitasun mamua?
Orain hondo moduan tekila, zigarrokinak, iduneko zikinak,
Perborato sodikoa, eta orri bat zirriborratua
Hildakoentzakoa, telefono deskonektatua?
... Gelako kristal guztiak apurtu zituen. (Faktura: \$50)

The Devil was a gentleman

XII

He wrote for the dead, but the ubiquitous dead
Liked their own wisdom, and preferred their bed;

He wrote for the blind, yet the polygonous blind
Had richer, thicker things just then in mind;

He wrote for the dumb, but the golden-voiced dumb
Were singing their own songs and could not come;

So he wrote for the unborn, since surely, it is said,
At least they're neither dumb, nor blind, nor dead.

Deabrua aitonen semea zen

XII

Hildakoentzat idatzi zuen, baina defuntu nonahikoek
Gustuko zuten beren jakinduria, eta euren ohea gurago;

Itsuentzat idatzi zuen, nahiz eta itsu poligonalek
gauza aberatsagoak, trinkoagoak buruan zerabilten;

Ergelentzat idatzi zuen, ordea urregorritzko ahotseko ergelak
beren kankak abesten eta ezin etorririk zeudela;

Beraz jaio gabeentzat idatzi zuen, nahiz eta segurutik, diotenez,
Azken batean, ez diren ergel, ez itsu, ez hildako.

The Moon in Scandinavia

II

God help those and other who
Have only thought of self,
To whom no simple truth was true,
No swift clear life was life;
An God help those who feel no pain
Yet live by it no less,
Since they invest it soundly in
Our stock of happiness.

Ilargia Eskandinavian

II

Jainkoak esku eman diezaiela halakoei eta besteei
Beren buruaz baino gogoratzen ez direnei,
Egiatasun hutsa egia ez zitzaienei,
Ezta bizitza arin argia ere bizitza;
Eta Jainkoak lagundu diezaiela minik sentitu bakoei
Hargatik gutxiago bizi ez badira ere,
Ondo inbertitu zutenez gero zertan
Eta gure alaitasun horniduran.

After publication of *Under The Volcano*

Success is like some horrible disaster
Worse than your house burning, the sounds of ruination
As the roof tree falls succeeding each other faster
While you stand, the helpless witness of your damnation.

Fame like a drunkard consumes the house of the soul
Exposing that you have worked for only this—
Ah, that I had never known such a treacherous kiss
And had been left in darkness forever to work and fail.

Sumendiaren azpian argitaratu ostean

Arrakasta da galmen ikaragarri halako baten modukoa
Txarragoa zure etxea sutan ikustea baino, aurritzearen hotsak
Teilatuko orriak elkarren atzean gero eta arinago jausi ahalakoak
Hantxe dirauzula, zeure kondenazioaren babesgabeko lekukoa.
Ospeak mozkor baten antzera arimaren etxea du hondatzen
Lanean hargatik bakarrik jardun duzula agerian jartzen—
A, inoiz jaso ez banu halako musu traidorea
Eta iluntasunean betiko geratu banintz lan eta huts egitera.

Epitaph

Malcolm Lowry
Late of the Bowery
His prose was flowery
And often glowery
He lived, nightly, and drank, daily,
And died playing the ukelele.

Epitafioa

Malcom Lowry gizakia
Boweryko hondakina
Prosa lore egina
Eta sarri dirdai fina
Gauetz bizi eta egunez edan
eta ukelelea jo, zentzean.

Malcolm Lowry, poeta

El artículo recoge una selección de poemas de Malcolm Lowry traducidos al euskera a partir de las versiones y fragmentos de poemas recogidos en la antología denominada *The collected Poetry of Malcolm Lowry*, realizada y editada por la profesora Kathleen Scherf en 1992. Las traducciones van acompañadas de una breve introducción que intenta aclarar algunas de las claves de la poética del conocido autor de la novela *Bajo el volcán*, en una tentativa por mostrar las interconexiones e imbricación entre la obra en prosa y los poemas (en su mayoría inéditos en vida del autor), que son más profundas de lo que la fama de Lowry como prosista pueden hacer suponer, dado que en numerosas ocasiones resulta difícil determinar qué fue antes, si determinado poema o un concreto fragmento de prosa, ya que resultan casi idénticos.

Malcolm Lowry, poète

L'article regroupe une sélection de poèmes de Malcolm Lowry traduits en langue basque à partir des versions et fragments de poèmes rassemblés dans l'anthologie intitulée *The collected Poetry of Malcolm Lowry*, réalisée et éditée par le professeur Kathleen Scherf en 1992. Les traductions sont accompagnées d'une courte introduction qui s'efforce de mettre en lumière quelques-unes des clés de la poétique du célèbre auteur du roman *Bajo el volcán*, dans une tentative de démonstration des interconnexions et de l'imbrication entre l'oeuvre en prose et les poèmes (la plupart inédits du vivant de l'auteur), qui sont plus profondes que la réputation de Lowry en tant qu'auteur de prose peut le laisser supposer, puisqu'il s'avère très souvent difficile de déterminer s'il s'est agi d'abord d'un poème déterminé ou d'un fragment concret de poésie, car ils sont, au bout du compte, quasiment identiques.

Malcolm Lowry, poet

This article includes a selection of poems by Malcolm Lowry, translated into Basque based on the versions and fragments of poems included in the anthology entitled *The Collected Poetry of Malcolm Lowry*, compiled and edited by professor Kathleen Scherf in 1992. The translations are accompanied by a brief introduction whose purpose is to clarify some of the key themes that arise in the poetry of the well-known author of the novel *Under the Volcano* in an attempt to show the links and interweaving between his works of prose and his poems (largely unpublished during Lowry's lifetime), which are more profound than Lowry's fame as a prose writer would lead one to expect; it is often difficult to determine which came first, a specific poem or a certain fragment of prose, since they are nearly identical.



Antton Elosegirekin solasean



Gai-jartzailea: KARLOS DEL OLMO

Antton Elosegiren famili giroa euskalduna eta kultua, landua zen, zer oroitzapen duzu haurtzaroaz?

Tolosako kalean jaio eta hazi nintzen, garai hartarako ondo samar bizi zen familia batean, baina giro horretako familietan oso ohikoa ez zen euskaltzaletasuna zegoen gurean. Aita, euskaltzalea zen, abertzalea izan gabe, eta gutxiago karlista; eta aitona ere berdin; jende ikasia zen, hainbat hizkuntza zekiena, eta munduaren ikuspegi aski zabala zuena. Euskal mundua izugarri maite arren, aitak beti erakutsi zigun gauzak erlatibizatzen, eta ez sakralizatzen. Esate baterako, oso fededuna izanik, ezin zuen irentsi jeltzaleen (bizkaitarren) klerikalismoa, eta iseka gairen bat bazegoen gure etxean, karlisten integritasua zen. Gure etxeko giroa oso bitxia zen gaurko ikuspegitik. Alde batetik, zortzi senide izanda, kuartel baten moduko diziplina zegoen: gaueko bederatzietan denok mahaian eserita behar genuen, eta afal ondoren, denok arrosarioa

errezatzen behartuta geunden. Baina era berean, giro liberala zen, eta oso irekia kanpoko gauzetarako. Senide guztiok 15-16 urtetarako Frantziako familia batera bidaltzen gintuen frantsesa ikastera, oso “europarrak” ginela esango nuke, eta beste aldetik, denok egiten genuen egonaldiren bat aitaren lagun baserritarren baten etxean; baserri mundua ez zitzaigun batere arrotza.

– Zer diozu lehenengo ikasketez, frankismoaren garaiko eskolaz?

Franko-katolizismoa zen nabarmena, ni joan nintzen kolegioan, eskolapioetan, behinik behin. Ez ditut horrenbeste gogoratzen *Cara al Solak* eta horrelakoak, baina bai eguneroko meza, etengabeko otoitzak, asteroko aitortza, arrosarioa, urteroko “gogo-jardunak”, aste santua... dena zebilen beldurrezko erlijio itogarri haren inguruan. Eta orduko apaiz eskolapioak, gehienak nafar karlistak, oso sartuta zeukaten etsaien lurraldean zeudela, gu guztiok gorri-

separatista kumeak ginela. Baziren apaiz baztuk euskaldunak, baina ez ziren ausartzen esatera ere; zeharka adierazten ziguten “euskaldunenak” gineno gutarrak zirela...

– **Tolosako kaleko giroa, hogeigarren mendearen erdialdean, nolakoa zen?**

Euskara aldetik galdetzen baduzu, oraingo gazteek uste dezaketen baino askoz ere erdaldunagoa. Tolosako kaleetan ume eta gazteen artean ez zen apenas euskararik entzuten. Adinekoen artean bai, eta inguruko herrietatik merkatura, feriara zetozen baserriarrak, tratanteak eta gainerakoak euskara hutsez aritzen ziren. Baina kaletar gazteon artean euskara zaharren eta baserriarren gauza zen. Eta egia esan, gure etxean, aitarren “euskeraz!” oihuek eraginda euskaraz egiten bagenuen ere, askozaz erosoago sentitzen nintzen erdaraz.

– **Unibertsitate aurreko ikasturtea Donostian egin zenuen. Zer egiten zuen tolosar gazte batek, *cashero* batek, kapitalean?**

Bai, goizeko orduetan trena hartu eta Donostiara, “*Preu*” ikasketak egitera. Han, nahikoa zen Donostiarra ez izatea “*cashero*”-tzat jotzeko. Gogoratzen naiz bazegoela ikaskide bat euskararen izena ere ez zekiena: berarentzat hor nonbaiteko herri txikietan zeukaten hitz egiteko modu bitxi bat besterik ez zen.

– **Zer dela– eta Zuzenbidea ikasi?**

Egia esan behar badizut, Zuzenbidea aukeratzera eraman ninduen gehienbat “justizia sozialaren” ametsa izan zen. Garai hartan mundu katolikoan, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren indar handia hartzen ari zen ideia hori. “Sozializazioaz” ere

hitz egiten hasi zen, eta bestaldetik, gure inguruan langile munduaren mugimendua hasten ari zen. Bertan, tradizio marxistatik zetozen komunistak eta, sozialistak alde batetik, eta, beste aldetik, Eliza katolikoan sortzen ari ziren langile-elkarteak (JOC, HOAC) elkartzen ziren. Gazte progresista batentzat hori zen etorkizuneko bidea. Jakina, askoz gehiago erakartzen ninduen gizarte-eragina izan zezakeen lanbide batek teknikan aritzekoa ziren peritu edo ingeniariak, edo irakaskuntzan aritzeko ziren gainerako ikasketa guztiak baino. Gainera, ospe handia zeukaten garai hartan abokatu laboralistak. Antifrankismoari laguntzeko aukera gutxietakoa zen. Legea erabiltzen jakitea tresna garrantzitsua iruditzen zitzaidan.

– **Noiz piztu zitzaizun euskaltzaleatasuna, noiz hasi zinen euskaraz irakurtzen?**

Euskaltzaleatasuna gure etxeko giroan zegoen, eta gainera, garai hartan euskaraz irakur zitezkeen gauza gehienak gure etxean bazeuden. Oso ondo gogoratzen naiz *Egan* aldizkariak: gure aita *Eganen* harpideduna zen. Eta aurrerago, *Auspoa* bilduma ere bai. *Geroren* ale bat ere bazegoen. Garai hartan ez zegoen bazka handirik euskaraz irakurtzeko, eta *Eganeko* ale bakoitza irentsi egiten nuen. Han ezagutu nituen Peillen, Krutwig, Mirande, Oskillaso, Mitxelena, Zabaleta, Azurmendi, Aresti bera... Euskara berri bat zetorren horien izkribuetan, eta egia esan, itzulpenek liluritzen ninduten gehien. Oso bizia zen une hartan euskara modernizatzeko grina, txokotik irten eta munduko beste hizkuntzek esaten zituzten gauza berak esateko gauza izango zen hizkuntza prestatzea.

– Esan liteke, beraz, euskara batuaren genesia hastapenetatik ezagutu eta bizi izan zenuela.

Bai, euskara batuaren kontuan, hasieratik izan nintzen batuzale. Beharbada ez genuen ondo ulertzen zer zen hizkuntzaren normalizazioa, estandarizazioa eta horiek, baina oso argi zegoen batuaren aldeko kulturak mundu modernora lotzen ninduela, eta era berean, euskararen klasikoekin, hain aberatsa iruditzen zitzaidan *Gerorekin* batez ere.

Euskara batuarena, bestalde, mugimendu gazte eta bizia zen, Euskara txoko batean gorde ordez, gizarte osora zabaldu nahi zuena. Orduan, ez dakit zein urte izango zen, 1963, edo 64, abian jarri ziren alfabetatze kanpainak. Gauza asko ahaztu zaizkit, baina gogoratzen naiz, Rikardo Arregiren ondoan (edo haren atzetik) ibili eta gero, haren arreba Begoña Arregi, Ramon Saizarbitoriaren arreba, Arantxa, eta beste batzuekin jo eta ke ibili ginela alfabetatze-kanpainak zabaltzen.

– 1964. urtean Bartzelonara joan zinen; zertara?

Karrerako lehen hiru urteak Donostian, jesuitekin, egin nituen, nolabaiteko ofizialtasuna zuen erdi akademia batean. Baina hura ez zen unibertsitatea; fraideen kolegioaren segida zen hura. Azkenean, nire etxean dirua ez zegoen soberan, baina lortu nuen aita konbentzitzea eta Bartzelonako Unibertsitatera joatea karrerako azken bi urteak egitera. A zer aldia! Bartzelonako unibertsitate-giroa pil-pilean zegoen. Frankismoaren aurkako mugimenduak han zuen, langile-mugimenduarekin, eta euskal nazionalismoarekin batera, foku garrantzitsu bat. Eta

hango gizartean, kultura katalanaren berpizkunde berria zetorren. Orduan ari ziren sortzen eta indartzen *Nova Cançó* eta beste arte guztietako aire berriak, Euskal Herriko mugimenduan horrenbesteko eragina izango zutenak.

– **Kultura-eragile gertatu zinen, beraz, Bartzelonako giroan...**

Ez ni bereziki, hango estudiante-taldea baizik. Oso talde suspertzailea izan zen. Behingoz, Santa Agedako kantak, Donostiako Danborrada eta horrelakoak baztertu gabe, ekintza “kulturalagoak” sustatzera sartu ginen: euskara-klaseak, txango kulturak, eta bereziki hitzaldiak. Punta-puntako hitzaldi sorta antolatu genuen, orduko izen handienak ekarrita: Jorge Oteiza, Koldo Mitxelena, Basabe, Gabriel Aresti... Une hartan, euskal kontzientzia berri bat esnatzen ari zen eta izugarrizko arrakasta izan zuten, bereziki Oteizak et Arestik. Biak “agitadore” hutsak ziren. Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* poema liburuaren laurogei ale saldu nituen Bartzelonan!

– **Zer dakarkizu gomutara “Zuei, Bartzelonako euskaldun, unibertsitate mutilok” ahapaldiak?**

Gauza asko; izan ere, poema hori, gero Oskorriren kanta bihurtu zena, guri dedikatu zigun Arestik. Horren zirriborroa, hitzaldiaren ondoko bazkarian, paperezko ezpainzapi batean idatzi zuen Arestik. Ni, ondoan nengoela, saiatu nintzen papera lapurtzen baina ohartu egin zen eta ia-ia akabatu ninduen. Beldurgarria zen haserretuz gero. Baina esan behar dut madarikazio hartan bete-betea asmatu zuela Arestik. Izan ere, handik 20 edo 25 urtera bildu ginen

bazkari batean orduan Bartzelonan ikasle izandakoak, eta zer bihurtu ginen baiezta-tzea oso interesgarria izan zen. Denetarik zegoen, baina Arestik bete-beteen asmatu zuen profezia harekin: puta-semerik semee-netako askotxo zegoen gure artean.

– **Zer ekarri zion Gabriel Arestik Antton Elosegiz gazteari? Esan liteke, beraz, poesiarren bideetatik heldu zinela itzulpen idaztaren baranora...**

Ez nuke horrelaxe planteatuko. Baina, Arestiren poesia kitzikagarri handia izan zen alde askotatik. Arestik poemak idazten zituen, baina poesia soziala, hitzaren zentzu zabalenean. Bertan klase-borroka, hizkuntzaren bizi nahia, eta nazioaren sentimendu berri bat aurkitzen nuen, folkloretik urruntzen zena, eta euskarari garrantzi berezia ematen ziona. Bestalde, poema elebidunak zirenez, bi hizkuntzetan “agoantatzen zuen” poesia. Izan ere, banuen halako sentimendu bat, euskarazko poesia edo bertso batzuk itzulezinak zirela, edo hobeto esateko, itzuliz gero lotsagarri geratzen zirela. Arestirengan euskaltasun berri bat aurkitu nuen, baserretik hirirako jauzia egina zuena.

– **Itzulpena deskubritzea: Egan, Xalbador Garmendia...**

Bai, Arestiren poema elebidunez gainera, beste itzulpenek ere izugarri erakartzen ninduten. *Egan* aldizkarian, esate baterako, munduko literatura onenaren zatien itzulpenak irakur zitezkeen, eta egia esan, nahia-go nituen orduan boladan zeuden idazle euskaldun askoren testuak baino. Orixe bat datorkit gogora, esate baterako. Orain beste jarrera batekin irakurri badezaket ere, haren mundua guztiz itxia iruditzen zitzaidan eta

euskara aberatsa bazuen ere, ez ninduen asetzen. Askoz gehiago gozatzen nuen aurretik irakurrita nuen *Gerorekin*. Itzulpenetan leiho bat irekitzen zitzaion euskarari. Itzulpen haietan, mundu berri batean sartzen zen euskara, eta hizkuntzaren baliabide guztiak erabiltzen hasten zen. Mailegatzearen beldurra alde batera utzi, eta klasikoen egitura “latinezaleak” berpizten zituen diskurtso berri harekin oso pozik sentitzen nintzen.

– **Eta bitartean, lehen urratsak politikan ematen hasita: ETako “espainolisten” ondoan ibili zinen. Nolako oroitzapenak dituzu gaur egun, hainbeste urte joanda, garai hartaz?**

Ondoan, ez, barru-barruan ibili nintzen, eta urte luzez, bai ETA-Berrin eta bai haren ondoko erakundeetan (Komunistak, Movimiento Comunista...). Badakizu, garai hartan gazte askok amesten genuen askatasun guztiak ekarriko zituen gizarte berria, iraultza, sozialismoa, komunismoa... Che Guevararen garaiak ziren. Nazioa, aberria ondo zeuden, baina munduko iraultzaren bide gisa, eta Arestik zioen bezala, Banco de Vizcayaren itzalpetik urrun.

– **Euskararen arduraduna izan zinen euskara gehien erabili zuen talde politikoan. Ze arazo mota sortzen zuen garai hartan diskurtso politiko klandestinoak euskaraz sortu beharrak?**

Ez, euskararen arduradun posturik ez zegoen, baina bai, nolabait urte asko geroago Donostiako Udaletxean sartu nintzen bezala, *de facto* ni nintzen euskararen ardurar praktikoa hartzen zuena, baina orduan euskararen erabilera oso sinbolikoa izaten zen. Bazegoen erakunde armatu bat, ez dut

esango zein, bere orrietan eta argitalpenetan, beti erdaraz, “*edición en la lengua del invasor*” jartzen zuena, baina euskarazko ediziorik ez zen inoiz agertzen. Gure taldearen argitalpenetan beti zegoen euskara, eta artikulu mamitsuetan. Beti itzuliak, jakina, eta itzultzailea une batetik aurrera, ni.

– **Itzulpengintzan lehen urratsak apaiz batekin egin omen zituzten...**

Bai, garai hartan inork gutxik zekien euskaraz ondo idazten, apaiz jendetik kanpo; baina eliz jendearentzat gu deabruaren hurrengoak ginen. Hala ere, bazeuden irekiak zirenak ere, nahiz eta orduan isilpean eduki behar zen progresismoa. Ameriketara ibilitako apaiz bat zen, eta handik Cubaren eta Che Guevararen miresle handia bihurtuta etorri zen. Harengana jo genuen, eta klandestinitate handiaren hark egiten zizkigun ETA Berriren lehen itzulpenak. Hura izan nuen maixu: Juan Ignazio Goikoetxea, “Gaztelu”, San Juan de la Cruz-en itzultzailea eta euskal idazle fina. Haren eskutik abiatu nintzen inoiz alde batera utzi ez dudana langintza horretan. Garai hartan erreferente gutxi zeuden politikaz euskaraz aritzeko. Artean sortu gabe zeuden Lur argitaletxea eta Kriseilu bilduma: ia berria zen gaia; eta errepublika edo gerra garaiko testuak, ez genituen ia ezagutzen, eta ezagutzen genuena ez zen onargarria. Argi zegoen euskara batuan aritu behar ginela. Eskerrak *Zeruko Argia* bazegoela, eta *Jakinekoe*k, aleren batzuk atera zituztela...

– **1968-1969 urteetan abokatu Miguel Castellsekin, zer zen legelari moduan lan egitea, *Tribunal de Orden Público* ospe-tsuari aurpegi eman beharra?**

Egia esan, soldaduska bukatu eta gero abokatu gisa hasi nintzenez, ogibidea baino gehiago “tapadera” bat zen hura. Politika-lanean belarrietaraino murgilduta nengibilen, eta lan egiteko astirik ere ez nuen. Orduan, abokatu gazteen artean oso jende fina zegoen. Eta denetan finena, nire ustez, Miguel Castells. Nire hasierako asmoa langileen abokatu izatea bazen ere, “errepresaliatuen” abokatu bihurtu nintzen Castellsekin. Oso lanbide estrategikoa zen kontaktuak izateko, aukera ematen zizun alde batetik bestera ibiltzeko. Eta lan pixka bat ere egin nuen, ez pentsa, *Tribunal de Orden Público* delakoan. Baina, bazegoen hori baino beldurgarriagorik: urte haietan ez dakit zenbat heriotza-zigor ezarri ziren, baina ez TOP famatuak, auzitegi militarrek baizik. Hala ere. Esan behar da epai haiek konmutatu egiten zirela, eta urte haietan ez zutela inor akabatu: hori geroagoko kontua izan zen.

– **Iparraldera ihes egin behar izan zenuen 1969. urtearen amaieran.**

Iparraldera ez, “beste aldera”. Hain zuzen, Aragoiko Pirinioetatik zeharkatu nuen muga, eta laster Bordelen nengoen etxe bila. Kanpoan ibili arren, ez dut hurbiletik ezagutzen Iparraldeko euskaldunen, ez bertakoen, ez Hegoaldetik ihes egindakoen, mundua. Abokatutza ahaztu, eta ofizio guztietatik pasa nintzen Bordelen eta Parisen emandako urteetan. Denetatik egin nuen, txakur zaintzaile, dendari, pintore, ikasle bekadun, espainol-irakasle, elektrizitate ikasi eta elektronikan langile, frantses-irakasle... eta lanorduz kanpo, ekintzaile politikoa zigokion bezala, bilerak, milaka bilera, panfletoak... eta itzulpen politikoa.

– Urtebete egin zenuen euskara-irakurle Jean Haritschelarrekin; nolakoa zen garai hartako giroa Iparraldeko euskaltzaleen artean?

Bai, nire aurretik Txillardegi zegoen postu horretan, eta Frantziatik kanporatu zutenean, Haritschelarrengana aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduen. Frantziako kultura ulertzeko oso adierazgarria da lanbide hura. Izan ere, Bordeleko Unibertsitatean euskara hizkuntza atzerritarra zen, *Institut Iberique* delakoan ematen zena, eta *lecteur de basque* izateko ezinbestekoa zen atzerritarra, ez frantsesa, izatea. Urtebete eman nuen lanbide horretan eta oso aberasgarria izan zen, oso ikasle gutxi nituen arren. Denak Iparraldekoak, hori bai. Garai hartan, *Institut Iberique* horretan bazegoen irrati bat espainieraz emititzen zuena, eta tarte bat, astean behin, eman ziguten euskaraz, gai kulturaleraz, aritzeko. Saio hura, bere apaltasunean, Frantziako estatuan, ofizialki euskaraz egin den lehenetakoa izan zelakoan nago. Baina egia esan, ez nuen beste harremanik izan hango euskaldunekin.

– Eta, gero, Parisa, beste urte batzuetarako. Zuk zeuk esana da: “Hainbat lan, eta milioi bat bilera”. Giro hispano-frantses hartan, Antton Elosegi, gainera, itzultzaile...

Bai, beti tokatu zitzaidan argitalpenetako euskararen arduradun, hots, itzultzaile, izatea. Gure taldea (ETA berri-Komunistak-Movimiento Comunista), gehien gehienok Euskal Herrikoak izan arren, ez zen jada Euskal Herrikoa, Espainia osokoa baizik, baina beti izan genuen indar berezia Euskal Herrian, eta beti eutsi genion espainieraz eta euskaraz argitaraturiko aldizkari

bati. Aitortu beharra daukat hasieran ez zegoela inor euskaraz idazteko gai zenik, eta itzulpen gehienak nireak zirela. Azken urteetan, 1972tik aurrera edo, gauzak aldatu ziren. Nabarmena zen “barruko” jendeak euskara landuagoa zuela, jendea alfabetatu zela, ikastolako irakasleak zeudela.

– 1976. urteko maiatzean Donostiara itzuli zinen, zer topatu zenuen?

Oso mundu desberdina. Nahiz eta ni uneoro Espainiako eta Euskal Herriko gaiez arduratu, eta iheslariekin etengabeko harremana izan, sei urte eta erdi horien bueltan euskal gizartea zeharo aldatuta topatu nuen. Aldaketa izugarria izan zen. Bat-batean denak abertzale eta ezkertiar bilakatuak topatu nituen; Franco lurperatuta zegoen, jakina. Gogoratzen naiz nolako ezustekoa hartu nuen nire eskolakide bat, eskola garaian erdara hutsez hitz egiten zuena, euskaraz zuzendu zitzaidanean. Rosario zirenak Agurtzane eta Luisak Koldo bihurtuta aurkitu nituen. Eta beste gizarte-arloetan ere, aldaketak itzelak ziren. Esate baterako, nik seminarista edo apaiz ezagututako pila bat sotana erantzi eta ezkondu zebilen...

– Berriro ere bizimodu arruntean hasi beharra, bizimodua aurrera atera behar izatea. Zail gertatu zitzaizun?

Aldatzen ohituta nengoen, baina oraingoan haur txiki baten erantzukizuna nuen. Hori bai zela bizimodua aldatzea. Baina ez nuen inoiz egoera larririk pasa. Euskaraz ondotxo jantzita nengoen, erraz topatu nuen lana euskara-irakasle gisa. Garai hartan alde guztietan zabaltzen ziren euskaltegiak, barnetegiak, euskara-mintegiak. Ez nuen, hortaz, langabeziarik ezagutu: hasie-

ran euskaltegi pribatu batean, gero lanbide-
hezkuntzan... euskararen eskaria egunetik
egunera biderkatzen zen.

– Halako batean, 1979an, Antton Elosegi,
itzultzaile funtzionarioa Donostiako Uda-
lean, lehenetako bat, formazio juridikoa
zeukan bakarra. Nolakoak izan ziren hasta-
penak Administrazioan den-dena eginki-
zun zen sasoi hartan?

Legezko ofizialtasunik ez bazuen ere,
1978.ez geroz Eusko Kontseilu Nagusiaren
Aldizkari Ofizialean euskarak egina zuen
bere habiatxoa, baina urte hartan, 1979an,
sartu zen indar pixka batez euskara admi-
nistrazioan, diputazioetako eta udaletako
lehen itzultzaileen eskutik. Eta jakina, inor
ez zegoen prestatuta alor horretan jardute-
ko. Zein sartu ziren itzultzaile? Nire ustez
gehienek ezaugarria zen euskara jator eta
landuaren jabe izatea, eta itzulpen-idazke-
tan nolabaiteko eskarmentua izatea; gehie-
nak fraide edo seminariotik pasatakoak;
baina baziren emakumezkoak ere. Mundu
horretan ni bitxi samarra nintzen, nire tolo-
sar kalekume erdi erdaldundu baten euska-
ra ez zelako batere “jatorra”, baina nik ba-
nuen aspaldiko eskarmentua testu
politikoak itzultzen, eta orduko itzultzaile-
en artean beste inork ez zeukana: presta-
kuntza juridikoa. Gogoratzen naiz nire lan-
kideen euskara dotoreak inbidia handia
ematen zidala, eta zenbait aldiz eztabaidak
izaten genituela nik askoz zuku gehiago ate-
ratzen nielako testu juridiko-administrati-
boei. Nolabait esateko nik hobeto “irakur-
tzen” nituen erdal testuak; hobeto ulertzen
nituen, eta gehiago eskatzen nion zehazta-
sunaren aldetik xede-testuari. Nire lankide-

ek euskara dotoreagoa eta gozoagoa egiten
zuten. Osagarriak ginen, nolabait.

Bestaldetik, pentsa dezakezunez, impro-
bisazio hutsean aritu behar ginen, ordura
arte euskara ez baitzen inoiz (gerrate garai-
ko hilabete mitiko haiek izan ezik) adminis-
trazioan erabili. Udaletako arduradunek ere
ez zekiten nondik hasi. Gu bihurtu ginen
“euskal gaien” arduradun. Berebiziko egin-
kizuna eta oso baliabide murrizak. Pentsa
gure terminologia-iturri bat 1905eko Az-
kueren hiztegia zela. Dena asmatu behar
zen, norberaren irizpideen arabera.

– Garai hartan UZEIn ere jardun zenuen,
lankide. Zer dakarkizu gogora Fernando
Mendizabalen izenak?

Bueno, hasteko lankide hitzaren esa-
nahia argitu beharko dugu. Ni ez naiz inoiz
UZEIkoa, UZEIko langilea, izan, baina bai
laguntzailea. Politika hiztegiarekin hasi, eta
ondoren, bereziki Administrazio eta Zirku-
lazio Hiztegian, eta Zuzenbidekoan. Beti
han sartuta nengoen, etxekoa bezala. Izan
ere, oso gustura aurkitzen nintzen hango
irizpideekin, nahiz eta orain ohartu dena ez
zela urre gorria. Bereziki interesgarria irudi-
tzen zitzaidan euskara espezialitateetara
egokitzeko ahalegina: euskarazko testuetan,
erdarazkoetan irakur zitekeena, gauza bera,
eta ez gutxiago, paratzeko ahalegina. Eta
ahalegin horretan oso emankorra iruditu
zitzaidan beti Fernando Mendizabal. Fernan-
dok, oso euskara aberatsaren jabe izateaz
gainera, oso ondo ezagutzen zituen klasiko-
ak. Izugarri gustatzen zitzaidan nola aurki-
tzen zuen Axularrengan xehetasunez beteta-
ko esaldi luzeak ulargarri eta musika
onekoak egiteko erdua. Haren irakaspen
interesgarriena izan zen ez zegoela arrazoirik

euskaraz ez emateko erdarazko testuetan zeuden ñabardura eta xehetasun guztiak. Askotan errepikatzen zuen ideia zen zapatekin, ez abarkekin, ibiltzeko moduko euskara egin behar zela. Zuzenbide Hiztegiaren zorroztasunak asko zor dio Fernandori. Zuzenbide-ikasketarik ez zuen arren oso itzulpen onak egin zituen, eta garai hartan, terminologiaren “iturri” izango ziren testuak sortzerakoan, berebiziko maisua izan genuen hiztegi hartan lan egin genuen legelariok. Baina niretzat maisu izan direnak aipatzen hasita, Villasante aipatu beharra daukat. Oso lotuta ikusten ditut Fernando Mendizabal eta Villasante. Antzeko jarrera irekia, klasikoen baliabideak aztertzeko era, aprobetxatzeko ahalegina, garbizalekeria zahar eta berritik ihes egiteko grina, euskarari zuku guztia ateratzeko gogo... Uste dut zenbait gauza hobeto egongo lirartekeela Villasanteri kasu gehixeago egingo balitzaio.

– **Lehenengo administrazio itzultzaileekin hamaika bilera, EIZI Eren sorrera... Oso garai proteikoak, nonbait.**

Bai, norbaitek egin beharko luke administrazioko euskararen historiatxo. Nire oroitzapenak oso eskasak dira, baina oso garai mugituak zirela gogoratzen naiz. Udal handietan, diputazioetan, Jaurlearitzan, batbatean euskarari tokia egin behar zitzaioela eta, itzultzaileak hartzeari ekin zioten. Ez zegoen inolako planifikaziorik eta itzultzaile bakoitza bere amaren umea zen. Bakoi-tzak zuen formazioa edo eskarmentua desberdina zen, eta ez zegoen inon irizpideak bateratuko zituen erakunderik. Baina hasieratik harremanetan jarri ginen, bereziki udal itzultzaileok, eta elkarlanean aritzen saiatu ginen. Bilera mordo bat egin genuen,

elkarren esperientziak trukatzeko. Gogoratzen dudanez, udal itzultzaileon artean UZEIk zuen itzal handiena; IVAP, berriz, bere aldetik zebilen. Hainbat bilera eta eztabaida izan genituen IVAPekoek eta udal itzultzaileok, baina elkar ulertze gutxi.

Esan bezala, nire oroimena oso lainotsua da, baina gogoratzen naiz udal itzultzaileok osatzen genuen taldea, itzultzaileen munduan talderik konpaktuena zela, eta guretako asko ibili zela euskal itzultzaileen elkarretea sortzeko hasierako lanetan.

– **1980. urteko aldizkari ofizialean kontrairaultza gertatu zela esan duzu noizbait. Zertan izan zen dena delako iraultza hura?**

Hartzen badituzu 1978an argitaratzen hasi ziren Eusko Kontseilu Nagusiko Aldizkari Ofizialak, ohartuko zara euskara-eredu bat dagoela hasieran, eta beste bat, guztiz desberdina, amaieran, 1980ko otsailaren 1eko aletik aurrera. Hasieran, uste dut Xalbador Garmendia zela itzulpenaren ardura-dun; euskara batuaren munduan “zebilen” euskara mota bat ageri da. Oraingo begiekin ikusita, zalantzez betetako euskara, segurtasunik gabekoa, bila zebilena, erdarazko kontzeptuak euskaraz, nola hala, eman nahi zituena. Euskara molde horrek, mailegura eta kalkora jotzen zuen behar zenean, eta bestaldetik, euskara idatziaren tradizioan, Axularrengan batez ere, bilatzen zituen hain urri geneuzkan hizkuntza baliabideak. Baina aldizkari horren azken alean, batbatean, beste euskara mota bat ageri da, ordu-ra arte inoiz gutxitan ikusia, zurruna, Altubereren arau gogorrenak ere hutsik gabe betetzen zituena, garbizalea, eta ia ulertezina. Ale horretako sintagma bat duzu hauxe: “Euskal Herriko autobidezko bidari-ga-

rraiorako araupeko eta aukerango herri-zerbitzuetarako baimendunak (...)”. Nire ustez, anti-euskararen adibide garbia. Baina okerrena zen nire ustez, hainbat jenderentzat, eta bereziki agintarientzat, euskara-eredu hori aurrekoa baino hobea zela. Hurrengo urteetan, euskararen ofizialtasuna indartzen joan zenean, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, hura izan zen euskara-eredu nagusia eta hamarren bat urtez eredu hori Legebiltzarrean eta IVAPen jaun eta jabe ibili zen. Gero, 1990 aldera desagertuz joan zen, baina ez hainbat eta hainbat ukitu utzi gabe administrazioko euskararen. Nire ustez, eredu-aldaketa horrek izugarritzko atzerapena eragin zion euskara juridiko-administratiboari.

Baina hori euskara juridiko-administratiboaren mundu txiki-txikian, orduan txiki-txikia, gertatu bazen, nik “kontrairaultza” deitzen dudan horren abisu bat besterik ez zen izan, zeren handik bizpahiru urtera, Koldo Mitxelena *Muga* aldizkarian *La irresistible ascensión de la poesía a la ciencia* artikulua historikoa idatzi zuen, eta horrek bai, benetako eragin eta ondorio luzeak izan zituen. UZEIren hiztegi-gintza izan zen Mitxelena-kritika gogorraren gaia. Ez dut esango batere arrazoirik ez zuenik, baina azpimarratu nahi nuke urte horietatik aurrera joera berri batzuk nagusitu zirela terminologia erabiltzen zuten diskurtso-mota guztietan. Eta joera horietan, osagai garrantzitsuak, araua, eta arauaren beldurra, izan ziren. Eta harrigarria bada ere, ez zen inolako kritikarik izan aldizkari ofizialean jaun ahaltsu gisa nagusi zebilen anti-euskara garbinahi harentzat.

– **Partaide izan zineneko UZEIren lehen hiztegi espezializatu haiek zer ekarri zieten euskarari eta itzulpengintzari?**

Izugarritzko mesedea egin zigun orduko itultzaileoi. Beste inon aurkitzerik ez zegoen termino pila batentzako proposamenak eskura jarri zizkigun. Jakina, gerora ikusi eta ikasi dugu erabilitako metodologia ez zela beti onena, baina balorazio orokor bat egiterakoan ondo kontuan hartu behar da proposamenak besterik ez zirenak –hiztegiaren hitzaurrean oso argi esaten zen– erabiltzaile askok azken hitza balira bezala erabili zituela, eta bestaldetik, hasiera-hasieratik etsaigo-jarrera bat nabaritu zela hainbat erakunde ofizialen aldetik. Bazirudien UZEIko hiztegietan zetozen baliokideak kutsatuta zaudela, eta besterik gabe baztertu egin behar zirela. Pentsatzen ari naiz, esate baterako, UZEIk proposatzen zituela *competencial/jurisdicción* bikotearentzat *eskuduntza/eskumen* baliokideak; nire ustez onargarriak, eta ez besteak baino okerragoak; baina ez, EAEko erakunde zentraletan, hori baztertu eta *competencia* = *eskumen* eta *jurisdicción* = *jurisdikzioa* erabiltzen hasi ziren. Edo *recurso* esateko UZEIk proposatutako *belegite*. Bada ez, UZEItik zetorrenez, hobe *errekurtso*. Uste dut ez zela inolako ahaleginik egin batera jokatzeko, eta hainbaten aldetik UZEI “birrindu beharreko etsaia” bailitzan hartu zela.

– **Urte haietan, bi itzulpen joera nagusitu ziren: bat IVAP ingurukoa, bestea UZEIren baranokoa. Hain ziren ezberdinak? Zertan zen auzia, gaurko ikuspegitik aztertuta?**

Bai, itzulpen-joera eta euskara-eredu ere izan ziren, lehen esaten nizun bezala. Udala-

itzultzaileok egiten genuena, nire ustez ulergarria izaten saiatzen zen, baina bestea, nik beti esan izan dut ez zela euskara: ez dut ezagutu inor testu haiek ulertzeko gauza zenik. Baina esan bezala, bilerak egin arren, ez zegoen elkar ulertzetik batzuen eta bestean artean.

1989an IVAPek bultzaturik, niri esperantza handia piztu zidaten Jardunaldi batzuk egin ziren Oñatin. Oso ekarpen interesgarriak egin ziren alde guztietatik, UZEItarren aldetik, IVAPtarren aldetik, baita jurista batzuen aldetik edo Ibon Sarasolaren aldetik ere. Bazirudien bazegoela material aski, eta aitormen aski bateratze aldera jotzeko, baina pixka bat bideratu bazen ere, urte mordo bat pasa beharko zen bateratze-joera gauzatu arte. Bada, Jardunaldi haietan badago komunikazio bat, zoritxarrez oso gazte hil zen IVAPeko langile batena, Juan Ignacio Berasategi, euskara-eredu horiek deskribatzen dituen. Berasategiren deskribapenetik oso ondo gogoratzen dut nola zioen eredu batek garrantzi handiagoa ematen ziola funtzio sinbolikoari, batzuetan ulergarritasunaren eta zehaztasunaren kaltean, eta bestean hirietan egiten zen euskaratik hurbilago ibiltzea, eta, hizkuntzaren garbitasunaren kalte bazen ere, zehaztasun teknikoa bilatzea zirela ezaugarri. Uste dut eztabaida bertsean jarraitzen dugula...

– **Horri guztiorri gutxi iritzi, nonbait, eta Euskal Filologia ikasten hasi zinen, Gasteizen. Zer dela-eta?**

Ikusten duzunez, urte asko neramatzan nola edo hala euskara lantzen, literatura irakurtzen, eta baita hizkuntzalaritzako kontuak lardaskatzen. Udaleko lanak arratsaldeko hiruretan amaitzen zirenez, aukera

ikusi nuen nire burua gehiago janzteko, eta Euskal Filologia ikasteari ekin nion, 1985etik 1989ra. Egia esan nahiko erraz egin nituen bost urteak eta azkenean, gero oso baliotsua izango nuen titulua eskuratu nuen.

– **Zer oroitzen duzu Donostiako Udalean garai haietan izaten ziren osoko bilkurez eta haietan interprete moduan egindako lanaz? Egia da inoiz edo behin, nahita irakurtzen zenituela gauza batzuk txarto ea zinegotziren bat ohartzen ote zen ikustearren, ala legenda urbano horietako bat baino ez da?**

Bat baino gehiago harritu egingo litzateke hasiera hartako (80ko hamarkadaren hasieraz ari naiz) euskararen ezintasuna ikusita. Esan nahi dut euskal hiztunen gaitasun murrizta. Inor gutxi zen gauza administrazioiko gai bati buruz txukun samar aritzeko. Euskaraz egiten ahalegintzen zirenek, ekin-tza sinboliko bat egiten zuten. Gehienetan, Herri Batasuneko zinegotziren bat izaten zen, eta irakurritz, datu zehatzak, kopuruak, zenbakiak eta guzti. Gero, guri tokatzen zitzaigun hura erdaraz ematea. Jakina, esan osteko interpretazioa, 80ko hamarkadaren bukaera arte ez baitzuten bat-bateko interpretaziorako tresneria jarri. Egia da euskarazko testuak irakurtzen zirenean jende guztiak deskonektatu egiten zuela; izan ere, balio sinbolikoa besterik ez baitzuen euskarazko jardunak, dena erdaraz ere errepikatzen zenez. Eta esaten duzun legenda hortaz, ez naiz oso ondo oroitzen. Noizbait bai, itzulpen idatziren bat irakurtzean, lerroak alderantzikatu nituen, batere zentzurik ez zuten testua boteaz, eta inor ere ez zen ohar-

tzen. Uste dut, zorionez, hori ez litzatekeela posible izango gaurko egunean.

– **1991. urtean Donostiako Udala utzi zenuen. Zergatik?**

Lehenik eta behin, beste lan bat aurkitu nuelako. Hori gabe ez nuen utziko, jakina, baina esan beharra daukat nahiko erreta ere banengoela. Erreta edo aspertuta. Hasierako urteetan dena egiteke zegoela, lanak bazuen halako sorkuntza puntu bat, baina 11 urte pasata, Euskararen Patronatuak hartu zituen gure hasierako eginkizun asko, gurea nahiko lan errepikakorra bihurtu zen, eta ni ez naiz betiko funtzionario horietakoa izateko jaino.

– **Zer izan zen zuretzat Unibertsitatera pasatzea, zeure teoriak, eskarmentua eta pentsaera ikasle gazteei azaltzeko aukera izatea?**

Artean banituen 47 urte, baina lan sortzaileagoa izan zitekeela iruditu zitzaidan eta funtzionario izateari utzita ilusio handiz sartu nintzen lanbide berrira, Fernando Mendizabalen eskutik. Fernando izan baitzen nire aurrekaria euskara juridikoa irakasten Zuzenbide Fakultatean. Ordurako Zuzenbide fakultatean ikasketa gehiengehienak euskaraz egiteko aukera zegoen; horrek esan nahi du irakasle mordo bat ari zela eskolak euskaraz ematen, apunteak hizkuntza horretan egiten zirela, eta espezialitate guztietako hizkerak lantzen zirela.

– **Gasteizko Itzulpen Master batean ere aritu izan zinen irakasle 1992. urtearen inguruan. Euskal itzulpengintzaren heldua-roaren hasiera ote?**

Bai, aritu nintzen, doktoretza-ikastaroe-kin batera. Artean ez zegoen oraindik Itzul-

pengintza lizentziatura, baina Euskal Herriko Unibertsitatean Itzulpen Masterra izateak adierazten zuen itzulpena asko garatu zela. Dagoeneko administrazio-itzulpena, itzulpengintzaren atal bat besterik ez zen, eta hainbat jendek, eskarmentu luze batez gainera, teoria eta metodologia kontuak ere menderatzen zituen. Izugarritzko bidea azken 13 urte haietan egindakoa.

– **Euskara Juridikoko Mintegian lan esker-ga eginga zara, ezta?**

EHUko Zuzenbide Fakultatean sartu nintzenean Fernando Mendizabalek, bertako irakasle batzuekin Euskara Juridikoko Ikastaroa antolatzen zuen urtero; beraz, bazegoen aurrekaririk eta bazegoen zuzenbideko euskararen terminologiaz eta diskurtsoaz arduratzen zen irakasle talde bat. Ondoren, niri egokitu zitzaidan hori aurrera eramatea, eta jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak eta neurri batean ikerkuntza-lanak ere aurrera eramatea, irakasleekin, eta ikasle bekadun batzuen laguntzarekin. Hainbat jende pasa da bertatik, eta nire ustez, emankorra izan da lan hori, nahiz eta, idazteko dudak nagikeria legendarioa dela eta, horren berri apenas zabaldu den.

– **Tesian Zuzenbideko Terminologia landu zenuen. Zure ustez, tesiak merezi zuen oihartzuna izan du? Zerk bultzatu zintuen gai hura lantzera?**

Tesiak ez du ia inolako oihartzunik izan; neurri batean nire erruz, hura zabaltzeko lanik ez baitut egin. Jakina da tesiak, salbuespenak salbuespen, oso lan astunak eta irakurgaitzak izaten direla. Baina egilearen esku dago tesian aurkezturiko lanak beste modu batera berridaztea erakargarriagoak

izan daitezten, eta nik ez nuen hori egin. Terminologia gai harturik euskaraz eginda-ko lehen tesia izan zen, eta asko ikasi nuen hura lantzen. Bertan aztertu nituen aldizkari ofizialetako testu mordo bat, eta erabilitako hizkuntz baliabideak xeheki deskribatu nituen. Testu itzuliak zirenez, jatorrizkoak eta euskarazkoak konparatu ahal izan nituen. Terminologia zen gaia, eta testuak ez nituen aztertu osotasunean, baina terminoen itzulpenean erabilitako metodoak nahiko agerian geratzen dira. Uste dut baduela balio bat itzultzaileentzako, batez ere itzulpen juridiko-administratiboan dabilzanentzako. Aprobetxatuko dut esateko tesiaren testu osoa kontsultatu daitekeela Artxikereren webgunean: <http://tel.archives-ouvertes.fr/tel-00103284/fr/>.

– **Espainiako lege nagusiak itzultzen diharduen proiektu batean zabilta. Zertan datza egitasmoa? Beharrezkoa ote da horrelako ahalegin handi bat?**

Bai, horretan nabil, eta lanketa horretan bukatuko dut nire lan profesionala, aurten erretiroa hartuko baitut. Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak Euskal Herriko Unibertsitateari eskatu dion lana da Estatu zentralako hainbat lege, EAEko justizia-administrazioak une honetan beharrezkoen dituenak, itzultzea. Punta-puntako itzultzaileak eta zuzentzaileak ari dira lanean, eta izugarrizko xehetasunez lantzen dira testuak, bai bere testualtasunean, bai kontzeptualizazio juridikoaren aldetik. Uste dut, asko kostata bada ere, testu bikain batzuk egin direla, baina ez nago ziur ahalegina ondo bideratuta egon ote den. Esango nuke hasiera-hasieratik lanaren metodologia orokor bat eta zuzendaritza efiziente bat eskas izan direla.

– **Administrazio itzulpena eta euskara, gaur egungo kaleko euskara... 2008. urte-tik atzera begira eta, ze diferentzia, batik egonez gero, igartzen duzu?**

Izugarrizko alde, eta onerako, zalantzarik gabe. Orain irakurleak badu aukera, beti ez bada ere, euskarazko testu ulergarri bat eskuratzeko. Hasieran, 80ko hamarkadan, euskarazko testua hautatzen zuenak, euskaltzaletasunak bultzatutako ekintza militantea egiten zuen, eta gehienetan, porrotaz bukatzen zen: erdal testura jo behar zuen ulertuko bazuen. Bestalde, nondik zetorren testua, zein joeratako itzultzaileak euskartua zen eta, bestearen antzik ere ez zuen testua aurkituko zuen. Orain, neurri handi batean estandar administratibo bat badago, gutxi gorabeherako batasun bat itzultzaile guztien artean, eta gutxitan jo behar da erdarazko testura. Baina oraindik badago zer hobetua. Eta nire deformazio juridikoa izango da, baina gehienetan aurkitzen dudan akatsa edukiari dagokio: itzulpen askotan joera erredukzionista dago: erdal terminoetan dauden ñabardurak, batzuetan ezinbestekoak, galdu egiten dira euskal testuan, eta arrazoia hamarretik bederatzietan, erdal testua behar bezala ez ulertzeaz gainera, euskarazko “betiko” hitzekin itzultzeko grina horretan dago.

– **Hizkuntza kontuetan legerik egiteko aukerarik izanez gero, zer jarriko zenuke indarrean eta zer indargabetuko? Ala hizkuntzak ez du lege beharrik?**

Jakina legeak beharrezkoak direla, bai hizkuntza bera, corpusa bera, batzeko eta finkatzeko, bai hizkuntzaren estatusa arautzeko, eta hor zalantza handiak ditut gehiago egin ote daitekeen politika demokratiko

baten barruan euskara indartzeko. Izan ere, gero eta etsiago nago euskararen geroa, EAEn behinik behin, gizarte osoaren jarre-raren baitan dagoela, eta ez euskara fabo-ratzeko lege gehiago egitearen baitan. Eta corpusari buruz, Euskaltzaindiak berak egindakoa oro har onuragarria izan dela uste dut, irizpideak beti kontserbadoreegiak izan badira ere. Nik arazo gehiago ikusten dut Euskaltzaindiak arautu gabe utzitako txoko guztiak arau hertsiz bete nahi dituzten beste erakunde horietan, hizkuntzak eskaintzen dizkigun baliabideen artean bat aukeratu eta besteak baztertzea proposatze-ko joera duten horietan.

– **Zer egingo luke Antton Elosegik Euskaltzaindian euskaltzain oso moduan?**

Lan egingo nuke betiere sakoneko irizpide batetik isurtzen diren ondorioak aurre-ra atera zitezen, eta sakoneko irizpide hori izango litzateke euskarak, hiztun eta idazle guztien euskarek eskaintzen dituzten baliabide eta bide guztietatik bat ere gal ez zedin.

– **Zeure iritziz, nora joango da euskara XXI. mendean?**

Nora joango den? Horrek, betiko galde-ra hura, euskara nondik datorren, ekartzen dit gogora. Etorri gabe, hemen zegoen bezala, inora joan gabe hemen geratuko da, eta XXI. mendeari eutsiko dio, nola hala. Baina XXII.era ez naiz hain baikorra, munduko hizkuntzak zein abiadan desagertzen ari diren ikusita. Oso gizarte “intelektualizatua” beharko genuke luzarora mundu globalizatu batean hain funtzionalitate gutxi duen hizkuntza bati eusteko. Baina epe ertain batean, demagun XXI. mende hone-tan, EHko gizartearen zati baten erdi hiz-

kuntza izaten jarrai dezakeelakoan nagoenez, “bizitzaren sentimendu tragikoa” gainditurik, aski dut euskaltzale izaten jarraitzeko.

– **Eta euskal hizkera juridikoa?**

Hemen ez naiz hain baikorra, hogeita hamar urtean egindako bidea ikusita. Lehen asko hobetu dela esaten banizun ere, uste dut hizkera juridikoa ez dela benetan txer-tatu mundu juridikoan, erdaraz funtziona-tzen duen mundua dela, salbuespen adore-tsu batzuk kenduta. Administrazioa, beste gauza bat da. Badira euskaraz, neurri batean bederen, funtzionatzen duten administrazio —txiki— batzuk, eta baita administrazio handietako gune batzuk (kulturari eta hez-kuntzari lotutakoak gehienbat). Horietan euskara benetako lan-hizkuntza da, baina justizia-administrazioan ez dago horrelako-rik, nik dakidala. Eta mundu akademikoan, unibertsitatean lan handia egiten bada ere, antzua izango da epaiketetan, kontratuetan, notario-etxeetan funtzionala ez bada.

– **Eta, *last but not least*, zer behar du, zure aburuz, euskal itzulpengintzak?**

Egia esan, ez dut nire burua nahiko jantzia ikusten iritzi orokor bat emateko, baina bai esan dezaket lan handia egin dela, literatu-raren munduan batez ere, eta lan hori na-barmena dela oraingo eta garai bateko itzul-penak irakurtzean. Uste dut itzulpengintzak parte handia izan duela euskarak orain duen garapen mailan, baina era berean uste dut itzultzaileen artean ere, idazleen artean be-zala, euskararen zuzentasunak gehiegi mar-katzen duela eguneroko jarduna, eta ni ez naiz horretaz libratzen.

Dialogo con Antton Elosegi

Este artículo recoge una entrevista realizada en el ciberespacio con Antton Elosegi, el primer traductor de la administración vasca moderna que tenía formación jurídica especializada cuando se ingresó a la administración como traductor funcionario. A punto de retirarse de la Universidad del País Vasco, de la que ha sido profesor durante al menos veinte años, en la conversación realiza un repaso a su larga y rica biografía, vinculada como la de pocas personas al desarrollo del euskera unificado y a la traducción jurídico-administrativa, sin olvidar el aspecto pedagógico. En sus comienzos, la militancia política y la lingüística fueron de la mano, y le tocó conocer el exilio, durante el que no abandonó la labor traductora. Resultaría difícil encontrar a alguien que esté al tanto como Elosegi de la evolución que ha seguido el lenguaje administrativo en euskera, ya que ha sido tanto protagonista como estudioso de él, primero como traductor en activo y luego como profesor e investigador, ya que, sin ir más lejos, su tesis versó, precisamente, sobre determinados aspectos del mencionado tecnolecto.

Dialogue avec Antton Elosegi

Cet article comporte un entretien réalisé dans le cyberspace avec Antton Elosegi, premier traducteur de l'administration basque moderne, en possession d'une formation juridique spécialisée lorsqu'il fut intégré dans l'administration en tant que traducteur fonctionnaire. A l'heure de prendre sa retraite de l'Université du Pays Basque, où il a enseigné pendant au moins vingt ans, il revient sur sa longue et riche carrière liée, comme peu de carrières le sont, au développement de la langue basque unifiée et à la traduction juridico-administrative, sans en omettre l'aspect pédagogique. A ses débuts, militantisme politique et linguistique se mêlèrent et il connut l'exil, période pendant laquelle il n'abandonna pas pour autant le travail de traducteur. Il eût donc été difficile de trouver quelqu'un qui soit autant au fait de l'évolution qu'a suivie le langage administratif en langue basque, puisqu'il en a été aussi bien le promoteur que l'observateur attentif, d'abord en tant que traducteur en activité et ensuite comme professeur et chercheur, car sans même aller plus loin, sa thèse porta, précisément, sur certains aspects déterminés de la connaissance technologique déjà mentionnée.

Dialogue with Antton Elosegi

This article consists of an interview conducted in cyberspace with Antton Elosegi, the first translator of the modern Basque administration, who specialized in law before joining the administration in the capacity of official translator. About to retire from the University of the Basque Country, where he was a professor for more than twenty years, Elosegi discusses his long and rich life, linked like that of few others to the development of Unified Basque and to legal/administrative translation, as well as to pedagogical considerations. In the early days, when political militancy went hand in hand with linguistics, Elosegi was exiled but did not abandon his work as a translator. It would be difficult to find anyone better informed than Elosegi about the development of administrative language in Basque since he has been both a leading actor and a scholar of it, first as an active translator and then as a professor and researcher; indeed, his dissertation examined specific aspects of the administrative technolect.





Itzulpengintza Iparraldean

EDURNE ALEGRIA

Orain dela hilabete batzuk *Itzulpengintza Iparraldean* izenburuko txosten bat prestatzea eskatu zigun Karlos del Olmok Senez aldizkarirako. Eskaera horri erantzun nahian, 2007ko apirilaren 26an EIZIEren Donostiako bulegoan, mahainguru batean elkartu ginen Iparraldean dihardugun lau itzultzaile, Kattalin Totorika, Fermin Arko-txa, Nahia Zubeldia eta Edurne Alegria, Arantzazu Royorekin batera, gure lana eta ofizioaren berri elkarri emateko.

Aldez aurretik, hizpide-ardatz batzuk finkatu genituen era honetan banatuta:

I. Gaurko egoeraren diagnosis

- a) Iparraldeko itzultzaile eta interpreteen lan-esparrua
- b) Lan hizkuntzak
- c) Prestakuntza
- d) Elkarre profesionalak
- e) Hegoaldeko lan eskaintza

II. Etorkizunari begira

- 1) Diagnostika egin ondoren, beharrak aztertu esparru desberdinak kontuan hartuz.
- 2) Prestakuntza, beharrei egokitu eta batez ere Hegoaldean eskaintzen den formazio akademikoa Iparraldera zabaltzeko, unibertsitateen arteko hitzarmen baten bitartez adibidez.
- 3) EIZIE elkartearen Iparraldeko profesionalen eta erakundeen ezagutarazi.
- 4) Hegoaldean sortzen den frantseseko lan eskaintza bideratzeko baliabideak asmatu.

Bilkura bera hasi aitzin denok bat etorri ginen mugaz bestaldeko euskal itzultzaileen arteko harreman eta ezagutza eskasa aitor-tzerakoan. Gure arteko elkarriketa, finkatu hizpide-ardatzaren haria galdu gabe ere, nahiko askea eta informala izan zen, eta kasu horietan gertatzen den lez, solasgai eta ideia berriak azaldu ziren.

Hasteko, frantses sistemak itzultzaileei eskaintzen dizkien **estatus profesioaletaz** mintzatu ginen, eta estatus horiei dagozkien gizarte segurantzaz. Egoera bat baino gehiago azaldu zen itzultzaileen artean:

- Autonomo gisa lan eginez, hots, profesio liberalizat hartuta, URSSAF-en bidez lortzen dira gizarte segurantzaren onurak, baina kotizazioak garestiak dira.
- AGESEA (*Association pour la Gestion de la Sécurité Sociale des Auteurs*) erakundeak ere itzultzaileak onartzen ditu autore gisa, baldin eta literatur itzulpenean lan egiten dela frogatzen bada. Eta, kasu honetan, ordaindu beharreko kotizazioak arinagoak dira.

Halere, bada Iparraldean bizi eta Gipuzkoan lan egiten duenik, autonomo gisa. Horretarako, lurralde horretan lan-helbide bat ukatea ezinbestekoa da eta, horrez gain, Gipuzkoan bizi den ordezkari bat ere izan behar du Iparraldeko itzultzaileak.

Zergak ordaintzeari dagokionez, gai nahiko korapilotsua da, baina badirudi atzerrian lan egiten duten frantsesek aukatzea dutela zergen ordaintzea Frantzia edo lanean ari diren herrian. Dena dela, gure elkarriketan argi geratu zen gai hau aztertu eta sakondu beharra dagoela.

Horrez gain, Frantzia ere badago Espainiako CEDRO erakundearen parekoa, SOFIA (*Société Française des Intérêts des Auteurs de l'Écrit*) izeneko, idazleen eskubideak kudeatzen dituen (itzultzaileonak barne).

Itzultzaile-elkarteei dagokionean, mahai-inguruan parte hartu genuen denok EIZIEko kideak bagara ere, aitortu behar izan genuen elkarte ezezaguna dela Iparraldean,

eta, beraz, lana egin beharko litzatekeela ga-bezia hori betetzeko.

Gutako inor ez da Frantziako itzultzaile-elkarte bateko kide, hauexek izaki garrantzitsuena:

- *Société Française des Traducteurs* (SFT): itzultzaile profesionalen sindikatu nazionala da, eta horren barnean Iparraldeari dagokion Akitania eskualdeko ordezkari sartzan da.
- *Association des anciens élèves de L'ESIT* (École Supérieure d'Interprètes et de Traducteurs). ESIT eskolako ikasle ohien elkarte.
- *Association des Traducteurs Littéraires de France* (ATLF): literatur itzultzaileen elkarte.
- *Union Nationale des Experts Traducteurs près de la Cour d'Appel* (UNETICA): auzitegietan edo auzitegietarako lan egiten duten itzultzaile eta interpreteen interesak defendatzen dituen elkarte.

Finkatu hizpide-ardatzei jarraituz, itzultzaile eta interpretarien **lan-esparruari** dagokionez, bi arlo hauek aipatu genituen:

Itzulpen juridikoa. Zinpeko itzultzaileen zerrenda (*traducteurs assermentés*) eskura daiteke Baionako Auzitegian, baina euskararako ez dago zinpeko itzultzailearik. Gutako batzuk deitu izan gaituzte lan puntualetarako baina gaurko egunez euskararen erabilpena ez dago bermatuta Frantziako auzitegietan ("*Il n'ont qu'à parler en français*" izan da Baionan jaso dugun erantzuna, hots, "Aski dute frantsesez hitz egitea"). Zernahi gisaz, arlo horretan lan egin dugunok bat etorri ginen oso gaizki ordaindutako lana dela aitortzerakoan.

Itzulpen literarioa. Mahai-inguruan geunden batzuk Iparraldeko eta Frantziako argitaletxeekin lan egin izan dugu, esate baterako, Gatuzain, Quai Rouge, Castor Astral, Atlantica, Pimientos. Esperientziak desberdinak izan arren, esan daiteke oso gutxi itzultzen dela euskaratik frantsesera eta are gutxiago frantsesetik euskarara. Maila horretan, nabaria da itzulpen-politika baten falta Iparraldean.

Aztertu gabe geratu ziren beste lan-esparruak, hala nola, administrazioko beste zerbitzuak, enpresa pribatuak, turismoa eta ostalaritza, hezkuntza mundua, etab.

Lan hizkuntzei eta hizkuntza konbinazioei dagokienez, bildutakoen esperientziaren arabera, Iparraldean sortzen den lan eskaintza, hein handi batean, frantsesetik euskararako itzulpenak dira. Aldiz, Hegoaldetik eskaera alderantzizkoa da, gehien bat euskaratik eta gaztelatik frantsesera. Interpretazioan berriz, bi hizkuntzak era berean erabiltzen dira Iparraldean.

Hari honi jarraituz, **tarifen** gaiari heldu genion. Alde batetik, ohartu ginen zein zaila den batzuetan Frantzian euskara hizkuntza “osotzat” onartua izan dadin, batzuei beti garestiegia irudituko zaie euskarara itzultzeko eskatzen diezun diru-kopurua. Alta, jarrera bestelakoa da beste edozein hizkuntza batekin. Badago halako aurreiritzia, zeinen arabera “mesede egiten” diguten euskarara itzultzean. Argi dago ofizialtasun ezak kalte handia egiten diola euskarari. Horrenbestez, oso garrantzitsua iruditzen zaigu dagokion prestigioa ematea gure hizkuntzari eta tarifa duinak aplikatzea.

Gehienok EIZIEk aipatzen dituen tarifak erabiltzen ditugu, batez ere Hegoalderako lan egiten dugunean. Baina, jakinez Frantziako tarifak Hegoaldekoak baino altuagoak direla, mahai-inguruko partehar-

rtzaileok zera erabaki genuen, alegia, aurretik elkarren artean adostutako tarifak aplikatuko genituela Iparralde eta Frantziatik eskatu lanei, lurralde horietakoei egokitu.

Bestalde, tarifen gaia aipatzerakoan, agerian geratu zen EIZIEren gomendioen arabera euskarari gehitu behar zaion %30a ez dagoela batere argi zein irizpiderekin erabili behar den.

Gure elkarrizketako beste gaien artean **formazioa eta prestakuntza** ere aipatu genuen:

Alde batetik, gaur egun Frantzian ez dago itzultzaile-eskola edo -fakultaterik euskara aintzakotzat hartzen duenik. Euskaratik frantsesera eta alderantzizko itzulpenak hizkuntza-ikasketetan soilik landu daitezke, hots, euskal filologiako ikasketetan, edozein atzerriko hizkuntza-ikasketetan egiten den moduan. Jakin dugunez, CNRS (*Centre National de la Recherche Scientifique*) erakundearen euskararen eta euskal testuen inguruko IKER ikerketa-taldea itzulpen-min-tegi bat sortu nahian dabil Baionako Unibertsitatean.

Bestalde, gure mahaikide baten esperientziaren arabera, Gasteizko itzulpen-ikasketetan ez da lantzen euskaratik frantsesera edo gaztelaniatik frantseserako itzulpena, alderantzizkoa baizik. Gainera, jakina da Hegoaldean azken hamarkadetan frantsesaren irakasteari utzi zaiola ingelesaren mesedetan, horrek ekarri dituen ondorio ezin txarragoekin (horien artean frantsesera itzulitako testuen kalitate eskasa).

Euskaratik frantseserako itzulpena suspertzeko premia agerian geratu zen gure solasaldian. Nahiz eta azken urte hauetan ahalginak egin diren alor horretan, besteak beste euskal literatura beste hizkuntzetan eskaintzeko, frantsesari dagokionez lan asko dago oraindik egiteko. Adibide gisa aipatu

genuen Atxagaren lanak frantsesera, gaztelaniatik itzuliak direla eta ez euskaratik. Egia da Frantzia, oro har, “langues régionales” deritzenak hutsaren hurrengotzat dituztela, eta bertako argitaletxeek ez dutela interesik agertzen gure literaturaren inguruan, baina guri dagokigu haiengana hurbiltzea plangintza bat eginez Euskal Idazleen eta Editoreen Elkarteekin batera. Izen batzuk aipatu ziren, hala nola *La Maison des Écrivains*, *La Maison de la Poésie*, eta Parisen antolatzen diren *Le Salon du Livre* eta *Le Marché de la Poésie*. Frantziatik aparte, Quebec-en ere badago zeregina esparru horretan, eta besteak beste, nazioarteko literatura plazaratzen duen argitaletxe bat aitatu zen *Écrits des Forges*, zeinak urtero *Festival International de la Poésie* antolatzen duen Trois-Rivières hirian.

Halere, ezin utzi aipatu gabe Mari Jose Olaziregik, beste batzuen artean, egindako lana gure literatura munduratzeko helburuarekin, horren lekuko adierazgarria honako interneteko atari, helbide eta web orriak izaki: *Transcript* (Revue européenne, Internet des livres et des lettres), *Susa* argitaletxearen web orria, *basquepoetry.net* (le portail de la poésie basque), *Portail de la littérature basque*, eta EIZIEk kudeatzen duen *basque-literature.com*.

Literaturaz gain, beste alorretan ere euskaratik frantseserako itzulpenaren eskaera urtetik urtera emendatzen doa, batez ere Iparraldean, eta, ondorioz, premiazkoa iruditu zitzaigun Iparraldeko EEP (Euskararen Erakunde Publikoa) eta IKER taldearekin lehenbailehen harremanetan jartzea, beharrak zeintzuk diren zehazki jakiteko, eta formazioa bideratu ahal izateko.

Iparraldean, euskara suspertzeko sortutako erakundeei buruz hitz egiterakoan, azken urteetan zeregin horretan jardun izan duen Euskal Kultur Erakundea (EKE) eta

sortu berria den Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) aipatu genituen. Lehena, urte askotan arduratu da itzulpengintza kudeatzeaz, batez ere administrazio arloan, baina orain EEPren esku utzi du eginkizun hori. Jakinik EEPk herriko-etxeetako euskal teknikariak hautatzen dituela eta horien egin-beharretako bat itzulpena dela, interesgarria iruditu zitzaigun bilera bat egitea erakunde horrekin, haren lana eta helburuak hurbiletik ezagutzeko eta EIZIEren berri emateko (2007ko maiatzaren 30ean elkartu ginen Baionan, eta bilkura horren txostena jarraian erantsi dugu).

Iparraldeko beste erakundeengana jozteaz ere erabaki genuen, Baionako Merkatala eta Industria Ganbarara (*Chambre de Commerce et d'Industrie*) eta Auzitegira, besteak beste, euskal itzulpenari dagokionez haien eskaintza zein den jakiteko. Orduetik bi erakunde horien erantzuna jaso dugu, eta adierazi digute ez bata eta ez besteak ez dutela euskal itzultzailek euren zerrendetan.


Gai honekin lotuta, aipatzekoa deritzogu Akitaniako ARPELek (*Agence Régionale Pour l'Écrit et le Livre*) Hezkuntza Nazionalaren babesarekin antolatzen dituen itzulpen-lantegiak Akitaniako lizeoetan. Tailer edo ikastaldi horietan, ikasleei itzultzailearen ofizioaren berri emateaz gain, ikasten ari diren hizkuntzak lantzen dira literatur itzulpenaren bidez. Aurten, lehenengo aldiz, Baionako Villa-Pia lizeoan esperientzia hau gauzatuko da euskara ikasten ari diren bi taldetako ikasleekin, orotara 6na orduko ikastaldia jasoko baitute. ARPELeko arduradunek euskal itzultzailea aukeratzeko orduan EEPra jo dute.

Ondorioak:

Aldez aurretik aurreikusita genituen puntu denak mahainguru honetan aztertu

eta sakondu ez baditugu ere, aukera izan dugu bederen Iparraldeko itzulpengintzaren egoera hurbilagoetik ezagutzeko, bertako berezitasunak nabarmentzeko eta premiazko diren zenbait eginkizun martxan jartzeko. Lehenik eta behin, lurralde horretako eskal itzulpengintzan dihardugunon errolda osatu, eta EIZIE elkartearen berri eman profesionalei, kontuan izanik EIZIEk Ipa-

rraldean ezagutza ofiziala duela elkarte gisa (Association 1901). Bestalde, itzulpengintzarekin zerikusia duten lurralde horretako erakundeekin harremanak sortu eta EIZIE ezagutarazi. Eta azkenik, euskaratik beste hizkuntzetara garatzen ari den itzulpenekoizpenean frantses hizkuntzari toki handiagoa eman.



EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN IZANDAKO BILKURAREN LABURPENA

Tokia: Baionako Kontseilu Orokorraren egoitza, EEPko bulegoan

Data: 2007ko maiatzaren 30a

Parte hartzaileak: Jean Claude IRIART, EEPren aldetik; Kattalin TOTORIKA eta Eburne ALEGRIA, EIZIEren aldetik

Bilkura hau, Iparraldeko itzulpengintzaren egoera aztertu nahian, 2007ko apirilaren 26an hartutako erabakiaren ondorioa da.

Jakinik EEP gaur egun Iparraldean euskara sustatzeko erakunde ofiziala dela (Frantses Estata, Akitania-eskualdeko Kontseilua, Pirinio-Atlantikoetako Departamentua, Herriarteko Sindikatua eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua biltzen ditu bere baitan), eta euskararen zerikusia duten arlo guztiak lantzen dituela, EIZIEren aldetik harremanetan jarri nahi izan dugu gure Elkartearen berri emateko eta haien zeregina hurbiletik ezagutzeko, batez ere itzulpengintzari dagokionez.

Beraz, bilkura horretan Jean Claude Iriartek Erakundearen azalpenak eman zizkigun eta haren egitasmoak jasotzen dituen *“Hizkuntza Politika”* izeneko txostena aurkeztu zigun.

ITZULPENA

Itzulpengintzari dagokionez, bi alorretan banatzen da eskaera:

- Bata, Erakundearen beraren barne produkzioa: bertan sortzen diren testu, txosten, azalpen etab. euskaraz eta frantsesez plazaratzen direnez, itzulpen lana bertako langileek eginen dute edo, hein handi batean, kanpoko itzultzaile pribatuei bidaltzen diete.
- Bestea, berriz, herriko etxeetan eta eskualdeetan sortzen den ekoizpena da. Behar horiei erantzuteko, momentuz 7 teknikari daude Iparralde osoan. Hauen eginkizuna bikoitza da: alde batetik, animazio funtzioa betetzen dute eta, bestetik, funtzio teknikoa, eta hain zuzen, azken funtzio honetan sartzen da itzulpen-lana. Teknikari hauen soldata erdia EEPk ordaintzen du eta beste erdia tokian tokiko herriko etxeak.

FORMAZIOA

Orain arte, teknikari horiei ez zaie eskatu inongo formazio berezirik itzulpenari dagokionez, hizkuntza gaitasunetik aparte.

Halere, EEPren *“Hizkuntza Politika”* txostenean **Itzulpena** azaltzen da *Euskararen Kalitatea* izeneko kapitulan (10. kapitulua, 2.1) hizkuntza mailaren hobetzeko beharrezkoak diren baliabide eta tresnen artean; horrekin batera hiztegegintza garatu nahi dute baita ere, eta horretan Euskaltzaindiarekin lanean dihardute.

Bestalde, kapitulu bereko 2.4 atalean *Lurraldean dauden beharren arabera formakuntza kalifikatzaileak sortu, hizkuntza mailan hobetzeko eta berezitzeko, Euskal Ikasketak indartuz irakur daiteke*, eta bertan **Itzulpengintza** aipatzen dute. Jean Claudek esan zigunez, bertako uni-bertsitateekin harremanetan jarri nahi dute eta jadanik Perpinyan eta Rennesen egonda dau-

de, itzulpengintzaren formazioari dagokionez Ipar Katalunia eta Bretainiako esperientziak ezagutzeko.

Gure aldetik Hegoaldean eskaintzen den formazioa aipatu genion eta interesgarria irudituzitzaion Gasteizko fakultatearekin harremanetan jartzea. Bestalde, EIZIEk eskaintzen dituen ikastaroak Iparraldekoentzat egokitu genitzakeela esan genion.

ARGITALPENA

Hona zer aurreikusten den “Hizkuntza Politika” txosteneko 6. kapituluan: *Europa, Frantzia, Akitania mailan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan argitalpen alorrean eskumena duten erakundeekin lan harreman iraunkorrek eraiki, laguntza egitura ezberdinekin lotura segurtatuz* (6-1.1). Eta bertan esplizituki aipatzen da: *Euskarazko itzulpengintza lagundu* (6-1.2), honako hau gehituz: *ekoizpen elebidunen eta frantsesezko liburu klasikoan itzulpenen argitalpena lagundu* (6-1.3).

Gai honi buruz Jean Claudek esan zigun itzulpen lanak aurkez daitezkeela beste lanekin batera eta hautatu lanak beren laguntzarekin argitaratzen direla. Arlo honetan beraz, ildo bat ireki daiteke.

Guk “Literatura Unibertsala” bildumaren berri eman genion, eta egitasmo horren barnean autore frantziar klasikoak ere itzultzen direla esan genion.

BESTE ZENBAIT

Bestalde, gure solaskideari aipatu geniolarik EIZIEk azken urte hauetan **Idazlea itzultzaileen lantegian** izeneko antolatzen zuela, adierazi zigun beraiek ere horrelako ekimenak aurreikusita dituztela (itzultzaileei zuzendutako egonaldiak, besteak beste) eta agian zerbait antola genezakeela elkarrekin.

Solaskideak esan zigunez, Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaz garatzeko hitzarmena sinatu dute.

ONDORIOAK

Bilkura interesgarria izan da, batez ere bi erakundeok elkar ezagutu dugulako, haiek ez baitzuten gu baginenik ere. Horrez gain, hauek dira aurrerantzean Iparraldearekin landu ditzakegun arloak:

- *Euskara teknikarien* berri izan dugunez, aurrerantzean pertsona horiekin harremanetan jar gintezke.
- *Formazioaren* aldetik, Gasteizko fakultatearen atak Iparraldeko irekitzeko aukera azaltzen zaigu.
- *Argitalpenaren* mailan gure jarduna Iparraldera hedatzeko aukera dugu.
- *Idazlea eta itzultzaileen arteko lantegia* Iparraldean antola dezakegu.

Bilkura hau hurbilketa bat izan da, eta EEPa prest legoke etorkizunean ere EIZIEko ordezkariarekin elkartzeko.

La traducción en el País Vasco francés

Este artículo da cuenta de los principales asuntos tratados en una reunión celebrada en San Sebastián, el 27 de abril 2007, a iniciativa de la asociación EIZIE. Cuatro traductores de Iparralde (provincias vascas dependientes de la Administración francesa) y una responsable de la asociación tomaron parte en ella, con un doble objetivo: por una parte, conocer la situación actual de la traducción y de los traductores en dicho territorio (ámbitos en los que se ejerce la profesión, lenguas de trabajo, formación y estatus de los profesionales, asociaciones profesionales, oferta de trabajo proveniente de Hegoalde...), y, por otra, una vez realizado el diagnóstico de la situación, determinar cuáles son las necesidades, tanto en los diferentes campos profesionales de la traducción, como en lo referente a la formación de los traductores.

En la mencionada reunión se llegó a una serie de conclusiones, entre las que destacan la necesidad de ahondar en el conocimiento y en las relaciones con los profesionales de ese territorio, y de promover la traducción del euskera al francés y viceversa a ambos lados del Bidasoa. Para ello, resulta imprescindible establecer relaciones con los diversos organismos e instituciones de Iparralde (Office Public de la Langue Basque, IKER, Universidad, etc.), así como dar a conocer la asociación EIZIE a cuantas personas tengan relación, de un modo u otro, con el mundo de la traducción en ese territorio.

La Traduction en Iparralde

Cet article retrace les grandes lignes de la réunion célébrée à Donostia le 27 avril 2007, sur l'initiative de l'association EIZIE. Cette réunion a rassemblé quatre traducteurs d'Iparralde et une responsable de l'association dans un double but : d'une part, avoir un aperçu général de la situation présente de la traduction et des traducteurs dans ce territoire (domaines dans lesquels ce métier est exercé, langues de travail, formation et statut des professionnels, associations professionnelles, offre de travail en provenance d'Hegoalde...) et d'autre part, une fois le diagnostic établi, évaluer les besoins tant dans les différents domaines de la traduction qu'au niveau de la formation des traducteurs.

Un certain nombre de conclusions ont été tirées de cette réunion, visant à approfondir la connaissance et les relations avec les professionnels de ce territoire et à encourager la traduction de l'euskara vers le français et vice versa, tant en Iparralde comme en Hegoalde. Pour ce faire, il s'avère indispensable d'établir des relations avec les organismes et les institutions du nord de la Bidassoa, ayant un rapport avec la traduction (Office Public de la Langue Basque, IKER, Université, etc.), ainsi que d'y faire mieux connaître l'Association des Traducteurs, Correcteurs et Interprètes en langue basque, EIZIE.

Translation in the French Basque Country

This article presents the main points discussed in a meeting held in San Sebastian on April 27, 2007, on the initiative of the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteten Elkarte, EIZIE). Four translators from the French Basque Country (Basque provinces dependent on the French administration) and one representative from EIZIE took part in the discussion, which had a dual purpose: first, to determine the current situation of translation and translators in the French Basque territory (fields in which the profession is practiced, the languages involved, the training and status of professional translators, professional associations, offers of work from the Spanish Basque Country, etc.), and second, once the situation was diagnosed, to determine the needs that exist, both in the various professional fields of translation and in training for translators.

In this meeting, a number of conclusions were drawn, including the need to strengthen knowledge of and relationships with professionals in this area, and to encourage translation from Basque into French and vice versa on both sides of the Bidasoa. For this purpose, it is essential to establish relations with the various organizations and institutions in the French Basque Country (the Office Publique de la Langue Basque, the Basque Text and Language Study Center IKER, the universities, etc.) as well as to make EIZIE known to anyone associated in any way with the world of translation in this region.

Itzulpen-politika euskal administrazioan euskeraren erabilera normalizatzeko planetan

ROBERTO MANJÓN LOZOYA

Administrazio publikoek badute itzulpen-politikarik?

Osakidetzaren Euskera Planak arreta handiz begiratu dio itzulpen-politikari.¹ Euskera Plan hori beste hogeita bederatzita planetan garatzen da, Osakidetza toki eta jarduera-eremu bakoitzaren arabera osatzen duten erakundeek plan bana dutenez gero. Plan horietariko bakoitzak ere berebiziko tokia eskaintzen dio itzulpen-politikari. Horrek guztiak erakusten du Osakidetzaren Euskera Plana diseinatu dugunok gogoan eduki dugula, oso presente eduki ere, hurrengo egia: itzulpen-politika zeinahi era-

kunde publikoren hizkuntza-normalizazioaren giltzarrietatik bat da, erakundeko buruen aitzindarizarekin eta giza baliabideen hornikuntzarekin batera.

Horregatik, erakunde publikoetako normalizazio-planen emaitza urriei erreparatzea baino ez dago susmatzen hasteko itzulpen-politika gehienek ez dutela lortzen literaturaren mundutik ateratzea, alegia, esanak esan eta idatzitakoak idatzita, erakundeek, normalean, ez dutela itzulpen-politika serioirik, edo itzulpen-politika batere. Hortaz, sarriegi, itzulpen-politika aitortuen benetako esangura normalizazio-planen simula-

1. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Euskera Plana. 2005-2011.

kroetan aurkituko dugu. Jakina, simulakroak, gregarioak izanik, familian bizi dira, eta euskera normalizatzeko erakundeen politikak, batzordeak, karguak, agerraldiak, jardunaldiak... dauzkate senidetzat, elkartasunean, elkarren sostengua izanik.

Euskera Planak nonbaitetik heltzen zaizkie erakundeetako agintari eta erdiko mailako arduradunei. Maiz, jasan beharreko zer-bait da, eguraldi txarra bezala, edo izurriteen antzera, ideologiak ordainarazten duen kostua. Bidesari ideologiko edo karguari lotutako horrek, normalizazio-prozesu baten epidermisa, azala, gehien ikusten dena zaintzeko eskatzen du, hala nola derri-gortasun-datak ezartzea, euskera-ikastaroak antolatzea, hizkuntza-eskakizunak egiazta-tzea, errotulazio eta herritarrentzako inprimaki eta informazio-orri elebidunak, aldizkari ofizial eta aldizkari korporatibo nahiz urteko memoria elebidunak..., halako modukoak badira ere. Horretarako nahikoa izaten da nominan deialdiak gestionatzen dituen teknikariren bat edukitzea eta, jakina, itzultzaile-taldetxo bat, funtzionarioez nahiz enpresa pribatuez osatua.

Ez gutxietsi, ordea, horien kostua, ez baita makala. Horregatik, agintari eta arduradun gehienentzat aldi berean itzultzaile eta normalizazioko teknikari den langilea edukitzea da onena, gastua izanik kezka-bide handiagoa euskeraren normalizazioa bera baino. Hizkuntza-normalizazioko teknikari orok ederto daki txitean-pitean itzultzaile bihurtzeko arriskua dela bere jarduera normalizatzaile apalaren gainean esekita dagoen Damoklesen ezpata. Adibide gisa gogora ekarri behar da orain dela hiruzpalau urte Funtzio Publikoak Eusko Jaurlaritzako hainbat normalizazio-teknikari itzultzaile-

tasunaz hibridatzeko saioa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza sutan jarri zuen hura, kontu batere ez eginik Lakuako normalizazio-planaren bigarren ebaluazioak erakusten zuen hizkuntza-normalizazioko teknikari garbien aldetik zegoen urritasunari. Ez dakit zertan geratu zen saio hori, baina agerian utzi zuen Funtzio Publikoko agintarien jarrera.

Hala da. Jarrera giltzarri da gure mundu zaratatsu eta batzuetan arrandiatsu edo handiuste honetan. Arduradunek euskeraren normalizazioaz zenbat eta benetan ardura-tuago, orduan eta gehiago joko dute itzultzaile eta normalizazioko teknikariren arteko lan-eremuak bereiztera, zenbat eta axolagabe eta itxurazaleago izan, orduan eta hibridazio handiagoa. Hortaz, normalizazio-prozesuaren osasunak baditu, besteak beste, adierazle garrantzitsu bi: giza baliabide nahikoak egotea eta baliabide horietan itzulpen-jarduera eta normalizazioko teknikariena behar bezain espezializatuta eta bereizita egotea.

Itzulpengintza aitzakia eta ihesbide erraza bihurtzen da euskera normalizatzeko ahaleginetan azalean geratu nahi duten agintarientzat, edo besterik egin ezin dute-entzat. Gizartean atzera doan hizkuntza baten erabilera bultzatzea lantegi garesti, zail, gatazkatsu eta konplexua da oso, eta zer esanik ez gizartearen arlo formal eta jasoe-tan. Zuhurtasun handiaz gainera, kemen, gogo eta uste osoa jarri behar du agintari batek ogi gogor horri bere hagin zorrotzak sartzeko, eta behin baino gehiagotan prest egon behar du bere etorkizun profesionala kolokan jartzeko. Euskerak Euskal Herrian duen benetako tokia ezagututa, ez da erraza jarrera hori aurkitzea. Hibridazioa da, be-

raz, konponbide eskuragarri bat itsas hondo gabe horretan itozteko arriskuan erori nahi ez duten arduradunentzat.

Baina giza baliabideen hibridazioa ez da itzulpenaren erabilera okerrak ekarritako kalte bakarra. Arazoaren beste agerpen bat, oso eragingarria hau ere, langileen euskera-erabilera itzulpenez ordezkatzeta da. Gehiegitan teorian euskeraz jarduteko gaitasuna duenak ez du horrela jokatzten, eta itzulpenak estaltzen du gabezia. Bide horretatik ere Administrazioaren funtzionamendu sasi- elebidun batera heltzen da, eta zentzugabe bihurtzen dira jarduera elebiduna lortzeko langileek eta diru-kutxa publikoek bermatutako hizkuntza-eskakizunen sistema eta euskera ikasteko deialdiak. Horiek horrela, ematen du sistema horrek eta deialdiek dirua alferrik gastatzeko eta langile batzuei oztopoak jartzeko balio dutela. Begi-bistakoa da Euskeraren erabilera normalizatzeko ahaleginen entzute onari eta harrera sozialari egiten zaien kaltea, baina agintariek erakuts ditzaketen estatistikak sortzez garbi izaten irauten dute. Jakina, jokabide oker horren abiaburua arestian aipatutako bera da: euskeraren erabilera normalizatzeko prozesua ekiditea.

Ez dezagun pentsa, nolana ere, agintarien edo erdiko arduradunen izaera ustezko izaera gaizto baten ondorioa denik. Kargutu gaitzen euskerak gizartean daukan erabilera eta, beraz, pisu sozialarekin ezinezkoa zaiola edozein gobernuri Administrazioa euskeraren normalizazioaz kezkatuta dau den agintari eta arduradunetzuzentzea eta kudeatzea. Administrazio batek ezin du funtzionatu alderdi bateko gogaideekin eta, are gehiago, euskerak daukan presentzia sozialarekin, gobernatzeko bokazioa duen al-

derdi handi batek presentzia eskas horren isla garbia izango du bere afiliatuen artean ere, bestela ez litzateke gehiengo soziala duen alderdi bat. Guztiagatik ere, esandakoa ez da zurigarria, eta herritarrok eskubide osoz kritikatu ditzakegu gobernu, alderdi, agintariok.

Itzulpen-politika baten lerro nagusiak

Esan gabe doa ez dela nire asmoa itzulpen-gintzak normalizazioan duen garrantzia gutxieste, ezta hurrik eman ere, itzulpen-politika egoki baterako dau den zailtasunak azpimarratzea baino. Hasieran esan dudana bezala, itzulpenak berebiziko tokia du euskeraren erabilera suspertzeko lanean, baina normalizazioaren premiei erantzuteko moduan erabiliz gero. Bestela, sendagarri paregabea dena pozoi hilgarri bihurtzen da.

Nire irudiko itzulpenak Administrazioan izan behar duen xedea laburtzearen, zeregin hauek azpimarratuko ditut:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, zerbitzu-hizkuntza idatzi gisa, Administrazioak funtzionamendu arruntaren bidez bermatzeko ezintasuna daukan bitartean.
- Euskeraz eta erderaz lan egin behar duten unitateen funtzionamendua ahalbidetzea, euskeraz edo erderaz zer dokumentu sortu edo landu behar diren aldeztatik zehaztuta badago, nolana ere, normalizazioak langileen lana bikoiztu ez dezan.
- Administrazioaren identitate-euskarrrietan euskeraren agerpena gaztelariaren mailan gutxienez ziurtatzea.

Zein dira identitate-euskarri horiek? Tokian-tokian aldatzen dira, eta denek ez dute pisu bera. Hona hemen adibide gisa:

- Errotuluak, formalak eta informalak (paperezkoak, langileek ordenagailuz eginak), iragarki-tauletan jarritako iragarki, ohar eta edozein informazio ofizial mota, publizitate kartelak, paperean eta abarretan jarritako erakundearen edozein anagrama edo identifikazio-sistema, etiketak, plastikozko poltsak, zigiluak, ordutegia edo antzekoak, erakunde edo zentroaren telefono-gida.
- Intranet eta web-orria.
- Erakundearen memoria, plan estrategikoak, kalitate-planak eta antzekoak.
- Aldizkariak eta liburuak.
- Jardunaldiak, biltzarrak, kanpainak.
- Prentsa- eta irriati-oharrak, artikulua, iragarkiak.
- Erakundearen ekitaldi publikoak (jardunaldi eta biltzarretako aurkezpenak barne).

Agian, onar liteke langileek testu mota batzuk euskeraz eta erderaz lantzea, egunero lana gutxi zamatuta. Testu labur eta errepikakorrei buruz ari naiz, ereduaren arabekoak, inprimakia oinarrian daukatenak, oso estandarizatuta daudenak. Aitzitik, testuak luzeak, aldakorak, sortze-lana eskatzen dutenariok badira, itzultzaileengana jo beharko da, salbuespena ez badira behinik behin.

Aldizkari eta web-orri edo intranetei dagokienez, ondokoa urrezko araua zait: horrelakoetan euskeraren erabilera kualitatiboari lehentasuna ematea eta ez

kuantitatiboari. Oro har, kontua ez da erabateko elebitasuna edo elebitasun mimetikoaren lortzea, euskeraren presentziak, zeinahi ehunekotan dela, euskeraz irakurtzen duenarentzat zerbait gehiago eskaintzea, pizgarri bat, aberaste moduko bat. Hizkuntza gehiago dakienak gehiago eskuratu behar du, gutxiago dakienak zerbait galdu behar du. Horren adibide ona iruditzen zait Gasteizko Udalak, PPrentsa agintaritzaren aldirian behintzat, argitaratu izan duen *Gazeta*. Horregatik, aldizkariari dagokienez, elebitasuna editore-jardueran edo lan-lerroan kokatu behar da, apal eta zuhur jokaturik, hori baita erabilera benetako aurrerapenak erdies-teko bidea. Editoriala edo iritzi-artikulu nagusia izan ezik, euskera izan behar da euskeraz argitaratutako artikuluen jatorrizko hizkuntza, eta, jakina, gaiak interesgarriak. Artikuluak, eskuarki, jatorrizko hizkuntzan argitaratu behar direla uste dut, salbuespenak salbuespen. Itzulpena, normalean, aldizkariaren iritzi artikulu nagusia edo editoriala ele bieran argitaratzeko gorde behar genuke, edo salbuespenez, beste hizkuntza batean idatzitako artikulua guztiz interesgarri bat euskeraz bakarrik emateko.

Bereziki ebitatuko nuke euskerazko artikulua euskerari edo euskal kulturari buruzkoak izatea, sarritan egiten den bezala. Euskera ez da euskerari buruz hitz egiteko espezialitate-hizkuntza, batez ere gai hori lantzeko balio duena, edo guztientzat ez diren gaien komunikabidea.

Web-orriaren kasuan bada aipatu beharreko berezitasun bat. Web-orriak hein batean aldizkari baten modukoak dira, beste neurri batean egunkari baten modukoak eta, azkenik, argitarapenen modukoak. Horien guztien ezaugarriak biltzen dituzte.

Euskarri horretan aldi berean biltzen dira azken orduko berriak, oharrak, unean uneko informazioak, artikuluko sakonak edo espezializatuak eta zabalkunde handikoak, dokumentu ofizialak... Horregatik, irizpide hauek proposatuko nituzke:

- Web-orria euskeraz ere nabigatzeko diseinatuta egon behar da.
- Interes orokorreko berri, ohar eta informazio guztiak euskeraz eta erderaz agertu behar dira. Beraz, itzuli egin behar dira.
- Artikulu espezializatuak, zientifikoak, jatorrizko hizkuntzan argitaratu behar dira (gaztelaniaz, euskeraz, ingelesaz, frantsesaz...). Beraz, web-orriaren arduradunen eginbeharra da horrelako artikuluko euskeraz ere hornitzea.
- Web-orria kudeatzen duten edo hornitzen duten langileek, Administrazio-koak nahiz enpresa pribatu batekoak izan, euskera ondo menderatu behar dute eta, haien artean itzultzaileek ez badago, oso lotura eta harreman estuak izan behar dituzte itzultzaileekin.

Izan ere, administrazio publiko jakin bateko arduradunek euskeraren normalizazioaren aurrean benetan nolako jarrera daukaten jakin nahi badugu, errepara diezaiozun web-orriek eta intranet arduratzen direnak zein irizpiderekin aukeratu edo kontratu dituzten. Euskera maila kontuan hartu ez badute, atera kontuak. Web-orriak euskeraz nekez funtzionatuko du modu duin batean baldin eta elikatzen dutenek euskerazko gaitasun nahikorik ez badute.

Eta zer egin argitarapenekin? Zentzuz jokatu. Iruditzen zait zentzudun izatea

orain arte Administrazioetan sapan egon den maila sinbolikotik maila errealera jaitzean datzala. Eredu espezializatu askotan ez dago euskal jarduerarik ez irakurlekerik ere. Horrelako liburuak itzultzen ibiltzea agian ariketa polita izango da itzultzailearentzat, baina alferrik argitaratuko dira edo, gutxienez, onurak ez du esfortzua berdinduko. Sanitatearen munduan maiz egingo dugu topo egoera horrekin, baina gainerako administrazioetan ere ez da bitxia izango, arlo espezializatu batekoak ez direnean ere. Neuk apaltasunez jokatzeko gomendatuko nuke, eta zabalkunde handiko testuak ez direnean, gaiak irakurle edo erabiltzailekerik izango duen ala ez oso gogoan edukiko nuke zer egin erabakitzerakoan. Ez dut uste mundu guztiaren aurrean euskera dela-eta dirua alferrik gastatzeak mesederik egiten dienik euskaldunei, ez eta itzulpena dela kausa gaztelaniazko testuaren argitarapena luzatzen eta oztopatzen ibiltzeak ere. Are txarrago, ohikoa denez, gainera, euskal testua kalitate txikikoa edo ulergaitza bada.

Antolamenduzko neurri jakinak aipatu behar ditugu itzulpen-politika egoki baten osagaiak zerrendatzen amaitzeko, ezinbestekoa baita zehaztea Erakundearen zer, nork, noiz eta nola itzuli behar den erabakitzeke ardurak daukaten organoak. Oso argi egon behar dira erabakiak hartu eta itzulpenak egin edo kudeatu behar dituztenen arteko fluxuak eta prozedurak. Ez dago planik argitzen ez badira ardurak, erantzukizunak, xedeak, egutegiak, eta horren guztiaren komunikazioa. Horrekin batera itzulpen-politika arian-arian ezartzeko estrategia definitu eta abiarazi behar da.

Itzulpengintzaren mugak Administrazioan

Aurreko atalean postura egin dugu itzulpen-gai apalak aukeratzearen alde, herritarren zerbitzura dauden dokumentuei eta zabalkunde-mailako testuei guztizko lehenetasuna emanda. Euskeraren normalizazioak bere egoeraren araberako neurriak behar ditu, handinahikeriak alde batera utzita. Alferrekoa, eta kaltegarria izan daiteke, euskeraren erabilerak ez dituen funtzioen edo estatusaren mailan testuak sortu nahi izatea. Euskal hiztunen herriari ez badagokio hiztun-herrien arteko lehiaketan lehenengo kategorian jokatzeko bigarrenean edo hirugarrenean jokatu beharko du. Agian, funtzio sozial jasoko testu batzuk ez dira kaltegarriak izango eta, beraz, ezta maila horretako itzulpen-jarduera bat ere, baldin eta argi badaukagu gehienbat funtzio sinbolikoa betetzen dutela, hizkuntzaren nolabaiteko marketinga egitearren. Ordea, euskerak funtzio apalagoko testuetan hartzen du arnas, ez Administrazioaren aldizkari ofizialetako testuetan, ez legetan, ez arkitektura-tratatuetan, ez neurokirurgiakoetan.

Denok ondo dakigu hizkuntza instituzio sozial bat dela eta gizabanakoaren mailako berezitasunak idiolekto direla, ez dialekto ez soziolekto. Beraz, atzean talde-hizkera bat ez daukan itzultzaile trebeak, maisu lana eginez, gai jakin baten gaineko idiolekto bat sortuko du, ez espezialitateko hizkera bat, eta ez die espezialistei balioko.

Espezialistek sortu behar dute beren espezialitate hizkera, dagokien arloan arituz. Linguisten laguntza ere jaso dezakete hizkera horren corpusa apur bat moldatzeko, baina haiena izan behar da ekimena eta azken erabakia. Espezialisten soziolektoa hizkuntzaren profesional edo zaindariei atsegin ez bazaie, ez dago arazo batere, mundua ez baita egunero birsortzen inori gustua emateko. Robert L. Cooper-ek dioenez,² hizkuntzaren funtzioak aldeztatik aldatu eziz, nekez izango du arrakasta hizkuntzaren plangintza formalak. Beraz, erabilera lehenago eta corpusaren normalizazioa geroxeago. Hizkera teknikoaren inguruko hamaika adibidek erakusten dute baieztapen horren egia. Orobat, Cooper-en eskuetik esan dezakegu profesionalak nekez ikasiko dutela hizkera jakin bat nolabaiteko probetxurik ateratzen ez badute.

Azken finean, ildo beretik ari nintzen aldizkari honetan esan nuenean euskera kultur hizkuntzekin lehiatzeko behar beste umotuta ez dagoela,³ hizkuntzaren profesionalen eta zaindarien ahalegin guztiengatik ere. Harako hartan, Pello Esnal eta Zubimendiren saioei⁴ balio pixka bat kenduz azpimarratu nuen, hizkuntza garatu eta funtzio berrietan baliagarri izateko, onuragarriagoa dela gizarte honetan zerbait esateko daukatenei hitza ematea euskal altxorren bilatzen ibiltzea baino, edo herejehizaren ordez gizarte-sentikortasuna sendotzea.

2. *La planificación lingüística y el cambio social*, Cambridge University, 1997, *Conclusiones* atala.

3. "Medikuntzako testuetako zenbait okerbide eta balizko aje", *Senez*, 20 zk., 1998, 67-84 or.

4. Zubimendi, Jose Ramon; Esnal, Pello, *Idazketa-liburua*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz, 1993.

Zoritzarrez, Euskal Herrian, diglosia gaitzetsiz, jende gehiegi tematzen da inguruko hizkuntzen maila berean lehiatzen. Normaliza daiteke euskeraren erabilera UEMAko udalerrri euskaldun txikiez kanpoko administrazioetan? Eta Unibertsitatean? Eta goimailako jarduera profesionaletan? Hori da Euskal hiztun-herriak gaur egun munduan eduki dezakeen tokia? Eta etorkizunean?

Administrazio Orokorren bigarrenaren plangintzaldia ebaluatzeko txostenean arrazoi nagusi hauek ematen zituzten normalizazio-prozesuaren hutsak azaltzeko:

- Giza baliabide eskasak
- Baliabide ekonomikoen falta
- Agintarien inplikazio eskasa
- Zenbait derrigortasun-data txarto ezarrita, beraz, hutsak lehentasunak zehazterakoan.

Nik, gutxienez, beste akats edo errore pare bat ikusten dut: bata, langileen interesa eta inplikazioa, bestea, gehiegizko helburuak, lehentasun okerrak. Langileen partaidetzaren arazoa ez da konpontzen ohiko errazkeria esanez: “aginduak betetzeko daude; beraz, plangintzaren helburuei men egin eta kito”. Artikulu honen gaiaren haritik, berriz, bigarren errorea da gehien interesatzen zaidana. Hizkuntza-politikako organoek beti baldintza bi ezinbestekotzat jo izan dituzte unitate administratibo batean euskeraren erabilera normalizatzeko: langileek hizkuntzaren ezagutza-maila egokia edukitzea eta maila hori daukatenak dentsitate

egokian egotea. Ez nator bat, baldintza soziala falta delako. Administrazioaren normalizazio-prozesua testuinguru sozialean kokatu behar da. Horrela, beste baldintza bat, gutxienez, bete behar da nire irudiko: Euskeraren erabilera nahiko dentsitate izatea administrazio jardunari sostengua ematen dioten sare sozialetan.

Kontuan hartu behar da jarduera administratiboa, Administrazioa gizartearen goiegitura bat denez, jarduera anitzen topalekua dela eta, hein handi batean, jarduera ugari eta alde anitzeko horiek eusten eta osatzen dutela. Jarduera administratiboa behin eta berriz baldintzatuko dute batzuetan inguruan eta besteetan barruan dituen sare ekonomikoak, politikoak, kulturalak, eta gainerako sare administratiboak. Bestela, esfortzu guztiak alferrik izango dira. Baldintza hori bete ezik, kaltegarriak izan daitezke hizkuntza-normalizaziorantz ahalegin handiz emandako itxurazko aurrerapausoak. Hala da; etengabeko esfortzuak egin beharko dira sasi lorpen horiei eusteko, eta handik urte gutxira, ahaleginok laxatu bezain pronto, ziur aski, behera egingo du esfortzu handiz eraikitako etxeak.⁵

Tokian-tokian erabaki beharko da Administrazioa euskaldundu behar den, noraino egin behar den eta noraino utzi behar den erabilera sinboliko batean. Horren arabera erabaki beharko da itzulpenak izan behar duen tokia. Okerra iruditzen zait euskeraren erabilera normalizatzeko ezintasuna itzulpenaren bidez estali nahi izatea. Erabi-

5. Argi dago ikuspegi hau Joshua Fishmanen ekarpenetan oinarrituta dagoela, nire interpretazioaren arabera noski, liburu honean hizkuntzaren egoera kontuan hartuta proposatzen dituen helburu eta lehentasunei jarraituta: *Reversing language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Multilingual Matters, 1991.

leraren norainokoa erabaki ondoren, Administrazio barruko egoera diglosiko bati eus-teko diseinatu beharko da itzulpen-politika, zehaztuz zer premiari erantzun behar dion, zer lehenatasun ezarri behar duen, gizartea-

ren harreman-sare konplexu eta hedatueta-tik beti erderaz heltzen eta helduko diren testuekin nola jokatu beharko den goi mailako Administrazioan euskeraz, zentzuzkoa den neurrian, jarduteko.



La política de traducción en los planes de normalización del euskera de la administración vasca

La política de traducción es una de las claves de la normalización del uso del euskera en la Administración Vasca pero, desgraciadamente, la política real no coincide con la recogida oficialmente en los planes, que a menudo no pasa de ser una declaración de intenciones. Una prueba clara de la falta de voluntad de aplicar una política sería la extendida tendencia de los órganos administrativos a confundir los ámbitos propios del uso del euskera con los de la traducción, bien hibridando el puesto de técnico de normalización con funciones de traductor, bien sustituyendo el uso del euskera de los trabajadores por la labor del traductor.

Otro camino por el que la traducción se convierte en obstáculo y no en instrumento dinamizador de la normalización del euskera procede de un diagnóstico erróneo de la situación de la lengua y de la infravaloración de su contexto social, lo que conduce a una visión exclusivamente negativa de la diglosia y, por consiguiente, a estrategias inadecuadas. Es no sólo inútil sino también perjudicial empeñarse en la producción de textos de ámbitos en los que la lengua no tiene presencia funcional. En la situación diglósica del euskera, la política de traducción debe proponer este instrumento principalmente como sostén de una débil y vacilante producción textual, y limitar mucho las aventuras más allá de los ámbitos en donde la comunidad vasca cuenta con cierta red social, porque la normalización del corpus no puede preceder a la extensión funcional de la lengua.

Ciertamente, el proceso de normalización del euskera en las administraciones públicas está limitado en cada uno de sus ámbitos territoriales por una condición previa: la existencia de un umbral o densidad suficiente de uso social del euskera en las redes sociales que soportan la actividad administrativa. La razón parece evidente: dado que las estructuras administrativas se sitúan sobre las retículas superiores de la red social, en gran medida su soporte está constituido por el cruce de las múltiples y variadas actividades que la conforman.

La politique de traduction dans les plans de normalisation de la langue basque utilisée dans l'administration basque

La politique de traduction est l'une des clés de la normalisation de l'usage de la langue basque dans l'Administration Basque. Malheureusement, la politique réelle ne coïncide pas avec celle qui affichée dans les plans qui, bien souvent, ne franchit pas le cap de la déclaration d'intentions. Une preuve claire de l'absence de volonté d'appliquer une politique sérieuse de normalisation est la tendance très répandue des organismes administratifs à confondre les domaines propres à l'usage de la langue basque avec ceux de la traduction, soit en mélangeant le poste de technicien de normalisation avec les fonctions de traducteur, soit en remplaçant l'usage de la langue basque des employés par le travail du traducteur.

L'autre voie par laquelle la traduction se transforme en obstacle et non en instrument susceptible de dynamiser la normalisation de la langue basque provient d'un diagnostic erroné de la situation de la langue et de la sous-évaluation de son contexte social, ce qui conduit à une vision exclusivement négative de la diglossie et par conséquent à des stratégies inadaptées. Il est non seulement inutile, mais également préjudiciable, de s'entêter à produire des textes dans des domaines où la langue n'a pas de présence fonctionnelle. Dans la situation diglossique de la langue basque, la politique de traduction doit proposer cet instrument essentiellement comme soutien d'une production textuelle faible et hésitante, et limiter considérablement les aventures au-delà des domaines dans lesquels la communauté basque compte un certain tissu social, parce que la normalisation du corpus ne peut précéder l'extension fonctionnelle de la langue.

Il est certain que le processus de normalisation de la langue basque dans les administrations publiques est limité, sur leurs territoires respectifs, par une condition préalable : l'existence d'un seuil ou d'une densité suffisante d'usage social de la langue basque dans les réseaux sociaux sur lesquels repose l'activité administrative. La raison en paraît évidente : étant donné que les structures administratives se situent sur les réseaux supérieurs du tissu social, leur support est constitué dans une large mesure par le croisement des activités multiples et variées qui le constituent.

The politics of translation in the plans for the standardization of the Basque language of the Basque Administration

The politics of translation is one of the key points of the standardization of the use of Basque in the Basque Administration but unfortunately, actual politics are not consistent with those set out officially in the plans, which often seem to be nothing but a declaration of intentions. One clear proof of the lack of will to enforce a serious policy of standardization is the long-standing tendency of the administrative branches to confuse the spheres of the use of Basque with those of translation, either hybridizing the job of standardization manager with that of translator, or substituting the use of Basque by workers for the work of the translator.

Another way in which translation acts as an obstacle rather than a dynamic instrument of Basque standardization stems from a mistaken diagnosis of the situation of the language and from undervaluing its social context; this leads to an exclusively negative vision of the existing diglossia and as a result, to inadequate strategies. It is not only futile but also detrimental to insist on the production of texts for environments in which the language has no functional presence. Given the diglossic situation of Basque, translation policy should propound standardization primarily to shore up a weak and hesitant production of texts, and limit to a large extent explorations beyond the areas in which the Basque community has a certain social network; standardization can not precede the functional extension of the language.

Clearly, the process of standardization of Basque in the various administrative branches is limited in each of its territories by a pre-existing condition: it is essential to obtain a certain threshold or sufficient density of the social use of Basque in the social networks that support administrative activity. The reason for this seems obvious: given that the administrative structures stand on the higher networks of the social network, their support for the most part depends on the multiple and varied activities that form the social network.



Lengoaia, terminologia eta berriketa

JUAN GARZIA

Aspaldi samarrekoa da erauntsia, baina ez du atertzeko seinalerik: *lengoaia* informatikako terminoa delako porruaz ari naiz. Ez da, inondik inora, kasu bakarra terminologia-kontutzat pasatu nahi dena hala ez dena, baina bai, beharbada, nabarmenetariko, eta horregatik jorratu nahi dut hemen, gaizki-ulertu eta tirabira-iturri orokor baten adibidetzat.

Piperra piper, bada, ez bedi uler saltsa honek bereziki hitz horrekin edo, are gutxiago, hitz horren erabiltzaile jakin batzuekin duenik auzia. Behin esanda nahikoa delako esperantzan: terminologiaren esparru espezifikoa garbi (samar) bereiztea eta bereizaraztea du jomuga nire solas honek, etsixea egonik ere entzuteko belarria duen askok ez duela zarata edo arrantza baino entzungo.

Niretzat azken tanta zena (tu *quoque...*), Alfontso Mujikak bota zuen 2005eko abenduko *Senezen*, lehenago ere

Erabili.com-en irakurria geniona (eta jatorriz Mendebalde Kultura Alkartean aurkeztua, honako izenburu honekin: «*Hiztegi Batua*» eta *terminologia zientifiko-teknikoa: elkarguneak, estuguneak eta gurutzaguneak*).

Anekdotikoa irudi lezakeen baina fakultate osoak matxinatzeko ikur gerta daitekeen kontu bat auzi: informatikako terminoa ote «lengoaia» hitza? Ondo ulertzen dut espezialistei kostatzea bereizten hizkuntza orokorrari dagozkion ohitura-kontuak eta terminologikoak, baina harriturik eta ikaraturik geratu nintzen Alfontso Mujikak ere zaku berean sartzen zituela hor. Hona nire arrazoi argi eta garbiak:

- 1) Hiztegi Batuak ederki biltzen duenez, «lengoaia» ez da «hizkuntza»ren sinonimo zaharkitua baino.
- 2) Kontzeptu hori hizkuntza orokorrekoa da, eta ez, alajaina, espezialitate batekoa, informatika izan zein hizkuntzalaritza.

- 3) Albo-erdaretako hizkuntza orokorrean, badira bi hitz (*lengua/lenguaje, langue/langage*), izatez –adiera batean– sinonimo, baina, erabilera askotan (ez bereziki, eta are gutxiago soilik, informatikan), bikote bakoitzeko bigarrena baino ez da erabiltzen. Hori, bistan da, erdaron berezitasuna da, eta ez luke izan behar euskal informatikarena.
- 4) Erdaron erdua kalkatzea egokitzen joko balitz (nire iritzia, Euskaltzaindiaren eta, ustez, euskararen beraren aurka), hitzun guztiontzat litzateke egoki –eta ez espezialitate jakin batekoentzat– «hizkuntza» hitz bakarra dugun lekuan bi hitz bereiztea. Eta, bide batez, ez litzateke aukera bakarra *hizkuntza/lengoaia* bikotea, arbitrarioa bailitzateke kontua, eta berdin balioko bailuke, esate baterako, *mintzair/hizkuntza* bikoteak. Jakina, halako iraultza egin eta erabaki hori harturik ere, ez litzateke aldatuko hemen diodanaren mamia: kontua ez da gorkio terminologiari, lexiko orokorrari baizik.

Jakinaren gainean jarria nuen Alfontso ezen, teman (edo deman) jarraituz gero, nik ere banuela neure botatzekoa, eta azkenean bota ere egingo nuela. Bion artean, aise argituak ditugu kontutxook, eta horregatik ez nuen bere garaian argitaratu artikulu hau, baina geroztik ere ia egunero egokitzen zait, neure lanagatik, auzi berean katramilatzea espezialistekin, eta horregatik heldu diot berriro gaiari. Apur bat orrazturik, bada, hor doa orduan argitaratzera eman ez nuen alea.

Hala ere, badut gauza pare bat aurretik esan beharra.

Batetik, nire honen mamia ez doa bereziki artikulugilearen laprastada horren aurka (ez legoke berez esan beharrik, baina badaezpada); aitzitik, ikuspegi (edo, okerrago, ikuspegirik gabeko jarrera) orokor baten akats errotikoa agerian jartzea dut helburu: zentzu horretan, aitzakia hutsa dut haren aipamena.

Bestetik, oso estimutan daukat Alfontso eta Alfontsoaren lana, eta oso bat etorri ohi naiz berarekin, topo egiten dugun iritzileku guztietan. Eta delako artikulua ere ez da salbuespen: arrazoizko, jakingarri eta jaramon egitekoa deritzot ia guztian, eta, nola ez, terminologiaren berezitasunak guztiok kontuan hartzekoak direla dioten horretan.

Bego horrenbestean, bada, *guzti* zabal horrena, eta gatozen orain beste *ia* horri dagokion xehetasunera.

Bat nentorke auzigai dudun puntutxo horretan ere, baldin eta *lengoaia* hitzaz ez eta, esate baterako, *performantzia* hitzaz ari bagina. Kasu horretan, nekez justifikatuko litzateke espezializazio-hizkera jakinean halako terminoa erabat erabiltzen dutenei ez Euskaltzaindiak ez inork aitzakia jartzea.

Besteok beste, ordea, *lengoaia* dugu auzigai (zehazkiago: *hizkuntza/lengoaia* sasio-posizioa), eta ez *performantzia*, *ebasketa* edo *potentzia*. Hots, hori baita nahaste guztiaren erroa, hitz arrunt bat, eta ez, inondik inora ere, termino bat. (Ez nuke nik negatiboki frogatu behar ez dela terminoa, baizik eta badela diotenen positiboki hala dela, baina tira: zezen makurragoak ere egokitu izan zaizkigu).

Hori ulertuz gero, berez datoz ondorioak: 1) hizkuntzaren ondare erkidekoa da

auzigaia, ez baita inolako terminorik hor, eta, beraz, 2) hizkuntzari buruzko irizpide orokorretara egokitu behar du.

Ikus dezagun, bada, nahiz begien bista-koa den, zein diren, hitzaren zentzu espezi-fikoan, termino bat termino dela esateko gutxieneko baldintzak. Kasu honetan, zehazkiago, *hizkuntzallengoaia* oposizioa terminologikoa denentz ebatzea da kontua.

Funtsezkoena: definizioz, espezializazio-hizkera jakin bati dagokio termino (edo termino-bereizkuntza) bakoitza; hango eske-ma-kontzeptualean txertaturik dago, eta ongi definituriko kontzeptu berezi zehatz bat modu unibokoan izendatzeko erabiltzen da. Hartarako, hizkuntza arruntetik aldentzen da espezializazio-hizkera, dela hitz berriak eratuz, dela hitz arruntei arbitrarioki esanahi bereziak esleituz.

Bigarren bide horren adibide tipikoa dugu gaztelaniazko *robot/hurto* bereizkuntza: berezko sinonimoei esanahi desberdinak (kontzeptu desberdinei dagozkienak) esleitu zaizkie zuzenbideko hizkeran. Arbitrariotasun beraz joka daiteke noski euskaraz, geure sinonimoak baliatuz: *lapurre-talebasketa*, esate baterako.

Aldiz, hizkera berean “sin perjuicio de” erabiltzen denean, *perjuicio* hori ez da termino bat, hizkera horretan usadiozko den fraseologia estereotipatuaren parte baizik: hizkuntza *arrunta* –edo, hobe, *orokorra*– modu berezi edo *bitxian* erabilia. (Zehazkiago, *sin perjuicio de* esamoldea osoa da fraseologia-unitatea).

Gure kasuan, zentzugabekeria da esatea bi kontzeptu desberdini dagozkiela, esate baterako, *makina-hizkuntza* eta *makina-lengoaia*. Horretaraino, uste dut denok gara ados.

Eta arinkeria galanta da, berriz, hizkuntzak –hizkera hori barnean hartzen duen hizkuntzak, euskara izan zein ingelesa– berezko duen anbiguotasun bat *konpontzeko* uste edo aitzakian, arbitrarioki bihurritzea hizkuntza hori. Hots, terminogintzarako egokia izan litekeen prozedura erabiltzea terminogintzatik kanpo. (Alde batera utziko dugu, oraingoz, albo-erdarek bi hitz dituztelako argudio esplizitu nahiz implizitu).

Arinkeria hori disimulatzeke, “alor horretako aditu guztiek hala erabili dute beti” esatea, berriz (bego horretan *beti* eta *guzti* horien hanpadura), ilarrak eta zilarrak zaku berean sartzea da. Fraseologia eta terminologia nahastea, alegia: hizkuntza-ohitura hutsa dena kontzeptu-sistemaren eskakizun terminologikoekin berdindu nahi izatea.

Halako argudioek beren balioa izan dezakete (fraseologia aldatzeak dakarkeen kostua, erabiltzaileen inertzia, eta abar), baina beste maila batekoak dira, eta berezi egin behar dira funtsezko auzitik: erabakia baldintzatu lezakete, beharbada, baina ez dute bihurtuko termino ez dena termino.

Terminologia espezifikoa ez dagokiona (gauzak sinpletuz: hiztegi orokorretan espezializazio-marka berezirik gabe ageri dena) hizkuntza-ondare orokorrari dagokio, eta ez dago erabiltzaile jakin baten edo besteren esku hari buruzko erabakimena.

Oraindik oraingo aldaketa erantzuntsu batzuk adibidetzat aipatzearren: arrazoi logistikoengatik, aukeratu zitekeen, esate baterako, *ingurugiroren* partez *ingurumen*, edo *jasangarri(tasun)* en partez *iraunkor(tasun)*, ez *inposatzea*, baina ez arrazoi tekniko, pragmatika hutsez baizik.

Hortxe ikus daiteke, bestalde, zer distantzia dagoen teknolekto-usaineko fraseologia hutsetik (*sostenible*: zer espezialitateri dagokio?) benetako terminologia zehatzera. Muga, inoiz, lausoa izan liteke; izan, ordea, bada.

(Bide batez, aipatzekoa da *iraunkorren* aurkako frankotiratzaile sutsuak ere ez zetozela bat beren “betiko ohitura guztiz zabaldu” delako bala zorrotza aukeratzera: *jasangarri, eramangarri, eusgarri, sostengarri...*)

Are distantzia handiagoa dago, alabaina, sasiterminologiazko halako teknoberbetatik (ikus iragarkien hizkerako teknika-usainkeria lotsagabea) arrunt-arruntak diren –eta izan behar duten– hitzetara: *hizkuntzara*, esate baterako.

Komeniko da, beharbada, apur bat luzatzea halako (hizkuntza arruntaren barneko) anbiguotasunak saihestearen kontuan. Batetik, errepika dezagun, horrek ez du zerikusirik terminologiarekin edo hizkera espezializatuarekin, hizkuntzarekin berarekin baizik. Bestetik, testuinguru nahasgarrietan *hizkuntza* hitzaren esanahi murriztago bat adierazi nahi dugunean, bada horretarako prozedura bat baino gehiago, teknolektoke-riara jo gabe ere.

Gure kasurako, *hizkuntza naturala* nahiz *hitzezko hizkuntza* erabil daiteke, bestelako askotariko hizkuntzetatik bereizi nahi delarik hura. Hala jokutzen da hizkuntza gehienetan, ingelesa barne (horratx *hizkuntza* hitzaren beste adiera bat: *mintzaira partikularra*, orokorraren kasu bat: anbiguotasun hori ere berezkoa da, eta ez da akats edo gabezia).

Ingelesaren aipamenaren haritik, argigarrria da gaztelaniaren eta frantsesaren kasua

ere. Gure albo-erdara biotan, badira (ez termino gisa, hizkuntza orokorrean baizik) bi hitz sinonimo: *lengua/lenguaje, langue/langage*. (Libre da edonor pentsatzeko erosoago dela bereizkuntza hori egitea, baina iritzi subjektibo hutsa da hori, eta, nolana ere, hizkuntzaren erabilera orokorrari dagokio, eta ez espezialitate-hizkerari bereziki, eta are gutxiago informatikako terminologiari).

Eta, hara, hizkuntza horietan ere (gaztelaniaz nahiz frantsesez) *natural* eta *hitzezko* aipatzera behartuta egoten dira idazleak askotan, sinonimo baitira *lengua* eta *lenguaje* nahiz *langue* eta *langage*.

Jakina, gerta daiteke gaztelaniak eta frantsesak *lenguaj/langage* hartzea eskuarki oinarritzat termino konposatueterako, baina hizkuntza horien sistemaren berezitasuna da noski (*lenguaje plástico / lengua plástica*), eta zozokeria litzateke hori bere horretan kalkatzea bestelako hizkuntza sistemara.

Eta baliteke *joera* izatea *lengua=idioma* areago erabiltzea hitzezko mintzairaz ari garelara, baina trukagarriak dira, oro har, sinonimook. Ikasgaia bera ere, “Lengua Española” zein “Lenguaje” izan daiteke, bereizkuntzarik gabe.

Areago esango nuke: *lengua* eta *langue* hitzaren sakonagoko anbiguotasun bat saihesteko asmatuak dirudite *lenguaje* zein *langage* hitzek. Ikus, esate baterako, zer gertatzen den *La lengua de las mariposas* izenburu ospetsuarekin. Euskaraz ere bada, gure hizkuntzalari zaharren artean, *mihi* erabili duenik *hizkuntza* adieran (*Bi mihiren gramatika*), eta, bide horretatik abiatu balitz gure hizkuntza, orduan geundeke apika gu ere, albo-edarok bezala, anbiguotasun gu-

txiagoko sinonimo baten beharrean: hizkuntza osoan, diot berriro ere, ez informatikan bereziki.

Ez da, ordea, hori gure kasua: ingelesez bezala, aski dugu hitz bat: *hizkuntza/language* (besterik baita, eskuarki, *mihiltongue*).

Ez diogu orain arte kontu horri heldu, baina nekez uka daiteke erdarak *hizkuntza/lengoaia* sasibereizkuntza horretan izan duen eragina, nahiz gero zenbaitek teknizismoz mozorrotu nahi izan duen berez interferentzia dena: euskararen beraren beharretatik (nahiz ingelesetiko itzulpen zuzenetatik), bururatu ere ez zitzaigun egingo *hizkuntza* hitz arrunt horrek halako azpi-sinonimorik behar zuenik.

Aipatu dugun beste betekizun bat ere ez du betetzen *hizkuntza/lengoaia* sasibereizkuntza horrek terminotzat har dezagun: ez da espezialitate-hizkera jakin bati dagokiona. Informatikariak setatu dira berentzat errebindikatzen hitz hori terminotzat, baina, hizkuntza orokor zabal guztian ez ezik, beste espezialitate-edo askotan ere berdin erabili izan da eta erabiltzen da (hizkuntza orokorraren premia baitute jakintza-arlo guztiek, oraingoz bederen), eta ez da ikusten zergatik ukatu behar litzaiekeen beste horiei informatikariek berentzat bakarrik nahi dutena. Hizkuntzalaritzan ere, askok bereizi nahi izaten du “(hitzezko) hizkuntza” eta “(bestelako) lengoaia”. Musikaren eta artearen arloan, barra-barra irakurtzen dugu “musika-lengoaia” (eta are “lengoaia musikala”!) nahiz “lengoaia plastikoa”.

“Gorputz(aren) lengoaia” ere maizago erabili da, eta halako gehienetan “lengoaia” ra jotzen da diglosiaren (nahiz bitxizalekeriaren) inertziatz. Alegia (q.e.d.), gaztelaniaz *lenguaje* agertzen den gehien-gehienetan aurkitzen dugu *lengoaia*, zozoki kalkatzen baitugu erdararen edozein ñabarkeria, teknolektoaren aitzakian.

Eta teknolektoa, gainera, aurki dator plaza arruntera ere, lehendik ere bertan ez bazen (esate baterako, *ondoretasun/herencia/heritage/heredity* kontzeptuak biologian zer adiera zehatza duen definitzea biologistei dagokie, noski, baina hitza guztiona da). Ikus, adibidez, egunkariko bitxi hau (logopeda baten iragarkia), eta esan, oraindik ere, espezialitate-hizkeren behararangatik egin nahi dela bereizkuntza, eta ez erdararen interferentziarengatik:

*Entzumen eta Lenguaian Berezitua
Ahozko lenguaiaaren arazoak (sic)*

Ez dugu, nonbait, erremediorik: zeinen galduak egon behar dugun, hala ere, hain kontzeptu (zentzu guztietan) orokorra espezialitate-termino bat dela burutik pasatzeko.

Eta, hori gutxi ez eta, zaharkituriko sinonimo batera jo behar, gainera, *konponbiderako!* Zaharkitua, eta, nola ez, Erdara (Hark agintzen baitu) garbi-garbi islatzen duena.

Hori guztia, jakintzaren izenean. Ezen zientzia, itxura denez, ezkongaitza baita hizkuntzarekin, eta aski baita, noski, lengoaia erabiltzea edozer ere magikoki zientzia-itxuratu dadin.

La precisión terminológica de la palabra “lengoiaia”

El artículo trata de aclarar, por medio de un ejemplo flagrante, la reiterada confusión entre necesidad terminológica y mero uso fraseológico en los textos especializados en euskera. La palabra “lengoiaia” es un arcaísmo (calcado de lenguaje/langage) sinónimo de “hizkuntza”. Interfiere el hecho de que tanto en español como en francés coexisten dos palabras (lengua/lenguaje, langue/langage) y la polisemia de “lengua” y “langue” (“La lengua de las mariposas”) lleva a que en muchos contextos (no sólo de términos propiamente dichos) se prefiera “lenguaje” y “langage”. No es el caso del euskera (ni del inglés), en los que son palabras distintas, en general, “hizkuntza” (language) y “mihi” (tongue), aunque la segunda pueda tomar en algún caso (absolutamente residual en euskera) la acepción de la primera.

Sea como sea, la cuestión crucial es que (jevidentemente!) el concepto al que se refiere no es de ninguna especialidad. En todo caso, será una mera costumbre (o más bien vicio) de algunos usuarios calcar, sin ninguna necesidad, la presunta distinción en sus textos. Para más inri, se elige (incluso como estandarte) el dichoso calco arcaico “lengoiaia”, en lugar de recurrir, si fuera el caso, a otros sinónimos que podrían resultar más adecuados, tales como “mintzaira” (lengua, idioma). Sin duda, la ventaja de “lengoiaia” es parecerse tanto a su modelo “lenguaje”.

Aunque parezca mentira, el apego a —y la patrimonialización de— ese uso puede movilizar masas y energías considerables (e incluso arrastrar gentes ajenas y normalmente críticas y razonables) bajo la equivocada bandera de la defensa de (la propiedad de) la terminología especializada. En este caso, los más empeñados en ello han sido (y son, creo) los docentes de informática, pero, como ya se dijo, es sólo un ejemplo. Y, desgraciadamente, no hace falta rebuscar para toparse con otros muchos, ya que la distinción entre terminología, fraseología y lengua(je) sin más parece resultar muy ardua para quienes “viven” dentro de una especialidad —incluida, por cierto, la lingüística—, cuyo discurso, sea el que fuere, tiende a sacralizarse en su totalidad internamente.

La prétention terminologique du mot “lengoaia”

L'article s'efforce d'éclairer, au moyen d'un exemple flagrant, la confusion récurrente entre la nécessité terminologique et le simple usage phraséologique dans les textes spécialisés en langue basque. Le mot “lengoaia” est un archaïsme (calqué sur *lenguaje/langage*) synonyme de “hizkuntza”. Il faut tenir compte du fait que, en espagnol comme en français, deux mots coexistent (*lengua/lenguaje, langue/langage*), et la polysémie de “lengua” et “langue” conduit à ce que, dans de nombreux contextes (pas seulement de termes proprement dits) la préférence va à “lenguaje” et “langage”. Ce n'est pas le cas du basque (ni de l'anglais), langues dans lesquelles “hizkuntza” (language) et “mihi” (tongue) sont des mots distincts, en général, bien que le second puisse prendre, dans certains cas (vraiment résiduels en basque) l'acceptation du premier.

Quoi qu'il en soit, la question cruciale tient dans le fait que (bien évidemment !) le concept auquel il se réfère ne relève d'aucune spécialité. Dans tous les cas, ce sera une simple coutume (ou plus exactement un vice) de la part de quelques usagers de calquer, sans aucune nécessité, la prétendue distinction dans leurs textes. Pour couronner le tout, on choisit (y compris comme standard) le fameux calque archaïque “lengoaia”, au lieu de recourir à d'autres synonymes qui pourraient s'avérer plus appropriés, comme “mintzaira” (langue, idiome). Sans aucun doute, l'avantage de “lengoaia” réside dans le fait de présenter une telle ressemblance avec son modèle “langage”.

Malgré que cela puisse paraître incroyable, l'attachement à – et la patrimonialisation de – cet usage peut mobiliser des masses et des énergies considérables (et même convaincre des gens extérieurs et normalement critiques et raisonnables) sous la bannière erronée de la défense de (la propriété de) la terminologie spécialisée. Dans ce cas, les plus engagés ont été (et sont, de mon point de vue) les enseignants d'informatique, mais, comme cela a déjà été dit, il s'agit seulement d'un exemple. Et malheureusement, il n'est pas nécessaire de chercher longtemps pour en trouver de nombreux autres, car la distinction entre terminologie, phraséologie et langue/langage paraît très ardue pour ceux qui “vivent” dans une spécialité – y compris linguistique, bien évidemment –, dont le discours tend, quoi qu'il en soit, à se sacraliser dans sa totalité de l'intérieur.

The terminological pretension of the word *lengoaia*

The purpose of this article is to clarify, by clear example, the repeated confusion between terminological necessity and simple phraseological use in specialized texts in Basque. The Basque word *lengoaia* is an archaism (copied from *lenguaje* in Spanish and *langage* in French) and synonym of *hizkuntza*. Further complication arises from the fact that both Spanish and French have two words for *language* (*lengua/lenguaje* in Spanish and *langue/langage* in French), and the dual meaning of *lengua/langue* (“La lengua de las mariposas,” “The language/tongue of butterflies”) leads to a preference in many contexts (and not only in terminological contexts as such) for *lenguaje/langage*. This is not the case in Basque (or in English), in which *hizkuntza* (*language*) and *mihi* (*tongue*) are different words, though the latter may in some cases (residual cases only in Basque) take on the meaning of the former.

Be this as it may, the crucial issue is (obviously!) that the concept to which we refer does not belong to any specialty, in which case, it must be the mere habit (or vice) of some users to copy this presumed distinction in their texts though there is no need whatsoever to do so. On top of everything else, they choose the archaic calque *lengoaia* (even using it as a standard) instead of turning to other, more appropriate synonyms such as *mintzaira* (*tongue, language*). Undoubtedly, the advantage of *lengoaia* is that it is so similar to its model, *langage*.

Although it seems unbelievable, the attachment to – and patrimonialization of – this use can mobilize considerable masses and energies (and even drag in outsiders who are normally critical and reasonable) under the false banner of the defense of (the correctness of) specialized terminology. In this case, the most determined people have been (and still are, I believe) computer science schools but, as mentioned above, this is only an example. And unfortunately, you needn't look far to find many others, since the distinction between terminology, phraseology and language/tongue can be very difficult to grasp for those who “live” within a specialty – including, of course, linguistics – whose discourse, whatever it may involve, tends to be carried out entirely internally.



Espainia frankistako itzulpena eta zentsura ideologia- eta kultura- berridazketa gisa

MARÍA PÉREZ L. DE HEREDIA

Euskal Herriko Unibertsitatea

Testuinguru eta kultura jakin batean sortzen den gertakari historikoa da itzulitako antzerkia; komunitate bateko gizarte- eta kultura-bizitzako osagai aktiboa da, eta beraz, haren garapena ideia bati dago erabat lotuta: itzulpenak, edo hobeto esanda, berridazketak, mugimendu ideologiko edota artistiko jakin batzuen zerbitzura edota haiek jartzen dituzten murrizketen pean sortzen dira (Lefevre 1992: 5). Antzerkia, ikuskizun publikoa den heinean, “ideiak zabaltzeko fokutzat” (Gutiérrez Lanza 1999: 63) har daiteke, hain zuzen ere, gizarte osora heldu eta harengan eragina izateko gaitasuna duen fokutzat. Hori dela eta, Espainia frankistan, kontu handiz zaintzen zen antzerkia, erregimeneko ideologia ultrakontserbadorearen kontrako mezuak zabaltzea ekiditeko. Hala ere, arrazoi berberagatik,

diskurtso tradizionalista ofiziala hedatzeko ere erabili izan zen. Horregatik, itzulpenak eta zentsurak iragazki bikoitza osatuz egiten zuten lan, eta iragazki horrekin egiten zuten topo atzerriko antzerki-testuek ikus-entzule espainiarren aurrean antzeztu aurretik. Testu bat itzultzeak jatorrizko testua manipulaztea dakar beti, xede-kulturak hainbat muga ideologiko, politiko eta ekonomiko ezartzen baititu. Botere totalitarioaren diskurtso ideologikoaren zerbitzura lan egiten duen kontrol- eta errepresio-tresna da zentsura. Ikusiko dugun bezala, antzerki-itzulpenak aparatu zentsuratzailearekin batera egin zuen lan, diktadurako jarrera kontserbadore eta tradizionalak bultzatzen eta legezkatzen baitzituen. Zentsurak nortasuna sortzeko boterea izan zuenez, ideia berriak joan ziren agertzen, eta haien ondorioz, Es-

painiako egoera aldatu egin zen, diktadura-ko eredu ideologikoak baretu egin ziren eta erregimen faxistaren norabide bakarreko diskurtsoa eta haren aparatu zentsuratzaila-aren jokabidea leundu egin ziren.

Ipar Amerikako antzerkiak Espainia frankistan izan duen presentziarekiko era- kutsi dugun interesa hobeto ulertzeko, atze- ra begiratu behar dugu eta Gerra Zibila hasi aurreko urteetara bueltatu. Garai hartan, adierazpen dramatiko mota berri batek, zi- nemak, sekulako aurrerapausoa eman zuen eta gizarte hartako antzerkiaren estatusa al- datu zuen. Aldi berean, Espainiako eta Eu- ropako zinemetan ikusgai ziren filmen erre- ferentzia puntu bihurtu zen Broadway.

Ameriketatik heldutako lanak izan ziren Europako orduko antzerkiaren iturri nagusi eta lan haietan aurkitzen zituen Europako antzerkiak formula eta planteamendu be- rriak. Horrela, beste norabide bat hartu zuen Ipar Amerikako kultura eredu hartuta. Zinema AEBetatik iristen zen batik bat eta bi ondorio izan zituen; batetik, gizartea en- tretenitzeko postutik kendu zuen antzerkia, eta bestetik, gero eta eragin handiagoa izan zuen itzulitako eta antzeztutako obretan.

Hollywoodeko zinematik izandako ospea- ren ondorioz, 20ko hamarkadako azken ur- teetan Ameriketako produktuak agertu zi- ren Espainiako agertoki guztietan. Zinemak izandako eragin zuzenaren ondorioz, hain- bat azpigenero agertu ziren Espainian, hala nola, komedia burgesa edo polizia-melodra- ma (*amerikarra* izenez ezagunagoa). Azken hori Hollywooden egindako eta Espainiako zinemetan emandako filmetatik sortutako azpigeneroa da (Pérez L. de Heredia 1998). Horrelako obra mordoa sartu zen Espainian eta haien balio literarioa eztabaidagarria

izan badaiteke ere, sekulako arrakasta izan zuten. Antzerki-testu horiek (askok zinema- rako bertsioa dute) Estatu Batuetako hain- bat kluxe uzten zituzten agerian, eta haien eraginez, Ipar Amerikako kultura topikoz bete zen Espainian lehenengo aldiz sartu ze- nean.

“Pisura inportatutako genero” horren barnean, besteak beste, *El proceso de Mary Dugan* (*The Trial of Mary Dugan*) lanak lor- tu zuen arrakastarik handiena. Obra hori “New Yorkeko bizitzaren melodrama” gisa aurkeztu zuten Espainian. Mary Dugan pertsonaia Bayard de Bieviliek sortu zuen eta Ipar Amerikako zinemetan agertu zen. Gaztelaniazko itzulpena Joaquín Salvatellak egindakoa da. Espainian 1929an estreinatu zuten antzerki modura, New Yorken, Lon- dresen eta Parisen sekulako arrakasta izan ondoren. Ohiko osagaiez gain, antzezlanean zenbait berritasun eszenografiko agertu zi- ren eta Espainiako antzerki munduan bar- rru-barruraino sartu zen. Lortutako arrakas- taren ondoren, mota horretako beste antzeppen askok ere arrakasta handia izan zuten, eta ez bakarrik atzerrikoek, baita na- zionalek ere. Bai itzulpenak bai pseudo- itzulpenak (eta lan horien antzeppenak) arrakastatsuak izan ziren ikus-entzuleen ar- tean, eta horretaz gain, berehalako irabazi ekonomikoak sortzen zituzten bai agerto- kietan eta bai zinemetan ere. Gehientsuene- tan, azpigenero horietatik sortutako filmak Hollywooden filmatzen baziren ere, gaztela- niazko bertsioan filmatzen ziren eta aktore- ak espainolak eta hegoamerikarrak izaten ziren. Ikus-entzuleek, beraz, Espainiako iza- rrak Ameriketako inguruetan ikusten zituz- ten, edo behintzat, topikoz eta estereotipoz betetako giro amerikarrean. Ondorioz,

ikusle espainiarra eredu estatubatuarrekin identifikatzen zen. Kritikari eta intelektualek beti gutxietsi izan dituzte antzezlan eta film horiek guztiak, baina hala ere, antzoki eta zinemetara joaten ziren ikus-entzule guztiak produktu horiexek eskatzen zituzten. *El proceso de Mary Dugan (The Trial of Mary Dugan)* lanaren arrakastari dagokionez, honelaxe dio Enrique Díez-Canedok, garai hartan eragin handia izan zuen kritikarietako batek:

Mary Dugan gaixoa ez dute bakean uzten. Hasteko, haren epaiketa hainbat aldiz itzultzen dute. Orain, beste behin. Ea *Mary Duganen hirugarren krimena, Mary Dugan aulki elektrikoan* eta *Mary Duganen berpiztea* ere agertzen diren. Orain arte bezala jarraitzen badute, Mary Dugan esamolde baten sinonimo izango da: *Ahal duenak ahal duena* (Vilches & Dougherty 1997: 303).

Ulergarria izan daiteke Díez-Canedo horren gogaitua agertzea, kontuan hartzen badugu lan horrek izandako arrakastaren ostean beste hainbat lan agertu zirela: *Mary Dugan, la mujer fatal, El juicio de Mary Dugan, Vista del proceso de Mary Dugan* edota *Mary Dugan, el asesinato de un millonario*. Lan horiek kritika ugari (baliteke arrazoiz egindakoak izatea) jaso bazituzten ere, argi dago Espainiako ikus-entzuleak Ipar Amerikako kulturarekin harremanetan jartzeko balio izan zutela, eta beraz, kontuan hartu behar dira; izan ere, geroxeago lan horiek guztiak aitzindari izan ziren Espainiako kultura eta gizartea amerikartu zenean.

Bestalde, obra horien itzulpenetan atzerriko ohiturak sartzeko joeraren aurrean, kritikak, itzultzaileek erabilitako estrategiak ezegokiak zirela argudiatuta, zentsuratu egiten zuen Espainiako ikus-entzuleei obrak aurkezterakoan agertzen zen alienazio eta si-

nesgarritasun falta. Era berean, badirudi antzerki-kritikari horiek ez zeudela ados ez Amerikako antzerkia eta kultura etengabe inportatzearekin ez eta itzultzaile espainiarrek testua etxekotzeko erabiltzen zituzten estrategiekin ere. Bereziki, hizkuntza garbia erabiltzea edota harira etorri gabe tokiko esamoldeak erabiltzea kritikatzten zuten. Hala ere, *a priori*, badirudi horiexek zirela itzultzaileek xede-kulturari egiten zizkieten ekarpen bakarrak. Xede-kulturako pertsonaiek eta lekuek Ipar Amerikakoan antz handia izaten zuten eta horiez bete-bete eginda egoten zen xede-kultura.

Edonola ere, aparatu frankistak AEBetatik etorritako antzerkia arma politikotzat erabili zuela baieztatu dezakegu, batez ere, lehenengo gerraostean. Itzulpena, beraz, testuak manipulatzeko eta zentsuratzeke tresna erabilgarria eta eskuragarria zen, batez ere, antzezteko itzuli izan diren antzezlanen dagokienez. Ihesbide-antzerki mota horrek (guztiz komertziala zen) eskaintzaren eta eskariaren merkataritza-legea betetzen zuen, eta haren presentzia, gure ustez, arrazoiz politiko eta ideologikoen ondorio izan zen. César Olivak gogora ekartzen duen bezala, “40ko hamarkadako antzerkia gizarte-maila ertainari dago zuzenduta, hau da, burgesiarri; izan ere, ordaintzeko gai da, eta beraz, produktu jakin batzuk eskatzen ditu [...], antzerkiak euren eskakizunei erantzuten dien heinean, ikus-entzuleak beti joan izan dira antzerkira. Eta une horretan, badirudi antzerkia ikustera doanak hutsalkeria, ihesbidea eta entretenimendua eskatzen duela” (Oliva 1989: 80-81). Antzeztutako testuek krisi politiko, ekonomiko eta sozialetik urrun eramaten zituzten ikus-entzuleak, eguneroko bizitzako arazoetatik urrun.

Urrutiko mundu desberdin baten ikuspegia erakusten zuten antzezpen horiek: ikuspegi amerikarra. Ikuspegi hori Espainiako errealitate oso urrun bazegoen ere, ikus-entzuleak beste leku batera eramatea lortzen zuten lanek, euren arazoak ahaztea lortzen zuten leku batera. Antzerkiaren munduak bazekien burgesiari esker eusten ziola antzerkiak bere estatusari Espainiako gizartearen eta kulturaren barnean; azken finean, antzezenetara joaten ziren ikus-entzule gehienak burgesak ziren, beraz, egiten ziren antzezanek haien gogoak eta nahiak bete behar zituzten. Kontuan izanda burgesia horrek erabat gaitzesten zuela orduko errealitatea, antzerkia burgesia horren bizitzaren isla bilakatu zen.

Estatu Batuetatik heldutako antzerki hori erraz kontsumitzekoa zen. Espainiako antzoki guztiak hartu zituen eta Amerikako gizartearen eta kulturaren ikuspegi kontserbadore eta estereotipatua erakusten zuen. Polizia-melodramak eta komedia burgesak irabazi ekonomikoak ematen jarraitzen zuten, eta gainera, ideia kontserbadoreak eta kalterik egiten ez zuten ideiak bultzatzen zituzten. Horrela, aurreko hamarkadan antzokietan izandako arrakastetatik abiatuta, 40ko hamarkadako antzerki kontserbadore eta burgesaren oinarriak ezarri ziren. Sarri, lehendik egindako itzulpenak (gehienetan ikus-entzuleak ezagutzen zituztenak) antzezen jarraitzen zuten, baina batzuetan testuak berriro egiten ziren eta egoera moral berrietara egokitzen ziren, zentsura-txosten honetan irakur daitekeen bezala:

El proceso de Mary Dugan (The Trial of Mary Dugan) obra melodramatikoa antzokietan antzeztu eta zinemetan eman dute hainbat aldiz, eta horregatik, antzokietako errepertorioetako obra tra-

dizional bilakatu da. Zuzendaritza Nagusiak, txostena egin ondoren, baimendu egin zuen obra hori erakustea [...] eta testuari gehitutako zatiek ez dute funtsezko ezer aldatzen, ezta moralki ezer lotsagarrikerik agerian uzten ere, helburu bakarra narrazio eszenikoaren ñabardura ilun eta beldurgarriak nabarmentzea baita. Sail honek baimendu egiten du obra erakustea eta adierazitako ezabaketak mantentzea (Esp. zk. 1514/40).

Debekatu egin zuten berreskuratu ahal izandako obra horietako batzuk erakustea, esaterako, José Ignacio de Albertik itzultako Paul Armstrongen *Jimmy Samson* lana. 1914. urtean hasita antzeztu zuten Espainiako antzokietan, baina debekatu egin zuten 1941ean honakoa argudiatuta: “Obrak balio artistiko handia eta argumentu interesgarria badu ere, gogoan izan behar da lapur atsegin eta onari egindako kantua dela” (Esp. zk. 2628/41).

Beste obra bat erakustea ere debekatu zuten 1943an, Edward Sheldon-en *Romançe*, Antonio Fernández Lepinak itzultakoa. Lanaren “gordintasunak ezer hezigarrikerik” ematen ez zuelako debekatu zuten. Txostenean adierazten denez, obraren zenbait ñabardura “onartezinak” dira.

Pasioen arteko borroka gogor, zakar eta krudela erakusten du lanak. Amerikar artzainaren erreakzio sentimentalak gure erlijio-printzipioetatik oso urrun daude. Nahiz eta nik irakurritako alean eskatzaileak ezabaketak egin, eta oraindik beste batzuk egiteko aukera egon, obra hau arriskutsua eta eskandalagarria izango litzateke ikus-entzuleentzat. [...] Ikuspuntu katolikotik begiratuta, bi arrazoi daude obra hori ez onartzeko. Batetik, eliza-zelibatu katolikoari eraso egiten diolako bai obran zehar bai bukaeran. Bestetik, elizgizon protestante bati buruzkoa bada ere, haren sentimenduzko eta pasiozko arazoak elizgizon katoliko baten berberak izango dira, eta azken horrenak, zelibatua dela eta, askoz larriagoak izango dira. Ikus-entzuleek *a for-*

tiori erraz ondoriozta dezakete ezkutuan dagoena. (Esp. zk. 102/43).

Beste batzuetan, obra antzeztea baimendu bazuten ere, zentsurak hainbat alderdi zaintzen zituen, eta ez hizkuntzarekin loturiko alderdiak, obraren eszenografiarekin loturikoak baizik. Hizkuntzaz kanpoko hainbat ezaugarri zaintzen ziren; esaterako, John Willard-en *El gato y el canario* (*The Cat and the Canary*) melodrama amerikarraren txosten zentsuratzailak adierazten duen bezala, pertsonaiek (gehienetan emakume bat izaten zen) “egoki jantzita sartu behar izaten zuten logelara, eta gainera, erabat debekatuta zuten ikus-entzuleen aurrean biluztea” (Esp. zk. 177/60). Obrak zaintzeko jarritako arretaren beste adibide bat dugu Brandon Thomas-en *La tía de Carlos* (*Charley’s Aunt*). “Antzezpenean gizonetzko batek emakume jantzita agertu behar duenez, entsegu nagusiak eman beharko dio oniritzia; hartara, ekintza edo keinu desegokiak ekidingo dira” (Esp. zk. 985/40).

Edonola ere, normalean baimendu egiten zuten horrelako obrak antzeztea. Obra horien antzezpenearekin ideia kontserbadoreei eusten zitzairen eta ez zieten ezer berririk eskaintzen ikus-entzuleei. Egia esan, gehientsuenetan, xede-kulturako antzerki-sistemak bertakotu egiten zituen itzulitako obrak. Lefevère eta Bassnett parafraseatuta, honakoa baieztatu dezakegu: atzerriko testu asko, beste kultura batetik itzuli izan direnak, erabat bertakotzen dira; izan ere, xedehizkuntzan sortutako testuei bezainbesteko hizkuntza barneko tratamendua ematen zaie (Lefevère & Bassnett 1992: 9). Espainiako antzerkigintzan 30eko hamarkadatik aurrera bertakotzen ziren testuak, eta batez

ere, gerraostean. AEBetako melodrama eta komedia Espainiako kontserbadorismoaren eredu bilakatu ziren. Burgesia zen garai hartako mugarririk ideologiko eta ekonomikoa, eta ez bakarrik erregimen politiko berriarena, baita, ikusi dugun bezala, antzerkigintzarena ere. Burgesiaren isla ziren, beraz, bai melodrama eta bai komedia ere. Sistema nazionalak bere egin zituen kanpotik iritsitako bi genero horiek, eta beraz, Espainiako generotzat hartu ziren, bertakoak izango balira bezala. Sortzailearen izena desagertu egiten zen sarritan, eta obra horien (ustezko) itzultzaileak eta egokitzaileak jotzen ziren egiletzat. Xede-testuetatik abiatuta, beste bertsio batzuk egiten eta antzeztzen zituzten. Espainiako sistemak bere egindako obren kultura barneko berridazketatzat har daiteke ekintza hori.

Espainiako kultura- eta antzerki-sistemak atzerriko hainbat obra bertakotu dituela erakusten duen adibide argiena dugu Brandon Thomasen *La tía de Carlos* (*Charley’s Aunt*). Obra hori Madrilen antzeztu zuten lehenengo aldiz 1918. urtean. Pedro Gilen (Ceferino Palenciak erabiltzen zuen goitizen) bertsioa zen eta sekulako arrakasta izan zuen gerraurreko Espainian (Pérez L. de Heredia 1998). 20ko eta 30eko hamarkadetan ere antzokietan izan zen, eta beraz, Espainiako antzerkiko klasiko bilakatu zen. Gerra Zibilaren ostean, komedia burges karamilatsu hori antzokietan antzeztzen zuten oraindik ere. Zentsura-espeditenteei esker, badakigu kultura barneko berridazketak egiten jarraitu zutela 1918ko lehenengo itzulpenetik abiatuta (Esp. zk. 985/40, 81/54, 166/66 eta 127/68). Ondorioz, sekulako “izeba” uholdea izan zen: *La abominable tía de Carlos* (musika-egokitzaipena),

La tía de Carlos ye-ye edo *La tía de Carlos en minifalda*. Brandon Thomasen izena desagertu egin zen eta egiletzat lehenengo itzultzailea hartu zen, Pedro Gil. Atzetik etorritako beste itzultzaile batzuk ere hartu ziren egiletzat, hala nola, Elías Gómez Picazo, Joaquín Gasa, Ignacio F. Iquino edota Paco Martínez Soria. Azken horrek lanaren “bertsio berria” egin zuela esaten da (Esp. zk. 166/66), eta gainera, 40ko hamarkadatik aurrera Espainiako antzoki guztietatik igaro ondoren, pantailetara ere heldu zen 1981ean. Horrela, jatorrizko obratik abiatuta zinemarako egin izan diren sei berri-dazketetatik (AEBetan, Argentinan eta Espainian egindakoak), orduko filmik arrakastatsuen izan zen berea.

Itzulpenaren bidez, bai lan hori bai beste batzuk nazionalizatu egin ziren, eta ondorioz, xede-kulturak bere egin zituen erabat. Antzerki-lanak bertakotzeko, Espainiako sistemak atzerriko kultura-eredua manipulatzeko eta beretzen zuten. Ondorioz, ikus-entzuleek eta erakundeek ere beretu egiten zuten kultura-eredu hori. Aparatu politikoak tradizionalismoaren irudi burgesa hedatu nahi zuten (eta ikus-entzuleek, jaso), eta horixe erakusten zuten, hain zuten, horrelako lanek. Gainera, irabazi handiak ematen zizkieten antzerki-industriari, baina, halere, apurka-apurka modaz pasatzen joan ziren eta antzokietako ikuskizunen sailetik desagertzen. Lan batzuek, Espainiako sistemak gehien bertakotutakoek, bizirik irautea lortu zuten eta bai 60ko hamarkadara arte bai gaur egunera arte, sarritan antzeztu izan dira antzokietan.

Paradoxikoki, itzulpenak eragin handia izan zuen diktaduran eta haren zentsura-aparatuan ere; izan ere, diktadurako diskur-

tso politiko eta ideologikoa bigundu egin zen. Zalantzarik gabe, zentsurak jokaturako papera oso garrantzitsua izan zen. Hala ere, itzulitako eta antzeztutako testuen gainean zuten boterea eta kontrola baretzen joan zen pixkanaka. Ikusi dugun bezala, AEBetatik heldutako antzerki-testuen itzulpenak helburu eta eragin kontserbadorea izan zuten Espainiako kulturara lehenengo aldiz iritsi zenean, erregimena babesteko erabili baitzen. Hala ere, itzulpenak beste bide bat hartu zuten eta ideia artistiko eta ideologiko berriak sartzeko balio izan zuten. Hala, atzerriko eredu berritzaileak transmititzeko tresna bilakatu zen. Diktadurako arauak eta ereduak itzulpenak baldintzatzen bazituzten ere, gogoan izan behar da bestelako jarraibide eta ereduak ere sar zitzakeela itzulpenak. Arau eta jarraibide horiek, agertokietan ez ezik, Espainiako gizartean eta kulturaren ere sumatu ziren. Zentsura aparatua mahai gainean jarri zuten, eta arazotzat jo, atzerriko lan baten itzulpena zentsuratzeko orduan biguntasun handiagoa erakutsi beharra zegoela.

Gero eta zailagoa da Espainiako ikus-entzuleei, eta beraz, antzerki-konpainietako programazioari, hainbat obra kentzea. Obra horiek gailendu egin dira atzerrian kalitatezkoak izateagatik, mundu osoan entzuten diren gai sentiberei buruzkoak izateagatik eta etika- eta gizarte-kezkak lantzeagatik. Horrek sortzen duen arazo politikoa (eta gogoan hartu beharreko hainbat etika- eta erlijio-kontu) oso gai garrantzitsua da, ezinezkoa da haren berri ez izatea eta haren ezaugarriak apurka-apurka doaz larriagotzen. Horrek azaltzen eta justifikatzen du, hala behar izanez gero, zentsura-irizpidea malguagoa izatea. (Esp. zk. 61/57).

Ondorioz, Estatu Batuetatik gai eta eredu berritzaileak ekarriko zituzten egile eta

lan gehiago joan ziren Espainiara sartzen. Espainiako antzerkigile askok ez zuten nahi zuten guztiari buruz idazteko baimenik; kanpotik heldutako lanen egileekin, aldiz, eskuzabaltasun handiagoa erakusten zen. Atzerriko lanen estreinaldiek sekulako arrakasta izan zuten eta oso emaitza onak eman zituzten. Gainera, Espainiako antzerkian zentsuratzen, gaitzesten eta debekatzen ziren ezaugarriek atek zabalik zituzten atzerriko lanetan. Onarpen hori hainbat alderdik eragin zuten: batetik, sorburu-kulturak nazioartean beste estatus bat zuen; eta bestetik, Espainiako egoera politiko eta sozio-kulturala garatzen joan zen, “sortutako gizarte berria atzean ari zelako uzten Gerra Zibilak eragindako trauma, eta bazekielako antzerkia beste era batekoa zela munduko beste leku batzuetan” (Monleón 1971: 69). Gogoan izan behar dugu AEBek, Bigarren Mundu Gerraren ostean, nagusitasuna lortu zutela politikari, ekonomiari eta kulturari dagokionez. Halaber, ez dugu ahaztu behar AEBen laguntza funtsezkoa izan zela Espainiako diktadurak bizirik iraun eta aurrera egin zezan. Era berean, Espainiako zinemetan Hollywood nagusi izateak baldintzatu egiten zuen AEBetako antzerki-lanak inportatzea. Izan ere, horietako asko eta asko aurretiaz sartu ziren Espainian filmatutako bertsioen bidez. Horregatik guztiagatik, ikus-entzuleek eta kultura-sistemak errazago irekitzen zizkieten atek Estatu Batuetako antzerkigintzari beste herrialde batzuetakoari baino. Gainera, antzerkilarien beste belaunaldi bat sortu zen eta mendebaldeko munduko agertoki guztiak zapaldu zituzten. Bien bitartean, Espainiako egoera guztiz desberdina zen, garai horretan ez baitzuten estatuan ezer berritailerik sortzen.

Egoera hori bi faktorek eragin zuten; batetik, intelektualek eta idazleek erbestera joan behar izan zuten, bai gerra garaian bai gerraren ostean, eta bestetik, zentsura-aparatuak errepresioa erabiltzen zuen. Ondorioz, antzerki-industriako profesionalek Broadwayra begiratzen zuten, batzuetan zuzenean, eta beste batzuetan, Londres edo Parisen bitartez. Amerikatik heldutako joerak berriek (behar bezala leundutakoak), itzulpenaren bitartez, antzerki-, ideologia- eta kultura-egoera suspertuko zutela ohartzen ziren profesional horiek.

40ko hamarkadaren bukaera aldera, AEBetako melodramak edota komediak hedatutako diskurtsoari esker, AEBetako kulturaren ikuspegia aldatu egin zen: beste ikuspegi bat agertu zen, zabalagoa. Lan berriak Espainiako egoera kontuan hartuta itzuli eta egokitu behar ziren, eta horretarako, itzultzaileek Ipar Amerikako antzerkilaria “arriskutsuak eta arazoak sortzen zituztenak” (esaterako, O’Neill, Miller edo Williams) egokitzen zituzten Espainiako ideologiara. Horretarako, hainbat eta hainbat teknika manipulatzailerik erabiltzen zituzten. Logikoa den bezala, egile horien lan subertsiboak hitzez hitz itzultzen baziren, zentsurak debekatu egingo zuen lan horiek antzeztea, beraz, itzultzaileek autozentsuratu egiten zuten euren lana: nahita mozten, jantzen edo nabarmentzen zuten antzezlanen edukia Espainian lehen aldiz taularatu behar zenean.

Itzultzaileek iritzi politikoak eta erlijioarekin lotutako gaiak zaindu behar izaten zituzten, baina batez ere, gizartearen moralari buruzkoak, hau da, burgesiaren ohitura onei buruzkoak. Logikoa den bezala, ikus-entzuleei familia-eredu tradizionala eta ka-

tolikoa erakutsi behar zitzairen. Emakumeak paper pasiboa jokatu behar zuen eta emakume eta ama pairakor gisa agertu, beti senarraren zerbitzura. Familiaren eta gizartearen ikuspegi kontserbadorea urratzen joan zen bi emakume antzerki munduan agertu zirenean: Blanche Dubois edo Stella Kowalsky. Espainiako eszenan 1951ean sartu ziren bat-batean Tennessee Williams-en *Un tranvía llamado Deseo* (*Desio izeneko tranbia*) lehenengo aldiz taularatu zutenean. Barneko eta kanpoko zentsurak kalte handia egiten zion jatorrizko lanari gaztelaniarako lehenengo itzulpenetan, baina, hala ere, egia da goian aipatutako bi pertsonaia horiek beste emakume mota bat erakusten zutela. Bate-tik Blanche dugu, “adingabeek erakartzen duten mozkonti ninfomanotzat” (Black 1999: 185) hartu izan dena, eta bestetik, Stella, “senarrak tratu txarrak eman arren, haren indarkeria basatiak berotuta, berriz ere senarrarekin inolako axolarik gabe ohera bueltatzen zena [...] damek sexualki pasiboak zirela erakutsi behar zutenean, jokoa gogotsu parte hartzen zuena” (Black 1999: 185). Williamsen beste lan batek, *La gata sobre el tejado de zinc* (*Cat on a Hot Tin Roof*) izenekoak, familiaren beste ikuspegi bat sartu zuen 1959an, baina batez ere, ezkontzarena. Zentsuratzaileen ustez, hauxe da lanaren arazo nagusia: “Kristaua ez den giro batean familia-drama bat agertzea... Ezkontzari, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanari, balio moral batzuei eta abarri buruz azaltzen diren ideiek belarriko mina ematen digute” (Esp. zk. 17/59). Hala ere, obrak sekulako arrakasta lortu zuen eta Espainiako gizartearen hipokrisiari eta kontserbadorismoari gailendu zitzaion. Espainiako agertokietan 200 aldiz baino gehiago-

tan taularatu zuten lehenengo urtean, beraz, zentsuratzaileek honakoa galdetzen zioten euren buruari: “Zein puntura arte da morala ezkontza elkartua eta emankorra desatsegina eta miserablea izatea, eta aldiz, batasunik gabeko ezkontza antzua atsegina eta eskuzabala izatea?” (Esp. zk. 18.784). Hain justu ere, obrako senar-emazte protagonistak ez datoz bat Espainiako eredu tipikoekin. Maggie, katemea, laneko emakume protagonista, “barne-muinetaraino da sensuala eta sexuala. Bere senarra maite du eta amodioa egin nahi du nola edo hala; ez soilik seme-alabak izateko, amodioa egiteak sortzen duen gozamina bilatzeko baizik” (Black 1999: 300). Bestalde, lanak gai tabu bat ukitzen du: homosexualitatea. *A priori*, gai hori ukitzea guztiz debekatuta zegoen, eta beraz, lanak ez du zuzenean horri buruz hitz egiten; hala ere, ikus-entzuleak nabaritu egiten du eta Brick pertsonaiaren (Maggieren senarra) bidez islatzen da homosexualitatea. Brick “depresioan eta alkoholismoan erortzen da... eta bere orientazio sexualaz arduratua, ez da gai bere emaztearekin amodioa egiteko, edo bestela, ez du nahi” (Black 1999: 300). Edonola ere, ikus-entzule burgesek aurki sartuko zituzten euren kulturaren zenbait lan urratzaile, hala nola, *La gata sobre el tejado de zinc* (*Cat on a Hot Tin Roof*) edo *Desio izeneko tranbia*. Ondorioz, itzulpenak nortasunak sortzeko zeukan gaitasuna (Venuti 1998: 68) xede-kulturako balioak ahultzen joan zen bi kulturen arteko bitartekariari esker: itzultzaileak, zuzendari eszenikoak, aktoreak, etab. Horiek guztiak berridazleak ziren eta haien helburua Espainiako ikuspegi artistiko eta ideologikoa berritzea zen atzerriko egileen obrak inportatuz, itzuliz eta antzetzuz.

Gainera, sorburu-kulturaren eta xede-kulturaren estatusa desberdina izateak finkatu egiten zuen berridazleek atzerriko testuarekiko zuten jarrera, baita xede-sistemak testu horri egiten zion harrera ere. Itzulpena da bi kulturek bat egiten duten puntua, edo hobeto esanda, talka egiten duten puntua. Beraz, ikusi dugun bezala, gerraostean, antzerki-testuak ingelesetik gaztelaniara itzultzen zirenean, errespetatu egiten ziren sorburu- eta xede-kulturaren estatusak. Itzulpena bi kulturaren arteko elkargunea bada ere, ez da sekula maila berean egiten. Bi kultura-sistemek estatus desberdina zuten (Venuti 1998: 4), bata nagusi zen eta bestea mendekoa. Estatu Batuen nagusitasunak Espainiako sistema haren eraginpean egotea zekarren. Diktadura frankistak, gainerako diktadura faxistek ez bezala, jarrera inperialista baino, jarrera nazionalista zuen, beraz, kultura-menderatze horren aurka egiten zuela ondoriozta dezakegu. Hala ere, kontrako efektua sortzen zen: Espainiako kultura AEBetako produktuaren boterearen mende gelditzen zen. Espainiako sistemaren mendekotasunak itzultitako diskurtsoaren gizarte-, kultura- eta ideologia-manipulazioa zekarren. Hala ere, sorburu-kulturaren ospea zela-eta, xede-kulturako diskurtsoen itzulpena eta manipulazioa ontzat ematen zuten.

Diktaduraren hasierako urteetan, inguruko egoerak eraginda, Espainiako antzerki-

eta kultura-sistema “akastuna” (Robyns 1994) zen, ez baitzen oso selektibo agertzen nagusitasuna zuen kulturako (Estatu Batuetako) produktuak inportatzerakoan. Urte batzuk lehenago Amerikatik Espainiara heldutako eta Espainiako kulturak bertakotutako antzerki-lanak Espainiako kontserbadorismoaren eredu bilakatu ziren eta bertako burgesiaren isla ziren. Sistema nazionalak bere egin zituen kanpotik iritsitako generoak, eta beraz, Espainiako generotzat hartu ziren, bertakoak izango balira bezala. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka, itzultzaileek beste bide batzuetatik jo zuten, eta horrela, urte batzuk geroago, erregimen politikoak ezarritako arauak hautsi zituzten. Amerikako antzerki-testuen itzulpenak, Espainiako antzerki-merkatuaren arte- eta merkataritza-beharrei erantzuteko ez ezik, elementu berritzaileak sartzeko ere balio izan zuen, eta elementu horiei esker, erregimen totalitarioaren norabide bakarreko diskurtsoa leuntzeko. Itzulpenari esker, Estatu Batuetako kultura- eta ideologia-diskurtsoa sartu zen Espainian, eta behar bezala berri-datzi ondoren, Espainiako panorama aldatu zuen eta estatuko kultura-, ideologia- eta politika-erreferente izatea lortu zuen azkenik. Gainera, jatorrizko kultura- eta ideologia-printzipioak manipulatzeko ziren xede-sistemak onartu arte. Ondorioz, Espainiako diskurtso dramatiko eta kulturala amerikartzeko eragile aktibo bilakatu zen.

BIBLIOGRAFIA

- BASSNETT, Susan: *Still Trapped in the Labyrinth: Further Reflections on Translation and Theatre*, in Bassnett, Susan; Lefevere, André: *Constructing Cultures*, Multilingual Matters, Clevedon, 1998, 90-108.
- BASSNETT, Susan; LEFEVERE, André: *Translation, History and Culture*, Pinter Publishers, London, 1990.
- GUTIÉRREZ LANZA, Camino: *Traducción y censura de textos cinematográficos en la España de Franco: doblaje y subtítulo inglés-español (1951-1975)*, Leongo Unibertsitatea (argitaratu gabeko doktorego-tesia), Leon, 1999.
- LEFEVERE, André: *Translation, Rewriting and the Manipulation of the Literary Fame*, Routledge, Londres eta New York, 1992.
- MONLEÓN, José: *Treinta años de teatro de la derecha*, Tusquets, Bartzelona, 1971.
- OLIVA, César: *El teatro desde 1936*, Alhambra, Madril, 1989.
- PÉREZ L. DE HEREDIA, María: *Las traducciones españolas del teatro inglés (1898-1939)*, Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaratu gabeko ikerlana), Vitoria-Gasteiz, 1998.
- PÉREZ L. DE HEREDIA, María: *Traducción y censura en la escena española de posguerra: creación de una nueva identidad cultural*, in RABADÁN, Rosa: *Traducción y censura inglés-español 1939-1985: Estudio preliminar*, Leongo Unibertsitatea, Leon, 2000, 153-189.
- ROBYNS, Clem: *Translation and Discursive Identity*, in *Poetics Today*, 1994, 15:3. 405-428.
- TOURY, Gideon: *Descriptive Translation Studies and Beyond*, John Benjamins, Amsterdam-Filadelfia, 1995.
- VENUTI, Lawrence: *The Translator's Invisibility*, Routledge, Londres, 1995.
- VENUTI, Lawrence: *The Scandals of Translation*, Routledge, Londres, 1998.
- VILCHES, M^a Francisca; DOUGHERTY, Dru: *La escena madrileña entre 1926 y 1931. Un lustro de transición*, Fundamentos, Madril, 1997.

La traducción y la censura franquista como reescrituras ideológica y cultural

En el cerrado ambiente cultural de la dictadura franquista, con una férrea censura artística, los traductores y traductoras de textos teatrales poco a poco fueron encontrando la manera de ir rompiendo las normas impuestas por el régimen. Así, la traducción de las obras norteamericanas sirvió, no solamente para responder a las necesidades del mercado teatral y a las comerciales en sí, sino para ir introduciendo elementos novedosos, gracias a los cuales se podía mitigar, en parte, el discurso unívoco del régimen totalitario. Gracias a la traducción, el discurso cultural e ideológico de los autores americanos se introdujo en la sociedad española, convenientemente reescrito, y fue modificando el panorama cultural, ideológico y político, al convertirse, en cierto modo, en referente para esos ámbitos. Asimismo, los principios culturales e ideológicos de las obras de origen se manipulaban para que resultaran aceptables por el sistema receptor, con lo que la traducción se convirtió, a la postre, en un agente activo de americanización del discurso dramático y cultural.

La traduction et la censure franquiste comme réécritures idéologique et culturelle

Dans l'atmosphère culturelle verrouillée de la dictature franquiste, avec une censure de fer sur tout ce qui était artistique, les traducteurs et traductrices de textes théâtraux trouvèrent progressivement la manière de briser les normes imposées par le régime. Ainsi, la traduction des oeuvres nord-américaines servit non seulement à répondre aux nécessités du marché théâtral et aux besoins commerciaux, mais surtout à introduire des éléments novateurs, grâce auxquels il était possible d'adoucir, en partie, le discours univoque du régime totalitaire. Grâce à la traduction, le discours culturel et idéologique des auteurs américains pénétra dans la société espagnole, convenablement réécrit, et modifia le panorama culturel, idéologique et politique, jusqu'à se transformer, d'une certaine manière, en référent pour ces domaines. Ainsi, les principes culturels et idéologiques des oeuvres originales étaient manipulés de façon à devenir acceptables pour le système récepteur, et par conséquent la traduction devint, au bout du compte, un agent actif d'américanisation du discours dramatique et culturel.

Translation and censorship under Franco as ideological and cultural rewriting

In the closed cultural environment of the Franco dictatorship, under an iron-clad artistic censorship, translators of theatrical texts gradually found ways of breaking the rules imposed by the regime. Thus, the translation of American works served not only to answer to theatrical and commercial needs, but also to introduce novel elements; thanks to these elements, it was possible to mitigate in part the univocal discourse of the totalitarian regime. Thanks to translation, the cultural and ideological discourse of American authors was introduced into Spanish society, conveniently rewritten, and over time changed the cultural, ideological and political scene, having become, to some extent, a reference point for these fields. Likewise, the cultural and ideological principles of the original works were manipulated so that they would be acceptable for the receiving system, with the result that translation became in the end an active agent in the Americanization of the dramatic and cultural discourse.



Ikus-entzunezko itzultzaileei egindako galdeketa: emaitzak eta ondorioak

JOSU BARAMBONES ZUBIRIA

*Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazio Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea*

Aurkezpena

Euskarazko ikus-entzunezko itzulpena Euskal Telebistaren egitasmoa hezurramitzen ari zenarekin batera jaio zen. 1980ko udazkena zen eta Irrati-Telebista Eskolan lehenik eta Filmak Bikoizteko Zerbitzuan ondoren prestatu ziren lehenengo itzultzaile, egokitzaile eta bikoizleak.

Orduetik hona ETB eta euskarazko ikus-entzunezko itzulpena elkarren zordun izan dira. Itzulpen mota honek berebiziko garrantzia izan zuen euskarazko telebistaren sorreran eta geroko garapenean, izan ere 1983-1992 bitartean kanpo produkzioak batez beste emisio-denbora osoaren erdia hartzen zuen ia. Bestaldetik, itzulpen mota honek Euskal Telebista izan du bezero na-

gusia, zineman eta bideoetako eta DVDtako esparru komertzialetan oso urria baita haren presentzia. Euskal Telebistak zituen beharrak asetzearen, hiru bikoizketa-etxe sortu eta 100 profesional baino gehiago aritu izan dira kanpoko produkzioak euskarara itzultzen eta bikoizten.

Azken hamar urteetan, ordea, behera egin du nabarmen euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren merkatuak eta horren ondorioz alor honetako itzultzaileen beharra ere gutxitu da. Beherakada horren arrazoi nagusia ETBko arduradunek barne produkzio indartzearen aldeko apustua egitea dugu. Alor honetako itzulpengintzari dagokionez, politika horrek ekarri dituen emaitzak begien bistakoak dira: gaur egun eus-

karazko ikus-entzunezko itzulpena marrazki bizidunen eta dokumentalen esparrura mugatuta dago¹.

Paradoxa bada ere, merkatuak krisialdia bizi duen garai hauetan inoiz baino artikululu gehiago argitaratu dira ikus-entzunezko itzulpenari buruz azken *Senex* horren froga argia izanik. Era berean, ikus-entzunezko itzulpenak zor zitzaion aitopen akademiakoa ere jaso du unibertsitatearen aldetik eta dagoeneko bost urte bete dira ikus-entzunezko itzulpena irakasten zaiela Euskal Herriko Unibertsitatean Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak egiten dituzten ikasleei.

Aurrekari horiek gogoan izanik, telebistararako egiten den ikus-entzunezko itzulpenaren halako ikuspegi orokorra eskaini nahi dut orrialde hauen bidez. Horretarako, ETB1en euskarara bikoizturiko programak ikustea ahalbidetzen duen giza kate luzearen hasierako mailan daudenengana, hau da, ikus-entzunezko testuak euskarara aldatzeaz ardua dutenengana, hurbildu nahi izan dut, batetik, ikus-entzunezko itzulpenaren gainean dituzten kezka eta iritziak ezagutzeko, eta, bestetik, itzulpen mota honek berezko dituen ezaugarriek norainoko eragina duten haien eguneroko lanean jakiteko.

Ikerlan honek bi helburu nagusi ditu: lehenik, itzultzaile-egokitzailen² oinarritzko profilararen eta lan baldintzen berri jakin, eta

bigarrenik, ikus-entzunezko itzulpenaren berariazko oztopoen eragina ezagutzea.

Aipatu xedeak erdiesteko metodologiaz denaz bezainbatean, adierazi behar erabilitako metodologia hainbat itzultzaile-egokitzaileri igorri zitzairen galdeketa batean oinarritzen dela. Nire ustez, galdeketa horrek³ ikus-entzunezko itzulpenean nagusi eta erabakigarri diren alderdiak jasotzen ditu. Ohartzen naiz, halere, galdeketa partziala izan daitekeela eta beste hainbat alderdi ere lan zitezkeela. Hala helburuak nola helburuak lortzeko baliabideak xumeak dira, eta bere xumean bada ere, ikerlan honek eremu honetan argi apur bat egiteko eta jarduera praktikoa hobeto ezagutzeko balio badu, esan dezaket lortu nahi nuen helburua bete dudala.

Beraz, hemen aurkezten dudana hainbat itzultzaile-egokitzaileri igorri zitzairen galdeketatik atera ditudan ondorioak dituzue.

Galdeketaren nondik norakoak

Lehenago esan bezala, metodologiak berriaz prestatutako galdeketa bat du oinarri. Jarduera profesionala bertatik bertara ezagutu eta hainbat ikuspegi eta iritzi biltzeko biderik egokiena eta aldi berean erosoena galdeketa baten bidez itzultzaile-egokitzailengana jotzea iruditu zait.

Horiek horrela, galdeketa prestatu eta 2007ko azaroan zehar igorri nien gaur egun

1. Euskal Telebistararako egiten den itzulpenaz bakarrik ari naiz, eta, beraz, ez dira kontuan hartzen areto komertzialetan noizean behin euskaraz estreinatzen diren filmak, gehienak haurrei zuzenduta.

2. Ikus-entzunezko testuak itzuli ez ezik, sinkronizatu ere egin behar dira, hau da, testua aktoreen aho mugimenduetara egokitu. Hori dela eta, itzultzaile-egokitzailak deitzen zaie ikus-entzunezko testuak itzultzen dituzten profesionalai.

3. Lan honen bukaeran erantzen da itzultzaile-egokitzaileri bidalitako galdeketa.

lanean diharduten edo alor honetan lanean jardun izan duten hamalau itzultzaile-egokitzaileri. Kontuan hartu behar da gaur egun ez direla hogeitau baina gehiago izango lanbide honetan aritzen direnak, Euskal Telebistako lehenbiziko urte haietan 100 bat izateraino iritsi baziren ere.

Itzultzaile-egokitzaille horien izenak bikoizketa-etxeek berek eman zizkidaten. Galdeketa bidali aurretik, telefonoz jarri nintzen haiekin harremanetan eta galdeketa berri eman. Adierazi behar dut guztiek harrera ona egin zidatela eta prest ageri zirela galdeketa erantzuteko.

Hamalau horietatik bakarrik zazpi erantzun dute, hau da, erdiek baino ez. Guztiarekin ere, uste dut adierazgarritasun maila nahikoa dutela emaitzek, eta, beraz, emaitza horien sinesgarritasun maila ere aintzat hartzeko modukoa dela⁴.

Galdeketaekin hasi aurretik, zehatz-zehatz agertzen dira galdeketa bidez lortu nahi diren helburuak, hots:

- Gaur egungo euskarazko ikus-entzunezko itzulpena zertan den ezagutzea eta egoerari buruz gogoeta egiteko akuilu izatea.
- Ikus-entzunezko itzulpenaren prozesua murrizten edota baldintzatzen duten faktoreen berri ematea.
- Ikus-entzunezko itzulpenak zein arazo nagusiri egin behar izaten dien aurre ezagutaraztea.

- Etorkizuneko erronkak mahaigaineratzea.

Galdeketa emaitzak

1. Murrizketa profesionalak

Edozein lanbidetan gertatzen den bezala, ikus-entzunezko itzulpen gintzan ere hainbat oztoporri edo murrizketari egin behar izaten diote aurre lanbide honetako profesionalak. Murrizketa horiek ez dagozkie bakarrik arlo honetako itzulpenari, izan ere denboraren murrizketak, esaterako, itzulpen mota guztietan izaten baitu eraginik.

Murrizketak aintzakotzat hartzea garrantzitsua da, xede hizkuntzako testuari zuzen-zuzenean eragiten baitiote. Bi fasetan gertatzen dira: itzulpenari ekin aitzin eta itzulpen prozesuan bertan.

Itzulpen prozesuaren aurreko fasean zenbait faktore daude itzulpenaren emaitza baldintzatzen dutenak, edo, gutxienez, baldintzatu ahal dutenak. “Kanpoko faktore” deituko diegu eta itzultzaileek nolako lan baldintzei buru egin behar izaten dieten definitzen dute. Horien artean hauek dira aipagarrienak:

1. Prestakuntza maila
2. Itzulpena egiteko eskura duten materiala
3. Itzulpen enkargua egiteko denbora
4. Itzulpenaren ordainsaria

4. Soziologian erabiltzen den metodologiak ezarritako prozedura irizpideen arabera, posta bidezko inkesta baten galdeketa balioduna izan dadin, gutxienez unibertso osoaren %5ek kontrastatuta egon behar du (*Libro Blanco de la traducción en España*, 1997: 28). Gure kasuan 20 bat izango dira ikus-entzunezko itzultzaileen unibertsoa osatzen dutenak. Hortaz, jaso ditugun erantzunak, hots, zazpi, unibertsoaren %35 dira.

1.1. Prestakuntza maila

Batek ez gainerako guztiek hamar urte baino gehiagoko eskarmentua dute lanbidean, eta asko ari dira edo ari izan dira lanean Euskal Telebista sortu zenetik.

Gehienek mintegi eta ikastaroen bidez jaso dute ikus-entzunezko itzulpenarako prestakuntza. Ikastaro horiek eman dituzten artean, K2000 bikoizketa-etxea eta Ibon Sarasola eta Miren Azkarate aipa daitezke.

Hiruk adierazi dute itzulpengintzako ikasketak egin dituztela eta horietako batek egina du Euskal Herriko Unibertsitateko euskara-gaztelania itzulpengintza masterra.

Batek bakarrik egin ditu Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak, eta pertsona hori da, hain zuzen ere, lanean urte gutxien daramana. Gogoratu Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak 2000-01. ikasturtean ezarri zirela EHUan.

Beraz, lasai esan daiteke arlo honetako itzultzaile ia gehienek lanbidea ekinez ikasi dutela.

1.2 Itzultzaileek eskura duten materiala

Hasierako materialari dagokionez, bikoizketa-etxeek sorburu hizkuntzako gidoiak jartzen dituzte itzultzaileen eskura. Gehienetan postprodukzioko gidoia izango da, hau da, filmatzean izan diren aldaketak jasotzen dituen gidoia. Aurreprodukzioko gidoia jasotzez gerotan, tentu handiz ibili behar du itzultzaileak, askotan ez baitira bat etortzen pantailan entzuten diren elkarriketak eta gidoiak jasotzen dituenak.

Gidoiarekin batera, VHSko bideo zinta ere jasotzen dute. Itzultzaileek erantzun du-

tenez, gaur egun DVD formatuan egindako kopia gero eta gehiago erabiltzen da.

1.3 Enkargua egiteko denbora

Oro har, badirudi arlo honetako itzultzaileek denbora nahikoa izaten dutela enkargua epe barruan egiteko. Horrela, gehienek esaten dute denbora “enkarguaren edo materialaren arabera”koa izaten dela eta zaila dela zehazten, lanen luzera desberdina izaten delako. Batek, esaterako honela erantzun du: “Serie luzeetan, epea, jasotako atal kopuruaren eta euren emisioaren arabera-koa izaten da”.

Egia da batzuek aipatzen dutela lana “egun bererako edo hurrengo egunerako edo asteburuan zehar egiteko” eskatzen zaiela, baina badirudi salbuespenak besterik ez direla.

Gehiago zehazte aldera, batek adierazten du epea astebetekoa dela film luzea bada; beste batek dio “marrazki bizidunetako atala izanez gero, 1-2 egun”; hirugarren batek “8-14 egun bitartean”.

1.4 Itzulpenaren ordainsaria eta lanaren gero-ko aitortpena

Erantzun dutenen artean bik uste dute nahiko ordainduta dagoela.

Halere, gehienek ustez lanbidea gutxi ordainduta dago eta baten ustez “infraordainduta dago”.

Azkenik, beste batek uste du okerrena ez dela gutxi edo nahiko ordainduta egotea, baizik eta “arazo larriena joerarena dela, beharera, atzeraka eta okerrera doala, alegia”.

Egile eskubideei dagokienez, itzultzaileak bai jaso ditzake eskubide horiengatik ordainsariak, betiere Egile eta Argitaratzaile

leen Elkargo Nagusian (SGAE delakoan) horretarako eskaera aurkezten baldin badu.

Halere, guztiek erantzun dute esanez egindako itzulpen-egokitzapenek ez dutela geroko aitorpenik jaso, eta, beraz, ez dutela, egile eskubideak direla eta, inolako ordain-saririk jaso.

2. Murrizketa formalak

Alderdi profesionalekin loturik dauden murrizketak ikusi ondoren, goazen orain ikustera murrizketa formalek nola eragiten dioten azken emaitzari.

Murrizketa formalak itzulpen prozesuaren baitan gertatzen dira eta zerikusi handia dute itzultzeko erabakietan. Era honetako murrizketak bikoizketarako itzulpen-egokitzapenaren arau, teknika eta konbentzioei datxekie eta garrantzitsuenen artean sinkronia eta isokroniaren kontzeptuak daude.

2.1 Bikoizketarako konbentzioak

Konbentzioez denaz bezainbatean, erantzun gehienek adierazten dute argibideak bikoizketa etxeak berak jartzen dituela, eta, ondorioz, bikoizketarako zeinuak erabili behar dituztela bikoizketa-etxearen arabera. Beste bik, berriz, enkargua egin dien pertsonaren arabera. Ondorioz, itzultzailea bezeroaren esanetara dago.

2.2 Kode grafikoen itzulpena

Izenburuak ikus-entzunezko testuen hasieran agertzen dira. Haien itzulpena dela eta, “gehienetan telebista kateak nahiz banatzaileak aurrez jarritakoak izan ohi dira, nahiz eta inoiz proposamenen bat egiteko eskatzen zaigun”.

Errotuluak ere itzuli egin ohi dira. Itzultzaileak orduan ondo markatu behar du denbora kodea eta soinu teknikariak arduratzen dira errotulu bakoitza dagokion denboran sartzeaz. Errotuluak itzultzen direnean erabiltzen diren teknikak bi dira batez ere: testuaren itzulpena *offen* narratzea edota azpidatzen bidez aditzera ematea.

2.3 Pertsonaien izenen, beste hizkuntza batzuetako berbaldien eta abestien itzulpena

Pertsonaien izenei dagokienez, itzultzaile batek aipatzen du azkenaldian, “merchandising” dela eta, “izenak bere horretan uzteko” eskatzen dutela sorburu hizkuntzako produkzio etxeek. Izan ere, askotan filmetan zein marrazki bizidunetan sona handia lortu duten pertsonaia ospetsuak iturri ezin oparagoa dira era guztietako produktuak saltzeko (gogoratu, adibidez, Harry Potter eta The Simpsons kasuak).

Beste hizkuntza batzuetako berbaldiak direla eta, dauden daudenean utzi eta azpidatzi ohi dira. Azpidatziez esan behar da oso zorrotz bete behar direla ETBk azpidaketarako ezarrita dituen arauak, hala nola lerroen luze-laburra, lerro bakoitzeko iraupena, arau ortotipografikoak...

Abestien aurrean nola jokatzeko den azaltzeko, egokia iruditu zait Otzerinjauregi itzultzaileak egindako komentarioa hona ekartzea, oso argi esplikatzeko baitu abestiekin zer egiten den:

“Abestirik agertuz gero, kasu bakoitza aztertu ohi da. Gehienetan jatorrizkoa uzten da, besterik gabe. Inoiz azpidatzi ere egin dugu. Eta kasu batzuetan, abestiko hitzek tramarekin zerikusi zuzena badute (batez ere umeentzako saioetan edo marrazki bizidunetan) itzuli eta kantatu egiten dira. Nik normalean itzulpen zuzena egiten dut, eta

gero musikan nik baino adituagoren batek egiten du egokitzapena. Marrazki bizidunetako hasierako eta azkeneko kantak ere itzuli eta kantatu egin ohi dira”.

2.4 Sinkronia fonetikoa eta isokronia

Ikus-entzunezko obra baten kalitatea neurtzeko erabiltzen diren hiru parametroen artean egokitzapena, hots, sinkronizazio lana, agertzen zaigu ahozkotasanarekin eta dramatizazioarekin edo bikoizketarekin batera.

Irudiek, hau da, ikusizko kanalak, eta soinuek, hau da, entzunezko kanalak, itzultzaileak behartzen dituzte, alde batetik, xede hizkuntzako hainbat fonema (kontsonante ezpainkariak eta bokal irekia edo erdi irekiak bereziki) pantailan ageri den pertsonaiaren artikulazio mugimenduen arabera doitzera, eta, beste alde batetik, itzulpena jatorrizko berbaldien luze-laburrera ekartzera.

Horiek horrela, galdeketa honen bidez jakin nahi nuen sinkronia fonetikoak eta isokroniak norainoko eragina duten itzultzaileen egokitze lanetan, eta, hortaz, ikus-entzunezko testuaren azken emaitzan.

Ezpain sinkroniari dagokionez, erantzun guztiak bat etorri dira: hala kontsonante ezpainkariak (*b/p/m, f/v*) nola bokal irekiak

edo erdi irekiek (*a, e* eta *o*) eragin handia edo erabatekoa dute egokitze lanean.

Isokroniak ere berebiziko garrantzia du itzultzailearen egokitze lanean.

Azkenik, pertsonaiak *onen* edo *offen* egoteak duen eraginaz ez datoz bat erantzun guztiak: batzuen ustez, eragin txikia du azken emaitzan; beste batzuen ustez, berriz, eragin handia.

Arazo nagusiak

Galdeketeri jarraiki, ondoren jakin nahi nituen bikoizketarako itzulpenak bere baitan biltzen dituen arazo edo oztopo nagusiak. Horretarako, nire ustez itzultzeko zailtasunik handienak dituzten sei koskaren zerrenda osatu eta zailtasunaren arabera 1etik 5era zenbatzeko eskatu nien (1 = zailtasunik gabekoa; 5 = zailtasunik handiena).

Emaitzak taula baten bitartez erakutsi baino lehen, derradan umorea itzultzea dela itzultzaile guztien ustez zailtasun mailarik handiena erakusten duen elementua; ondoren, abestiak eta erreferentzia kulturalak ageri dira hurrenez hurren.

Hona hemen arazo nagusiak eta itzultzaileen erantzunak arazo bakoitzaren zailtasun mailak 1etik 5era zenbatuta:

Komunikazio erregistro egokia	3	5	4	3	3	2	4
Hizkuntza aldaerak	3	5	4	5	3	2	3
Umorea	4	3	4	5	5	4	5
Ironia	3	3	3	5	4	3	3
Erreferentzia kulturalak	4	4	4	4	3	3	2
Abestiak	3	4	5	4	5	4	—

Zuzentzaileen eragina

Bikoizketaren prozesuaren barruan hainbat profesionalek hartzen dute parte. Horiei guztiei esker, telebista ikusleok kanpoko hainbat programa euskaraz ikusteko aukera izaten dugu.

Euskararen kasuan, bikoizketa-etxeetan hizkuntza zuzentzaile bat izan ohi da. Gainera, ETBko kalitate kontroletik ere igaro behar da itzuli-egokitutako produktua.

Horiek horrela, bikoizketa-etxeetako nahiz ETBko hizkuntza zuzentzaileen egitekoak itzultzaile-egokitzzaileen lanean duen eragina ezagutu nahi nuen.

Gehienen ustez, zuzentzaileek egiten edo proposatzen dituzten aldaketak xumeak izaten dira. Beraz, haien eragina ez da oso handia.

Beste biren ustez, ordea, zuzentzaileek egiten edo mahaigaineratzen dituzten proposamenek estiloa eta bereziki adierazpideak aberasten laguntzen dute.

Ikus-entzunezko itzulpena eta euskararen normalkuntza

Azkenik interesatzen zitzaidan jakitea ikus-entzunezko itzultzaile-egokitzzaileek 25 urtez isilpean mamitu duten lanak zer-nolako eragina izan duen euskararen estandarizazioan eta normalkuntzan.

Batek bakarrik erantzun du esanez ez duela uste eragin handirik izan duenik. Beste batek dio bikoizketak euskararen ahoskera batua finkatzeari lagundu diola.

Gehienek uste dute adierazpideak, hau da, esaerak, esaldi eginak edo kliseak, aberastu eta hedatzeko balio izan duela.

Bukatzeko, adierazpideak aberasteko ez ezik, komunikazio egoera bakoitzari dagokion ahozko erregistro desberdinak finkatzen joatea ere faboratu duela uste dute.

Iruzkina

Galdeketeri erantzun ondoren, aukera eman nien nahi zuten guztia gaineratzeko, izan ere galdeketa guztiak partzialak izaten dira eta askotan zenbait alderdi itzuri egiten zaizkio galdera egileari eta behar bezala jorrratu gabe uzten dira.

Hain zuzen ere, ikuspegi partziala ematea saihestearren, uste dut merezi duela iruzkin horietako batzuk orrialde honetara bere gordinean transkribatzea, hartara irakurleak eduki osoaz jabetu daitezzen.

Galdeketeraren bidez bildutako erantzunen arabera zein telefonoz izandako elkarrizketen ondorioz, oro har esan daiteke oso ikuspegi ezkorra dutela beren lanbideaz eta lanbidearen etorkizunaz. Ikus-entzunezko itzulpenaz denaz bezainbatean, gero eta okerrago goazelako ustea edo irudipena nabarmen baino nabarmenagoa da. Hona esandakoaren frogak:

“Ikus-entzunezkoak hilik daude ETBn. Ez dute film bakar bat ere emititzen. Gaztetxoentzako telesailik ere ez. Adin batetik aurrera haurrek ihes egiten diote ETBri (8-9 urte). Eta nerabeek, zer esanik ez. Horren lekuko naiz egunero.

Salbuespenak albuespen, ikus-entzunezkoen alorrean analfabetoak gara.

Eta bukatzeko, duela hogeita sei urte ogibide honetan hasi nintzanean (itzultzaile-egokitzzaile), esan ziguten Donuts saltzaileen pareko estatusa genuela. Halaxe izan gara orain arte eta jarraitzen dutenak egoera horretan daude.

Bukatzeko, duela urte pare bat, hamar urtean gure eroste-ahalmena %50 jaitsi arren, KPI igoera ere ukatu zigun bikoizketa etxe batek.”

Kezka horretaz gain badute kezka gehiago, noski, irudiak eta soinuak ezarzen dizkien mugekin zerikusia dutenak. Interesgarria iruditzen zait hona ekartzea lanean hasiberriek edo ikasketak bukatu eta berehala lanean hasteko direnek luze gabe buru egin beharko dieten buruhausteen zer-nolakoen berri ondo baino hobeto ematen baitu:

“Marrazki bizidunak itzultzen aritzen naiz eta, serie batzuek sormen lan handia eskatzen dute. Hizkuntzaren erabilera, lekuan lekukoa da, eta guk euskara batuan sortu behar dugu. Hori da arau bakarra, batzuentzat arau, besteentzat gomendio... Ni beldurrak ibiltzen naiz, hitzak asmatzea zilegi izango den, noraino ‘asma’ dezakedan, umorea edo txistea aldatu bai ala ez, efektu bera sortu edo hitzei lotu... (ez ahaztu irudia dela nagusi). Eta ‘asmamena’ ezin da arautu.”

Eta horrekin lotuta, hizkuntza bera askotan oztopo izaten dela eta, kexu ageri da itzultzaile bat:

“(...) itzultzaile-egokitzaileroi askatasuna falta zaigula uste dut. Hizkuntza gure lanerako tresna izanik, ez dugu hura erabili eta gure beharretara moldatzeko, ez askatasunik, ez segurtasunik, nahiz eta behar-beharrezkoak diren gure itzulpenak dituen mugak gainditzeko. Baina horrek badu konponbiderik, guztiontzako ikus-entzunezko testuetarako ‘corpusa’ eratzea (itzulpen nahiz barne produkzioarako baliagarri izango dena). Eta urrats gutxi eman dira hemen.”

Ondorioak

Oker handirik gabe esan dezaket ikus-entzunezko itzulpena dela itzulpengintzako ikasleen artean interes gehien pizten duen ikasgaia. Zorritzarrez, ikasleen itxaropenak eta lan merkatuak gaur egun eskaintzen dituen lan aukerak ez datoz bat. Galdeketa zehar eta lanbide honetako zenbait profesionalekin telefonoz izandako elkarrizketetan agerian geratu denez, euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren lanbideak gain behera egin du azken hamar urteetan, munduan gertatzen denaz bestera, bide batez esanda. Izan ere, ikus-entzunezko itzulpena⁵ da XXI. mendean gehien praktikatzen eta kontsumitzen den itzulpen mota.

Horrekin lotuta adierazi behar dut gehien ustez lanbidea gaizki ordainduta dagoela, eta horri gaineratzen bazaio gero eta lan gutxiago sortzen dela, ondorioak begien bistakoak dira: batetik, ia ez dago itzultzailearik bakar-bakarrik itzulpen mota honetatik bizi denik; eta, bestetik, nola erabiltzen ez diren tresnak herdoildu eta kamustu egiten baitira, hala gertatzen zaie itzultzaileei ere: jardun ezik, ekinaren ekinenez garai batean bereganatutako gaitasun eta trebezia guztiak arian-arian galduz joaten dira.

Ondorioen artean azpimarratu nahi nuke ikus-entzunezko itzultzaileen prestakuntzan autodidaktismoak jokatu duen paper garrantzitsua. Ikus-entzunezko itzulpena ikasteko aukera gutxi zegoen garaietan, jardunaren jardunez eta bikoizketa-etxeek

5. Tebistarako eta zinemarako itzulpena ez ezik, bideojokoetako eta multimediako itzulpena ere ikus-entzunezko itzulpenaren barruan sartzen dira.

han-hemen antolatutako mintegi eta tailetan esku hartuz lortu zuten aurrera egitea eta emaitza gero eta duinagoak lortzea. Eta norberaren ahaleginari esker, lanbide hone-tako profesionalek lanbidearen oinarriak finkatuta utzi dituzte, eta horregatik merezi duten aitortpena jaso behar dute.

Jarduerari berari dagokionez eta konbentzioak direla eta, erantzunek baiezta-tu dute bikoizketa-etxe bakoitzak bere konbentzio propioak erabiltzen dituela, nahiz eta arau orokorrak egon dauden.

Bestalde, itzultzaileek erantzun dutena-ren arabera, egokitzapen prozesu horren barruan sinkronia fonetikoak eta isokroniak berebiziko garrantzia dute. Gaizki sinkroni-zatuta dagoen film batek, esaterako, ez digu ikus-entzunezko produktuaz behar bezala gozatzen utziko, eta, ziurrenik, ikus-entzu-leak kanala aldatzera edo telebista itzaltzera eramango ditu.

Ikus-entzunezko testuak itzultzeko ga-raian aurkitzen dituzten kosken artean, bat nabarmendu behar oroz gaineratik: umorea-ren itzulpena. Orobat, abestien eta errefe-rentzia kulturalen itzulpena ere arazo iturri izan ohi da.

Azkenik, ikus-entzunezko itzulpenak euskararen garapenean izan duen eragina dela eta, gehienek uste dute ez bakarrik ahoskera finkatzen laguntzeko, baita adie-razpideak aberasteko eta erregistro desber-dinak erabiltzeko ere balio izan duela.

ESKER ONA

Nire esker ona erakutsi nahi diet galde-keta erantzun duten guztiei: Santi Brouardi, Maite Eizmendiri, Idoia Gilleneari, Jesus Mari Lasari, Leire Lekuonari, Gema Liza-rralderi eta Jesus Otzerinjauregiri.

ERANSKINA: IKUS-ENTZUNEZKO ITZULPENARI BURUZKO GALDEKETA

1. Aipatu itzultzaile-egokitzaille gisa jaso duzun prestakuntza (behar diren guztiak markatu).

- Filologiako ikasketak
- Itzulpengintzako ikasketak
- Ikus-entzunezko itzulpeneko prestakuntza
- Bikoizketarako prestakuntza
- Berridazketarako prestakuntza
- Besterik bada, aipatu, mesedez:

2. Ikus-entzunezko itzultzaile-egokitzaille gisa duzun eskarmentua.

- 5 urte baino gutxiago
- 5-10 urte bitartean
- 10 urte baino gehiago

3. Zenbat denbora izaten duzu itzulpen enkargua egiteko?

- Astebete
- 8-14 egun bitartean
- Besterik bada, aipatu, mesedez:

4. Itzulpena egiteko ematen zaizun materiala:

- Sorburu hizkuntzako gidoia (preprodukziokoa nahiz postprodukzioak)
- VHSko kopia
- DVDn egindako kopia
- Azpizatzen kasuan, bikoizketarako prestatu den itzulpen-egokitzapena ere izaten dut

5. Itzulpenaren ordainsaria

- Ondo ordainduta dago
- Nahiko ordainduta dago
- Gutxi ordainduta dago

6. Izan al du zure itzulpenak inolako aitortpenik edo *copyright*ik? Egile-eskubideak direla eta, ordainsaririk jaso al duzu?

- Bai
- Ez

7. Bikoizketarako zeinuak edo konbentzioak erabili behar dituz

- Bikoizketa-etxearen arabera
- Enkargua egin didan pertsonaren arabera
- Produktua emititzeko erabiliko den bidearen arabera (zinema, telebista, DVD)

8. Ondoren aipatzen diren arazoen aurrean, arau zehatzik jarraitu behar izan al duzu?

- Izenburuen itzulpena
- Gaininpresioak
- Errotuluak
- Abestiak
- Beste hizkuntza bateko berbaldiak
- Besterik. Azaldu, mesedez:

9. Sinkroniak (on/off, kontsonante ezpainkariak, bokal irekiak) emaitzan duen eragina:

- Erabatekoa
- Handia
- Txikia
- Bat ere ez

10. Isokroniak, hots, berbaldien luze-laburrera egokitzeak, egokitze lanean duen eragina:

- Erabatekoa
- Handia
- Txikia
- Bat ere ez

11. Arazo nagusiak. Zenbatu 1etik 5era zailtasunaren arabera (1>zailtasunik gabekoa; 5>zailtasunik handiena)

- Komunikazio egoera bakoitzerako erregistro egokia topatzea
- Hizkuntza aldaerak (dialektoak, argota ...)
- Umorea
- Ironia
- Erreferentzia kulturalak (ahozkoak nahiz ikonikoak)
- Abestiak
- Besterik bada, aipatu mesedez:

12. Zenbaterainoko eragina dute ETBko nahiz bikoizketa-etxeetako zuzentzaileek egiten edo proposatzen dituzten aldaketek?

- Gehienetan aldaketak xumeak izaten dira
- Estiloa (adierazpideak) aberasten laguntzen dute
- Batez ere ahozko erregistroarekin dute zerikusia

13. Zure ustez, eraginik izan al du ikus-entzunezko itzulpenak euskararen estandarizazioan eta normalkuntzan? Hala bada, zein esparrutan?

- Ahoskeran (bikoizketari esker)
- Adierazpideetan (esaerak, esaldi eginak, klixek...)
- Ahozko erregistro desberdinak finkatzean

14. Orain aukera duzu nahi duzun guztia gaineratzeko:

Encuesta a traductores audiovisuales: informe de resultados

El presente trabajo intenta sacar a la luz el perfil básico del traductor audiovisual en euskera, así como acercarse a la práctica profesional de la traducción audiovisual. Con el fin de conocer las condiciones laborales y socio-profesionales en las que trabaja este colectivo de traductores, se diseñó una encuesta cuyas respuestas, una vez analizadas y sistematizadas, se presentan en estas páginas.

La encuesta recoge datos sobre aquellos factores que inciden o al menos pueden incidir en el resultado final de la traducción. En este sentido, factores como el nivel de formación de los traductores audiovisuales, el material y el tiempo del que disponen para hacer frente al encargo de traducción y las restricciones que operan en la traducción audiovisual son objeto de estudio y análisis. Los resultados de la encuesta ponen de relieve en primer lugar la necesidad que tienen los traductores audiovisuales de recurrir a otro tipo de traducciones para poder sobrevivir debido a la insuficiente remuneración y a la poca demanda existente en este campo. Asimismo debe destacarse el papel que el autodidactismo ha desempeñado en la formación profesional de estos traductores. Por lo que a la práctica traductora se refiere, las respuestas confirman que los estudios de doblaje establecen sus propias convenciones para el doblaje. Entre las restricciones formales destacan la sincronía fonética y la isocronía. Por último, la traducción del humor y de los referentes culturales, así como la traducción y adaptación de las canciones aparecen como las principales dificultades que los traductores audiovisuales deben vencer.

Enquête auprès de traducteurs audiovisuels : rapport de résultats

Le présent travail tente de mettre en lumière le profil basique du traducteur audiovisuel en langue basque, et permet une approche de la pratique professionnelle de la traduction audiovisuelle. Afin de connaître les conditions de travail et socio-professionnelles dans lesquelles travaille ce collectif de traducteurs, une enquête a été élaborée, dont les réponses, une fois analysées et systématisées, sont présentées dans ces pages.

L'enquête rassemble des éléments sur ces facteurs qui influent ou, du moins, peuvent influencer sur le résultat final de la traduction. En ce sens, des facteurs comme le niveau de formation des traducteurs audiovisuels, le matériel et le temps dont ils disposent pour faire face à la demande de traduction et les restrictions qui interviennent dans la traduction audiovisuelle font l'objet d'études et d'analyses.

Les résultats de l'enquête font ressortir en premier lieu la nécessité qu'ont les traducteurs audiovisuels de recourir à d'autres types de traductions pour pouvoir survivre compte tenu de la rémunération insuffisante et de la faible demande existant dans ce secteur. De même, il faut souligner le rôle joué par l'autodidactisme dans la formation professionnelle de ces traducteurs. Pour ce qui est de la pratique de traduction, les réponses confirment que les studios de doublage établissent leurs propres conventions pour le doublage. Parmi les restrictions formelles se détachent la synchronie phonétique et l'isochronisme. Enfin, la traduction de l'humour et des référents culturels, ainsi que la traduction et l'adaptation des chansons apparaissent comme les principales difficultés que les traducteurs audiovisuels doivent surmonter.

Survey of audiovisual translators: report on results

This work reveals the basic characteristics of the audiovisual translator in Basque, and examines the professional practice of audiovisual translation. A survey was designed in order to determine the working and socio-professional conditions under which this group of translators works, and the answers, analyzed and systematized, are presented in this report.

The survey gathered data on the factors that influence or have the potential to influence the final result of translation. Thus, factors like the level of training of audiovisual translators, the materials they use, the time they have to carry out the job of translation and the restrictions that operate in audiovisual translation are the object of study and analysis.

The results of the survey show first the necessity for audiovisual translators to turn to other types of translation in order to survive due to the insufficient remuneration and lack of demand that exist in this field. Likewise, it must be noted that self-training has played a prominent role in the professional training of these translators. With respect to the practice of translation, the answers to the survey confirm that dubbing has its own conventions. Phonetic synchrony and isochrony were identified as restrictions on form. Finally, the translation of humor and cultural references, as well as the translation and adaptation of songs, are the primary difficulties that audiovisual translators must overcome.



Terminologia hizkuntza-kudeaketaren baitan

JOXEAN ZAPIRAIN

UZEIko Terminologia Saila

Inork “*eta zuek zertan aritzen zarete UZEIn?*” galdetuko balu “*Terminologia eta Lexikografia egiten*” erantzun beharko litzaioke zentzu hertsian. Baina galdera egin duena hiztun arrunta bada, alegia, hizkuntzalaritzako ezagutza berezirik ez badu, erantzun horrekin ezer gutxi ulertuko luke gehienetan. Segidan, “*hiztegiak egiten*” azalpena erantsiz gero, errazago gertatuko litzaioke ulertzea UZEIn nolako lana egiten den. Izan ere, oraindik jende askorentzat garai batean argitaratutako hiztegi haiek dirrelako seguruenik UZEIn produkturik ezagunenak, etxearen marka berezia, nolabait esateko. Are gehiago, galdera egin duen hiztuna zein alor edo eremutan aritzen den kontu, hiztegi bat edo beste nonbait ikusia edo erabilia izan lezake.

Hiztegiak, beraz. Batez ere, hiztegi terminologikoak. Jakintza-arlo jakin batean normalizazio linguistiko eta sozialaren bila,

eta betiere alor bakoitza bere osotasunean hartuz, kanpoko adituen lankidetzaz ugarirekin prestatutako hiztegi eleaniztunak. Hiztegi terminologikoa gaztelera-euskara bikoteekin prestatutako hitz-zerrenda soila baino zerbait gehiago da, helburu zehatz batzuk lortzeko eta metodologia jakin bati jarraituz osatutako lan terminologikoa den neurrian.

Bere eguneroko jardunean era guztietako hiztegiak eta izendegiak baliatzen dituzten hiztun gehienek ez dute hain garbi izaten, ordea, zertan bereizten den terminologoaren lana hizkuntzarekin lotutako beste lan batzuetatik. Izan ere, terminologia egitea, hiztegiarekin bakarrik erlazionatzen dute, eta zehazkiago hitz-zerrenda batzuk itzultzearekin.

Altuera desberdinetatik begira daiteke edozein errealitate, eta altueraren arabera ikuspegi bakoitzak errealitatearen konple-

xutasuna hobeto ulertzen laguntzen du. Terminologiarekin ere antzeko zerbait gertatzen da, eta, txori batek lurrera altuera batetik edo bestetik begiratzen duenean ikuspegi desberdinak dituen bezala, terminologia-arazoak oso era desberdinean ikus daitezke ikuspuntuaren arabera.

Gertu-gertutik begiratu gero, terminoak oso interes konkretua du. Maila horretan unean uneko arazo linguistikoei konponbide bat aurkitzea da lehenetsua, eta, konponbide hori aurkitu ezean, arlo horretako terminologiaren ikuspegia ezinbestean ezkorra izango da. Ongi daki itzultzaileak bere lehenetsunetako bat eguneroko lanean behar dituen terminoen ordain egokiak aurkitzea dela. Eta bilatzen duen ordaina eskura dituen hiztegiaren ez aurkitzeak kasu-kasu bestelako konponbideak bilatzera behartzen du. Gauza jakina da hiztunen arteko komunikazioa ez dela eteten terminologia-ezagatik, baina bizirik ez ezik osasuntsu egon nahi duen hizkuntza orok izan behar du nazioartekotasun maila homologatua terminologiari dagokionean, eta hutsune terminologikoak betetzea da hizkera teknikoak duen beharretako bat.

Itzultzaileak unean-unean dituen behar zehatzen maila hori gaingitu eta terminologiari goragotik begiratu gero, falta diren terminoek uzten duten hutsuneari baino arreta gehiago jarriko zaio jakintza-eremu edo espezialitate-arlo desberdinetako hiztegien beharriari. Itzultzaileek eta, gero eta gehiagotan, enpresetako kalitate-arduradunek ere, izendegiak edo hiztegi erako bestelako baliabideak garatzen dituzte, beren behar bereziei erantzun sistematikoagoa emateko. Hizkuntzaren aldetik baliabide horietako batzuk izan daitezke beste batzuk

baino hobeak, osoagoak, orekatuagoak... baina guztiak dira neurri batean edo bestean erabilgarriak aldian aldiko arazo terminologikoei aurre egiteko.

Arazo terminologikoei oso hurbiletik, gertuegitik agian, begiratzen zaienean, tentazio handia izan daiteke pentsatzeko edozeinek egin dezakeela hiztegi terminologiko bat. Arazo puntualei emandako irtenbideak bilduz eta txukun antolatuz, izendegiak osatzen dituzte itzultzaile gehienek, testuen koherentzia bermatzeko ia ezinbesteko tresna gertatzen baitzaizkie izendegi horiek, ordenagailuz lagundutako itzulpengintzarako tresnekin batera. Neurri batean, izendegi bat sortzen duen norbait ez dago oso urruti hiztegiarekin izateko. Eta lexiko orokorra kanpoan uzten duen izendegi/hiztegi bat terminologia-lana bada, ez ote ditugu Euskal Herrian uste genuen baino terminologo gehiago?

Seguruenik, ezetz erantzungo du hizkera espezializatuko hiztegi txukun bat egin behar izan duen edozein hiztegiarekin. Izan ere, hiztegi terminologiko koherente bat osatzea ez da ematen duen bezain lan erraza.

Maila honetan, erabilzailearen arazo garrantzitsuenetako bat landutako informazioaren kudeaketa sistematizatzea da. Zenbat eta jakintza-arlo gehiago landu, edo zenbat eta termino edota sinonimo gehiago jaso, orduan eta zailagoa da terminologiaren koherentziari eustea, baita lexiko orokorren eta hizkera teknikoaren arteko muga bereizteko irizpidea sistematikoki errespetatzea ere.

Terminologiari urrutiagotik begiratzeak, berriz, hiztegi teknikoaren kudeaketak bereizteko dituen arazoak gaingitzeko konponbideak bilatzera eramango du terminologoa.

Batetik, hiztegien barne-koherentzia eta, bestetik, ezagutza-arlo bakoitzeko hiztegien arteko oreka bermatu nahian sortu eta gartu dira terminologia-bankuak. Ikuspegi honetatik begiraturaz, ez du halako garrantzirik kontzeptu batzuk adierazteko terminorik ez edukitzeak edo ezagutza-arlo jakin bateko terminologia landu gabe egoteak. Maila honetan gehiago kezkatzen du terminologoa lehendik eginda dagoen lan terminologikoa kontrastatzeak, hiztegi berriak egiteak baino.

Hiztegi terminologikoak

Terminologiari altuera edo ikuspegi batetik edo bestetik begiratzen zaionean, terminologoak ondo bereizi behar ditu zein diren maila horietako bakoitzean izan behar dituen lehentasunak eta jarraitu behar dituen lan-prozedurak. Eta zentzu horretan, terminologia-lanaren barruan oso ondo bereizten dira hiztegi terminologiko bat egiteko terminologoak eman behar dituen urratsak:

1. Aholkulari eta adituen taldea eratzea

Begi-bistakoa den bezala, terminologoak ez ditu jakintzaren atal guztiak menderatzen. Horrexegatik, komeni da jakintza-arlo horretako profesionalekin harremanetan jartzea, profesional horien artetik aholkulariak aukeratu ahal izateko. Adituek gai hauetan emango dute laguntza:

- a) Dokumentazio egokia identifikatu eta osatzeko.
- b) Ereduaren ikuspegi ahalik eta osoena eman eta eremu-zuhaitza finkatzeko.
- c) Lan terminologikoaren fase bakoitzean osatzen diren hitz-zerrendetan falta di-

ren edo soberan dauden terminoak identifikatzeko.

- d) Euskarazko eta erdarazko terminoei buruzko ekarpenak egiteko, beraiek erabiltzen duten terminologia proposaturaz.
- e) Kontzeptuei buruzko argibideak eskaintzeko, definizioak osatzean.

2. Dokumentazioa aukeratu eta corpusa zehaztea

Terminologia-lanean, funtsezkoa da arlo jakin horretako adituek errealitatean erabiltzen dituzten terminoak antzematea eta bilzteza. Horretarako, terminologoak dokumentuetatik jaso behar ditu terminoak, baita terminoaren esanahia, forma eta erabilera ere, ondoren termino-proposamen egokia egiteko. Bestalde, terminologoak alor tekniko horretan argitaratua dagoen dokumentaziora jo beharra dauka jakintzagai horri buruzko kontzeptu-sistema ezagutzeko. Dokumentu-corpus hori egokia izatea (osoa izatea, helburuen arabera egokia, etab.) garrantzitsua da terminologia-lanarentzako. Horregatik, terminologia egin nahi duenak ezinbestekoa du ezertan hasi aurretik dokumentazio-zerbitzu egoki bat edukitzea, landuko dituen ezagutza-arlo bakoitzeko testu teknikoaren erreferentziak bilduko dituen, testu horiek izango baitira lan terminologikoaren oinarria. Gainera, terminologia-lana kontzeptuetatik abiatzen denez, adibidez, hiztegi terminologiko elebidun bat egiteko, terminologoak ez ditu bilduko bi hizkuntza horietako testu teknikoak soilik, baizik eta edozein hizkuntzakoak; betiere, jakina, berak menderatzen dituen hizkuntzetakoak badira, eta arlo

horretan adituak direnen testu zuzen/fidagarriak badira.

Beraz, terminoak bilatzeko eta kontzeptuak argitzeko baliagarriak izan daitezkeen euskarazko nahiz beste hizkuntzetako dokumentuen inbentarioa egin behar da (arlotako testu espezializatuak, obra terminologikoak nahiz maila apalagoko bestelakoak), eta corpus egituratu gisa antolatu.

Dokumentazio-zerbitzuak gai horri buruzko dokumentazio teknikoak ikertu ondoren, dokumentu bakoitzaren erreferentziadatuak (egilea, titulua, etab.) jaso eta datu-base batean bilduko dira. Era berean, dokumentu bakoitza kodetu egin behar da, fitxa terminologikoak lantzean termino bakoitza nondik atera den jakin ahal izateko.

3. Eremu-zuhaitza. Kontzeptu-sistema eta sailkapena

Eremu bateko terminologia ez da termino-bilduma arbitrarioa. Arloaren funtsezko unitatea kontzeptua da. Eremu bateko terminologia eremu hori osatzen duten kontzeptuei esleitzen zaion izendapenen multzoa da. Eta kontzeptu horiek kontzeptuen arteko harremanetan oinarritutako sistema koherentea osatzen dute.

Kontzeptu-sistema antolatzeko modurik erabiliena eremu-zuhaitzarena da. Eremuko kontzeptuak adar eta azpiadarretan sailkatzeko dira, modu hierarkikoan. Adar bakoitzari kode bat ematen zaio, fitxa terminologikoa lantzean kontzeptuari dagokion kodea erabiltzeko.

Eremu-zuhaitzak ikerketarako gida moduan balio du, bai hustuketa-plana egiteko orduan, bai terminoen bidezko erabakitzeko orduan, fitxak sailkatu eta orde-

natzeko orduan, termino-unitateak modu logiko eta sistematikoan definitzeko orduan, edo terminoak datu-base batean sartzeko orduan. Egia esan, prestaketa-lan hauetan kontzeptu-sistemaren eta eremu-zuhaitzaren lehen zirriborro bat egiten da (adituen laguntzaz, jakina), eta gero hiztegia lantzen joan ahala, eta baita definizioak lantzean ere, noski, kontzeptu-sistemaren eta are eremu-zuhaitzaren behin betiko bertsioa finkatuko da.

Terminologia-bankuak

Hiztegi terminologiko bat plazaratzera-koan terminologoei erabili duten eremu-zuhaitza ere argitaratzeak laguntza handia dakarkio hiztegi hori baliatuko duenari, ez bakarrik hiztegiaren koherentziaren frogagiria delako, baita ere eremu-zuhaitzaren bidez hitzunez jakin dezaketelako terminologikoa nola antolatu duen ezagutza-arlo hori. Gainera, eremu-zuhaitzari esker hiztegiaren erabilzaileak jakin dezake zein arlotako terminoak jaso diren, eta zein arlotakoak utzi diren hiztegitik kanpo. Izan ere, sailkapen horretan oinarrituz hautatu behar baititu terminologikoa batek kontzeptuok, hiztegian ezagutza-arlo hori osotasunean aztertzeko eta terminoen arteko oreka gordetzeko.

Jakina, gero eta hiztegi terminologiko gehiago ditugun neurrian, kontzeptuak kontsultatzea ere gero eta lan neketsuagoa da. Horregatik, esaterako, ezagutza-arlo bat baino gehiagotako terminoak kontsultatu behar direnean, ezagutza-arlo horietako bakoitzeko hiztegi bat erabili beharrik ez izateko eta bilaketak bateratzeko integrazten dira hiztegi terminologikoak terminologia-bankuetan.

Mota askotako terminologia-bankuak daude, izendegi erakoak edo hiztegi erakoak, baina azken horiek dira arruntenak eta erabiltzailearentzat lagungarrienak, hiztegi terminologiko batek duen informazio guztia era egituratuan jasotzen dutelako, kontzeptuak hierarkia baten arabera antolatzen dituztelako eta ezagutza-arlo bakoitzaren arabera bilaketak egiteko aukera eskain dezaketelako. Horrelakoa da, esaterako, UZEIk 1986an sortu eta gaur egun Terminologia Banku Publikoa den Euskalterm, baina baita gure inguruko hizkuntzetan ezagunen zaizkigun eta guretzat erreferentzia garrantzitsuak diren Québeceko *Grand Dictionnaire terminologique*, Kataluniako *Cercanet* zerbitzuaren bidez kontsulta daitekeen banku terminologikoa eta Europako erakundeen arteko terminologia biltzen duen *Inter Active Terminology for Europe (IATE)* bera ere.

Eta terminologia-banku horiek guztiak hiztegi erako bankuak izatea ez da kasualitate hutsa. Terminoak eremu-zuhaitzaren eta jakintza-arloaren arabera sailkatzea eta horren arabera kontsultak egin ahal izatea da kontzeptuen arteko erredundantzia saihesteko modurik errentagarriena. Gauza ezaguna da teorikoki behintzat, terminologian homonimiak ez lukeela leku handirik izan behar, baina hizkuntzaren beraren ezaugarriak halakoak direlako ezin saihestuzkoa da neurri batean. Eta termino batek ezagutza-arlo bat baino gehiagotan kontzeptu desberdinak izenda ditzakeen neurrian, ezinbestekoa da aldian-aldian desberdintasun hori adieraztea, eta aldi berean, sail bakoitza osotasunean atzitu ahal izatea. Bestela esanda, termino bat zein arlotakoa den jakiteko modurik ematen ez duen hiz-

tegi edo izendegi bat kontsultatzen duen hiztunak, nekez erabili ahal izango du hor aurkitzen duen terminoa behar adinako segurtasunarekin. Noski, horrelako hiztegi batek zenbat eta informazio gutxiago eskaini (eremu-zuhaitzeko sailkapena, definizioa, erabilera-oharrak...), orduan eta ezagutza handiagoa eskatzen dio kontsulta egiten duen hiztunari, ematen duen informazio urria behar bezala interpretatu ahal izateko.

Ezagutza-eremu bakoitzaren barneko koherentzia bezain garrantzitsua da teknolektoen arteko terminoen koherentzia ere. Terminologia-bankuek koherentzia hori bermatzen laguntzen dute, terminoen kritika sistematikoa egin ahal izatea errazten duten neurrian. Zentzu horretan, Euskalterm bezalako terminologia-bankuak hizkuntza espezializatuaren ikuspegi global batetik abiatzen dira, eta termino edo hiztegi berriak ez dira bankuan besterik gabe gehitzen, integratu egin behar dira: lehendik jaso den terminologiarekiko koherentziari eutsi behar zaio, eta, berrikuntzak hala eskatzen duenean, aurreko terminoak egokitu egin behar dira. Horrek guztiak terminologia-bankua kudeatu behar duena lan gehigarri hori aurrez ikustera behartzen du, bankua eguneratuta mantenduko badu.

Ikuspegi orokor horrekin lan egin behar dute terminologoek, eta ikuspegi hori barneratu behar dute terminologoekin arlo bakoitzeko terminoak adosten dituzten adituek ere. Hain zuzen ere, termino bat proposatu aurretik, terminologoak jakintza-eremu horretako aditu eta autoritateekin adostu beharra du, terminologiaren oinarri-oinarrizko eskakizuna baita hori egitea. Terminologoak ezin ditu ezagutu bere lanerako

beharko lukeen adina sakontasunez komunikazio zientifiko-teknikoan erabiltzen diren kontzeptuak.

Horregatik, terminologia talde-lanean egin beharreko zeregina da, horrek denbora eta diru aldetik dakarren kostu gehigarriarekin. Edozein hiztunek bere eguneroko lana errazteko eta sistematizatzeko osa dezakeen hiztegi edo izendegi erako zerrendatik urruti geratzen dira, beraz, terminologiaren teoriak ezartzen dituen eskakizunak errespetatuz osatutako hiztegiak eta horiek biltzen dituzten terminologia-bankuak ere.

Batetik arlo zientifiko-tekniko bakoitze-ko autoritateen adostasunak, eta bestetik terminologoak duen hizkuntzaren ikuspegi orokorrak, hiztegi edo izendegi erako beste produktu batzuek ez duten bermea ematen dio terminologia-banku bati. Eta berme horri dagokion lekua aitortu beharko litzai-ke, hizkuntza-plangintzarako.

Hizkuntza-plangintzaren atal garrantzi-itsu bat da terminologia-plangintza, eta plangintza orok zabalkundearen beharra du bilatzen diren ondorioak lortzeko. Terminologia-bankuak berebiziko garrantzia du terminologiaren zabalkunderako, ez bakarrik telematikoki edonork kontsultatzeko moduan jar daitekeelako, baita terminoen ezarpenaren kontrola egin eta gero, ezarpen horren arabera edo bestelako aldagaien ar-bera terminologia-bankuan egin daitezkeen eguneratzeak hedatzeko modurik eraginko-rrerentako bat delako ere.

Beraz, estandarizazio bidean dagoen hizkuntza baten mesedetan hizkuntza-poli-tika eraginkor bat egingo bada, terminolo-gia-bankuak baliabide ahaltsuak dira, gi-zartearen bilakaerak eta teknologiaren garapenak behar dituen kontzeptuak kohe-

renteki izendatzea ahalbidetzen duten neu-rrian. Halaber, hizkuntzaren ikerketarako tresna baliotsuak ere izan daitezke termino-logia-bankuak.

Terminologia-zentroa

Baina terminologia egitea ez da amai-tzen hiztegiak egin eta terminologia-bankua eraikitzearekin. Zentzu modernoan, hiz-kuntza-politikaren barnean kokatzen da terminologia; eta, hori bideratzeko, *plan-gintza bat* eta *lan-talde profesional* bat, hots, Terminologia Zentro bat behar dira.

Terminologiaren kudeaketan hainbat fase bereizten ditu Auger ikertzaile kana-darrak:

1. Ikerketa

Hiztegi terminologiko berria egitea, arlo jakin bateko terminoen erabilera ikertzea da. Garai batean, erabilera hori paperezko dokumentuetan aztertzen zen. Gaur egun testu elektronikoen oinarritzen da gero eta gehiago. Horregatik, terminologia-lanak hizkuntzaren tratamendu automatikoarekin zerikusi zuzena dauka; eta, alde horretatik, egungo teknologia berriek laguntza handia ematen diote hizkuntzalariari. Beraz, ezin-bestekoa da ikerketa eta berrikuntza tekno-logia berrien erabilera oinarritzea.

Informazio terminologikoaren forma-tua ere aldatuz joan da, eta XML egituran oinarritzen den estandarrean finkatu da. Garai bateko Martif, eta gaur egungo TBX (TermBase eXchange), LISA eta ISO era-kundetan bermatua, antzekoak dira. Fitxa terminologikoa hainbat informaziotan ba-natzen da: informazio administratiboa,

kontzeptuaren azalpenari buruzkoa, eta terminoei buruzkoa, hizkuntzaka multzokatuta.

Corpusetan oinarritutako termino-ikerketari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio. HNP (Hizkuntza Naturala Prozesatzeko) tresnen erabilerak bere eguneroko lana errazten dio terminologoiari: corpuseko dokumentuak morfologikoki analizatu (lematizatu), eta termino-erauzketako teknikak baliatuz, automatikoki ateratzen dira “terminogaiak”, betiere terminologoak egiaztatua izan daitezten.

UZEIren hiztegiak unean honetan ia bezero bakarra du: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila eta HAEE/IVAP, horiek ezartzen baitituzte Euskalterm Bankua aberasteko egin behar diren hiztegi berriak.

Hiztegi berrien ikerketa-lan honek baldintza egoki batzuk behar ditu: hizkuntza-tresna eta baliabide egokiak eskura izango dituen ingurune bat; besteak beste, dokumentazio-zerbitzua, liburutegia, hizkuntza automatikoki prozesatzeko tresnak, informetika-zerbitzua eta abar.

2. Normalizazioa

Normalizazioaren faseak ezin ukatuzko garrantzia du euskararen testuinguru konkretuan. Hiztegi terminologiko bat egiten denean, terminologia-lana egiten duen erakundearen (hala nola UZEIren) ekarpen bat egiten da, nolabait behin-behinekoa. Baina, euskara bezala normalizazio bidean dagoen hizkuntza batentzat, funtsezkoa da bestelako erakundeekin lana kontrastatzea eta ekarpenaren adostasuna zabaltzea. Hori, hein batean eta lehen urrats gisa, adituek eskaintzen dute hiztegi terminologikoak egiten

den unean. Hala ere, adostasun orokor eta zabalago bat beharrezkoa izaten da, baita goi-mailako erakundeen bermea ere.

Gure kasuan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) koordinatzen du zeregin hori. Normalizazio-prozesu horretan bi urrats edo “galbahe” finkatu ditu Jaurlaritzak.

Lehenik, HPSk hautatutako **Batzorde Tekniko** bat eratzen da hiztegi edo lan terminologiko bakoitzerako. Lan bakoitzean desberdina izango da batzorde hori, kasuan kasuko jakintzagai edo arlo konkretuan adituak diren erakunde edo sektoreetako ordezkariak bilduko baititu. Betiere HPSko eta UZEIko ordezkari bana izango dira bertan. Hiztegia aztertu, zuzendu, osatu eta den artean adostutako azken bertsio bat egingo da.

Hurrengo urratsa **Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzorde-atal Berezia** da. Batzorde hau terminologia-gaietarako batzorde gorena da, eta berbera da lan guztietarako, hainbat erakundetako ordezkari finkoz osatua baitago. Batzorde teknikoetatik pasatu den terminologia-lanaren azken azterketa egingo du, eta behin betiko onartuko du. Bertako erabakiak nolabaiteko arau izango dira terminologia-lanean dihardugunontzat.

Batzorde horien jarduna bideratzeko, *Terminologia lanerako irizpideak* eta *Maileguak eta kalkoak terminologia-lanean* irizpide-bildumak ezarri zituen Terminologia Batzordeak 2004an.

3. Zabalkundea

Terminologia egitea bezain garrantzitsua da ekoizpena ezagutzera ematea eta iritsi be-

har den lekuetara iristea, hau da, sozioterminologia egitea. Hedapenerako baliabide garrantzitsuena egun Terminologia Banku Publikoa da.

Baina oraindik Euskalterm ez dute erabiltzaile potentzial guztiek ezagutzen. Hemen ere publizitatearen eta marketinaren arloan baliatzen diren teknikak aplikatzeak zabal-kundea asko hobetuko luke. Hedabideak ohikoak lirateke: prentsa, irratia, telebista.

Gainera web kontsultaz gain, beste zabal-kunde modu batzuk ere aztertu beharko lirateke, bereziki enpresen eta ikastetxeen arloari begira.

4. Ezarpena

Terminoaren ezarpena edo inplantazioa esaten denean, haien “arrakasta” jakin nahi da: ea zenbateraino erabiltzen diren normalizazio-fasean egokitzen proposatu diren terminoak, edo ea zenbat erabiltzen diren haien lehiakideak, bigarren mailako sinonimoak edo baztertzekotzat jo direnak.

TEIS (Termino Ezarpenaren Informazio Sistema) izeneko ikerketa-proiektua garatu du UZEIk 2006-2007 urteetan. Euskarazko terminometriaren lehen urrats honetan, Québecen Quirion ikerlariak erabilitako metodologia oinarri hartuta, euskarazko termino-ezarpena aztertu da. Betiere komunikazio ofizialari ematen zaio lehentasuna, eta ezarpena ikertzeko lau multzotan banatzen dira erabiltzaileak: administrazioa, komunikabideak, irakaskuntza eta arlo sozioekonomikoa (enpresak). Ikerketaren lehen fasean, batetik, 500.000 hitzeko corpus bat bildu zen, eta bestetik, Hiztegi Batuko zenbait hitz, termino-erabilera izan dezaketenak, aukeratu ziren, eta haien ezarpena neurtu zen.

Ondorioa esanguratsua izan zen: Hiztegi Batuan proposatzen diren terminoen ezarpena % 90etik gorakoa zen, hots, hamarretik bederatzitan erabiltzaileek Euskaltzaindiak proposatutako hitza erabiltzen zuten. Ikerketaren bigarren zatian, Internet hartzen da corpus birtual erraldoi gisa, eta han aztertzen da terminoen erabilera. Eta beste erabiltzaile-talde bat ere gehitu da, Interneteko “foroak” (blog eta gainerakoak).

Informazio hau baliozkoa da terminologiaren kudeaketa egiten duen Administrazioarentzat, hortik jakingo baitu zeintzuk izan daitezkeen termino gomendatuak ez erabiltzearen arrazoiak.

5. Ebaluazioa eta kontrola

Terminologia Batzordea hasi berria da, eta oraindik termino gutxi dira handik haren “termino gomendatua” ponderazio-markarekin atera direnak. Espero daiteke 2008an Batzordetik pasatuko diren hiztegi-tako terminoak 5.000tik gora izango direla. Beraz, hortik aurrera, haien jarraipena egin beharko da, eta ezarpenaren bilakaera neurtu.

Ondorengo urteetan, erabilerak emandako emaitzen aurrean, ebaluazio bat egin beharko da:

- ez-erabiltzearen arrazoiak aztertu: ez da gauza bera termino bat ez erabiltzea ezagutzen ez delako (zabalkundearen hutsegitea izango litzateke), edo termino bat ez erabiltzea desegokitzen josten delako.
- arrakastarik izan ez duten proposamenak berrikusi, eta haien ordeztu.

biltzen diren ordainen egokitasuna baloratu.

6. Eguneratzea

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta HAEE/IVAPek eskatuta, Euskalterm Terminologia Banku Publikoa mantentzeko lanak egiten ditu UZEIk. Hiztegi berriak egiteaz gain, Bankuko fitxa-eguneratzeak egiten dira arloka. Adibidez, aurreko urtean Zuzenbideko fitxak berrikusi ziren, gero Matematikakoak, Psikologiakoak, Fisikakoak eta abar.

Fitxa-eguneratze honetan garrantzi berezia dute kanpoko adituek: gehienetan Unibertsitateko irakasleak izaten dira, eta haien ekarpena era askotakoa izaten da:

- kontzeptuen egiaztatzea: zeintzuk falta diren, zeintzuk dauden soberan
- sailkapena berrikustea
- euskarazko ordainak egiaztatzea

Bigarren alderdi bat lan honetan azpimarratu beharrekoa: HNP tresnen erabilera. **IDITE** (Itzulpenen Diagnostiko Terminologikoa) ikerketa-proiektuan terminoen diagnostikoa egiteko sistema bat garatu du UZEIk. Bi emaitza atera dira ikerketa horretatik:

1) Hiztegi terminologiko bat testu-corpus bati kontrajarrita, bien arteko terminodesadostasuna antzemateko gaitasuna. Horrela, Zuzenbideko terminoak parekatu dira lege-testu normalizatuetakoe-kin (Kode Zibila, Zigor Kodea eta abar-ekin), eta informazio hori baliatu da Zuzenbideko terminoak eguneratzeko.

2) Euskarara itzultako dokumentu baten txeko terminologikoa egiteko funtzionalitate bat gehitu zaio eLENA aplikazioari. Aplikazio hau itzulpen-memoriak kudeatzeko softwarea da, UZEIk garatua. Itzulpen bat inportatzen denean, sistemak aukera ematen du aurrez txeko bat agindu, eta zuzenketak egiteko.

LABURBILDUZ

Terminologoak, haren lana baliatzen duten hiztunek, eta terminologia hizkuntza-politika eraginkorra egiteko ezinbestekoa duen Administrazioak, arazo eta behar desberdinak detektatuko dituzte terminologiaren arloan, bakoitzak duen ikuspuntuaren arabera eta kontzeptu berriak izendatu beharrak hiztunari eragiten dizkion premie-ko hartzen duen distantziaren arabera. Aniztasun hori barneratu beharko lukete horietako bakoitzak, eta horren arabera jardun bakoitzak bere esparruan.

Ikuspuntu-aniztasun horren gainetik, ordea, azken hamarkada hauetan euskarak terminologian egin duen bidea eta gero, iritsi da garaia ahalegin gehiago egin ditzagun orain arte egin den terminologia zenbat, eta batez ere, zergatik erabili den edo ez den erabili ezagutzen hasteko. Gaur egun esku- ra ditugun baliabideekin, azterketa hori inoiz baino egingarriagoa da, eta egitea komeni da, etorkizunean hizkuntza-normalizazioan egingo den lana alferrikakoa izan ez dadin. Edozein dela ere euskal terminologoe- k hobesten duten lan-ildoak, hiztunek dute- eta azken hitza, hizkuntzako beste edozein arlotan gertatzen den bezala.

La terminología dentro de la gestión lingüística


Más allá de una visión poliédrica de la terminología, según la cual tanto el usuario de los trabajos terminológicos, como el propio terminólogo o la Administración Pública (para quien la terminología constituye un poderoso instrumento a la hora de implementar políticas lingüísticas), detectan problemas diferenciados en el campo de la terminología, podría considerarse que, tras el desarrollo del euskera durante estas últimas décadas, se ha llegado a un punto en el que va siendo hora de dedicarle más esfuerzos a estudiar dónde radican las claves del éxito o del fracaso del trabajo terminológico realizado hasta la fecha, en lugar de limitarse exclusivamente a seguir proponiendo nuevos términos. Ser conocedores de en qué medida los hablantes son o no disciplinados a la hora de hacer uso de las propuestas terminológicas que les han hecho las autoridades lingüísticas, puede constituir un elemento de reflexión nada desdeñable, para obtener mejores niveles de implantación terminológica en el futuro. Y más, cuando hoy en día existen medios automatizados para ello, como el sistema TEIS, desarrollado con ese fin por UZEI.

La terminologie dans la gestion linguistique

Au-delà d'une vision polyédrique de la terminologie, selon laquelle l'utilisateur des travaux terminologiques comme le terminologue lui-même ou l'Administration Publique (pour laquelle la terminologie constitue un puissant instrument lorsqu'il s'agit d'élaborer des politiques linguistiques), détectent des problèmes différenciés dans le domaine de la terminologie, on pourrait considérer, consécutivement au développement de la langue basque au cours de ces dernières décennies, que l'on est parvenu à un point où il est temps de consacrer davantage d'efforts à analyser où se trouvent les clés du succès ou de l'échec du travail terminologique réalisé jusqu'alors, au lieu de ne se limiter qu'à proposer, encore et toujours, de nouveaux termes. Découvrir dans quelle mesure les locuteurs sont ou non disciplinés lorsqu'il s'agit d'utiliser les propositions terminologiques que les autorités linguistiques leur ont faites, peut constituer un élément de réflexion non négligeable, afin d'obtenir de meilleurs niveaux d'implantation terminologique dans l'avenir. D'autant qu'à l'heure actuelle il existe des moyens automatisés pour cela, comme le système TEIS, développé à cette fin par UZEI.

Terminology in linguistic management

Going beyond a polyhedral vision of terminology, according to which both the user of terminological works and the terminologist himself or the Public Administration (for which terminology is a powerful instrument in implementing linguistic policy) identify distinct problems in the field of terminology, one could argue that, after the development of Basque in recent decades, it is now time to dedicate greater effort to studying the keys to the success or failure of the terminological work carried out to date, instead of limiting ourselves exclusively to continuing to propose new terms. Discovering the extent to which speakers do or do not make use of the terminology proposed by the linguistic authorities is a not insignificant element of reflection necessary in order to achieve greater levels of terminological implantation in the future. Furthermore, today there exist automated means of terminological implantation, such as the TEIS (Information System for Terminological Implantation) system that was developed for this purpose by UZEI, the Basque Center for Terminology and Lexicography.



Itzulpen automatikoa, oximorona ote?

INAKI IRAZABALBEITIA

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, SL

Duela hilabete batzuk, itzulpen automatikoaz geniharduelarik *Senezeko* arduradunetako batek eta biok, hark esan zidan, Groucho Marx parafraseatuz, itzulpen automatikoa oximoron bat zela ‘inteligentzia militar’ bikoaren moduan. Bistan da, gure enpresaren negozioetako bat horixe izanik, ez natorrela bat adierazpen horrekin eta ez horrexegatik soilik hain zuzen ere. Itzulpen automatikoa oso baliagarria da bizitzaren kasu askotan eleaniztasuna kudeatzeko.

Asko dira itzultzaile jendearen artean itzulpen automatikoaz iritzi negatiboa dutenak. Egia esan arrazoiak izan ditzakete hori pentsatzeko. Itzulpen automatikoak esperantza asko piztu eta zaputuz gehiago sortu ditu. Doako sistemetan emaitzak, oro har, ez dira oso kalitate handikoak izaten. Hala-ber, aurrerakuntza teknologikoekiko izuak eta kezkek egon daitezke jarrera horren atzean: lana kenduko digu! Itzulpen-memo-

riak agertu zirenean ere, itzultzaile batzuk uzkur agertu ziren hasiera batean. Gero, ostera, jarrera aldatu eta ezinbesteko tresnatzat jotzen dituzte. Itzulpengintzaren alor batzuetan, itzulpen administratiboan etsenplurako, itzultzailerik ba al da egun itzulpen-memoriak usatu gabe lanean jardun nahi duenik? Alabaina, itzultzaile horietako inork ez lituzke memoriak baliatuko Primo Leviren *Sistema periodikoa* itzultzeko. Erokeriatzat joko luke, hain segur.

Artikulu honetan itzulpen automatikoaren laudorioa egiteko asmoa dut, garbi utzita itzulpen automatikoaren erabilgarritasuna lortu nahi den helburuaren arabera. Kasu batzuetan oso erabilgarria izango da; are gehiago ezinbestekoa. Beste batzuetan, aitzitik zentzurik ez luke izango. Zenbaitzuk dituzten aurreiritziak uxatu nahi ditut; itzulpen automatikoaren oximorontasuna erabileran legoke ez izaeran.

Itzulpen automatikoa egiteko sistemak

Egokia izan daiteke itzulpen automatikoaren erabilgarritasunaz aritu aurretik arteen egoera zein den azaltzea, labur bada ere. Hurrengo paragrafoetan jardungo dut horri buruz, baina gehiago sakondu nahi duenak jo beza Deustuko Unibertsitateko Joseba Abaitua irakaslearen weborrira non aurkituko duen informazio gehiago eta, halaber, ikuspegi historikoaz jabetu ahal izango da. Halaber, BAT aldizkarian Ixa taldekoek oraindik orain idatzitako artikuluan ere informazio interesgarria aurkituko dute.

Itzulpen automatikoa egiteko sistemak bi multzo handitan banatzen dira:

- Arauetan oinarritutako sistemak (RBMT). Hauek arau gramatikalak eta hiztegiak usatuz burutzen dituzte itzulpenak. Horrelakoa da, esaterako, *Matxin* gaztelania-euskara itzultzailea (www.opentrad.com). Horrelako sistemek zuzen-zuzenean egiten dute itzulpena iturburu hizkuntzatik helburu hizkuntzara. Dena dela, badira tartean hizkuntza guztien artean komuna den tarteko adierazpen bakar bat usatzen duten metodoak. Adierazpen horri *interlingua* esaten zaio.
- Corpusetan oinarritutako sistemak. Sistema hauek jada egindako itzulpenak dituzte oinarrian. Nagusiki bi dira: adibideetan oinarritutako itzulpenak (EBMT) eta estatistiketan oinarritutakoak (SMT). Lehenari buruz artikulua argigarri bat argitaratu zuten IXA taldekoek *Senez* 25. alean (Ikus, Diaz de Ilarraza et als.)

Atzen urteetan corpusetan oinarritutako sistemetan egin izan da ikerketaren zatirik handiena, nahiz eta paradoxikoa bada ere, sistema komertzial guztiak arauetan oinarritzen diren. Horrelakoa da *Systran* eta *Metal* sistema ezagunak. Bestetik, bi sistemamultzo hauek konbinatuz sortzen diren sistema hibridoetan ere ikerketa asko egiten ari da. Horixe ikusi ahal izan da 2008ko maiatzaren 19an eta 20an Berlinen itzulpen automatikoari buruz eginiko *Translingual Europe Conference* delakoan.

Elekan, Ixarekin eta Elhuyar Fundazioarekin batera sistema hibridoak garatzen dihardugu gure I+G proiektuen baitan (ikus Alegria, et als.). Era berean, Eusko Jaurlaritzak gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa erosteko egin duen lehiaketan, entregatu beharreko sistemak hibridoa izan behar du.

Itzulpengintza automatikoaren helburuari erreparatuz gero bi multzo handi egin daitezke:

- Hedapena. Kalitate handiko itzulpena da helburua, enpresa eta erakundeetan baliatua izateko. Honelakoa da, adibidez, *Opentrad* sistema katalan-gaztelania edo galego-gaztelania bikoteen kasuan. Edonola ere emaitza publikatzeak bada, pertsonen zuzendu behar dute alde aurretik. Postedizio esaten zaio prozesu horri. Horrelako sistemek itzulpena egiteko behar den denbora asko laburtzen dute, % 70era irits daiteke gaztelaniatik katalanera eginiko itzulpenetan etsenplurako, eta ondorioz kostuak asko murrizten dira.
- Asimilazioa. Kalitate txikiagoko itzulpenak dira eta itzulitako testuak gutxi

gora-behera zer dioen jakiteko balio du. Hartara, informazioa iragazteko usa daiteke, dokumentu-multzo bate-tik itzultzeko zein izan daitekeen interesekoa erabakitzeko edo ezagutzen ez duzun hizkuntza bateko komunikabi-de digital batean nabigatzeko. Horrelakoak dira sarean doan dauden sistema gehienak.

Noiz eta nola?

Baiezta-pen batekin hasiko naiz: itzulpen automatikoa erreminta eraginkorra eta erabilgarria izateaz gain, komunikazio prozesuetan dirua aurrezteko edota bestela iritsi-ko ez zatekeen bezeroengana iristeko balio du. Horrek ekarri du itzulpen automatiko-arekiko interesa emendatu izana atzen urte-otan, nahiz eta jauzi teknologiko nabarmenik ez den gertatu.

Bi fenomenok eragin dute ondorio hori: digitalizazioak eta globalizazioak. Erakun-deen barneko dokumentazioa, lehen ez be-zala euskarri digitalean gordetzen da. Egun ez da ezer paperean sortzen. Halaber, Inter-netek eta komunikazio-sistema elektronik-ek ez dira inoiz paper izango eta lehenak, halaber, erdaraz idatzitako makina bat in-formazio jarri du internautaren eskura. In-formazio hori guztia baliabide teknologiko-en bidez tratatua izateko bazka da. Bestalde, mundu globalizatuan salerosketak non-nahi egiten dira, usu produktuak jatorria duen tokitik oso urrun eta hizkuntza arrotz bate-an. Bezeroak bere hizkuntzan jaso nahi du

erosi behar duen produktuari buruzko in-formazioa.

2006an *Common Sense Advisory* aholku-laritzak eginiko azterketak argi eta garbi era-kutsi zuen hori. *Can't Read, Won't buy: Why Language Matters* izeneko txostenak nazio-artean web bidez produktuak eta zerbitzuak saltzeko hizkuntza zein inportantea den era-kusten du. Hiru kontinenteetako eta 8 es-tatuetako 2.400etik gora erosle galdekatu zituzten. Estatuak hauek izan ziren: Alema-nia, Brasil, Errusia, Espainia, Frantzia, Ja-ponia, Turkia eta Txina. Txostenak infor-mazioa ingelesez soilik eskaintzen duten webguneekiko erosleak jarrerak hartzen ditu kontuan. Txostenak hainbat ondorio argigarri ditu:

- Jende gehienak nahiago du bere hiz-kuntzan erosi. Hau ez da harritzekoa. Jarrera hori Frantzian eta Txinan area-gotu egiten da. Jakina, ingeles maila txikia dutenen artean norberaren hiz-kuntzarekiko atxikimenduan areagotu egiten da.
- Erosketa inportanteak edo baliotsuak egiteko unean gehien-gehienek, %85,3k, bere hizkuntzan jaso nahi dute produktu edo zerbitzuari buruz-ko informazioa.
- Bertako hizkuntza erabiltzea baina ha-ratago joan behar da, eskaintza itzuli eta lokalizatu behar da: kreditu-txarte-lak, moneta, ...
- Erosleak ontzat jotzen ditu itzulpen erdipurdikoak¹; bere hizkuntzan in-

1. *Quick and dirty translation* txostenean.

formaziorik ez izatea baino nahiago ditu. Alegia, itzulpen automatikoak eman dezakeena nahikoa zaie. Elkarriketatutakoen erdiak baino gehiagok jo izan du itzulpen automatikoa egiten duten sareko baliabideetara saltzailearen weborria bere hizkuntzan jartzeko.

Bestetik, itzulpen automatikozko sistematik ezartzeko kostuak asko murriztu dira. Erakunde batean horrelako sistema bat ezartzeak ehunka mila eurotako kostua izaten zuen. Egun milaka euroko kostuan egin daiteke. Garai batean ordenadore ahaltsuak behar ziren itzulpen automatikozko programak egikaritzeko. Egun mahai-gaineko ordenadoreak nahikoak dira. Era berean, ez dago jada zertan sistema bezeroaren produktio-fluxuan integratu beharra eta web bidezko itzulpen-zerbitzuek asko merkatzen dute itzulpen automatikozko zerbitzua ezartzea.

Gorago aipatu den legez, merkatuaren ikuspegitik ere aldaketa nabarmenak jazo dira, itzulpen automatikoaren erabilera sustatu dutenak:

- **Produktuen bizitza-ziklo laburra.** Kontsumo-produktu askoren bizitza-zikloa laburtu egin da oso; adibidez, kontsumoko elektronikazko produktuena. Horrek ekartzen du produktu horrekin lotuta dagoen informazioaren bizitza ere laburtu egiten dela. Hots, mp3 irakurgailu baten argibide-liburuxkaren balio komertziala labu-

rragoa da. Eredu berria ekoizten eta merkaturatzen denean erabilera-argibideak ere aldatu egin behar dira eta, gainera, produktua salduko den merkatuetako hizkuntzetan jarri beharko da. Zenbait herritan, gainera, hori salbatzerik ez dago bertako legeriak hala eskatzen duelako. Pertsona bidezko itzulpenaren bidez jarduteak atzerapen handiak ekar ditzake produktua merkaturatzeko momentuan. Adibide bat. Hardware batzuen bizitza urtebetara laburtu da. Horrekin batera doan softwarea, laguntzak eta argibideak lokalizatzeak merkatu batean produktu hori merkaturatzeak 8 aste atzeratzen badu, saltzaileak produktuaren bizitza-zikloaren % 15 galdu du. Itzulpen automatikoak lagun lezake lokalizazio-epa murrizten².

- **Informazio-bolumen handia.** Edozein salgaik gero eta informazio gehiago darama berarekin batera, direla argibide teknikoak, erabilera-argibideak edo bestelako informazioa. Gorago aipatutako bizitza-zikloaren laburtzearekin lotuta eta kostuak gehiegi ez hazteko, fabrikatzaile batzuk hasi dira jada produktuarekin batera doan informazioaren zati bat bakarrik itzultzen. Itzulpen automatikoak hori gerta ez dadin lagun dezake.

Oraindik orain aipatutako arrazoiak medio, itzulpen automatikoa usatzeko zioak agertu dira zeharbidez bada ere.

2. Bizitza-zikloak horrenbeste laburraraztearen inguruan bestelako kontsiderazio batzuk egin daitezke jasangarritasunaren ikuspegitik, baina hau ez da horretarako tokia.

– **Kostuak murriztea.** Pertsonak eginiko itzulpenen kalitatea ematen duen itzulpen automatikozko sistemarik ez da egundo sortu. Kalitaterik gorena nahi bada, makinak itzulitako testua pertsonak posteditatu (zuzendu) behar dute. Horrela ere, itzulpenaren kostua % 20 eta % 70 bitartean murriztu daiteke hainbat faktorearen araber: testu-mota³, jatorrizko originalaren kalitatea⁴, hizkuntzen gertutasun linguistikoa, etab. 2007ko urrian Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak antolatuko *Euskara Justizia Administrazioan* izeneko jardunaldian *Translendum* enpresako (www.translendum.com) arduradun Juan Alberto Alonsok emaniko datuen arabera, ingelesetik gaztelaniara edo frantsesera eginiko itzulpenetan % 33 murriztu daiteke prozesua (automatikoki itzuli eta zuzendu) burutzeko denbora; frantsetik gaztelaniara % 60 eta gaztelaniatik katalanera % 75).

Emaitzaren kalitatearekin ere joka daiteke kostuak murrizteko momentuan. Bistakoa da zenbait erabileretarako makinak egiten duen itzulpena nahiko izan daitekeela eta postedizioa soberan dagoela. Horrelakoak dira bi-

zitza laburra duten informazioak, agerkari digitaletako berriak adibidez.

– **Denbora aurrezte.** Hau neurri batean kostuak aurreztearen beste ikuspegi bat da. Dena dela, azpimarratu nahi ditut hemen bi alderdi. Batetik, informazio efimeroa, ordu batzuk edo egun bat iraungo duena, kudeatzea posible egiten du itzulpen automatikoak. Ordu batzuetako biritza duten datu finantzarioak (burtsaren gorabeherak adibidez) itzultzea alferrikako ahalegina izango litzateke itzulpen automatikorik gabe, pertsonak itzulpena bukatu baino lehen informazioak pertinente izateari utziko bailioke. Bestetik, informazio inportantea ahalik eta azkarren erabiltzailearen esku jartzea ere inportantea da. Beherago ikusiko dugu Ford-ek nola aplikatzen duen itzulpen automatikoa fabrikazio-prozesuetako eskuliburuak ingelesetik beste hizkuntza batzuetara aldatzeko eta atzerriko produkzio-plantek autoak egiteko argibideak ahalik eta azkarren jaso ditzaten.

– **Bezeroa gogobetetzea.** Kasu honetan bezeroa barnekoa zein kanpokoa izan daiteke eta, bestela, itzuliko ez litzate-

3. Itzuli nahi diren testuak eremu konkretu batekoak badira eta itzultzaile automatikoa horretarako prestatu bada, emaitzak hobeak izango dira eta zuzenketa beharra txikiagoa. Adibidez, banketxe batean erabiltzeko sistema batek finantza munduko terminologia, esapideak eta enparauak izango ditu inplementatuta eta gaztelaniara itzuli nahi den euskarazko testu batean ‘korritu’ hitza topatzen badu, ordaina ‘correr’ aditza ez dela ‘rédito’ izena baizik jakin beharko du. Halaber, alferrikakoa da literatura, esapideak edota hizkuntza ambigua itzulpen automatikoak ganoraz itzuli nahi izatea.

4. Sarri ahaztu egiten da itzulpen automatikoen makina batek egiten duela lana eta ez duela pertsonok ditugun ahalbide berak informazioa osorik izan gabe edo okerra izanik emaitza zuzena emateko. Horrela, automatikoki itzuli nahi den testuak akasgabea izan behar du azentu, akats ortotipografiko zein puntuazioaren erabilera egokiaren ikuspegitik. Etsenplurako, itzulpen-motor batek gaztelaniarazko ‘esta’ edo ‘está’ azentuaren arabera desberdinduko ditu beti. Pertsonak, aitzitik, beti izango du gaitasuna azenturik gabeko ‘estar’ aditzaren forma identifikatzeko.

keen edo partez soilik itzuliko litzatekeen dokumentazioa itzultzeko modua ematen du. Horrela, esaterako, bezeroen dudak bideratzeko enpresek dituzten *on-line* zerbitzuetan eskaera handia duten dokumentuak soilik itzultzen dira pertsonen bidez. Enparauak, automatikoki egiten dira. Microsoft-ek eta SAP-ek egiten dute hori. Multzo honetan sar daiteke turismo-bulegoen kasua. Gauza jakina da turista katalan asko etortzen dela Euskal Herrira eta beren hizkuntzarekiko atxikimendu berezia dutela. Zenbat euskal turismo-bulegok eskaintzen du informazioa katalanez beren webguneetan? Urri batzuk. Zenbatek ordain dezake webgunea katalanez mantentzeak dituen antolaketa- eta ekonomia-kostuak? Itzulpen automatikoak posible egingo luke.

- **Merkatu berrietarako sarrera.** Gorago aipatu dugun *Can't read, Won't buy* txostenak beste arrazoi bat ematen du. Internet bidezko salmentan diharduten asko enpresa txikiak dira eta webgunea hainbat hizkuntzatan izatea arazo ekonomikoa da haientzat. Itzulpen automatikoak bide ematen die, bestela iritsiko ez liratekeen merkatuetara beren hizkuntzan iristeko kostuak murriztagoak direlako. Arazoa are konplikatzen zaie enpresa horiei saltzen duten katalogoa sarri aldatzen bada.
- **Informazioa ulertzea.** Interneten dabilenak askotan sentitu izan du etsipena webgune itxuraz interesgarri batera iritsi eta ezin jabetu bertan esandako-

az, hizkuntza ulertzeko gai ez delako. Itzulpen automatikoak etsipena gainditzen lagun dezake. Datu bat ematearren, www.opentrad.com weborriko erabiltzaileen % 40ak nabigatu eta itzuli aukera baliatzen du.

Kalitatea arazo?

Munduko itzulpen automatikozko sistemarik onenak ere ezin du itzultzaile on baten lanaren kalitatea eman. Nahita azpimarratu dut on hitza. Izan ere, hizkuntzak elkarrengandik oso gertu daudenean itzulpen automatikoaren emaitzaren kalitatea oso-oso ona izan daiteke testuinguru batzuetan,

Itzulpen automatikoa juzkatzen denean, maiz, lupa handia erabiltzen da. Profesionalen begi zorrotza usatzen da eta, horrek, noski, beti aurkituko ditu akatsak. Kasu horietan ez zaio bezeroaren edo erabiltzailearen pertzepzioari jaramon egiten.

Gorago aipatu dudan Berlingo konferentzia horretan EBko Itzulpenerako Zuzendaritza Orokorreko zerbitzu informatikoetako buru den Josep Bonet-ek azpimarratu zuen itzulpen automatikoaren kalitatea juzkatzeko erabiltzailearen begiak baliatu behar direla. Etsenplu argigarri bat eman zuen. Txernobilgo erreaktore nuklearrari buruzko informazioa zela eta, automatikoki itzuli zuten hainbat informazio errusieratik ingelesera. EBko itzultzaileen arabera itzulpena ez zen onartzekoa. Informazioa baliatu behar zuten teknikariak pozik saltoka zebiltzan dokumentuek zuten informazioa entenditzeko gai zirelako. Lezioa agerikoa da.

Gorago aipatu dudan turismo-bulegoen kasuan, informazioa katalanez eskaintzeak

ematen duen satisfazioak gainditu egiten du testuan aurki daitezkeen akatsek eragin lezaketen etsipena.

Bonetek beste datu interesgarri batzuk ere eman zituen. Esaterako EBren itzulpen automatikoaren erabiltzaileak gehiago dira, % 55, gainerako Zuzendaritzetako pertsonak Itzulpen Zuzendaritzako itzultzaileak baino. Halaber, gainerako zuzendaritzetako erabilpenen erdia ez zen itzulpenak egiteko, baizik eta beste hizkuntza batean dagoen dokumentu bat ulertzeko. Askotan, gero, dokumentu horren itzulpen ofiziala jasoko bada ere⁵.

Arrakasta kasuak

Atal honetan itzulpen automatikoaren erabilpenaren hainbat kasu aurkeztuko ditugu. Kasu horietako bakoitzak erabilera posibleen esparru bat ordezkatzeko du. Alabaina, kasuok ez dute ordezkatzeko erabilera posibleen sorta osoa.

1. Esparru komunikatiboa. *La Voz de Galicia*

La Voz de Galicia (www.lavozdegalicia.es) Galiziako egunkaririk handiena da. Bere produkzioa, paperezkoa zein digitala, gaztelaniaz idatzi eta publikatzen da. 2006an edizio digitala galegoz ere publikatzea deliberatu zuten. Egunkariaren zuzendaritzak argi eta garbi zeukan galegoz publikatzeko ez zegoela prest inbertsio handiak egiteko, alegia, edizio digitalaren erredakzioa handitzeko galegoz erredaktatuko zuten pertso-

nak kontratatuta. Itzulpen automatikoaren bidez egingo zutela erabaki zuten. *Opentrad* sistema aukeratu zuten. Bidenabar, hau izan zen *Opentraden* lehen ezarpena.

*La Voz de Galicia*ren galegozko edizio digitala 2006ko maiatzean hasi zen publikatzen. Horretarako, *Opentrad* moldatu egin behar izan zen *La Vozen* ezaugarrietara. Batetik, *Opentrad* egunkariaren produkzio-fluxuan integratu zen, horretarako beharrezkoak izan ziren moldapen informatikoak eginez. Bestetik, *Opentraden* hiztegiak handitu eta moldatu egin behar izan ziren. *Opentraden* jatorrizko hiztegiak 8.000 sarrera inguru zituen, *La Vozerako* prestatu zena 28.000 hitzetara iritsi zen. Hiztegi arrunta osatzen egin behar izan zen lanaren gain, izen bereziak eman zuten lan handia. ‘Pilar del Castillo’, ‘El Loco de la Colina’, eta antzeko izen bereziak identifikatu egin behar ziren eta, ondoren, sisteman arauak egin horiek itzul ez zitzaizkien, hots, ez zezala ‘Alicerce do Castelo’ egin.

Hortaz, *La Vozen* edizio digitala osorik gaztelaniaz idazten eta publikatzen da. Galegozko edizioa automatikoki sortzen da unean-unean internautak eskatzen duen aldioro. Sistema oso azkarra delako egin daiteke hori. Dena dela, orrialderik eskatue-
nak, sarrera-orria adibidez, *cachean* gorde-
tzen dira sistemaren lastertasuna bermatzeko. Ondorioz, irakurleak *Opentraden* emaitza gordin-gordina ikusten du inongo zuzenketarik gabe. Akatsak *a posteriori* zuzentzen dira, irakurleek edota erredaktoreek detektatu ostean.

5. Itzultzaile automatikoaren erabileraz datu esanguratsua eman zuen Berlingo konferentzian Generalitateko Baliabide Linguistiko-koen ataleko buru den Mónica Pereñak geroago komentatuko ditugunak.

La Voz digitalaren galegozko bertsioan argi eta garbi adierazten da automatikoki egina dagoela eta aurkitutako akatsen berri emateko eskatzen da (ikus irudia). Egia esan itzulpenaren errore-tasa oso txikia da, % 2koa baino txikiagoa. Egunkariak akatsak posteditatzeko sistema bat ezarrita dauka. Hasiera batean, zalaparta nahikoa handia egon zen Galizian itzulpen automatikoa usatu izanagatik. Jende bat akats bila ibili

zen eta horiek barregarri uzten aritu zen blogetan eta antzeko foroetan. Hasierako olde horren ostean auzia baretu egin da eta egunkarietako galegozko edizio digitalak automatikoki egitea ohizko bihurtu da Galizian. *La Voz*en ondoren, beste egunkari batzuk ere, *El Progreso de Lugo* edo *El Diario de Pontevedra* adibidez, hasi dira beren edizio digitala *Opentraden* bidez galegoz publikatzen.



2008ko maiatzaren 27ko edizio digitalaren lehen orria.

Hedabideen itzulpen automatikoaren bestelako erabilera baten adibidea bada Galiziako egunkarien artean, *El Correo Gallego*ren galegozko 'bertsioa'⁶ den *Galicia Hoxe*

egiteko *Opentrad* baliatzen da agentzietako berriak gaztelaniatik galegora itzultzeko eta informazioa erredaktatzeko lehengai moduan.

6. Bi-biak ez dira *El Periódico de Catalunya*ren gaztelaniazko eta katalanezko bertsioen kasuan bezala, bata bestearen itzulpen zuzena. *El Correo* gaztelaniaz sortutako egunkaria da eta *Galicia Hoxe* galegoz sortzen da hasieratik.

2. Esparru produktiboa. Ford

Enpresa multinazional askok usatzen dute itzulpen automatikoa beren prozesuetan hizkuntza desberdina duten herrialdeetan egoteak ekartzen duen eleaniztasuna kudeatzeko beharrari konponbidea emateko. Kasu horretan daude Xerox, Caterpillar, Ford, SAP, Bosch edo Symantec.

1998az gero ari da Ford itzulpen automatikoa baliatzen autoak muntatzeko argibideak ingelesetik alemanera, gaztelaniara, nederlanderara eta portugesez itzultzeko. Itzulpen automatikozko sistemak *Systran* sistema du oinarrian eta hizkuntza kontrolatua usatzen du. Hizkuntza kontrolatuak dira hiztegi eta sintaxi mugatua usatzen dutenak hizkuntza arruntaren anbiguotasunak gainditzeko eta semantikoki ahalik eta hizkuntza zehatzena izateko. Forden kasuan *Standard Language* du izena eta 5.000 hitz ditu, akronimoak, laburtzapenak, izen propioak eta Forden terminologia espezifikoak barnean duelarik. *Standard Language* hau ez da fosil bat, etengabe aldatzen ari den hizkuntza bizia baizik. Emaizten ikuspegitik, ingelesetik alemanerako itzulpenetan % 95eko zehaztasuna lortu da. Beste hizkuntzetan ez dira horren zehatzak, baina hobetzea espero dute sistemaren hiztegiak eta glosategiak hobetzen dituzten heinean. Etorkizunean itzulpen automatikoa produkzio-prozesuaren beste alor batzuetara hedatzeko asmoa du Fordek.

Atal honetan aipatzekoak dira *Translingual Europe Conference* delakoan SAPEko Stephen Johnson-ek emaniko erabilera datuak. SAPEk alemanetik ingeleserako itzulpen automatikoa baliatzen du bezeroen arreta-zerbitzuan besteak beste. Zerbitzu horrek 125.000 itzulpen-eskaera izan zituen 2007an eta 7,7 milioi hitz itzuli ziren automatikoki. SAPEk *Lucy* teknologia erabiltzen du.

3. Administrazio publikoa. *Generalitat de Catalunya*

Kataluniako Generalitatea itzulpen automatikoaren bultzatzaile sutsua da. Helburu argia du: katalanaren eta munduko hizkuntza nagusien artean zubiak egin behar dira eta horretarako itzulpen automatikoa baliagarria da.

Generalitateak *on-line* zerbitzu bat du hiritarrek testuen eta web-orrien itzulpen automatikoa egin dezaten⁷: <http://traductor.gencat.cat/>. Orri horretan katalana-gaztelania, katalana-frantsesa, katalana-ingelesa eta katalana-alemana bikoak eskaintzen dira. *Translendum* teknologia baliatzen dute. 2008aren bukaerarako katalana-okzitania eta okzitania-gaztelania bikoteak ere eskainiko dituzte *Opentrad* teknologiaren bidez⁸.

Zerbitzu horrek izugarritzko arrakasta du. 2007an 8 x 10⁶ itzulpen eskaera egon ziren eta 1.300 x 10⁶ hitz itzuli ziren.

7. Eusko Jaurlaritzak gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa garatzeko egin duen lehiaketan zerbitzu-eredu horixe proposatzen da.

8. Kontuan hartu okzitaniararen aldaera den aranera hizkuntza ofiziala dela Vall d'Aranen.

4. Barne-bezeroen gogobetetzea. *Gipuzkoa-Donostia Kutxa*

Kutxak bulegoak Euskal Herrian izateaz landara, Katalunian, Galizian, Valentzian eta estatuko beste hainbat tokietan ere badi-tu. Bulego horien arteko komunikazio-hizkuntza, hots, *lingua franca*, gaztelania da. Alabaina, kutxako zuzendaritzak komunikazio eleanitza bermatu eta bere langileei aukeratzen duten hizkuntzan jarduteko aukera eskaini nahi die, hori posible den heinean, helburu horrekin bere intranetean itzulpen automatikoaren bidez katalanez eta galegoz jarduteko aukera izan dezaten.

Openrad aukeratu du Kutxak eta ezar-tze-prozesuan dago une honetan (2008ko maiatza). Ezarpenak bi alderdi ditu: *Openrad* kutxaren sistema informatikoan ezar-tzea eta hiztegian terminologia finantzario-ra egokitzea. Bigarren ataza hau burututa dago eta termino finantzarioak osatzeko Kutxak berak duela urte batzuk argitaratu-

tako *Kutxan Euskaraz* liburuan biltzen zire-nak hartu dira oinarri moduan.

Ezarpena 2008ko udazkenean burutuko da. Zerbitzu berriak erabiltzaileen aldetik harrera ona badu, gerora kutxaren zerbitzu publikoetan ere ezarriko da itzultzailea. Kontuan izan, kutxa.net weborria euskaraz eta gaztelaniaz soilik dagoela.

5. Itzulpen-zerbitzuak. *Europako Batasuna*

Europako Batasunaren Itzulpen Zuzen-daritzak 1976tik erabiltzen du itzulpen au-tomatikoa eta egun itzulpen-prozesua kon-trolatzeko baliatzen duten Euramis plataforman dago integratuta. Alegia, EBko itzultzaileek itzulpen automatikoa lan-erre-minta dute. EBren sistemak *Systran* du oi-narrian eta 18 hizkuntza-bikote manei-atzen ditu. Emaizaren kalitatea bi faktore-ren mende dago: hizkuntzen arteko urrun-tsun/hurbiltasuna eta hizkuntza bikotearen garapen-epea.

	En	Nd	Fr	Gr	It	Pt	Es	De
En		X	X	X	X	X	X	X
Nd								
Fr	X	X			X	X	X	X
Gr			X					
It								
Pt								
Es	X		X					
De	X		X					

EBko itzulpen automatikoz itzulitako hizkuntza-bikoteak.

EBren itzultzaile automatikoaren baliatzaileak hiru multzotan banatzen dira: zerbitzuko itzultzaileak, EBren administrazioa

eta hainbat administrazio estatal. 2005ean itzuli ziren 860.000 orrialdeetatik 287.000 itzulpen-zerbitzuak eskatu zituen.

Ondorio gisa

Irakurleak honaino iristeko pazientzia izan badu, espero dut, honez gero garbi izango duela itzulpen automatikoa hizkuntzen arteko langa gainditzeko erreminta egokia izan daitekeela eta helburua ondo

aukeratzen bada konponbide egokiena izan daitekeela (eta batzuetan bakarra). Irakurlea ondorio horretara iritsi ez bada, ez da itzulpen automatikoaren oximorontasunaren ondorio, idazle honen argibide eta prosa kamutsaren kausaz baizik.

BIBLIOGRAFIA

- Abaitua, Joseba, *Itzulpengintza Automatikoa. Hamar orduko sarrera*.
http://paginaspersonales.deusto.es/abaitua/konzeptu/ta/mt10h_eu/mt10h-1eu.htm
- Aizpurua Ugarte, Ibon; Ramirez Sanchez, Gema; Pichel, Jose Ramon eta Waliño, Josu: *Open-trad: bringing to the market open-source based Machine Translators*. Lang-tech 2008. Rome. Poster Session. (www.langtech.it/en/poster/12_UGARTE.pdf)
- Alegria Loinaz, Iñaki; Arantzabal; Forcada, Mikel L.; Gómez Guinovart, Xavier; Padró, Lluís; Pichel Campos, Jose Ramon eta Waliño, Josu: *OpenTrad: Traducción automática de código abierto para las lenguas del Estado español. Procesamiento del Lenguaje Natural*, 37, 2006 (http://webs.uvigo.es/sli/archivos/ot_sepln2006.pdf)
- Alegria, Iñaki; Casillas, A.; Diaz de Ilarraza, A.; Igartua, J.; Labaka, G.; Lersundi, M.; Mayor, A.; Sarasola, K.; Saralegi, X. eta Laskurain, B.: *Mixing Approaches to MT for Basque: Selecting the best output from RBMT, EBMT and SMT MATMT2008 workshop: Mixing Approaches to Machine Translation*. ISBN 978-612-2224-7.
 (<http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1200656503/publikoak/pdf>)
- Alegria, Iñaki; Diaz de Ilarraza, Arantza; Labaka, Gorka; Lersundi, Mikel eta Sarasola, Kepa, *Itzulpen automatikoa: aukerak, arazoak eta erronkak*, *BAT*, 66, 2008.
- DePalma, D, Sargent, B.B. eta Beniatto, R.S., *Can't Read, Won't buy: Why Language Matters on Global Websites*, Common Sense Advisory, 2006
- Diaz de Ilarraza, Arantza; Mayor, Aingeru eta Sarasola, Kepa: *Adibideetan oinarritutako itzulpen automatikoa*, *Senez*, 25, 2002
- Lonnroth, Karl-Johan, *Translation tools and workflow*, European Commission.
http://ec.europa.eu/dgs/translation/bookshelf/tools_and_workflow_en.pdf.
Translingual Europe Conference, www.euromatrix.net.

La traducción automática

La traducción automática no tiene buena fama entre muchos de los profesionales de la traducción. Hay incluso quien la considera un oximoron. La mala calidad de la traducción de algunos sistemas de TA, da razones para ello. De todas las maneras, la TA es una herramienta muy interesante tanto para los profesionales de la traducción como para las personas e instituciones que tiene que manejar información multilingüe. Las memorias de traducción revolucionaron la manera de trabajar de los traductores y la TA también puede hacerlo y de hecho lo hace.

En este trabajo se hace una descripción de las situaciones en las cuales la TA es una herramienta útil y se describen varios casos de éxito.

En conclusión, la utilidad y la calidad de los resultados de la TA deben de discutirse en función de dos parámetros: el objetivo de la traducción realizada y la percepción subjetiva del destinatario final.

La traduction automatique

La traduction automatique ne jouit pas d'une bonne réputation entre beaucoup des professionnels de la traduction. Il y en a même qui la considèrent tel un oxymoron. La mauvaise qualité de la traduction de quelques systèmes de TA leur donnent des raisons pour cela. Cependant, la TA peut être un outil très intéressant autant pour les professionnels de la traduction comme pour les personnes et les institutions qui doivent manipuler de l'information multilingue. Les mémoires de traduction ont révolutionné la façon de travailler des traducteurs, et la TA pourrait en faire autant. En fait, elle le fait déjà.

Dans cet article on fait une description des situations dans lesquelles la TA est un outil pratique, et on décrit de divers cas de réussite.

En conclusion, l'utilité et la qualité des résultats de la TA doivent de se disputer en fonction de deux paramètres: le but de la traduction réalisée et la perception subjectif du destinataire final.

(Ce texte est un résumé édité à nouveau d'une traduction automatique réalisée avec Opentrad)

Machine translation

Machine translation does not have good reputation between many of the professionals of translation. There are even those who consider it as an oxymoron. The bad quality of the translation of some systems of MT could justify this. However, MT is a very interesting tool either for the professionals of translation or for persons and institutions that must handle multilingual information. Translation memories have revolutionized the translator's way of working, and MT could also do it. In fact, it's on the way of doing it.

This work describes a sort of situations in which MT happens to be an useful tool. Furthermore, a description of several cases of success is done.

In conclusion, the utility and the quality of the results of MT owe to be argued in function of two parameters: the aim of the translation realized and the subjective perception of the target user.

(This text is a re-edited summary of a machine translation realized with Opentrad)



Softwarea lokalizatzea

SILVIA BORRÁS GINER

Itzulpena: Pello Goikoetxea

Sarrera

Orain baino lehen ere egin du gizarteak aurrera jakintzaren arlo askotan; esate baterako, Medikuntzan, Astronomian eta Zuzenbidean. Izate edo errealitate berriak aurkitu ahala, ordea, kontzeptu berri horiek ondoko herri edo gizartei jakinarazteko beharra sortuko zitzaien, seguru asko. Hizkuntza eta tradizio desberdinak zituzten kulturen arteko komunikazio hori gauzatu ahal izateko, hizkuntz bitartekariak erabiliko zituzten, ziurrenik; eta, bitartekari haiek, berriz, ezagupen eta jakintza batzuk bildu beharko zituzten, jakintzagai berezitu batzuetan izaten ziren aurkikuntzak eta berrietasunak beste kultura batzuei pasatuko bazizkieten.

Oraindik ere oso inportantea da itzul-tzailearen eta interpretearen lana. Funtsezko papera jokatzen du errealitate desberdinen arteko zubigintzan. Gaurko gizartean, tele-

komunikazioetako teknologia berriak ditugu nagusi. Hala, ustez eguneroko bizimodua eta lana samurtzen duten programa informatikoak eta web orriak ez eze, ordenagailuaren bitartez transmititzeko moduko informazio guztia itzuli behar izaten da. Globalizazioaren eta informazioaren teknologiak esaten zaien horiek finkatzearen ondorioz, nozio berri bat dugu: *lokalizazioa*.

Espainiako Hizkuntz Akademiak “finkatzea, muga jakin batzuen barruan sartzea, gauza edo pertsonaren bat non den jakitea, pertsona edo gauzaren bat non kokatu behar den zehaztea edo adieraztea” definitzen du *lokalizatu*. Baina, gaur egun beste adiera bat du: produktu bat egokitzea, produktu hori salduko den merkatura. Produktua pakete informatiko bat edo web orri bat izaten da, bere interfaze grafikoarekin, dokumentazioarekin eta ekartzen duen laguntzarekin, eta baita aginduak emandakoan atera daitezkeen akats mezuak ere.

Softwarea edo web orriak lokalizatu edo egokitzea¹ itzulpen berezituaren aldaeratzat jotzen da gaur egun, gaitasun zehatz batzuk izatea eskatzen duena, baldin eta jatorrizkoaren aldean beste ohitura eta berezitasun batzuk dituen herri eta kulturetara doituko badira pakete informatiko edo webgune horiek. Lokalizazioan berezitutako itzultzaileak, bere lana ondo egingo badu, plataforma, erreminta eta programa informatiko batzuk erabili behar ditu, eta ohituta egon behar du, halaber, zenbait programazio hizkuntzarekin ere.

Softwarea lokalizatzea

1. Zedarritu dezagun zer den *softwarea* lokalizatzea delako kontzeptua.

Gaur egun, eduki berezitu batzuk hizkuntz sistema batetik bestera aldatzeak toki nabarmena hartzen du itzulpengintzan. Orain egiten den inbertsioarekin eta nazioarteko merkataritza mailarekin, etengabea da herrialdeen arteko ezagupen trukaketa. Eta, hala, produktu berriak merkatuan sartzeko, itzultzaileak behar ditu sistemak, zeren, dena delako salgaiaren bikaintasun eta abantaila guztiak kontsumitzaileari adierazi ezean, ez baitago ezer ere saltzerik.

Gaur dugun gizarte globalizatu honetan, ba al da nahikoa toki aniztasunarentzat? Ala, beste aldera da? Alegia, kendu egin behar al dira munduko kulturak desberdin egiten dituzten tasun eta ezaugarri horiek denak? Pentsamendu bakarra ezarriz gero,

irabazi handiagoak aterako lirateke, ustez, herriak bereizten dituzten hizkuntz mugak kenduko balira. Baina, akaso, munduko ekonomian agintzen dutenak konturatuta egongo dira kultura desberdinak izatea aitzakia ederra dela mozkin ikaragarriak lortzeko, guzti-guztia egokitu behar baita zenbait merkatutara.

Alde horretatik, Martinek (2002: 295) zera dio: “‘lokalizazioa’ marketingeko kontzeptu bat da, produktu bat merkatu jakin batera egokitzea esanahi duena”. Eta termino hori ingeleseko *locale* substantibotik dator. Deitschek eta Czarneckik (2001: 12) zera diote: “*a locale embraces a specific language in combination with a given cultural, geographical, and political region*”. Era berean, Masek (2002: A.G.) honela deskribatzen du izen hori: “*el conjunt de paràmetres i convencions que s'utilitzen a una zona geogràfica o cultural determinada*”.

Definizio horiek aintzakotzat hartu eta itzulpenaren alorrera ekarriz gero, lokalizatzea produktu bat gizarte baten hizkuntz eta kultura konbentzioetara jartzea da. Esselinkek (2000:1) adierazten du lokalizatzea hauxe dela: “*is the translation and adaptation of a software or web product*”. Era berean, Garciarentzat (2000: 13), “*produktu informatiko bat lokalizatzea produktu hori garatu duen merkatutik banatu behar den merkaturara egokitzea da, produktua sortu zen tokiko erabiltzaileek erabiltzen ez duten hizkuntza bat erabiltzen baitute produktua banatu behar den tokikoek*”.

1. *Softwarea* lokalizatzea terminoa ingelesezko *software localization* adierazpidearen itzulpen zabalagoa eta komertzialagoa da. Termino horren itzulpena anglizismoa dela esan badaiteke ere, horixe da gatzeleraz egiten den herrialdeetan gehien zabalduak itzulpena, eta horregatik aukeratu dut artikulu honi izenburua emateko ere. Dena dela, badira bi jarrera kontrajarri termino hori gatzeleraz egokia den ez den, eta biak landuko ditugu artikulu honetan.

Gaztelaniazko terminoa, hau da, *localización* hori egokia den edo ez den, bi jarra daude, elkarren kontrakoak. Alde batean, eginkizun horri izendapen berriren bat ematearen aldekoak daude —*Adaptación al entorno local* edo *naturalización*, proposatzen dituzte horiek—, eta, beste aldean, lokalizazioa beste itzulpen barietate bat dela aitortu eta, beraz, beste etiketarik ez duela behar defendatzen dutenak daude. Pagansek (2002: A.G.) adibide bat erabiltzen du bi iritzi desberdin horien berri emateko: “*la discussió sorgeix entre els qui consideren que es tracta d’un concepte nou i que, per tant, exigeixen una denominació nova i els qui, per contra, argumenten que tot procés de traducció sempre implica una part d’adaptació i [...] que per tant només es tracta d’una modalitat de traducció*”.

Lehen ere esan dugu ‘finkatzea, muga jakin batzuen barruan sartzea, gauza edo pertsonaren bat non den jakitea, pertsona edo gauzaren bat non kokatu behar den zehaztea edo adieraztea’ esanahi duela *localizatuk*. Ohartarazi nahi nuke, ordea, *Merrian Webster* hiztegiaren arabera *to make local* aditz lokuzioak duen adiera jaso gabe dagoela oraindik ere gaztelaniazko *localizar* aditzaren adieran. Edozein moduz ere, hitz baten esanahia hiztegi batean ez azaltzeak ez du esanahi hitz hori ez denik; izan ere, eskuarki, gizarteak azkarrago egiten baitu aurrera hizkuntz akademiak baino, dena delako hizkuntzan diren hitzen esanahi eta erabilera zuzenak finkatzeko eginkizuna duen hizkuntz akademiak baino.

Beraz, *localizar* terminoa oraindik *Real Academia de la Lengua Españolaren* hiztegian esaten ari garen zentzuan jaso gabe izateak, hau da, ‘produktu batzuk merkatu batzuetara egokitzea, produktuak kultura eta hizkuntza aldetik egokituta daudelako merkaturatzeko modukoetara’ zentzuan, ez luke arazo izan behar. Terminologian eta itzulpen espezializatuan askotan egiten dira esanahi hedapenak kontzeptu eta termino berriak sortzeko. Hainbat espezialitatetan aurkitzen dituzten errealitate berriak izen berriekin izendatu beharrean, normala izaten da lehen diren beste hitz batzuk erabiltzea izate edo entitate horiek izendatzeko.

Terminoen definizioa

Lokalizazio kontuetan garrantzitsua da sei nozio hauen arteko xehetasunak bereiztea: nazioartekotzea, gaikuntza, lokalizazioa, globalizazioa, itzulpena eta, azkenik, *software*² ingeniariatza. *Softwarea* lokalizatzea espezialitate berri samarra denez, gai honekin ohitu gabeko pertsonak nolana ere erabiltzen dituzte izen horiek. Ematen du kontzeptu horietako batzuk nahasteko joera dagoela, eta, askotan, berdintzat ematen dira lokalizazio lanak, itzulpenarenak eta nazioartekotzearenak.

LISA (Localisation Industry Standards Association) suitzar erakundeak honela definitzen du nazioartekotzea: “*the process of generalizing a product so that it can handle multiple languages and cultural conventions without the need for re-design*”. Normalean, lokalizazioa, gaikuntza edo itzulpena egiten

2. Egilearen oharra: *Software* terminoa Real Academia Españolaren hiztegian jasota dagoen arren, oraindik anglizismotzat jotzen dute, eta horregatik jarri dut letra etzanean artikulua honetan.

hasi baino lehen, nazioartekotu egiten da produktua, produktua sortu duen komunitatearen ezaugarriak kenduz gero errazagoa izaten delako, ustez behintzat, beste merkatu batera egokitzea.

Hala, pakete informatiko bat nazioartekotu nahi izaten denean, kultura edo hizkuntza sistema jakin batekin lotuko luketen bereizgarri guztiak neutralizatu edo berdintzea besterik ez da nahi izaten. Horrela, Bermudezek (2002: 316) dioen bezala *“instead of having a separate version of the code for each locale, one version exists that is reusable for each locale”*. DePalmak, berriz, (2004: 11-12) esaten du nazioartekotze lanak programa edo web gune jakin bat *“the alphabet of a target market”* edo *“the instructions, error messages, currency, and measurements can be expressed differently for local markets”* horiekin bateragarri egiteko ematen direla.

Orduan, zertarako nazioartekotzen da pakete informatikoa edo web orria? Horren erantzuna jakiteko, dena delako *softwarea* edo webgunea sortu duen enpresari herrialde jakin batean egindako programari herrialde hartako bereizgarriak neutralizatzeak konturik dakarkion edo ez begiratu behar da. Edozein moduz ere, atera daitekeen diru irabazia goiti-beheiti, Esselinkek dio (2000: 25) batez ere bi arrazoigatik nazioartekotzen direla produktuak: *“ensure that a product is functional and accepted”* eta *“to ensure that a product is localizable”*.

Horrekin esan nahi dena da, nolabait, produktu informatikoa nazioartekotuz gero, maximizatu egiten dela haren erabilgarritasuna, bateragarri izango delako hizkuntza bateko baino gehiagotako konbentzioarekin, eta, beraz, herrialde batean baino gehiagotan erabiltzeko modua izango

delako batera. Nazioartekotzea ez eze, gaitzuntza edo gaitzea ere egiten da, dena delako programa merkatu jakin bateko eskakizunetara egokitzeko. Horren adibide gisa, Esselinkek (2000: 26) zera aipatzen du: *“a software product can be ‘double-byte enabled’ to process and display text in Asian languages”*.

Aurreneko prestaketa lan horiek biak egindakoan, hau da, nazioartekotzea eta gaitzea egindakoan, aplikazioa lokalizatzen hasteko moduan izaten da. Deitschek eta Czarneckik ere (2001: 9) etapa sekuentzia hori bera aipatzen dute, eta zera azpimarratzen dute: *“once a piece of software has been internationalized—either because it has been designed and implemented that way from the beginning or because it has been reengineered—it needs to be adapted or localized for a specific market”*. LISA erakundearentzat haxe da *lokalizatzea*: *“involves taking a product and making it linguistically and culturally appropriate to the target locale (country/region and language) where it will be used and sold”*.

DePalmak (2004: 11) gehiago zehazten du, eta harentzat lokalizatzea da: *“describes a more ambitious task that tailors translated words and transactions to local needs”*. Beraz, lehen emandako azalpenen arabera, *nazioartekotzea* aditzaren esanahia ‘neutralizatzearen sinonimotzat jo daiteke. Eta, beste aldera: *lokalizatzeak* ‘nabarmentzea’ edo ‘markatzea’ esan nahi du. Hala dio Arevalillok (2000: 117), alegia, nazioartekotzeak lokalizatzearen kontrakoa esan nahi duela.

Esselinkek, ordea, (2000: 3) termino horrek beste adiera bat ere baduela esaten du, zeren *“some publishers consider localization as an integral part of the development*

process of a product”. Hortaz, metonimia bat erabiliz gero, batzuetan ez dira nazioartekotzea eta lokalizatzea bereizten, eta bi kontzeptuak izen batekin nahasten dira.

Egokien-egokiena aurrena pakete informatikoa nazioartekotu eta gero lokalizatzea izaten den arren, nazioartekotu gabe ere lokalizatu daiteke. Askotan, itzulpena hizkuntza pareen artean eginez gero, hala egin daitekeela jotzen da, hau da, nazioartekotu gabe ere lokalizatu daitekeela. Uren, Howard eta Perinotti, ordea, (1993: 5) ez datoz bat: *“would be inefficient because each localization would have to start from scratch, whereas internationalization would enable the software so that each localization becomes little more than a translating task”*.

Lokalizatzearekin askotan nahasten den beste hitz bat *globalizazioa* da. Horixe da nahasmenik handiena ekar dezakeen izenetako bat, nazioartekotzeak esan nahi duen gauza bera esan nahi duela pentsatzen da eta. Aditu askok jotzen du, ordea, globalizatzeak produktu bat nazioartekotzea eta lokalizatzea esanahi duela. Ideia horri indar handiagoa emateko, LISaren definizioa hartzen da adibidetzat; izan ere, erakunde horrentzat, globalizatzeak *“involves integrating localization throughout a company, after proper internationalization and product design, as well as marketing, sales, and support in the world market”*.

Esselinkek (2000: 4) globalizazioaren inguruan bildu dituen adiera guztietatik, artikulua hau egiteko gehien interesatzen zaidana hirugarren adiera da, honela zehazten baitu adiera horrek fenomeno hau: *“the process of creating local or localized versions of web sites”*. Cortek ere (2002: A.G.) iritzi bera du, globalizazioak “nazioartekotze eta

lokalizatze prozesuak konbinatzen ditu” esaten du, eta, gaineratzen du itzulpenari lotutako nozioa baino gehiago, “marketingaren saileko kontzeptua” dela globalizazioa.

Itzulpena, Esselinken arabera (2000: 4), zera da: *“the process of converting written text or spoken words to another language. It requires that the full meaning of the source material be accurately rendered into the target language, with special attention paid to cultural nuance and style”*. Azkenik, ez dugu ahaztu behar *software* ingeniari-tza dela lokalizazio proiektu baten zutaberik inportanteenetako bat. Termino hori azkena aipatzeak ez du esan nahi lokalizazio proiektuan garrantzirik ez duenik. Ingeniaritza lanak zuzen-zuzenean itzultzaileek ez dituztelako egiten aipatu dut azkena termino hori. Horixe da arrazoa. Esselinken (2002: A.G.) arabera, *“localization engineering consists of all the work that translators cannot do, as well as all the original product developers cannot do”*.

Software ingeniari-iei eskuarki dagokien eginkizuna itzultzaileen lana samurtzea da; izan ere, zein artxibo lokalizatu behar diren zehazten baitute ingeniari-iek. Eginkizun horrek, langai diren hizkuntzak eta kulturak oso ondo ezagutzea ez eze, lokalizazio proiektuetan gehien erabiltzen diren erreminta eta aplikazio informatikoe-ekin ere ondo moldatzea eskatzen du. Laburbilduz, Esselinkek (2002: A.G.) zehazten du *software* ingeniari-tzaren oinarri nagusia hau dela: *“taking the development environment of a product, taking it apart, and putting it together again after all the text has been translated”*.

2. Lokalizaio industriaren lehena, oraina eta geroa

Askotan esaten da bizitza honetan ezer ere ez dela halabeharrez gertatzen, dena izaten dela zerbaitegatik, eta gauzak ez direla hutsetik sortzen, halabeharraren eraginez. Bada, hori bera esan daiteke softwarearen lokalizazioaz ere; izan ere, beharrak eraginda hasi baitzen lokalizazio industria garatzen, mila bederatziehun eta laurogeietik aurrerako hamarraldiaren hasieran. Orduko software fabrikatzaile askok ikusi zuen irabaziak ateratzeko modu bakarra bere produktuak merkatu lokal batzuetara egokitzea zela. Joera hori hala izan da gaur arte, eta ematen du aurrera ere hala segituko duela, oraindik ere irabaziak ematen dizkie-eta konpainiei.

Aurreikuspen gisa, Lynchek, Slavitzek eta Vialardek zera argudiatzen dute:

The greatest growth in Internet use during the next few years is expected to occur in the European and Asian-Pacific market. North America, which currently represents 43 percent of the online population, will account for just 30 percent of that population by 2005 [...]. A third of online users will be in Europe and a quarter in Asia. Internet use in Latin America is also increasing, with approximately 10 million Latin Americans online today, a number that's expected to jump to 65 million in the next five years. (Lynch, Slavitz eta Vialard 2000: 467)

Lokalizazio industriak batez ere Irlandan jarri ziren mila bederatziehun eta laurogeita hamarrek hamarraldian, hango gobernua Irlandan jarri nahi zuten industriei zerga aldetik eman zizkien laguntzei esker. Esselinkek dioenez (2000: 7), *software* lokalizazioan aritzen ziren enpresak Irlandan jartzeko arrazoia izan zen gobernua *“was providing*

what they called turnkey factories, where a large multinational was offered a certain amount of subsidy per employee, plus facilities and grants, and a corporate tax rate of 10%”. Dena dela, Irlandatik kanpora ere jarri dira lokalizazioan espezializatutako elkarte eta erakundeak.

Informazioaren teknologia berriak lanerako tresna ezinbesteko bihurtu diren merkatuetan jarri dira, batez ere, lokalizazio proiektuak. Alde horretatik, Esselinkek (1998: 6) zera adierazten du: *“the largest markets for localized products have been France, Germany, and Japan. Medium-sized markets are Italy, Spain, Sweden, Norway, and the Netherlands”*. Ez da harritzekoa, beraz, frantsesa, italiera, alemana, espainiera eta japoniera izatea lokalizatutako produktu gehien dituzten xede hizkuntzak, zeren hizkuntza horiek egiten diren herrialdeetan geroz eta kontsumitzaile gehiagok baitu teknologia berrietarako sarbide handiagoa, edozein arlotan ere, eta bere ama-hizkuntzan izan nahi du sarbide hori.

Esselinkek (1998: 6) berretsi egiten du tesi hori, eta zerari eusten dio: *“software developers often want their products localized into FIGS (French, Italian, German, Spanish) and Japanese first”*. Hala ere, norvegiarak, danierak, suedierak, portugalerak eta nederlanderak ere inportantzia handia dute lokalizazioaren munduan, lokalizatutako produktua geroz eta gehiago eskatzen baita globalizatutako herrialdeetan. Sektore honen oinarritzko alderdiak ikusi eta gero, lokalizazio proiektua nola garatzen den eta zein jendek parte hartzen duen ikusiko dugu orain.

3. Lokalizazio proiektuaren garapena

Produkturen bat sortu duenaren hizkuntza eta kultura ez duen beste herrialde batean merkaturatu nahi duela eta produktu hori lokalizatu behar duenak hornitzaile eleaniztunen batengana jotzen du, hau da, langile asko, klase askotako baliabideak eta erremintak eta are antolaketa gaitasun hobea izateagatik hainbat hizkuntza erabiltzeko eta, beraz, itzulpen proiektu handiak egiteko gauza den lokalizazio enpresa batengana jotzen du.

Era berean, lan maila ohikoa baino askoz handiagoa badute, hornitzaile eleaniztun horiek itzulpen enpresa txikiago batzuegana jotzen dute, hornitzaile elebakarrengana, alegia, hizkuntza bakar batetara itzultzen duten enpresengana. Zenbaitetan, berriz, gerta daiteke hornitzaile eleaniztunek eta elebakarrek itzultzaile autonomo baten zerbitzua eskatzea, ahalik eta azkarren entregatu ahal izateko, hartara, eskatu dieten lana.

Lokalizazio enpresaren beraren jarduerari dagokionez, Parrak (2002: 208) zera dio: “lanik gehienak elkarren artean partitzen dituzte”. Beste edozein sektoretako konpainiatan gertatzen den bezala, lan asko denean, langileen artean partitzen da lana arlo honetako enpresetan ere. Baina, zeinek lan egiten du lokalizazio proiektuetan eta zer eginkizun izaten du?

3.1 Lokalizazio proiektuan parte hartzen duten pertsonak

Esselinken arabera (2003: 74), lokalizazio proiektuan parte hartzen duten pertsonak dira “a combination of people with ma-

nagement, linguistic, and technical background”. Aurrena, proiektuaren zuzendariak izaten dira (lokalizazio enpresen arduradunak, jeneralean). Gero, proiektuen gestio arduradunak izaten dira. Horiek, bezeroekin hitz egin, proiektuak lortu eta, Parrak (2002: 209) dioen bezala, beste eginkizun batzuk ere izan ditzakete: “proiektuak aztertu eta ebaluatzea, zenbait lan tekniko egitea (autoedizioa eta beste batzuk, esate baterako), antolaketa, plangintza, egutegiak prestatzea, lanak partitzea eta hornitzaileekin hitz egitea”.

Hurrena, informazio teknologietako ingeniariak izaten dira, lokalizatzaileen lana samurtzen dutenak. Parrak (2002: 209) azaltzen duenez, espezialista horiek “materiala aztertu eta prestatu egiten dute, eta baliabide material guztiak gestionatu, erreminta berezituaren ebaluazioaren eta diseinuarekin”. Era berean, autore horrek berak dio (2002: 209) beste eginkizun tekniko batzuk ere ematen dizkietela, esate baterako sareak gestionatzea, autoedizioa, konpilazioa, elementuei neurri berriak ematea eta hutsegite funtzionalak harrapatzea.

Horrenbestez, pentsa dezakegu *software* ingeniariak teknologia berrien erabileran eskarmentu handia duten profesionalak izango direla. Dena dela, Esselinket (2003: 75) zera aipatzen du: “*localisation engineers do not need to be programmers or developers*”, zeren “*knowledge of how software applications and online help files are compiled and tested is sufficient in most cases*”. Itzulpen zerbitzuen hornitzaileak zer tamaina duen, pertsona batek berak lan bat baino gehiago egingo du batera. Baina, zenbat eta gehiago jakin lokalizazio proiektuak garatzeko behar den

erreminta informatiko mordo handiaz ingeniariarik, orduan eta hobeto egingo da lana.

Lokalizazio proiektuan parte hartzen duen langile zerrenda horren ondoren, edukiak kultura batzuetatik beste batzuetara pasatu eta egokitzeko eginkizuna duten pertsonak ditugu: itzultzaileak, alegia. Enpresa batean bertan ere bi eratako itzultzaileak bereiz daitezke: eskarmentu urte asko duten itzultzaileak (terminologia edo itzulpen memoriak begiratu eta horien mantentze lanak egiten dituzte haiak), eta emandako materiala itzuli besterik egiten ez dutenak.

Esselinkek (2003: 76) aipatzen duen bezala, eskarmenturik handieneko itzultzaileek sortu eta eguneratu egiten dituzte “*language style guides, managing terminology to ensure consistency, reviewing the work produced by the translators, and answering questions raised by the translators regarding linguistic issues*”. Horien segidan, itzultzaileak izaten dira, eta itzulpen lana egiten dute. Itzultzaileak, enpresaren plantillakoak edo autonomoak izan daitezke, lan jakin bat egiten dutenak zerbitzu hornitzailearen baitentzat.

Eta, azkenik, kalitate kontrola egiten duten itzultzaileak eta autoedizio lanak egiten dituztenak izaten dira. Kalitatea kontrolatzen dutenek, itzulitako materiala errebisatzen dute, eta besteek, edukia editatu eta azken lana prestatzen dute, materiala berriz ere konpilatu baino lehen.

3.2. Software lokalizatzailean soslaia

Lehen aipatu dugun eran, *software*-lokalizatzailea, lokalizazio enpresa batek kontratatzeako orduan, itzultzaile autonomoa edo soldatapeko itzultzailea izan daiteke, kon-

painiaren batek bere plantillan hartuta duena. Garciaren iritziz (2000: 20), “itzultzailearik gehienak itzultzaile autonomo independente aritzen dira (*free-lance*), itzulpen enpresa nazional eta/edo nazioarteko baten-tzat baino gehiagorentzat”. Lan baldintzen arabera, badira alde batzuk itzultzaile autonomoen eta nominan daudenen artean.

Alde horien artean, Parrak (2002: 210) zera aipatzen du: “bere kontura jarduten duen itzultzaileak hitzeko hainbesteko bat fakturatzen du, eta askoz hobeto optimizatu dezake egiten duen ahaleginaren eta jasotzen duen ordainaren arteko harremana”; nominan dagoenak itzultzaileak, berriz, “soldata bat izaten du, eta, beraz, ordain muga murriz samar bat”. Norberaren kontura dabilenak gastu handiagoak izaten ditu, normalean, soldatapean dagoenak baino. Izan ere, norbere kontura dabilenak berak erosi behar izaten ditu erreminta batzuk, eta nominan dagoenari enpresak jartzen dizkio.

Guztiarekin ere, *software* lokalizatzaileak autonomo edo soldatapean lan egitea ez da puntu honetan aztertu nahi dugun kontua. Guri hemen axola diguna da lokalizatzen arituko den itzultzaileak zer baldintza bete behar lituzkeen jakitea. Garciaren arabera (2000: 20), “Lokalizatze kontuan [...], unibertsitateko prestakuntza berezia duen itzultzaileak ez dauka ia batera babesik lanbideko merkatura ateratzeko orduan”, zeren, Garciaren ustez, “lizentziatuak ez du lokalizazio enpresa bati lana dagokion garaian eta kalitatearekin egiteko behar-beharrezkoa den praktika eta eskarmenturik”.

Parrak ere (2002: 210) begiratzen dio kontu horri, eta zera irizten dio: “lokalizazio enpresentzat beti-beti ez da samurra izaten

behar diren jakintza eta gaitasunak dituen nahikoa jende aurkitzea". Orduan, zer presakuntza akademiko edo profesional izatea eskatzen zaie lokalizatzaileei? Arealillorentzat (2000: 121), eduki batzuk hizkuntz sistema batetik bestera aldatzen jakiteaz gainera, "lokalizatzaileak ohituta egon behar du ordenagailuz lagundutako itzulpen erremintekin ibiltzen, maketazio eta autoedizio programekin, teknologia multimediarekin eta Internetekin".

Autore horrek berak (2000: 120-121), lokalizatzaileak curriculumean sartu behar dituen trebetasun batzuk aipatzen ditu, baldin eta lokalizatzaile horrek Espainian lokalizazioan jarduten duen enpresaren batek hartzea nahi badu. Hauek dira, egile horren iritzian, lokalizatzaileak izan behar lituzkeen trebetasunak:

- "Itzulpen edo Filologia lizentziatura izatea (ahal dela), edo, bestela, hizkuntz ezagupen handiak dituen beste lizentziaturaren bat";
- "oso ondo jakitea dena delako sorburu hizkuntza eta xede hizkuntza";
- "hizkuntz sentsibilitatea izatea";
- "oso ondo jakitea espainiar kulturaren eta hizkuntzaren berezitasunak";
- "itzulpen erreminta bereziekin lan egiten ikastea" (itzulpen memoriekin eta lokalizazio programekin, konparazio baterako);
- "eskuarki erabiltzen diren artxibo formatuekin ohitzea (RTF, FrameMaker, Java, HTML, SGML, XML eta beste batzuk)";
- "maketazio eta autoedizio ezagupen batzuk izatea (Microsoft Word, Adobe

FrameMaker, Adobe PageMaker, QuarkXpress, Microsoft PowerPoint eta abar)";

- era berean, *software* lokalizatzaileak "talde lanean aritzeko izpiritua" eta "lokalizazio proiektuen gestioari heltzeko ekimena" izan behar ditu. Azkenik, "itzultzaile profesional gisa eskarmentua izatea" ere erakutsi behar du.

Parrak (2002: 211) berretsi egiten du tesi hori, eta adierazten du lokalizatzaileak batez ere "hizkuntz, itzulpen, terminologia eta dokumentazio ezagupenak", eta baita "informatikakoak" ere, izan behar dituela. Arealillok bezala, Parra-k ere (2002: 211) esaten du lokalizatzaileak jakin egin behar duela "ordenagailuz lagundutako erremintekin ibiltzen", "eskarmentua" izan behar duela alor horretan, "Itzulpen eta Interpretazio lizentziatura" izan behar duela eta "presiopean lan egiteko behar den gaitasuna" eduki behar duela.

3.3. Lokalizatze prozesua

Web orriak, programak, laguntza eta dokumentazioa (nola paperean hala *online*) izaten dira lokalizazio proiektuetan egokitu behar izaten diren produktuak, dena delako produktu informatikoa sartu nahi den merkatura egokitu beharrekoak. Bezeroak *software* lokalizazioko enpresaren batera jo eta originalak entregatzen dituenetik haiek egokitu eta sartu nahi dituen merkatuetan sartzeko moduan jasotzen dituen arte, *lokalizatze*ko moduko zatiek hainbat fase pasatzen dituzte, Martinen arabera (2002: 300): "materialaren azterketa; produkzioa; kon-

probazioak; eguneratzeak eta kalitate kontrola”.


Materialaren azterketa xede honekin egiten da: egiaztatzea lokalizatu behar den programa edo web orria osatzen duten artxibo guztiak ondo jaso direla. Era berean, hasierako fase honek horrelako proiektu bati ekiteko prozedurarik egokienak zein diren argitzen laguntzeko ere balioko du. Esselinkek (2000: 19) dio lokalizazio enpresaren batean izan ohi dela *“a project evaluation team in place that analyzes all aspects of a new localization project, identifies problem areas, selects tools and approach, and provides the project managers with all information necessary to create a project schedule, budget and resourcing plan”*.

Ondoren, produkzioa izaten da: pakete informatikoa edo web gunea lokalizatzea, funtsean. Lokalizatze lanei berei ekin baino lehen, termino zerrenda bat egin dezakete itzultzaileek, dena delako proiektuan maiz azalduko diren terminoena. Egokiena glosario hori programa lokalizatzen hasi baino lehen egitea izaten da, termino koherentzia bat izaten lagunduko du-eta horrek. Baina,

lanak entregatzeko izaten diren epe estuak bete beharrak, batzuetan ez du aurretik egiteko biderik ematen, eta gero egiten da.


Material lanketa horiek egin eta gero, programa informatikoaren itzulpenari helitzen zaio. Lokalizatu beharreko programa informatikoa erabiltzailearen interfazeak, mezuek eta elkarrizketa taulek osatzen dute. Esselinkek (1998: 10-11) zehaztapen bat egiten du: *“dialog boxes are the windows or screens where users can change options or settings”*. Era berean, *“menus are the drop-down lists that are used to select commands and options, or to access dialog boxes”*. Azkenik, *“strings contain the error messages, status messages, questions and tooltips that are used in the application”*.

Segidan, adibide batzuk jarriko ditugu erabiltzailearen interfaze grafikoan azaltzen diren elkarrizketa taulak, menuak eta mezuak zer diren ikusteko. Aurrena, elkarrizketa taulak ikusiko ditugu. Elkarrizketa taulak leihoak dira, eta leiho horietan erabiltzaileak aukera eta konfigurazio batzuk aldatzeko modua izaten du. Formatu hau izaten du elkarrizketa taulak:




Mezu taulek, berriz, aginduren bat exekutatzekoan zer akats sor daitekeen adierazten diote erabiltzaileari. Era berean, galdarak egin, zenbait operazioen xedea

adierazi eta baita programaren bat exekutatzeko orduan sor daitezkeen akats batzuentzako konponbideak proposatu ere egin ditzake.




Halaber, erabiltzailearen interfaze grafikoaren tresna barrako ikono batzuetan azaltzen diren etiketak eta lemak ere mezu taulatzat jotzen dira. Beraz, ondorengo irudi

honetan ageri dena ere mezu taula da, taula batek zer paper jokatzen duen erakusten dio-eta erabiltzaileari:



Menuak, bestetik, zabaltzeko moduko zerrendak izaten dira, zabaldutakoan erakusten diren aukeratako bat hartzeko edo aginduak exekutatzeko erabiltzen direnak. Segidan datorren irudian erakusten dugun itxura izaten dute. Oro har, bukaeran hiru

puntu izaten dituzten aginduek elkarrizketa taulak irekitzen dituzte. Eta, beste aldera, hiru punturik ez duenen bat aukeratu gero, segituan exekututzen da menuan adierazitako aginkizun edo ataza hori.



Produktzioa erabat osatzeko, doitze lan batzuk egiten dira, horretarako berariaz izaten diren erreminta batzuekin; izan ere, espainieraz, litekeena baita zerbaiten itzulpenen bat egitekoan, itzulitako testu katea jatorrikoa baino luzeagoa izatea. Esselinkek (2003: 71) ondo erakusten du hori: *“in dialog boxes, not only do all options need to be translated, but also often resizing of items is necessary because of space restrictions”*. Batzuetan, toki kontua dela eta, ez da tamaina doitzerik izaten, eta, orduan, laburdurak edo silaba gutxiagoko sinonimoak bilatu behar izaten ditu itzultzaileak, lokalizatutako testua elkarrizketa edo menu tauletako tarte berrietan sar dadin.

Fase hori bukatutakoan, laguntza eta dokumentazioa itzultzea izaten da lokalizatze lanaren hurrengo pausua. Garciaren iritziz (2000: 17), laguntza “halako erabilera eskuliburu elektronikoa bat besterik ez da, erabiltzaileak programatik bertatik eskuratzeko”. Gehienetan, Internetez eskaintzen den laguntzak ekartzen dio lanik gehien lokalizatzaileari; izan ere, edozein lokalizazio proiektutan ere, parte horretan sartzen den itzulpen bolumena programa informatikoa osatzen duten gainerako elementuetakoa baino handiagoa izaten baita.

Pakete informatikoan izaten diren osagaietan azkena lokalizatzen dena dokumentazioa izaten da. Hala ere, batzuetan, programaren bat lokalizatzeakoan, lokalizatzaileak material guztia batera itzultzen du, ordenari asko begiratu gabe. Normalean, Esselinkek (2000: 289) adierazten duen bezala, dokumentazioan sartzen dena zera izaten da: *“the Installation Guide, the Getting Started Guide, the Online manuals and the*

collateral material”. Eta, kostuak murrizte aldera, programak egiten dituzten enpresek geroz eta gehiago jotzen dute produktuak Internetez erakutsi eta materiala inprimatuta argitaratzeak dakarren kostua kentzera.

Lokalizatu beharreko web orria izanez gero, berriz, hipertestua markatzeko hizkuntzekin ibiltzen ohitu beharko da. Hizkuntza horiek Internet azaldu zenez geroztik erabiltzen dira, eta testua, irudiak, hiper-estekak, taulak nahiz orria osatzen duten gainerako elementuak pantailan nola azalduko diren kontrolatzeko izaten dira.


Alde horretatik, urte askoan erabili den hizkuntza estandar bat SGML dugu. Honek definitzen du *on line* den *Weaving the Web* glosarioak: *“an international standard in markup languages, a basis for HTML and a precursor to XML”*. Webguneko testua oso argi definitzeko eta markatzeko bidea ematen zuen hizkuntza horrek, baina markaketa hizkuntza konplikatu samarra zen, urte batzuetan erabili eta gero ikasten zena, eta, hala, HTML hizkuntza sortu zen. Honela definitzen du HTML hizkuntza lehen esan dugun *Weaving the Web* glosarioak: *“a computer language for representing the contents of a page of hypertext; the language that most Web pages are currently written in”*.

SGMLren beste oinordeko bat XML izan zen. Aurretik izan zituen beste hizkuntza batzuk baino hizkuntza egituratuagoztat jotzen zuten XML, baina bazituen alde txar batzuk ere. Batetik, edozein pertsonak sor zitzakeen etiketa berriak, eta, beraz, dibertsioago bihurtzen zen hizkuntza eta ezezean geratzen hizkuntz batasuna. Eta, bestetik, oraindik ere erabiltzen diren nabigatzaile zahar batzuk ez dago hizkuntza horrekin erabiltzerik.

Arazo hori konpontzeko, XHTML hizkuntza sortu zen; izan ere, hizkuntza horrek *“uses the exact tags and elements of HTML and syntax of SGML, but has the structure of XML”* (Griffin, Morales eta Finnegan 2003: 19). Lokalizatzaileak ohituta egon behar du hizkuntza mota horrekin, baldin eta jakingo badu zer aldatu behar duen xede kultu-

rara edota zein elementu blokeatu behar duen zenbait itzulpen erremintak itzuli ez dezan.

Eskuarki, web orriek honen segidan jarri dugun itxura hau izaten dute erabiltzaileentzat. Real Academia Españolaren orria hartu dugu adibidetzat.



Irudi horren atzean dago, ordea, web orriaren benetako egitura, eta hizkuntza horrekin ohituta egoteak asko lagunduko dio itzultzaileari lokalizazio proiekturen bat egingeko orduan, zeren, etiketa hizkuntza hori

jakinez gero, ez du zailtasun handirik izango bere lana egiteko garaian erabiltzen dituen lokalizazio tresnekin lan egitekoan sortzen diren zalantzak argitzeko.

```

rap[1] - Bloc de notes
-----
window.frames.frames[0].var.dinamica
<!DOCTYPE html PUBLIC "-//W3C//DTD XHTML 1.0 Transitional//EN" "http://www.w3.org/TR/xhtml1/DTD/xhtml1-transitional.dtd">
<html xmlns="http://www.w3.org/1999/xhtml">
<head>
<meta http-equiv="Content-Type" content="text/html; charset=iso-8859-1" />
<meta name="author" content="Real Academia Espa#241;a" />
<meta name="description" content="Instituto de Estudios Espa#241;oles: especializaci#227;n en lexicograf#227;a, gram#225;tica, ortograf#227;a y bases de datos ling#227;sticas. Producci#227;n de diccionarios de referencia de la lengua espa#241;ola. Spanish institution specialized in lexicography, grammar, spelling and linguistic data bases. Producer of the spanish language reference dictionary" />
<meta name="keywords" content="espa#241;ol, espa#241;ol, espa#241;ola, espa#241;ola, diccionario, dictionnary, lengua, language, ortograf#227;a, ortography, gram#225;tica, grammatic, lexicograf#227;a, lexicography, corpus, ling#227;stica, linguistics, spanish, diccionarios, espa#241;a, spain, DRAE, DOP, panhispa#227;nico, dudas, hist#227;rico, estudiante, acad#227;mico, acad#227;mico, academia, academy, acad#227;mico, academi" />
<meta name="Language" content="espa#241;ol" />
<meta name="revisit" content="1 days" />
<meta name="robots" content="all, index, follow" />
<title>Real Academia Espa#241;a</title>
<link href="style.css" rel="stylesheet" type="text/css" />
<link rel="stylesheet" type="text/css" media="all" href="http://www.rae.es/imagenes/graficos.nsf/recursos/CSS/general_text/$file/general_text.css" />
<!-- cambio dinámico de imagen background (cambia CSS) si la resoluci#243;n de pantalla es mayor de 800x600 -->
<script type="text/javascript">
</script>
</script>
<script type="text/javascript">
function submitrar(myForm, a, dictionary)
{
var keycode;
if (window.event) keycode = window.event.keyCode;
else if (e) keycode = e.which;
else return true;
if (keycode == 13)
{
if (document.all) {
var fb = document.forms[0];
} else {
if (document.layers) {
var fb = document.buscqueda.document.forms[0];
} else {
var fb = document.forms[0];
}
}
var tema1, tema2;
tema1=fb.ima.val;
tema2=fb.DOP.value;
}
}
}

```

Lokalizazio proiektuaren azkeneko pausuetako bat itzulitako material guztia berriz begiratzea izaten da. Aurreko etapetan zerbaiten deskuidu edo akatsen bat izan den begiratzeko egiten da hori. Atal horretan egiaztatu behar da ea zabaldu behar den merkaturako konbentzioetan ondo sartzen den lokalizatutako materiala. Ziurtatu behar dugu pakete informatikoa ondo nazioartekotu dela, eta, beraz, ondo betetzen dituela dena delako programa informatikoa sartu nahi den herrialdean agintzen duten gizarte eta kultur arauak.

Ondoren, pakete informatiko edo web-gune bat lokalizatzeako garaian kontuan izan behar diren xehetasun nagusiak aipatuko dira, herrialde guztiek ez baitituzte jarraibi-

de berberak segitzen beren tradizioetako elementuak aurkezteko orduan. Hor ditugu datak aurkezteko konbentzioak, esate bate-rako.

Alde horretatik, zera diote Deitschek eta Czarneckik (2001: 93): *“an American would interpret the date 03/10/1999 as March 10, 1999”, eta, aldiz, “a British reader [...] would interpret the same date as October 3, 1999”*. Izen bereziekin eta marken izenekin kontu handiz ibili behar da, semantika kontu batek asko zaildu baitezake produktu baten salmenta. Oso kasu ezaguna da Bermudezek (2002: 325) aipatzen duen hau: *“when the Opel Company produced the Nova car, it was shipped with this name to the US, whereas they had to rename it for the Euro-*

pean market, since in Spanish, no va means it does not go”.

Irudiak, ikurrak eta ikonoak ere ahalik eta neutralenak izatea komeni da, zeren oso esanahi desberdinak izan ditzakete testuinguruaren arabera. Esselinkek (1998: 2) adibide hau jartzen du: *“Apple’s Trashcan icon [...] initially looked like a postal box to British Macintosh users”*.

Koloreek eta beste elementu batzuek ere era askotako konnotazioak izaten dituzte kulturen arabera. Bermudezek (2002: 331) azalpen hau ematen du: *“when representing people of specific race, colour or gender, stereotypes should be avoided. Some users may be offended by the use of religious symbols”*. Era berean, kuidado handiarekin ibili behar da terminologia bereziarekin eta lokalismoekin ere, zeren eta, Esselinkek (2000: 27) esaten duen bezala, *“many internationalization problems have been found in simple files, such as document templates, which were not designed with international users in mind”*.

Pakete informatikoa edo web orria ondo itzulita dagoela begiraturakoan, eguneratze lanak egiten dira. Konprobazio fasean sortu diren berritasun guztiak bildu nahi izaten dira eguneratzea egitekoan. Eta, lokalizazio proiektuaren azkeneko urratsa, lokalizatutako materialaren kalitatea kontrolatzea izaten da. Alegia, artxibo guztiak ondo lokalizatuta eta eguneratze guztiak sartuta daudela begiratzea. Laburbilduz, xede erabiltzailearen baldintzak birsortzen saiatuko gara, produktuak teknikaren, kulturaren eta hizkuntzaren alderditik ondo egiten duela egiaztatzeko.

Lokalizazio eta itzulpen erremintak erabiltzea

Itzulpen espezializatuaz hitz egitekoan ere esan dugu itzultzaileak batzuetan halako erreminta batzuk erabiltzen dituela itzulpen lanak askotan izaten dituen lan errepikakor horiek egiteko. Hala, lokalizazio proiektua egitea ere izan daiteke lan errepikakor bat egitea, zeren, programa eta laguntza sistematik itzultzekoan izaten diren terminologia eta hizkuntz arazoak, dokumentazioa itzultzekoan ere ager daitezke. Beraz, arazo horiek konpontzeko, derrigorra da itzulpen memoriak, terminologia kudeatzeko erremintak eta ordenagailuz lagundutako programak erabiltzea.

Artikulu honen lehenbiziko puntuan ere aipatu dugu itzultzaile espezializatuak zein programa informatiko erabiltzen dituen bere lana lehenago eta hobeto egiteko. Hala berean, lokalizatzaileak ere erabiltzen ditu aplikazio horiek bere lana egiteko orduan, zeren, aurreko paragrafoan nabarmendu dugunez, lokalizazio proiektua egitekoan ere gerta daiteke itzulpen lan batzuk behin baino gehiagotan azaltzea proiektu batean bertan. Sistema horiek erabiltzeak dituen abantailarik handienak azaldu ditugunez, lokalizazioan maiz erabiltzen diren beste erreminta klase batzuk deskribatuko ditugu orain, *softwarea* lokalizatzeako erremintak esaten zaienak, hain zuzen ere.

Esselinkek (2003: 81) zera dio: *“special tools have been developed to translate graphical user interfaces (GUIs) of software applications, i.e. the dialog boxes, menus, and messages that are displayed on a computer screen”*. Askotan —eta badirudi hemendik aurrera geroz eta gehiago izango dela—, programa horiek editatze eta maketatze lanak egiteko

tresnak eta are itzulpen memoriak ere ekar-tzen dituzte, beste aplikazio batzuekin bate-ra. Ordenagailuaren zein sistema eragile ja-rrita dagoen, programa batzuk edo beste batzuk erabiliko dira, denak ez dira-eta Windowsekin edo Macintoshekin erabiltze-ko modukoak.

Windowsekin gehien erabiltzen diren erremintarik ezagunenak Alchemy Catalyst, SDL Passolo eta RC-WinTrans dira. Esselink (2000: 383) zehaztapen bat egiten du: *“Catalyst is used to translate and review text strings, menus, dialog boxes, and various custom resources supported by Windows”*. La-bur-labur, Esselink (2000: 387) Passolo programa dela eta, haxe azaltzen digu: *“ex-ports translatable text from software resource files and imports it after translation. Passolo also includes dialog box resizing functionality and several automated localization tests”*. RC-WinTrans erabiltzeaz, berriz, Esselink (2000: 386) esaten digu: *“the user can create, translate and maintain multiple language versions of the resource files from projects”*.

Macintoshera lokalizazio erreminte-tan, bestetik, bi aplikazio dira nagusi: Ap-pleglot eta Powerglot. Esselink-ek (2000: 389) haxe esaten digu Appleglot progra-maz: *“does incremental updates from previ-ously localized versions of the software”*. Eta, Esselink berak (2000: 391) beste hau dio Powerglot programaren gainean: *“extracts, shorts, and presents all translatable text con-tainer in an application in a comprehensive way”*. Hiru programa horiez gainera, mer-katuan badira beste batzuk ere; esate batera-ko, Visual Localize eta VisualTranslate.

Lokalizazio enpresa batek erreminta bat edo beste bat aukeratzea faktore baten bai-no gehiagoren baitan dago; besteak beste, bezeroaren exijentziak, dena delako lokali-zazio programak zenbat hizkuntzarekin lan egin dezakeen, kostua edota dena delako aplikazioak zer aukera ematen dituen. Era berean, eskuarki lan egiten den kulturen ezaugarriek ere eragingo diote horri, zeren programa guztiak ez dago zenbait hizkun-tzaren formatu eta ezaugarriekin erabiltze-rik.

BIBLIOGRAFIA

- AREVALILLO DOVAL, Juan José. 2000. “La localización: conceptos, nuevas tecnologías y requisitos del nuevo traductor de informática”. In Carmen Valero Garcés eta Isabel de la Cruz Cabanillas (argitaratzaileak) 2000. *Traducción y nuevas tecnologías: herramientas auxiliares del traductor. Encuentros en torno a la traducción IV*. Alcalá de Henares: Universidad de Alcalá. 115-124.
- BERMÚDEZ BAUSELA, Montserrat. 2002. “Issues involved in Software Localisation: Specifics from English into Spanish”. In José María Bravo (argitaratzailea.) 2002. *Nuevas perspectivas de los estudios de traducción*. Valladolid: Universidad de Valladolid. 315-337.
- CORTE FERNÁNDEZ, Noelia. 2002 (urria). “Localización e Internacionalización de sitios web”. *Revista Tradumática 1*. Helbidea: <http://www.fti.uab.es/tradumatica/revista/articulos/jmas/art.htm> (azkeneko bisita: 14 2004ko otsailaren 14a).
- DEITSCH, Andrew eta David Czarnecki. 2001. *Java Internationalization*. Sebastopol: O’Reilly.
- DEPALMA, Donald A. 2004. *Business Without Borders: A Strategic Guide to Global Marketing*. Chelmsford, MA: Globa Vista Press.
- ESSELINK, Bert. 1998. *A practical guide to software localization*. Amsterdam: John Benjamins.
- ESSELINK, Bert. 2000. *A practical guide to localization*. Amsterdam: John Benjamins.
- ESSELINK, Bert. 2002 (urria). “Localization Engineering: The Dream Job?” *Revista Tradumática 1*. Helbidea: <http://www.fti.uab.es/tradumatica/revista/articulos/jmas/art.htm> (azkeneko bisita: 14 2004ko otsailaren 14a).
- ESSELINK, Bert. “Localisation and translation”. 2003. In Harold Somers (argitaratzailea) 2003. *Computers and translation: a translator’s guide*. Amsterdam: John Benjamins. 67-86.
- GARCÍA VELASCO, Margarita. 2000. “Localización: un rico mercado para el traductor técnico”. In Dorothy Kelly (argitaratzailea) 2000. *La traducción y la interpretación en España hoy: perspectivas profesionales*. Granada: Comares. 13-23.
- GRIFFIN, Jeffrey; Carlos Morales eta John Finnegan. 2003. *Web Design and Development using XHTML*. Wilsonville, OR: Franklin, Beedle & Associates.
- LYNCH, Clove; Ellen Slavitz eta Mylène Vialard. 2000 “Translating web sites: danger and opportunity. An introduction to web site translation”. In Thomas L. West (argitaratzailea) *Proceedings of the 41st Annual Conference of the American Translators Association*. Alexandria: American Translators Association. 467-487.

- MARTIN, Maryan. 2002. "La localización de software: una especialidad incipiente en los Estudios de Traducción". In José María Bravo (argitaratzailea) 2002. *Nuevas perspectivas de los estudios de traducción*. Valladolid: Universidad de Valladolid. 295-313.
- MAS I HERNÁNDEZ, Jordi. 2002 (urria). "Internacionalització de programari: el cas del català". *Revista Tradumàtica 1*. Helbidea: <http://www.fti.uab.es/tradumatica/revista/articles/jmas/art.htm> (azkeneko bisita: 2004ko otsailaren 14a).
- PAGANS, Marta. 2002 (urria). "Localització, ens ubiquem?" *Revista Tradumàtica 1*. Helbidea: <http://www.fti.uab.es/tradumatica/revista/articles/mpagans/art.htm> (azkeneko bisita: 14 2004ko otsailaren 14a).
- PARRA, Joan. 2002. "El mercado laboral en el sector de la localización". In Amparo Alcina Caudet eta Silvia Gamero Pérez (argitaratzaileak) 2002. *La traducción científico-técnica y la terminología en la sociedad de la información*. Castelló de la Plana: Universitat Jaume I. 207-214.
- UREN, Emmanuel; Robert Howard eta Tiziana Perinotti. 1993. *Software internationalization and localization*. New York: Van Nostrand Reinhold.

Web orriak

- Hainbat egile. *Real Academia Española*. Helbidea: <http://www.rae.es> (azkeneko bisita: 2008ko ekainaren 3a).
- Hainbat egile. *Merriam Webster Online Dictionary*. Helbidea: <http://www.merriam-webster.com> (azkeneko bisita: 2008ko ekainaren 3a).
- Hainbat egile. *The Localization Industry Standards Association*. Helbidea: <http://www.lisa.org> (azkeneko bisita: 2008ko ekainaren 3a).

Localización del software


En la sociedad actual, capitaneada por las nuevas tecnologías en el ámbito de las telecomunicaciones, es imprescindible traducir tanto los programas informáticos y las páginas web que se supone facilitan la labor en cualquier ámbito profesional y personal, como toda la información que se puede transmitir a través del ordenador. Como consecuencia del fenómeno de la globalización y del afianzamiento de las llamadas tecnologías de la información surge la noción de la localización. Aunque el verbo localizar viene definido en la Real Academia Española como “fijar, encerrar en límites determinados, averiguar el lugar en que se halla alguien o algo, determinar o señalar el emplazamiento que debe tener alguien o algo”, lo cierto es que estamos ante una nueva acepción que se podría definir como la adaptación de un producto a un mercado particular en el que se va a comercializar. El presente artículo delimitará las cuestiones básicas relacionadas con la localización, así como los aspectos más importantes relacionados con esta especialidad dentro del ámbito de la traducción.

Localisation du software

Dans la société actuelle, dirigée par les nouvelles technologies dans le domaine des télécommunications, il est indispensable de traduire aussi bien les programmes informatiques et les pages web, dont on suppose qu'ils facilitent le travail tant dans le domaine professionnel que personnel, que l'ensemble de l'information susceptible d'être transmise par le biais de l'ordinateur. Conséquence du phénomène de globalisation et de consolidation des technologies de l'information, la notion de localisation. Bien que le verbe localiser soit défini par l'Académie Royale Espagnole comme “figer, enfermer dans des limites définies, s'enquérir du lieu où se trouve quelqu'un ou quelque chose, déterminer ou signaler l'emplacement que doit occuper quelqu'un ou quelque chose”, il est certain que nous nous trouvons face à une nouvelle acception que l'on pourrait définir comme l'adaptation d'un produit à un marché particulier sur lequel il va être commercialisé. Le présent article délimitera les questions basiques en rapport avec la localisation, ainsi que les aspects les plus importants liés à cette spécialité dans le domaine de la traduction.


Software localization

In modern society, which is led by new technologies in the field of telecommunications, it is essential to translate not only computer programs and webpages intended to facilitate work in any professional or personal field, but also all the information that can be transmitted by computer. The notion of localization has arisen as a consequence of the phenomenon of globalization and of the consolidation of the so-called information technologies. Although the verb *localizar* is defined by the Royal Spanish Academy as “to fix, to enclose within specific limits, to determine the place in which someone or something is found, to determine or indicate the location that someone or something should have,” it is clear that there exists a new meaning that could be defined as the adaptation of a product for the particular market in which it is to be sold. This article defines the basic issues surrounding localization, as well as the most important aspects of it within the sphere of translation.



Garai berriak, ohitura zaharrak

Zer egin? Nola hasi itzulpengintzan?



LURDES AUZMENDI

Lan munduan sartzea beti da zaila lehen aldiz pausu hori ematen duenarentzat, baita lana aurkitzen duen kasuan ere. Ez dakit garai berriak diren bizi ditugunak, baina gauza berriekin lan egitea egokitzen zaigula bai, eta sarritan lagungarri diren gauza horiek geure kontra ere etortzen zaizkigu. Horregatik, itzultzaile edo interprete lanetan hastera doazenengan pentsatuta, ibilbide bera egindako baten zenbait ohar doaz hurrengo lerroetan, lana egiteko modu berrien onurak frogatu arte eskola zaharrean hezitakoon ikuspegia lagungarri izango zaielakoan.

Itzulpen edo interpretazio lanetan aritzen garenok ez genuen, noski, abiapuntu berdina izan, baina urteetan zehar ikasitakoa eta irakasle lanaren bidez ikasleek izaten dituzten kezak eta ardurak kontuan izanda idazten ditut ondorengo lerro hauek.

Gure parean, gaur lanbide honetan sartzten direnek badute abantaila handi bat: prestakuntza jasota datozela lan mundura.

Beraz, unibertsitatean ikasketak egiten dauden denboran ekin behar diote gero etorriko zaienerako prestaketari.

Unibertsitatean

Unibertsitatean pasatzen den denbora ikasteko da, noski, baina ez da gainditu beharreko ikasgaiak ikasteko bakarrik aprobe txatu behar, bai baitira etorkizunean ikasgai horiei bezain probetxu handia edo handiago atera ahalko zaizkien ikasgaiak. Adibidez, taldean lan egiten ikastea, besteekiko errespetua eta elkartasuna praktikatzeari eta ikaskideen artean sareak eratzea.

Itzultzailearen lana bakarkako lana dela esan ohi zen garai batean, eta badira, noski, bakarka aritzen direnak edo norberak egin beharreko lanak, baina askotan izango dugu besteekin aritu beharra, lana antolatzen, besteek egindakoa zuzentzen edo gainbegiratzera, eta abar.

Bestalde, ikastetxetik kanpoko praktikak egiteko aukerak ere aprobeztatu behar dira. Batzuetan, praktika horiek norberak bakar-ka egingo ditu (enpresaren batean edo erakunderen batentzat itzulpenak egiten, adibidez), baina beste itzultzaile edo langile batzuekin lanean aritzeko aukera eskaintzen duen tokiren batean egitea ere komeni da, eta aukerak izaten dituzte ikasleek praktiken bidez. Praktikaldiak oso garrantzitsuak dira lanbidearekin lehen harremanak izateko, sarea egiten hasteko edo jarraitzeko, eta zergatik ez, aitabixiak edo amabixiak bilatzeko.

Unibertsitatean ikasi beharko litzateke, baita ere, eta hori ere ikasgai ofizialetatik kanpo, curriculuma idazten. Horretarako, irakasleen harrera-orduak erabil daitezke, adibidez; eta, bestalde, gogoan izan, curriculumean, egindako ikasketa, ikastaro eta praktiken berri emateaz gain, zuzenean ikasitakoarekin zerikusirik ez duten beste zenbait kontu ere sartzeari, izan ere, lanerako edo ikasketa osagarriak egiteko orduan baloratzen diren gauzen artean bizitzako beste hainbat alderdi ere kontuan hartzen baitira (boluntario lanak, monitore eginkizunak, eta abar).

Edizio lanak nola egin behar diren, unibertsitatean gutxitxo ikasten da, edo ia baxerik ez: aprobeztatu praktikak; landu, ahal bada, kanpoan antolatzen diren ikastaroak (EIZIEk antolatzen dituenak, besteak beste), gaur egun itzultzaile baten lanean hain garrantzitsua den alor horretan trebatzeko.

Lan bila hasi

Ikasketak amaituta, askok ikasten jarraitzea erabakitzen dute. Hori aukeratzen du-

tenek atzeratu egiten dute urte bat edo gehiagorik lan mundurako sarrera; itzulpen edo interpretazio lanetan hastea erabakitzen dutenek aukera desberdinak dauzkate:

a) Itzulpen enpresa edo agentzietara jotzea lan eske.

Lehenago aipatu dugun curriculum hori txukun prestatu eta itzulpen enpresei bidaliko zaie lehenik. Noski, enpresa horietan hainbat eta hainbat curriculum jasotzen dituztela kontuan izanda, interes berezia baduzu, deitu eta elkarrizketa bat eskatzea da onena. Dagokionak, orduan, curriculumaz aztertuko du eta, horren arabera, eskatutako elkarrizketarako dei diezaiokie interesatuari.

Elkarrizketa ere prestatu egin behar da, eta norberaren merituen berri ematez gain, nahiak, ilusioak eta abar ere adierazi behar dira, horrek guztiak hobeto erakutsiko diolako lan-emaileari hautagaiaren balioa.

Enpresan bertan lanean hasten bada bat, gauzak emanak datozkio, alegia, ez du arduratu beharko lanerako tresneriaz eta abarrez.

b) Enpresa batentzat edo bere kontura bainan etxetik lana egingo den kasuan.

Itzultzaileak alderdi asko hartu beharko ditu kontuan lanean hasi aurretik. Hasteko, lanerako tresneria osoa eskuratu edo prestatu beharko du: ordenagailua, interneterako lotura azkarra, hiztegi, entziklopedia, eta gainerako kontsulta-materialak, paperean edo *online* direla, itzulpen-memoria programak (badira autonomoz eskaintzak).

Ondoren kontu fiskalez arduratu beharko du, eta horretarako aholkularitza bilatzea da egin behar duen lehenengo gauza. Aholkula-

ritza hori EIZIEren bidez aurki dezake, elkar-
tean sartzen bada; norberaren herriko edo hi-
riko udaletxera ere jo dezake, eta bertan
emango diote aholku, edo non eska dezakeen
adieraziko diote. Eta kontuan izan badirela
laguntzak enpresa txikiak sortzeko ere.

Jarduera Ekonomikoen Zergan alta har-
tu ondoren (hau Euskal Autonomia Erkide-
goan doan da, baina Nafarroan, adibidez,
ordaindu egin behar izaten da), eta Gizarte-
Segurantzian ere alta hartu ondoren lanari
ekitea baino ez zaio geratzen.

Fakturekin adi, BEZ eta PFEZ zergak
behar bezala aplikatu behar direlako, eta
hiru hileroko aitortpena egitea ez ahaztu,
Ogasuna olagarroa bezalakoa baita: beso
asko eta luzeduna.

Aurrekontuak egiten ere ikasi behar izat-
en da (hitzeko, lerroko edo orriko kobratu-
ko den, zenbat, hitz errepikatuak kontuan
hartuko diren), eta ematen den hitza bete-
tzea ez ahaztu, epe kontuetan bezala, beze-
roak galtzeko bide segurua baita bi puntu
horietan huts egitea.

Zuzenketen garrantzia: itzulpen lanak ez
eman amaitutzat beste norbaitek ikusi eta
zuzendu arte. Hasten garenean zalantza
asko izaten ditugu, eta gehiegi trebatu gabe
egoten garenez, akatsak ere askoz gehiago
egin ditzakegu. Hemen ere funtzionatu be-
har du lankide edo ikaskideen sareak, ale-
gia, elkarri pasatzeko egiten diren lanak, el-
karri zuzentzeko. Eta horretarako apala
izaten ere ikasi behar da, zuzenduak izaten,
kritikak onartzen.

c) Interpretazioa

Interpretazioaren alorrak aukera gutxi
ematen ditu euskararekin, lan gutxi dagoe-

lako. Edozein kasutan, lanbide honetan tre-
batzen jarraitu nahi duenak, lanean jardun-
ten direnen laguntza bilatu behar du, eta la-
nean aritzen direnen batzuen berri izango
du irakasleen bidez.

d) Administrazioa

Azkenik, oposaketen aukera dago. Az-
ken urte hauetan oso lanpostu gutxi eskaini
dituzte, eta datozen urteetan antzera izango
da. Lehendik dauden lanpostuak hutsik ge-
ratu ahala bakarrik ateratzen dira postuak
lehiaketara. Nolanahi, sarriagotan deitzen
dira lan poltsak, alegia, ordezkapenatarako
zerrendak osatzeko izaten dira poltsa horiek
eta bertan sartzeko ere oposaketa antzeko
azterketak egin behar izaten dira. Azterkete-
tarako deialdietan zerrendatzen dituzten
gaiak prestatzea eta tokatzen diren azterke-
tak gainditzea besterik ez da geratzen.

e) Literatur itzulpena

Literatur itzulpena da bereiz daitekeen
beste alor bat. Itzulpen mota hau gogoko
duenak bi aukera ditu:

- Literatura Unibertsala bildumarako
lehiaketa, EIZIEk Jaurlaritzako Kultura
Sailarekin batera kudeatzen duena, edo
Jokin Zaitegi lehiaketa, Elkar argitaletxe-
ak antolatzen duena.
- Norberaren inizatibaz gustuko libururen
bat itzuli eta argitaratu nahi izanez gero,
argialetxeetara bidal daiteke lagin bat, in-
formazio osagarriarekin batera (liburuaren
hautua justifikatuz, adibidez, edo goibu-
ruari buruzko prentsa ebakinak bidaliz,
ezaguna ez dela irudituz gero).

Azken batean, ez da komeni inondik ere geure txokoan bakarrik geratzea, inkomunikazioa ez delako bizi ditugun garaietan justifikagarria, ez eta onuragarria ere. Itzultzaileen artean zer mugitzen den ikusi nahi duenak, beraz, baditu tokiak, eta ateak jo besterik ez dauka:

1. EIZIE elkartearen albistegian harpidetza egin, doan, eta kito.
2. Zuzenean EIZIE elkartean bazkide egin, horrela Intranetez baliatu ahalko zara albisteen eta lan poltsen berri izateko.
3. Itzul posta-zerrenda ere izango duzu, era guztietako kontsultak egiteko, eta

besteen lanaren berri izateko (bada eguneroko mezu-andana mezu bakar batean jasotzeko aukera)

4. Beste elkarte edota taldeen webgune zein blogetatik paseatu, helburu berearekin. Itzulpen aldizkariak irakurtzea ere interesgarria da.
5. Prestakuntza jarraituari begira, itzulpengintzaren inguruan antolatzen diren ikastaro zein jardunaldietan parte hartzea ere komeni da, lanbide berean ari diren bertako nahiz kanpokoekin egoteko, kezka eta interesak konpartitzeko; haiengandik ikasi eta geure ekarpenak besteei egiteko.

Viejos usos para nuevos tiempos: ¿Cómo dar los primeros pasos en la profesión?

El salto que supone terminar los estudios y adentrarse en el mundo laboral siempre resulta costoso. La traducción se ha considerado durante muchos años una labor solitaria, pero actualmente está bien claro que el perfil de nuestra profesión es muy distinto: si trabajamos en una empresa o para una empresa, si nos dedicamos a traducir o a interpretar en alguna institución, incluso cuando traducimos textos literarios, estaremos trabajando con otros profesionales (sean traductores e intérpretes o no y sea la relación personal o a través de distintas redes).

En todo caso hay que prepararse bien para hacer frente a esta etapa, y esa preparación tiene que iniciarse en la universidad aprovechando la formación reglada, pero aprovechando también al máximo las posibilidades que se les brindan a los estudiantes a través de las tutorías, las prácticas en empresas e instituciones, etc. Una vez finalizados los estudios y si se va a buscar trabajo habrá que seguir distintos pasos dependiendo del ámbito en el que se quiera trabajar. Finalmente, se recomienda entrar a formar parte cuanto antes de alguna asociación de traductores-intérpretes para tener acceso a información, formación, etc.

Usages anciens pour temps nouveaux : Comment démarrer dans la profession ?


Le saut que suppose le fait de terminer ses études et d'entrer dans le monde du travail est toujours difficile à exécuter. La traduction a longtemps été considérée comme un travail solitaire, mais à l'heure actuelle, il est bien clair que le profil de notre profession est très différent : si nous travaillons dans une entreprise ou pour une entreprise, si nous nous consacrons à la traduction ou l'interprétation au sein d'une institution, et même lorsque nous traduisons des textes littéraires, nous sommes amenés à travailler avec d'autres professionnels (qu'il s'agisse, ou pas, de traducteurs et d'interprètes, et que la relation soit personnelle ou s'établisse par l'intermédiaire de différents réseaux).

Dans tous les cas, il faut bien se préparer pour franchir cette étape, et cette préparation doit débiter à l'université, où l'on bénéficie d'une formation réglementée, mais aussi des multiples possibilités offertes aux étudiants par le biais des tutorats, des pratiques en entreprises et institutions, etc. Une fois les études achevées, et si l'on est décidé à chercher du travail, il faudra suivre les différentes étapes en fonction du secteur dans lequel on souhaitera travailler. Enfin, il est recommandé de devenir adhérent d'une association de traducteurs-intérpretes afin d'avoir accès à l'information, la formation, etc.

Old customs for new times: how to take the first steps in the profession

The leap one takes upon entering the work force after completing one's studies is always difficult. For many years, translation was considered a solitary labor, but now it is clear that the characteristics of our profession are very different: if we work in or for a business, if we translate or interpret in an institution, even when we translate literary texts, we will be working with other professionals (whether or not they are translators or interpreters and whether the relationship is in person or over the web).

In any case, one must prepare well for this stage, and this preparation must begin at the university, by taking advantage of the available systematic training, and also by taking the maximum advantage of the opportunities offered to students through tutorship, internships in businesses and institutions, etc. Once you have completed your studies and start looking for work, there are different steps to follow depending on the field in which you wish to work. Finally, it is recommended that you join an association of translator-interpreters as early as possible in order to gain access to information and training.



...ardadora, Iowa - increíble!
Lo más notable es la
implementación industria
del proceso. Braid ha cre
su propia estructura, la

...n sistema se...
...a la foto. Fue alargado
...de manera que
...a la foto. Fue alargado
...de manera que

...rime o fuer en los parte
...es publicitar...
...hombre omnibus...
...on los no es vo im
...a la parte de
...os de comunicación, o n
...a invasión y políci
...a imaginación del timbre
...o límite y por la ligada
...neta, surgio un nueva
...las. La última promete el
...del mensaje en un po
...po. Simo que lo voutan
...socioación. Car...
...la ONJ des...
...ideo en el mes...
...o cuatro jóvenes...
...n de Zapatero en el Congreso
...i grabación forma parte de
...estrategia publicitaria, encan
...por los p...
...mos, agencia para concien
...a población...
...ntra la pobreza. El...
...a más de...
...la Alianza Española...
...breza, que agrupa...
...lectivos que luchan para erradicar el hambre por el mundo.
...Tiempo...
...no a Laura...
...da de la...
...do el sábado...
...grado el...
...aparce...



...er más
...ero apun
...de bu
...debes
...una escuela
...finanzas.
...sabes lo que te ahor
...en vez de ir ca
...laser
...de días a depilarte? Sol
...fantástico para las ing
...con un láser
...bravos días a depilarte? Sol
...bó...
...plan...
...sufrimiento. Lo ot
...una conv
...porqu
...una
...mujeres

...er más
...ero apun
...de bu
...debes
...una escuela
...finanzas.
...sabes lo que te ahor
...en vez de ir ca
...laser
...de días a depilarte? Sol
...fantástico para las ing
...con un láser
...bravos días a depilarte? Sol
...bó...
...plan...
...sufrimiento. Lo ot
...una conv
...porqu
...una
...mujeres

...rime o fuer en los parte
...es publicitar...
...hombre omnibus...
...on los no es vo im
...a la parte de
...os de comunicación, o n
...a invasión y políci
...a imaginación del timbre
...o límite y por la ligada
...neta, surgio un nueva
...las. La última promete el
...del mensaje en un po
...po. Simo que lo voutan
...socioación. Car...
...la ONJ des...
...ideo en el mes...
...o cuatro jóvenes...
...n de Zapatero en el Congreso
...i grabación forma parte de
...estrategia publicitaria, encan
...por los p...
...mos, agencia para concien
...a población...
...ntra la pobreza. El...
...a más de...
...la Alianza Española...
...breza, que agrupa...
...lectivos que luchan para erradicar el hambre por el mundo.
...Tiempo...
...no a Laura...
...da de la...
...do el sábado...
...grado el...
...aparce...

Hiru donostiar itzultzaile

— — —
ALES BONGOETXEA

“Respecting the Gospel in Basque (...) it is in my power to state that it is anxiously expected in the Basque provinces, where books in the aboriginal tongue are both scarce and dear, and that several applications have been made at San Sebastian and in other towns where Basque is the predominating language.” (*Letters of George Borrow, 1833-1840*)

Dakigunez, XIX mendearen bukaeran, foruen galerarekin batera, euskarazko literaturaren halako suspertze miragarria gertatu zen Euskal Herrian, eta Donostiak toki berezia izan zuen mugimendu hartan. Bertakoak ziren, esate baterako, Martzelino Soroa, Toribio Alzaga eta beste hainbat euskal idazle eta itzultzaile, neurri batean famatuak edo ezagunak direnak. Alabaina, Donostiako itzultzaileen atzera begirakoa egiten hasiko bagina, ez litzateke zuzena izango mende bukaera hartan hastea kontakizuna eta ahazturik edukitzea momentu hura baino lehen gure hirian izan ziren beste hiru itzultzaile.

Izan ere, gaur hona ekarri nahi ditugun hiru itzultzaile hauen izenak berriak izango

dira askorentzat, are donostiar gehienentzat. Hirurak 1813 baino lehen jaioak dira, hirurek testu erlijiosoak euskaratu zituzten; batek ez zuen bere itzulpena argitaraturik ikusi, eta beste bien kasuan, batak erregearen debekuaren kontra borrokatu behar izan zuen eta besteak eliza katolikoaren debeku eta kontraerasoak jasan zituen.

Euskarara itzuli behar izate horrek garbi erakusten digu garai hartako Donostian zer nolako indarra zeukan gure hizkuntzak. Akaso Donostia ez zen eredugarri izango bere hizkeragatik, baina donostiarrek, euskara akastun horretan bada ere, arazorik gabe elkar komunikatzen zuten, hain traketza ez zen seinale, eta molde funtzional horretan aurrera egin zuten, eredu perfektua

noiz etorriko zain egon gabe. Horrek ez du esan nahi, ordea, bakoitzak bere neurrian eta eskueran zituen baliabideak erabiliz hizkera landu eta hobetzeko saioak egin ez zituztenik.

Hemen hiru donostiar hauen bizitzen berri ematen saiatuko gara, baita beren jardunaren nolabaiteko azterketa egiten ere, modu laburrean bederen. Kritika horrek, dena den, ezinbestean samurra beharko du izan, ez bailitzateke zilegi gaurko ikuspegi-

tik, gaurko eskarmentu eta ereduetatik abiatuta garai hartako itzultzaileen lana epaitzea. Esan dezagun, bakoitzak bere eza-gutza-mailaren arabera, itzulpen duinak egin zituztela oso bitarteko gutxirekin. Akatsak, dudarik gabe, han eta hemen agertuko dira, baina inoiz akats horien iruzkina egiten badugu, gehiago da Donostiako hizkeraren ezaugarritik izan dezaketena agerian uzteko, eta ez inola ere hiru itzultzaile autodidakta hauen lana gutxiesteko.

Frantzisko Xabier Lariz Apalategi (1719-?)

Kontraesana bada ere, Historian ezagutzen den lehenbiziko donostiar itzultzailea ez zen Donostian jaio. 1719ko apirilaren 27an bataiatu zuten Lazkaoko San Migel goiaingeruaren elizan, Donostia setiaturik egonik, hara joana baitzen bere ama. Izan ere, Goierriko etxe garrantzitsu baten askazikoa zen bere ama, Ana Maria Apalategi-Lazkano; aita, berriz, Martin Lariz Barrene-texa infanteriako kapitaina zen, Eako beste familia handiki baten semea. Bataioan lau izen eman zizkieten: Francisco Prudencio Xavier Antonio; hala ere, berak lehenbizikoa eta hirugarrena bakarrik erabili zituen bere liburu eta idatzietan, eta berari buruzko aipamenetan ere bi izen horiek baino ez dira agertzen.

Ez zen Donostian jaio baina bere gurasoak hiri horretan bizi ziren urte batzuk lehenagotik. Esan liteke Donostian jaioko zatekeela Berwick dukeak hiria setiaturik eduki ez balu. Eta pentsatzekoa da setioa desagertu orduko berriz etorri zela Donostiara, donostiarren artean beretartzat baitzeukaten. Bere aipamena dakarten hiru iturri garaikidek hala diote behintzat. Iturri horietako bat Ordoñez Gamón apaizak XVIII. mendeko Donostiari buruz idatzi zuen deskribapena da. Bertan Donostiako apaiz guztien zerrenda egiten du eta horietatik zein diren bertakoak eta zein kanpotarrak zehazten du, Lariz donostiarren artean kokatuz. Beste iturri bat da Irigoien Dutari Iruñeko apezpikuaren ekimenez 1771n hasi eta 1776an bukatu zen espedientea, Donostiako eliz antolamendua egokitzeko asmoz egina. Dokumentazio horretan ere “natural

de esta”, hau da, donostiarra dela esaten da Larizengatik. Azkenik, Iztuetak ere aipatzen du, bere *Guipuzcoaco provinciaren condaira* liburuan, donostiar argidotarren zerrenda egitean.

Gurasoei dagokienez, badirudi Frantzisko Xabier Larizen ama Donostian jaioa zela. Antigua auzoko San Sebastian elizari dagokion artxiboan Ana Lorenza Apalategui y Lazcano Zornozaren bataio agiria dago, 1689ko azaroaren 22koa, eta litekeena da hauxe izatea Frantzisko Xabierren ama, nahiz eta, hasieran esan dugunez, itzultzailearen bataio-agirian amaren izena Ana Maria zela jartzen duen.

Bestalde, Martin Lariz Sevillako erregimentuko infanteriako kapitaina zen eta Donostian denboraldi luze samar batez egon zen destinaturik. Maria Josefa izeneko alaba bat izan zuen urte batzuk lehenago, 1712an, beste emakume donostiar batekin, baina txikitari hil zen alaba hura. Kontua da auzitara jo zuela haurraren amak Martinek ezkontzeko hitza eman bai baina gero hitza jan zuela-eta. Gainera, Lariz kapitainak beste emakume batekin, Ana Maria Apalategirekin, ezkontzeko asmoa zuela salatu nahi zuen. Auzi hori 1716an bukatu zen, eta Martini ehun dukat ordaintzeko agindu zitzaion emandako hitzaz libre gelditu nahi bazuen.

Martin Lariz militarra izanik, ulertzekoa da gerra egoerarengatik edo destino aldaketengatik semeak jaio behar zuenean Donostiatik kanpora egon beharra. Horri gaineratzen badiogu Frantzisko Xabier Lariz jaio zen egunetan, 1719ko udaberrian, Berwick

dukeak setiatu rik zeukala Donostia, are argi ego n daiteke zergatik ez zeuden Lariz Apalategi sendikoak Donostian beren haurra munduratu zenean. Esan bezala, hiria setiatu rik ego n zen udaberritik abuztuaren 8ra arte. Donostiako harresi arteko elizen artxiboetan begiratzen badugu, ikusiko dugu ez zela haurrik bertan bataiatu urte hartako martxoaren 14tik irailaren 6ra bitartean. Horrek esan nahi du, gure ustez, Donostia dezente hustu zela giza jendez frantsesek setioa jarri aurretik. Litekeena da, beraz, Larizen amak Donostiatik ihes egin eta beraren aitaren familiarengana jotzea Lazkaora.

Edonola ere, Frantzisko Xabier Larizek Donostian eman zuen bere bizitzaren zati handi bat, eta bertako jendearekin lotura estu samarra zuela pentsa liteke, zeren bere dotrina idazteko orduan, Donostiako base-rritarrak buruan zituela dirudien (“*mis pobres rústicos paisanos*”), edo hala esan zion behintzat erregeari, liburu a inprimatzeko baimena behin baino gehiagotan ukatu ondoren Larizek idatzi zion errege-eskabidean.

Bere bizitzari buruz oso datu apurrak ditugu. Datu horietatik dakigunez, ordena txikiak hartu eta Ipazterko sakristia baten titularra izan zen. Gero, 1764an, apaiztu eta urte batzuetara, bi kapilautza lortu zituen Donostian, garai hartako asko bezala, diruz ez txit ondo hornituak; azkenik, 1783 urtean, 62 urterekin, kapilautza horiei uko egin zien, Sevillako Carmonako hirian onura bat eskuratu zuela eta. Hala ere, ez dirudi onura horren jabe izanda ere Donostiatik berehala alde egin zuenik, hiru urte geroago latinetik gaztelaniara itzulitako Aste Santuko salmo eta otoitzak biltzen dituen liburuko sarreran Donostian bizi zela baitio.

Hortik aurrerako daturik ez dugu eskueran eta Donostiako elizetako hildakoen liburuetan ez da bere aipamenik ageri. Bere bizitzako azken urteak non eman zituen ez dakigu, baina logikak dio ez zela Sevillatik oso urruti izango. Izan ere, badute Lariztarrek nolabaiteko lotura Sevillarekin. Aitona Ambrosioren izena Sevillako agiri batean jasota dago, hango portuko erregistro liburu batean. Aita, Martin Lariz Barrenetxea, Sevillako erregimentuko infanteriako kapitaina zen eta beharbada han jaioa izango zen, eta azkenik, Frantzisko Xabierrek Donostiako bi kapilautzari uko egin zien Carmonako hirian onura bat eskuratu zuelako. Bitxikeria gisa, aipatu behar da Larizek 1773an argitaratutako dotrinaren ale bat Sevillako Colombina liburutegian dagoela. Ziur aski Sevillan egongo dira zenbait galderaren erantzunak.

Lanak

Larizen itzulpen-lanak elizaren esparrukoak dira. Dotrina bat itzuli zuen gaztelanitik euskarara, Asteterena baino dezentez luzeagoa, eta latinetik gaztelaniara beste lan bat itzuli zuen, Aste Santuko auhenak eta errespontsuak eta beste zenbait salmo eta kanta biltzen zituena. Hirugarren liburu bat ere egotzi izan diote: *El triunfo de la amistad, y el amor más firme y tierno. Historia griega*, Madrilgo Villalpando liburu-egileak 1796an argitaratua; baina baieztapen hori oso zalantzarikoa da, gai aldetik asko aldentzen delako erlijioaren esparrutik eta, gainera, liburu horren egilearen izen osoa Xavier Lariz y la Vega delako.

Donostiar itzultzaileen aroari hasiera ematen dion liburu a *Cristau Dotrinaren Es-*

plicacioa da, lehenbiziko aldiz 1757an eta bigarrenez 1773an argitaratua. Zehatzago aztertuko dugu beherago.


Gaztelaniaz argitaratu zuen liburuaren izena honako hau da:

Traducción en verso de las Lamentaciones de Semana Santa, y sus Responsorios: del Psalmo Miserere y algunos Himnos: con un acto de Contrición también en verso. La consagra a la Magestad de Christo, representado en los Pobres de la Real Casa de Misericordia de la Ciudad de San Sebastián, a cuyo beneficio cede la Obra, su aut. D. Franc. Javier de Láriz, Presbítero. San Sebastián, Lorenzo José Riesgo y Montero, 1786.

Bigarren argitaraldi bat ere badago, 1824koa, Ignacio Ramon Barojarenean egi-na. Itzulpen horretan lantzen duen gaia ikusita, Sevillarako ezin aproposagoa dela iruditzen zaigu, baina ez dugu pentsatu behar garai hartan Donostian bertan Aste Santua garrantzi handiko ospakizuna ez zenik; aitzitik, Corpus egunekoarekin batera festa nagusienetako bat zen, Ordoñezek dioenez.

Cristau Dotrinaren Esplicacioa

Ondoko izen hau du Frantzisko Xabier Larizek 1773an bigarrenez argitaratu zuen liburuak: CRISTAU DOTRINAREN ESPLICACIOA AUR-ENZAT TA ANDIENZAT: / GALDETUAZ TA ERANZUNAZ Maisuaren ta Icaslearen artean: / LENDANIC LANDUAGOA TA ASCOZ gueiagotua, batezere, Confesatzeco, Comulgatzeco, ta Meza enzuteco eracusmenduaquin. / ATERATZEN DU DON FRANCISCU Xavier Láriz, Apaizac. / MADRILLEN: Don ANTONIO SANCHAREN echeán 1773. urtean.



(Gaztelaniazko izena ere badauka; hale-re, hemen euskarazkoa bakarrik aipatzen dugu)

Izenak dioen bezala, bigarren edizio bat da, “lehendani- landuagoa eta askoz gehiagotua” eta oraingo honetan elebiduna. Lehenbiziko edizioa 1757koa izan zen. Horrek esan nahi du 250 urte bete berri direla argitaraldi hura egin zenetik. Ez da lehenbiziko edizio horren alerik ezagutzen baina liburuxka txiki bat izan behar zuen, Larizek berak bigarren edizioa argitaratzeko egin zuen eskabidean esaten duenez: “...el Catecismo Bascongado, como también el Castellano, es una extensión más correcta del que presento a V.A. impreso con las debidas licencias el año de 1757 en Lengua Bascongada, el cual en la realidad es diminuto como lo verá V.A. por su volumen.”

Liburua inprimatzera Madrilera joan zen eta inprimatzeko baimena eskatu zuenean, Karlos III.a erregeak ezetzkoa eman zion. Izan ere, euskarazko liburuak argitaratzea debekatuta zeukan erregeak. Berriz eskatu eta berriz ukatu. Baimena ukatu arren, Larizek ez du etsitzen, eta aurrekoetan eska-

bideak ordezkari baten bitartez egin baditu ere, oraingo honetan bere eskuz idatziko du argudioz eta lausenguz beteriko eskabidea. Azkenean, erregeak baiezkoa eman zuen, baina baldintza batekin: testuak bi zutabetan agertu beharko zuen, alde batean gaztelaniaz eta bestean euskaraz, hau da, guztiz gaztelania irakasteko helburuari lotuta. Ondorioz, liburu hauxe dugu garai hartan Espainian euskaraz argitaratu ziren bakanetako bat, bakarra ez bada.

Besteak beste, honako arrazoi hauek aurkezten dizkio erregeari liburua argitaratu behar dela ikusarazteko: batetik esaten dio Trentoko Kontzilioak agintzen duela dotrina sinestunei beren ama hizkuntzan azaldu behar zaiela, eta berak dotrina Gipuzkoarentzat egiten duela bereziki eta han dotrina euskaraz esplikatuko beharra dago, probintziako barnealdean ez ezik bertako hiriburuan ere, (Irigoi) apezpikuak Donostiara egindako azken bisitaldian euskaraz predikatu izanak frogatzen duenez; bestetik, gauza ageria da Euskal Herriko eskoletan ez dela zilegi euskaraz hitz egitea, ez irakurtzea ez eta idaztea ere; hala ere, oso bakanak dira Donostiako hirian bertan dotrina gaztelaniaz bakarrik irakatsita, behar bezala ikasteko gauza direnak, zer esanik ez hiriko harresietatik kanpora bizi diren baserritar gaixoak, guztira bederatzehun familia edo gehiago izango direnak. Gainerakoan, ez du uste Larizek dotrina ikasteko gaztelania ikasi beharra agintzen duen legerik dagoenik, eta bere bertsio elebidunari esker, euskaldunek hobeto ulertuko dute gaztelaniazko dotrina aldamenean euskarazkoa baldin badute; aitzitik, euskarazkoa kentzen bazaie, kristauaren obligazioetan okerrago prestatuta egotea baino ez da lortuko, eta, horren

ondorioz, erregearen mendeko hobeak eta estatuarentzat baliagarriagoak izateko bitartekoak ez dituzte jakingo. Gainera, dotrina xeheagoa denez, hobeto esplikatzen zaie herriarrei goi-mailako berezitasuna, eta haiei zor dieten obedientzia eta errespetua, eta hori normalean erabiltzen diren katiximetan ez da hain argi gelditzen.

Ikusten denez, Lariz berea aurrera ateratzeko gauza da, behar denean koipe dezente jarrita, baina egiak isildu gabe. Erregeak arriskua ikusten duen tokian abantaila egon daitekeela erakutsi nahi dio.

Eskabide horretan bertan esaten duenez, urte asko eman ditu dotrina irakasten eta berak ezagutzen du zein beharrezkoa den ikasliburu egokiak edukitzea. Eta bukaeran berriz aipatzen ditu baserritar gaixo herriki-deak, beraientzat egiten baitu dotrina hau.

Itzulpena

Oro har Beterriko hizkera darabil. Fonetikari dagokionez, txistukarien sailean kostaldean ohikoak diren zalantza eta erabilera okerrak zuzendurik ageri dira. Azentua askotan markaturik ageri da, gehienetan modu koherentean baina ez beti. Morfologia aldetik ez dauka disonantziarik. Halako kontuz aritzeak esan nahi du zaindu egiten duela bere idazkera, hizkera neurri batean jaso egin nahi duela. Esan dugu Donostia aldeko hizkera darabilela; hala ere, baditu exotismoren batzuk, adibidez, bizkaieraz bezala “bearra” hitza erabiltzen du “lan” hitzaren zentzuan, eta iparraldeko hizkeretan bezala, nominalizazioaren subjektua zenbaitetan genitiboan ematen du eta ez absolutuan.

Traducción en verso liburuko sarreraren dioenez, itzulpena hitzez hitz egitea ezinez-

koa gertatu zaionez, askatasunez jokatu du eta horregatik zalantza izan du bere lana nola izendatu:

“A este mismo fin se dirige (piadoso lector) el trabajo que te presento. Por tanto: espero disimules las faltas que pudieras hallar en la Poesía; pues te confieso que no tengo mas estudio en cuanto a ella, que el que he podido adquirir con las advertencias de algún amigo inteligente, según cuyos reparos he procurado corregirla.

A instancias del mismo, y por la autoridad que tiene su dictamen, he dado a la obra el título de *Traducción*, cuando mi ánimo era llamarla *Paraphrasis*; pues aunque es verdad que he procurado atenerme a la letra en cuanto he podido; siempre ha sido mi fin el traducir el sentido de la letra, mas que la letra misma, teniendo presente lo que recomienda San Gerónimo, y lo que él mismo practicó; pues según escribe a San Agustín, tubo mas cuidado de conservar el verdadero sentido de la Divina Escritura, que el orden de las palabras: y si con todo, no te asienta el título de *Traducción*; te diré con el mismo San Gerónimo que le des el de *Paraphrasis* si te agradare.

Ez du ematen *Cristau Dotrinaren Esplacacioa*-n erremedio bera erabili zuenik. Argi dago ez dela inondik ere berdin bertsoz dagoena bertsoz eman beharra edo norberak gaztelaniaz sortutako hitz lauzko testu bat euskarara bihurtzea; ezta ere itzulpena gaztelau ikasientzat egitea edo baserrietako euskaldun hutsentzat. Izan ere, *Esplacacioa*-n gehienbat hitzez hitzeko itzulpena egiten du, modu erraz eta zuzenean, oro har; liburu-ruko sarreran, berriz, itzulpen ez hain estua egiten du. Euskara aldetik, idazkera txukuna du, baina ez beti: askotan gaztelaniazko egitura sintaktikoak kalkatu egiten ditu, adibide hauetan bezala: “ez ain bacarric... baizic ere...”, “ain bacarric Jangoicoari”,

“Da ere Apostolica Eliza au?”, “naidizut nere biotz gucitíc”, “Cer da Bortiztasúna? Da Virtute bat ceñaréquin venzutzen ditugun...”, eta abar. Hitzun ona izan gabe nekez izan zaitzke itzultzaile ona, baina itzultzaile desegokia izateak nahitaez esan nahi ote du hitzun txarra zarela? Gure ustez, eredu egokien falta da erabilera horien azalpena edo, beharbada, garai hartan Donostiako zenbait euskaldunen artean halako egiturak arruntak izatea. Alderdi hori pixka bat orekatzeko, esan daiteke, adibidez, perpaus kausaletan edo erlatibozkoetan ez dela behin ere erratuko “zeren” edo “zein” juntagailuekin hasten diren perpausetan aditz laguntzaileari –n gehitzerakoan.

Gaztelaniazko zatian darabilen hizkera jasoagoa da euskarazko zatian darabilenaren aldean, aurrerago jarri dugun testu-zatian ikusi ahal izango denez.

Hiztegiari dagokionez, esan behar da mailegu asko erabiltzen dituela, eta egia esan, horixe izaten da garai hartako herri mailako dotrinetan maiz agertzen den ezaugarrietako bat; kasu horretan ere bide hori aukeratua dela dirudi eta beharbada horregatik ez dugu aurkitu Larramendiren hiztegiaren eraginaren arrastorik. Horri dagokionez, interesgarria da George Borrow-ko orduko euskarari buruz dioena; hau da, gaztelaniazko hitzez josita zegoela, baina testu batean Larramendiren hiztegiko hitzak erabiliz gero, oso euskaldun gutxik ulertuko luketela. Bonapartek ere hiztegiaren kezka hori agertzen du. Ez ote ziren Borrow eta Bonaparte euskaldunak berak baino garbizaleago?

Laburbilduz, Larizena eredu praktikoa da; azken batean ez du euskara den baino

hobea egin nahi, ulerterraza eta erabilgarria baizik.

AL LECTOR.

Varias razones han concurrido, Lector mio, á dár este Catecismo, algo mas difuso que los que regularmente se enseñan. Una de ellas es, la claridad que en él he procurado, la qual me ha obligado á hacer repetidas preguntas para la inteligencia de algunas cosas, que no quedaban tan perceptibles con la primera respuesta. Otra es, el que sirva un mismo Catecismo á los niños, quando tales, y quando adultos, sin que estrañen el nuevo estilo, ni aun la materia de su nueva instruccion, siendo regular que al aprender lo preciso para la tierna edad, (lo qual irá señalado al margen, como se dirá adelante) pasen los ojos varias veces por las preguntas, y respuestas intermedias, de modo que les vengan á ser familiares quando las necessiten.

La tercera es, el haverle puesto varias preguntas, é instrucciones prácticas, para que con ellas supla á los pobres la falta de otros libros y los dirija á la perfección.

Ultimamente no me ha parecido justo privar de una mayor instrucción á muchos que la desean de veras, por respeto á los menos idóneos, ó mas desidiosos, y tanto mas, quanto es facil escoger de lo que huviere, é imposible el hallar donde no hay.

Mas para que veas, padre, ó madre de familias (lo mismo digo á proporción del Maestro de niños, ó Maestra) quan presto llegan los niños á equivocarse con los adultos en las obligaciones del Christiano, y no te descuides en instruir á tus hijos con notable detrimento tuyo y de ellos te lo quiero hacer patente de este modo.

Horren erakusgarri, sarrerako pasarte bat aldatu dugu hemen:

IRACURTZALLEARI.

Izandu ditut arrazoen batzuek, nere irakurtzallea, Dotrina au, erakutsi oi diranak baño ugarixeagoa ateratzeko. Bata dá, eman nai izandu diodan argitasúna, zeñák obligatu nauén gauzaren batzuen gañeán berriró galdetzerá, lenbiziko erantzutearekín, nai adinbat ondó adituko ez ziralako beldurréz. Bestea dá, Libro baték berák servi diezán aurraï, aurtasúnean ta geró, itzkéra edo ikaskizúnaren diferenziaz atzerapénik artu gábe, bada ez dá gaitz, aurtasúnerako beardiran gauzak ikástean, (zeñak egongo dirán ertzeán markatuák, aurrerago esango degun bezala) bitárteko galde eranzúketak begiaz igarotzea, ta beardituzteneko ezagutuák idukítzea.

Irugarrena dá, ala galde, eranzúketa, nola ondo bizitzeko daramazkién instrukziónakín, pobreá beste libruen lekuan serbi diezán perfezzióra bidea erakutsiaz.

Azkeník, ez zait ondo iritzi, nagién, edo ikasgaitzen beldurrák, Dotrina geiago ikasi nai duten askorí kalté egíteá, ta anbat geiágo, zenbat dan erraz askotík gutxi artzea, ta ezin ditekeán gutxi dan lekuan askó arkítzea.

Baña ikusi dezazún, Gurasoá (orobat diot Eskola Mañsuaz) Zein lastér allegatzen dirán Aúrarak Kristáu andíen obligazioetara, ta deskuida ez zaiteán zuré huméai dotrina erakústeaz, áien ta zure kalté andián, nai dizút ikusierazí onelá.

Jose Bizente Etxagarai Bikuña (1773-1855)

Askok ez dute jakingo Jose Bizente Etxagarai dela Donostiako Aste Nagusian Gaztelubide elkarteko atarian kantatu ohi duten *Festara* kanta ospetsuaren egilea. Kanta hori ez ezik beste hamaika bertso jarri zituen Donostiako inauterietako konpartsa desberdinentzat, eta era guztietako ospakizun publikoetarako kantuen hitzak idazteko eskatzen ziotenez, denetik idatzi zuen, baita gabon-kantak ere.

1773ko uztailaren 1ean jaio eta egun berean bataiatu zuten San Bizente elizan. Udal-enplegatua izan zen, Manterola, Arzak, Lopez Alen, Sanchez Irure eta Donostiako beste hainbat euskal idazle bezala, nolabaiteko “eskola” sortuz, beraz. Alondegiko ardura izan zuen urte luzez. Berari buruzko datu gehienak Jose Manterolari esker dakizkigu. Honek dioenez, Etxagarai gizon umila zen, beti laguntzeko prest zegoena; horregatik, denek jotzen zuten beregana. Bertsoak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi zituen, baita frantsesez ere, mordoilo antzean bada ere. Manterolaren iritziz, Etxagarai euskara ona zuen, eta oro har euskaraz jarritako bertsoek erdaraz jarritakoek baino gehiago balio dutela uste du. Gure intereseko gaira etorrita, Manterolak beste honen berri ere ematen digu: “bertso horiez gainera egin zuen obra bakarra ebanjelio baten itzulpena izan zen (ez dut gogoan san Lukasena ala san Mateorena zen), eta uste dut itzulpen hori L. L. Bonaparte printzeak

daukala, aditu dudanez, 1856an Gipuzkoara egindako txango filologiko batean eskuratu baitzuen”.

Beraz, Bonaparte printzeak 1856an Gipuzkoara egin zuen bidaia batean eskuratu bide zuen Jose Bizente Etxagarai egindako ebanjelioaren itzulpena. Donostiarraren bertsoekin aita Zavalak osatutako argitalpenean esandakoetatik dakigunez, itzulpen hori ez ezik Etxagaraiaren beste hainbat bertso-paper ere jasota zeuzkan Bonapartek bere funtsean, gaur egun Chicagoko New Library-n daudenak. Manterolak zalantza egiten du itzulpena san Lukasen ala san Mateoren ebanjelioarena ote den. Beste bi ebanjelariak kanpoan gelditu dira behinik behin.

XX. mendeko azken urteetan, Deustuko Unibertsitateak Bonaparteren funtsak argitaratu zituen, lehenbizi paperean eta gero, 2004an, bertsi elektronikoa. Argitalpen horretan ematen diren datuen arabera, ez da ageri Etxagaraiaren izena san Lukasen ebanjelioa gipuzkerara euskaratu zutenen artean, ezta San Mateo itzuli zutenen artean ere. Alabaina, san Mateoren ebanjelioaz gipuzkerara egindako itzulpenetatik bik ez dute egile jakinik. Deustuko Unibertsitatearen edizioan, bi itzulpen horietako baten sarrean esaten denez, Pedro Garmendia Goyetche egindako katalogazioan itzulpena Garibairena ote zen aipatu zuen. Hitzez hitz, honela dio Garmendiak¹: “85. Evangelio

1. “La colección de manuscritos del Príncipe Luis Luciano Bonaparte en la Diputación de Guipúzcoa” in RIEV, Donostia, 24. alea, 1933, 138-149 or.

santu gure Jesu Cristo Jaunarena, Done Matheoren arauran. 1850 urtean biurtua eusquerara. Garibay?” Litekeena da katalogatzaileak (edo Bonapartek) Etxagarai eta Garibai izenak nahastea.

Bestalde, Deustuko Unibertsitatearen argitalpenean testu hori aita Udabek egingako itzulpena izan daitekeela esaten da, Lacomberen informazioa oinarri hartuta. Azken honek dioenez, Bonaparte gipuzkerarako itzultzaile bila hasi zenean, Udabe izan zen bere lehenbiziko harremana. Esan behar da Lacomberen lana Bonaparteren eskutizetan oinarrituta dagoela eta beraz, nekez jakin zezakeela Lacombe Etxagarairen berri printzearen eskutitzen bitartez, donostiarra 1856rako hila baitzen.

Itzultzailearen izenik ez duen beste lanari dagokionez, esan behar da ez dela ebanjelio osoaren itzulpena; lehenbiziko bost kapituluak eta seigarreneko batetik zazpigarren txataleraino bakarrik hartzen ditu. Horretaz gainera, badu berezitasun bat, baina hori gero aipatuko dugu.

Baina itzul gaitzen izenik ez duten bi itzulpenetatik lehenbizikora, ustez Udaberena den horretara. Ditugun datuen arabera, 1850an eginga da; hortaz, ez zuen Udabek egin, ez behintzat Bonaparteren enkarguz. Bestalde, Garmendiak “Garibay?” idatzi zuen, egileari erreferentzia eginez. Galdera ikurrak garbi adierazten du Garibai hori zalantzazkoa dela. Baina ez du adierazten zalantza zertan dagoen. Gure ustez, beharbada “Garibai edo horrelako zer-bait” esan nahi du eta Garmendiaren oharra baino gehiago Bonaparterena dela esango genuke.

Itzulpena

Orain arte testuaz kanpoko datuak izan ditugu kontuan. Azter dezagun orain testua bera. Hasteko, testuan ageri diren ezaugarri asko eta asko Donostiako hizkerari dagozkio, edo hori uste dugu behintzat, azken urteotan donostiar idazleen dozenaka testu aztertu ondoren. Testuaren egilea Udabe balitz, ageriago egon beharko lukete bere jaioterri Tolosako nahiz bere bizileku Hondarribiko hotsek eta hitzek. Eta Bonapartek aldaera neutro batean idazteko eskatu izan balio ere, ez dugu uste Donostiako halako kolorea emango ziokeenik. Eta zertan datza Donostiako kolore hori? Zertzelada batzuk emango ditugu. Batetik, <z> eta <s>-ren arteko dantza dago: normalean <s> behar den tokian <z> jartzen du, instrumentalean izan ezik, kasu horretan ia beti -s bukaera emango baitu (guzas, nizas, onezas, zubetzaz, zuezas,...); morfologian, ahalerako adizkietan -ke- partikula bukaeran ageri da (dezaguke, dezateke,...); ukan aditzaren iraganaldiko adizkietan beti -en bukaera ageri da eta ez -an (nuen, zuen, genduben,...); inesibo mugagabeen -t- gabeko aldaera ageri da (urean); hiztegiari dagokionez, ugariak dira erdarakadak (agarratu, alborotatu, alcanzatu, angustiatu,...); azkenik, zenbait hitzen aldaerak Donostiako tipikoak dira: erraz, etzin, odoi,... Gipuzkoako beste hizkera batzuetan ohikoak diren “errez, etzan, odei” eta abarren orde. Horiez gainera, beste hainbat ezaugarri aipa litezke, banan-banan Euskal Herriko bazter askotan erabiltzen direnak, baina denak batera beterriko txoko honetan bakarrik aurki zitezkeenak garai hartan.

Badirudi Etxagarai gaztelaniazko bertsiotatik abiatu zela bere itzulpena egiteko. Pertsona- eta toki-izenen grafian ikus daitekeenez, seguru aski Reina-Valeraren 1831ko nahiz 1845eko bertsiotak erabiliko zituen horretarako. Bi bertsiotatik horiek esku-

ratu ezin izan ditugunez, geroagoko baina diotenez oso antzekoa den Reina-Valeraren 1862ko bertsiotako pasarte bat aldatuko dugu hemen, eta aldamenean pasarte horri dagokion Etxagarairen itzulpena, esan dugunaren erakusgarri:

Reina-Valera 1862

Mt. cap. 16

1 Y llegándose los Fariseos y los Saduceos, tentando, le pedian que les mostrase señal del cielo.

2 Mas él respondiendo, les dijo: Cuando es la tarde del día, decís: Buen tiempo [hará;] porque el cielo tiene arboles.

3 Y á la mañana: Hoy [habrá] tempestad; porque tiene arboles el cielo triste. Hipócritas, que sabéis hacer diferencia en la faz del cielo, y en las señales de los tiempos no podéis?

4 La generacion mala y adulterina demanda señal; mas señal no le será dada, sino la señal de Jonas el profeta. Y dejándoles se fué.

5 & Y venidos sus discípulos á la otra parte [del lago,] se habian olvidado de tomar pan.

6 Y Jesus les dijo: Mirád, y guardáos de la levadura de los Fariseos, y de los Saduceos.

7 Y ellos pensaban dentro de sí, diciendo: [Esto es] porque no tomámos pan.

8 Y entendiéndolo Jesus, les dijo: Qué pensáis dentro de vosotros, hombres de poca fé, que no tomasteis pan?

9 No entendéis aun, ni os acordáis de los cinco panes [entre] cinco mil [varones,] y cuántos esportones tomasteis?

10 Ni de los siete panes [entre] cuatro mil, y cuántas espuertas tomasteis?

Etxagarai 1850

Mt. 16 kap.

1. Eta allegaturik Fariseoak eta Saduzeoak, tentatzen eskazen zioten, ager ziotela señale zerukoak.

2. Baña berak eranzunik esan zioten: Danean arrats alde egunarena esaten dezute serenoa, zergatik zeruak dauzka osgorriak.

3. Eta goizean, gaur tempestadea, zergatik daude osgorriak zerua triste, hipokritak, dakizutenak egiten diferentzia zeruaren arpegian, eta denboraren señalietan ezin dezute?

4. Jenerazio gaiztoak eta adulterinak eskazen du señalea, baña señalea ezaio izango emaná, ez bada Jonas profetaren señalea; eta utzi zituen, eta joan zan.

5. Eta etorririk bere dizipuloak uraren beste aldetik, aztu ziran ogia artzea.

6. Eta Jesusek esan zioten: Begira eta guarda zaiteste Fariseo eta Saduzoen legamitik.

7. Eta berak pensazen zuten beren barrenean esanas: Ez degu artu ogia.

8. Eta asmatuak Jesusek, esan zioten: Zer pensazen dezute zuen barrenean gizon fede gutxikioak, ez dezutela artu ogia?

9. Ez dezute adizen oraindik, ez ere gogorazen zaizute bost ogiena bost milla giza semeren artean, eta zenbat saski artu zenituzten?

10. Ez ere zazpi ogiena lau millaren artean, eta zenbat saski jaso zenituzten.

11 Cómo? No entendéis que no por el pan os dije, que [os] guardaseis de la levadura de los Fariseos, y de los Saduceos?

12 Entónces entendieron que no les habia dicho que se guardasen de levadura de pan, sino de la doctrina de los Fariseos, y de los Saduceos.

13 & Y viniendo Jesus á las partes de Cesarea de Filipo, preguntó á sus discípulos, diciendo: Quién dicen los hombres que es el Hijo del hombre?

14 Y ellos dijeron: Unos: Juan el Bautista, y otros: Elías; y otros: Jeremías, ó alguno de los profetas.

15 Díceles él: Y vosotros quién decís que soy?

16 Y respondiendo Simon Pedro, dijo: Tú eres el Cristo, el Hijo del Dios viviente.

Zein izan zen Etxagarairen testu honen ibilbidea? Litekeena da Bonaparte 1856an gipuzkerarako itzultzaile bila etorri zenean, Donostian norbaitek Etxagarairen itzulpena eskaintzea, eta orduan printzeak itzulpen hori eta Etxagarairen beste zenbait bertso-paper eskuratu izana. Testu hori Pedro Garmendiak 85 katalogo zenbakia eman ziona izango litzateke. Printzea testua aztertzen hasi eta konturatu bide zen itzulpen hori ezin zela bere horretan argitaratu eta zuzenketak egiteari ekin zion. Hain zuzen La-combek argitaratutako eskutitz horietan horretaz kezkatzen da Bonaparte: hirurehuetik gora zuzenketa eginak dituela lehenbiziko kapituluetan. Zuzenketa horiek oro

11. Nola da entendizen ez dezutela, ez ogigatik esan nizutela guarda zindestela Fariseoen eta Saduceoen legamitik?

12. Orduan esagutu zuten, ezizutela esan guarda zitezela ogiaren legamitik, baizik Fariseoen eta Saduceoen doktrinagandik.

13. Eta etorririk Jesus, Zesarea Filiporen muge-tara, galde egin zion bere dizipuloi: Zeiñ esaten dute gizonak dala seme gizonarena?

14. Eta berak esan zuten: Batzuek Juan Bautista, bestiak Elías, eta besteak Jeremias edo profetatakoren bat.

15. Eta berak esaten diote: Eta zuek, zeñ esaten dezute naizela?

16. Eta eranzunik Simon Pedrok, esan zuen: Zu zera Kristo, Jaungoikoaren seme bizi dana.

har hiztegiari eta morfologiari dagozkio, eta oso tarteka sintaxiari. Lehenbiziko kapitulu horiek zuzenduta zeuzkanean lagin bat argitaratzea erabaki zuen 1857an (testuaren hasieratik bederatzigarren kapituluko hamalagarren txataleraino). Horrez gainera, Udaberekin edo beste itzultzailearen batekin harremanetan jarri eta Etxagarairen testua eta Bonapartek berak egindako zuzenketak oinarri harturik, bertsio txukunago bat egiteko eskatu bide zion² (izenik ez duen San Mateoren ebanjelioaren beste itzulpen-lana, Nafarroako Agiritegi Nagusiaren katalogazioan B-101 zenbakia duena). Zuzentzaile-itzultzaileak ustez zintzo bete zituen printzearen esanak. Bonapartek zuzendutakoa

2. Aurreko itzulpen bat eredu bezala erabili izana frogatuko luke, beharbada, 1865eko azaroaren 25eko eskutitzean Uriartek san Mateoren itzulpena hasi berritan Bonaparteri idatzi ziona: "He principiado la traducción del 'Evangelio de San Mateo'. Según las instrucciones que me dio S. A., hago la traducción sin valerme de la anterior". Bonapartek ez erabiltzeko eskatu zion aurreko itzulpen hori, noski, Etxagarairena dateke.

bere horretan utzi eta gainerakoan bere hobekuntzak sartu zituen. Badirudi printzeari ez zitzaiola gehiegi gustatu eta proiektua bertan behera gelditu zela, seigarren kapitulu-luko zazpigarren txatalean. Lacomberen bidez dakigu Bonaparteren zuzenketak egin zituela forma zuzena ziurtasunez zekienean bakarrik, beraz oso litekeena da beste aditu baten laguntza eskatu izana.

Testuaren ibilbidea adierazia dugu gu-txi-asko, baina oraindik gelditzen da kontu bat argitzeko: nolatan euskaratu zuen jai-ospakizunetako bertsoak baino idazten ez zituen laiko batek san Mateoren ebanjelioa? Norentzat? Artean ezagutzen ez zuen Bonaparterentzat? Ez dugu hala uste. Artikulu honetako azken atalean saiatuko gara kontu hori argitzen.

Goraxeago esan ditugun hiru bertsoiak konparatu ditugu, gure hipotesia agerian uzteko. Etxagarairen bertsiotzat daukagunari A letra dagokio, horren gainean ustez Bonapartek egindako zuzenketei B letra eta, azkenik, ustez bi horiek hobetzeko egindako testuari C letra. Aurreko bertsoiarekiko berrikuntzak letra lodiz idatzita ageri dira.

Hona hemen adibideak:

Lehenbiziko kapitulua, 18-20 txatalak.

A 18. Eta Jesu Cristoren jayotza zan onela: Egonic Maria bere ama ezcondua Josérequin, elcarganatu baño len, arquiteu zan zuela concebitu Espiritu Santua gandic. 19. Eta José bere senarra, nola zan justua, eta ezuen nai galostu, nai izan zuen utzi ichilca. 20. Eta onetan pensatzen cegoela, ona non aingeru Jaunarena aguertzen zayon ametzetan, esanas: José Daviden semea, ez beldurtu errecibitzea Maria zure andrea: bere sabelean dagoena Espiritu santuarena da.

B 18. Eta Jesucristoren jayotza zan onela: Egonic Maria bere ama ezcondua Josérequin, elcarganatu baño len, arquiteu zan **sortu** zuela **sabelean** Espiritu Santua gandic. 19. Eta José bere senarra, nola zan justua, eta **etzuen** nai galostu, nai izan zuen utzi ichilca. 20. Eta onetan pensatzen cegoela, ona non aingeru Jaunarena aguertzen zayon **ametsetan**, **esanaz**: José Daviden semea, ez beldurtu **artzea** Maria zure andrea: bere sabelean dagoena Espiritu santuarena da.

C 18. Eta Jesu Cristoren **generacioa izan** zan, onela; **izanic** bere ama Maria **esposatua** Joserequin, elcarganatu baño **lenago**, arquiteu zan **sortua izatea** sabelean, Espiritu Santu **arengandic**. 19. Eta Jose, bere senarra, nola zan justua, eta nai ez **luque betzitzu**, nai izan zuen utzi ixilca. 20. Eta **hura** onetan pensatzen cegoela, ona **emen** non **Jaunaren ain-guerua** aguertzen zaion ametsetan, esanaz: Jose **seme Davidena** ez beldurtu artzea Maria zure andrea. **Cergatic argan jayo dana**, Espiritu Santuarena da.

Bigarren kapitulua, 1-3 txatalak

A 1. Eta nola jayo zan Jesus Betlehen Judeacoan, Herodes erreguearen egunetan, ona non Mago batzuec, etorri zirán Orientetic Jerusalena. 2. Esanas: Non dago Erregue Juduen jayo dana? Cergatic bere izarra icusi degu Orientean, eta gatoz adoratzera. 3. Eta au adituric Erregue Herodesec, guenastu edo turbatu zan eta Jerusalem gutzia berarequin.

B 1. Eta nola jayo zan Jesus **Bethlehem** Judeacoan, Herodes erreguearen egunetan, ona non Mago batzuec, etorri zirán **Sortaldetic Jerusalemera**. 2. Esanas: Non dago Erregue Juduen jayo dana? Cergatic bere

izarra icusi degu Orientean, eta gatoz adoratzera. 3. Eta au adituric Erregue Herodesec, **guenastu zan** eta Jerusalem guztia berarequin.

C 1. **Bada** Jesus jayo **izan zanean** Bethlehem **Judacoan**, Herodes erreguearen **demboran**, ona **emen** non Mago batzuec etorri ziran sortaldetic **Jerusalena**. 2. **Esanaz**, non dago **Juduen erreguea** jayo dana? Cergatic bere izarra icusi degu **sortaldean**, eta gatoz adoratzera. 3. Eta **Herodes erregueac aditu zuenean**, **turbatu zan**, eta Jerusalem **gucia arequin**.

Bigarren kapituluko 11-12 txatalak

A 11. Eta sarturic echean, arquite zuten aurrera bere Ama Mariarequin, eta belaunico adoratu zuten, eta iriquiric beren ondasun edo tesoroac esqueñi ziozcaten doañac, urrea, eta incensua, eta mirra. 12. Eta izanic abisatuac errebelacios ametzetan etzitezela biurtu Herodesengana, biurtu ziran beren errira beste bidetic.

B 11. Eta sarturic echean, arquite zuten aurrera bere Ama Mariarequin, eta belaunico adoratu zuten, eta **irequiric** beren **tesoroac** esqueñi ziozcaten doañac, urrea, eta incen-

sua, eta mirra. 12. Eta izanic **abisatuac ametzetan etcitecela** biurtu Herodesengana, biurtu ziran beren errira beste bidetic.

C 11. Eta sarturic echean, arquite zuten bere ama Mariarequin eta **auzpezturic** adoratu zuten; eta **iriquiric** beren tesoroac **esqueñi** ziozcaten **doayac**, urrea, incensua eta mirra. 12. Eta **izana eranzuera** ametsetan etzitezela biurtu Herodesengana, biurtu ziran beren errira beste bidetic.

Antz gutxiago duten pasarte asko eman daitezke era berean, eta hala ere ez lukete dioguna gezurtatuko. Izan ere, eredu bat ematen digutenean, gure esku dago zenbateraino baliatuko dugun eredu eta zenbateraino berrikuntzak egingo ditugun; baina kontrakoa zailagoa da gertatzea: inongo eredu edo erreferentziarik gabe testu bat itzultzea eta emaitzak beste momentu batean egindako itzulpen batekin antz handia edukitzea ia ezinezkoa da, non ez den inter-tectualitatea deitzen den eta idazle lotsagabeek bakarrik baliatzen duten fenomeno bitxi hori gertatzen.

Fernando Brunet Prat (1808-1880)

Garai batean Donostian garrantzi handia izandako familia bateko kidea zen. Brunetarrak katalan jatorrikoak ziren eta XVIII. mendearen erdialdean etorri ziren Donostiara. Hainbat negozio izan zituzten hirian eta ezkontza bidez Donostiako goi mailako familia liberalekin elkartu ziren: Fernandez Arroiabe, Bermingham, Etxague, Collado, eta abarrekin. Fernandoren anaia zaharrena, Jose Manuel Brunet, Donostiako alkate izan zen, eta Fernando bera zinegotzi 1832, 1837 eta 1840an.

Aurten bere jaiotzaren berrehun urte beteko dira, 1808ko azaroaren 2an jaio baitzen. Gerraren gorabeherengatik, Fernando eta bere zenbait anai-arreba eta lehengusu Lekeition jaio ziren, frantsesearen hasieran hara aldatu baitziren Donostiatik bere aita Jose Brunet eta bere osaba Francisco, beren emazteekin eta ume guztiekin. Gerra amaituta Donostiara itzuli ziren.

Fernando Brunet noizbait protestante bihurtu zen, kuakero, eta protestantismoa zabaltzeari guztiz emana bizi izan zen. Euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik ingelesez ere idazten zuela dakigu. Hortaz, litekeena da bere prestakuntzaren zati bat Ingalaterran egin izana. Bere bi iloba behintzat hara joan ziren ikastera. Bestalde, Brunet familiak Manchesterren negozioak zituen; hortaz, askotan gertatuko zen Ingalaterrara joan beharrean, negozio horiek zirela medio. Gainerakoan, familiak Donostian zituzten negozioetan parte hartu zuen Fernandok, familiako beste kideek bezalaxe, eta bere hautu erlijiosoak ez bide zion arazorik ekarri bere anai-arreben artean.

1839ko urtarrilaren 15ean ezkondu zen Maria Bermingham Etxaguerekin, Donostiako Koruko Andre Mariaren elizan. Bederatzi seme-alaba izan zituzten, denak eliza katolikoan bataiatuak. Hortaz, ez dirudi bere emaztea protestantismora iragan zenik. Fernando Brunet 1880ko otsailean hil zen eta Donostiako hilerri zibilean lurperatu zuten.

Oxfordeko Wadham College-ko artxi-boan jasota daude Fernando Brunetek eta beste bi kuakero, Luis Usoz y Río eta Benjamin Wiffenek elkarri bidalitako zenbait eskutitz. Horien artean, Brunetek Usozi bidaltzen dion lehenbizikoa 1847koa da. Luis Usoz y Río kuakeroak bidaia bat egin zuen 1841ean Ingalaterran, Espainian eta Portugalen barrena. Badirudi bidaia horretan edo garai horretan behinik behin elkar ezagutu zutela. Harrezkero, elkar hartuta lan egin zuten Espainiako XVI. eta XVII. mendeetako protestante klasikoen liburuen edizio berriak argitaratzen. Usozek testuak prestatu, liburuak Ignacio Ramon Barojarenean inprimatu, eta Fernando Brunet garraioan eta banaketan aritzen zen Baiona, Londres eta Bilbo artean, Donostian bere operazio-zentroa zeukala. Hasieran bere negozioetan eta aldi berean elkarte biblikoaren zereginean aritzen zen, baina gutxika-gutxika negozioak utzi eta erreformisten edizioen inportazio-esportazio lanean bete-betean aritu zela dirudi. 1851ko San Sebastian egunez Usozi idatzi zion eskutitz batean esaten zion espero zuela urte hura beraren negozioei ematen zien azkena izatea, eskatu zitzaion zerbitzua emateko goera hobean izateko.

Elkarlan horrek 1865era arte iraun zuen, urte hartan Usoz hil egin baitzen.

Usoz y Río hau oso pertsonaia interesgarria da. Liburuzale amorratua, hiltzean 10.000 liburu baino gehiago utzi zituen; baita ehunka dokumentu ere: eskutitzak, agiriak, eta abar. Gai asko interesatzen zitzaizkion, besteren artean ijitoen hizkuntza, bere adiskide George Borrow-ri bezala. Eta badu Iztuetari buruzko aipamen bat Jacob Gråberg af Hemsö kondeari idatzitako eskutitz batean. Konde hori euskaltzalea omen zen eta Iztuetaren lanaz interesaturik bide zegoen. Usozek bere eskutitzean esaten dio Iztuetaren dantzei buruzko liburuia bidaltzen diola eta Etxagarairen bertso batzuk ere bai, zeren «adituen iritziz, Jose Bizente Etxagarairen euskalkia Iztuetarena baino gipuzkera garbiagoa baita». Iruzkina horrek pentsarazten digu beharbada Usoz harremanetan egon zela Etxagarairekin eta ondorioz honek 1850 inguruan egin zuen san Mateoren itzulpena akaso protestanteentzat egin zuela. Ez da ezin litekeen gauza. Orain eza gutzen ez ditugun arrazoiengatik testua ez zen orduan argitaratu eta azkenik, Etxagarai hil eta gero, testua Bonaparteri saldu zioten bere alabek, aitaren beste zenbait bertso eta paperekin batera.

Urte batzuk geroago beste kontu bitxi bat gertatu zen Gipuzkoan. Lasalaren ekimenez itzulpen lehiaketa bat deitu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak 1864an. San Juanen ebanjelioa euskaratu behar zen. Guztira bost itzulpen aurkeztu ziren lehiaketara, Uriarterena, besteak beste. Kontua da lehiaketa hartan ez zitzaizola saria inori egokitu, epaimahaia osatzen zuten hiru apaizen arabera (Vicente Manterola, fraide domingotar bat eta Tolosako apaiz gazte

bat), itzulpen bakar batek ere ez baitzituen agindutako betebeharrak betetzen. Izan ere, aurkeztutako itzulpenetan eskrituren oharrrak falta ziren eta horiek gabe eliza katolikoak ezin zituen ontzat eman, eta gainera legez debekaturik zegoen halakoak editatu edo zirkulatzea. Esan dugunez, itzulpenetako bat Uriarterena zen baina beste lauez ez dakigu ezer. Dakiguna da Fernando Brunetek san Juanen itzulpen bat argitaratu zuela handik urte batzuetara.

Jon Bilbaok bere *Eusko Bibliographia* lanean dioenez, Fernando Brunetek san Juanen ebanjelioaren itzulpen bat egin zuen J. E. Dalton-entzat. Eta Dalton honek eskuizkribua British and Foreign [Bible] Society-ri eman zion. Egia esan, ez dakigu ziur itzulpena Fernando Brunetek berak egin zuen ala ez, baina oso litekeena da itzulpenaren egilea donostiarra izatea, testuan Donostiako hizkeraren zenbait ezaugarri ageri direlako; horregatik, eta hemen Donostiako itzultzaileez ari garenez, Brunet editore ez ezik itzultzailetzat ere hartzea egoki iruditu zaigu, hartarako prestakuntza eta ezagutzak eta gogoia falta ez zituelako.

1868 eta 1874 urteen bitartean erlijio-askatasuna deklaratu zen Espainian eta baliteke orduan proselitismo ekintzaren bat egin izana Donostian bertan. Izan ere, Fernando Brunetek bere aurkari sutsuena etxean bertan zeukan, Joaquin Venancio Birmingham Etxague, bere emaztearen anaietako bat, hain zuzen. Birmingham honek hainbat liburuxka argitaratu zituen protestantismoaren aurka 1869-70 epealdian. Liburuxka horietan, elkarriketaren teknika erabiliz, protestanteen jarduna mesprezatu eta iraindu nahi zuten, eta horietako batean Donostiako plaza berrian (gaur

egungo Konstituzio plazan) behin protestanteek liburuxkak banatu zituztela aipatzen da. Esan behar da Berminghamek egindako liburuxkak ere halaxe banatzen zirela, doan. Erratuta egon gaitzke, baina han, plaza berrian, Barojak inprimategia zeukan tokitik hurbil, protestanteak proslitismoa egiten bazebiltzan, Fernando Brunet ez zen oso urruti ibiliko.

Gezurra badirudi ere, gehiago dakigu bere ekintza klandestinoez bere bizitza agerikoaz baino. Nolabaiteko erretratua egiteko modua izan dezagun, Pio Barojak utzi digu Fernando Bruneti buruzko aipamen bat bere liburu batean³. Bertan esaten duenez, txikitan bere etxe aurrean gizon bat bizi zen. Don Fernando izena zuen eta protestantea omen zen. Balkoira ateratzen zen liburu bat irakurtzera eta ogi apurrak botatzen zizkien enarei. Eta enarek habiaz josita zeukaten hegala azpia. Don Fernandok etxe hartatik alde egin zuenean ordea, etxejabe katolikoa etorri eta habia guztiak hautsi zituen makila batez.

Itzulpen-lanak

Bi ebanjelio euskaratu zituen: Lukasena eta Juanena. Hainbat argitaraldi izan zituzten itzulpen horiek, ondoko hauek, besteak beste:

Lukasen ebanjelioren itzulpena eta berrargitalpenak:

– *Jesu Cristoren ebanjelioa Lucasen araura*, London, William Clowes and Sons, 1870

– *Jesu Cristoren ebanjelioa Lucasen araura*, London; R. Clay Sons, and Taylor, 1876

– *Jesu Cristoren Ebanjelioa Lucasen araura. El Evangelio de N. S. Jesu Cristo según san Lucas en basco español*, Buenos Aires, P. E. Coni, 1877. [J. M. Larsen-en zuzendaritzapean berrargitaratua (Jon Bilbaoren oharra)]

– *Jesu Cristoren ebanjelioa Lucasen araura*, Madrid, Depósito Central de la Sociedad Bíblica B. y E., 1909

Juanen ebanjelioren itzulpena eta berrargitalpena:

– *Jesu Cristoren ebanjelioa Juanen araura*, London, 1880 [J. E. Dalton-en edizioa (Jon Bilbaoren oharra)]

– *Jesu Cristoren ebanjelioa Juanen araura*, London, 1883



3. BAROJA NESSI, Pio: *Las horas solitarias*, Madrid, Caro Raggio, 1982, 199-200 or.

Itzulpenen ezaugarriak

Hasteko, badirudi ez zuela iturri bakar bat erabili bere itzulpen-lana egiteko. Erabiltzen duen pertsona- eta leku-izenen grafiari begiratzeko badiogu, arkaismorako joera edo bederen jatorrizko formara hurbiltzeko gogoia duela ikusten da, esate baterako, Bethlehem, Quéfas eta Phaleg bezalako grafiak erabiltzen dituelako. Horretan bitxia da zenbateraino bat datorren, adibidez, Leizarragarekin. Horrek esan nahi du testu latinoak edo grekoak zituela begi bistan. Elementuen ordenari, juntagailuei eta beste alderdi batzuei begiratuta, berriz, beste bi bertsio erreformista gogorarazten dizkigu: Reina-Valera eta King James deituak. Izan ere, xehetasun batzuetan bertsio batekin bat dator eta hurrengo batean guztiz beste bertsio baten itzulpen fidela egingo du; alde horretatik, benetan zaila gertatu zaigu kritika testual gutxieneko bat egin ahal izatea. Izango da gai honetan gu baino jantziagorik eta argi gehiago egiteko moduan egongo denik.

Testuari berari erreparatzen badiogu, esan behar da lehenbiziko aldiz irakurtzen denean sentipen kontrajarriak sorrarazten dituela. Alde batetik testu landua, jaso dela dirudi, baina gutxien espero duzunean gramatika akatsak agertuko zaizkizu han eta hemen, itzulpena kontu handirik gabe egin bailitzan, edo itzultzaileak bere gramatikari hutsune asko izango balu bezala. Guztiarekin ere, bertsio duin eta bere garairako txalogarria dela iruditzen zaigu.

Estiloari begiratu gero, ikasia baina aldi berean erraza dela esan genezake, eta bere errazean oso landua, esaldi laburren gainean eraikia, irakurtzeko lana erraztu nahi balu

bezala. Alde horretatik, badirudi ahozko erregistrora hurbiltzeko saioa egin duela.

Esan daiteke, beraz, Brunetek bere euskara eredu sortu egin zuela, Donostia bere herriko hizkera oinarri hartu eta hainbat baliabideren bitartez bere hizkera osatuz eta aberastuz.

Argi ikusten ez ditugun arrazoiengatik, izan liteke bere euskalkiko hitzak aski zehatzak ez kontsideratzeagatik, Lardizabalen gramatikaren eraginagatik edo besterik gabe estiloa aberasteagatik, kontua da mendebaldeko nahiz iparraldeko elementu morfologiko eta lexikoak txertatzen dituela, adibidez, zapatu, osteria, bearra (= lana), ille bete, -gaz atzikia (instrumental gisa erabilia); zuhurtzia, iguriki, buhatu, ... Joera hori Lukasen itzulpenean gehiago ageri da; Juanen ebanjelioaren itzulpenean, berriz, baliabide hau utzixea dauka. Hortik ondoriozta daiteke zehaztasunaren eta ulergarritasunaren artean aukeratu beharrean jarriz gero, ulergarritasunaren alde egiten duela.

Esan berri dugunez, mendebaldeko elementuak baliatzen ditu; horien artean "bi" zenbatzailea izenaren eskuinean jartzen du zenbaitetan, baina bizkaierazko hitzak erabiltzeko duen joera horretatik kanpo ulertu behar da. Izan ere, Donostiako idazleen XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako testuetan, askotan agertzen da "bi" zenbatzailea izenaren ondoren. Erabilera hori XVIII mendean dagoeneko dokumentatzen da Beterriko zenbait egileren testuetan, eta orain dela 120-100 urteko Donostian oso arrunta zen. Gaur egun guztiz galduta dago.

Bestalde, oso bakanak dira Larramendiren hiztegitik hartutako hitz berriak: billakindu, joaitatu, ... Gutxi erabiltze hori he-

rri-hizkerara hurbiltzeko joerarekin bat etorriko litzateke, noski. Hatxe batzuk sartzen ditu, adibidez “hura” erakuslea eta “ura” izena bereizteko. Ez da gauza berria, lehendik, Mendiburu bezalako beste egile batzuegandik datorren joera bat da eta Brunetek joera horrekin bat egiten du. Hori dudarik gabe ulergarritasuna zaintzeko egindako hautua da. Gainera, Lardizabalek bere gramatikan hitzez hitz gomendatzen du erabiler hori:

“...cuando una diccion tiene dos significados, es conveniente que el uno se esplique con h, y el otro sin ella; v. g. *ura* significa *agua*, y *aquel*; y para distinguirlas, *ura* agua se escribe sin h, y *hura* aquel con h.” (*Gramática Vascongada*, Donostia, Ignacio Ramón Baroja, 1856, 1. or.)

Beste xehetasun batzuetan sartuta, ondoko alderdi hauek aipatuko genituzke:

Erlatibozko perpausak eraikitzeke, Bizente Etxagarairen hizkeran bezala, aleren batzuen kasuan behintzat, izenondoaren egitura erabiltzen du gaur egun darabilgun izenlagunarenaren ordeaz, hau da, sintagma izenetik eskuinera hedatzen du; adibidez:

Eta bere seigarren illean, bialdu zuan Jaungoikoak aingeru Gabriel, Galileako iri Nazaret deitzen zitzaion batera, Birjiña baten gana, gizon José izena zuen batekin esposatua, Daviden etxekoa, eta birjiñaren izena zan Maria. (Lk. 1:26-27)

Eta, ona emen, gizon batzuek zekarten oi baten gañean, gizon baldatua zegoan bat: (Lk. 5:18)

...eta utsi zuten bakarrik Jesus, eta emakume erdian zutik egondu zana. (Jn. 8:9)

Brunetek erlatibozko perpausetan “zein” izenordea erabiltzen du, eta hor ere askotan -n-rik ez dio gaineratzen adizkiari. Horretan ere Lardizabalen gramatikarekin⁴ eta Etxagarairen erabilerarekin bat dator. Ez genuke jakingo esaten gehiago diren -n gabeak ala -n-dunak, esate baterako, adizkia iraganeko forman duten esaldietan ez dagoelako jakiterik -n jartzeko borondaterik zeukan ala ez. Hona adibideak:

Elisabet zure emazteak egingo dizu seme bat, zeñi jarriko diozu izena Juan: (Lk. 1:13)

Badator ni baño bortitzagoa zeñen zapatetako lokarria askatzeko ez naiz diña (Lk. 3:16)

Bera da, nere ondoren etorriaz, nere aurretik joan bear duena; zeñen oñetakoen lokarria askatzeko ez naiz ni diña (Jn. 1:27)

Beste bi donostiar garaikideren hizkerarekin alderatzeagatik, esan dezagun Lariz eta Larroca apaizek ez dituztela horrelakoak egiten, aldiz beti -n gehituko diote adizkiari; elizgizonen eta herritar xumeen hizketen arteko desberdintasunaren seinale, dudarik gabe.

Perpaus kausalen hasieretan ia beti “zergatik” erabiltzen du, gehienetan adizkiari -n gaineratu gabe; joera bertsua erakusten dute, adibidez, Etxagarai eta Soroa donostiar garaikideek. Aldiz, Larizek eta Larrocak “zeren” darabilte, nahiz eta Larrocak kasuren batean “zergatik” ipintzen duen, baina

4. “esta casa, de la cual parece que tu eres el dueño; *eche au ceña-ren jabe zu bidé cera*”, aip. lib. 59. or.; “sagarra, ceñac min eguin didan, gaciegui zan”, aip. lib. 60. or.

adizkiari -n gaineraturik. Ikus ditzagun Bruneten adibide batzuk:

Zergatik aundia izango da Jaunaren aurrean;
(Lk. 1:15)

zergatik sinistu ez dezun nere itzetan,
(Lk. 1:20)

Ez ikaratu Maria; zergatik arkitu dezu grazia
Jaungoikoaren aurrean (Lk. 1:30)

Zergatik ez du Jainkoak mundura bere semea
bialdu... (Jn. 3:17)

Reina-Valera 1862

Jn. 5:43 Yo he venido en nombre de mi Padre, y no me recibís: **si otro viniere en su propio nombre, á aquel recibiréis.**

Jn 6:51 Yo soy el pan vivo que ha descendido del cielo: **si alguno comiere de este pan, vivirá para siempre;** y el pan que yo daré es mi carne, la cual yo daré por la vida del mundo.

Jn 8:19 Y decíanle: ¿Dónde está tu Padre? Respondió Jesús: Ni á mí [me] conocéis, ni á mi Padre. **Si á mí me conocieseis, á mi Padre también conoceríais.**

Jn 8:39 Respondieron, y dijéronle: Nuestro padre es Abraham. Díceles Jesús: **Si fuerais hijos de Abraham, las obras de Abraham haríais.**

Jn 8:42 Jesús entonces les dijo: **Si vuestro Padre fuera Dios, ciertamente me amaríais** [á mí,] porque yo de Dios he salido, y he venido: que no he venido de mí mismo, mas él me envió,

Ikusten denez, ez dio euskararen gramatikaren barne-koherenziari begiratzeko, jatorrizkoan erabilitako adizkiei baizik. Estu-estu lotuta itzuli behar horrek batzuetan emaitza zuzena izango du, baina beste ba-

Zergatik gaizki egiten duen guziak, gorrotatzen du Argia (Jn. 3:20)

Bestalde, testuan agertzen diren zenbait akats gramatikal ez dira bere hizkuntza-gaitasunetik edo bere gaitasun gabeziatik sortzen.

Batetik, itzultzailearen borondatearen defentsan esan dezagun, akats gramatikal horietako batzuk, jatorrizko hitzei gehiegi lotu nahi izatetik datoz; adibidez, baldintzazko perpausetan. Hona hemen adibideak:

Brunet 1883 (1880)

...beste bat etortzen balitz bere izenean berean, hura errezibituko dezute.

...norbaitek jaten balu ogi onetatik, betikoz biziko da...

...ni ezagutu banin duzuten, ezagutuko zunduten ere nere Aita,

...Abrahamen aurak bazinateke, Abrahamen obrak egingo zinduzkete...

...Baldin Jaungoikoa balitz zuen Aita, maitatuko ninduzuten...

tzuetan akatsa. Beste alor batzuetan ez dugu konparaketa hori egin, baina seguru asko honelako bat etortze gehiago izango dira, ondoko honetan bezala:

Reina-Valera 1862

Jn 6:29 **Respondió Jesús, y díjoles:** Esta es la obra de Dios, que creais en el que él ha enviado.

Horren antzeko azalpena izango du, beharbada, zenbaitetan erabiltzen duen subjuntiboa, gaur egun nominalizazioa edo indikatiboa erabiliko genukeen tokian. Ez dirudi debekatuta dagoenik euskaraz horre-

Reina-Valera 1862

Lk 2:21 Y pasados los ocho dias para circuncidar al Niño, llamaron su nombre Jesús, el cual [le] fué puesto por el ángel **antes que él fuese concebido en el vientre.**

Jn. 1:48 Dícele Natanael: ¿De dónde me conoces? Respóndele Jesús, y díjole: **Antes que Felipe te llamara**, cuando estabas debajo de la higuera, te ví.

Detektatu ditugun beste zenbait akatsek oharkabeen eginak dirudite, hau da, lapsus hutsak dira:

Eta Felipe zan Betsaidakoa, Andresen eta Pedroren iria. (Jn. 1:44) (“irioa” beharko luke)

Deskansuko eguna da: zillegi dezu oitxoa artzea (Jn. 5:10) (Reina-Valera 1862: “Sábado es, no te es lícito llevar tu lecho”)

Eta bereala ontzia leorreratu zan, noronz zihoazen. (Jn. 6:21) (Reina-Valera 1862: “y luego el barco llegó á la tierra donde iban”).

Akatsetarako beste iturri bat ahozko euskarara eredu gisa erabiltzea izan daiteke, adibidez,

Brunet 1883 (1880)

Jesusek eranzun zuen eta esan zioten...

lakoak eraikitzea, baina bide hori erabiliz ahozko hizkeratik urruntzen da; hortaz, iruditzen zaigu adizkiok jatorrizkoan agertzeak baldintzatzen duela Brunetek adizki horien baliokideak erabili izana:

Brunet 1883 (1880)

...ipini zioten izena Jesús, aingeruak deitu zion bezela, sabelean konzebitua izan zedin baño lenago.

Felipek deitu zintzan baño lenago, pikopean zeundela, ikusi zindudan.

Zer milagroekin erakutsitzen gaituzu zure nausitasuna gauza abek egiteko? (Jn 2:18)

Berdin pentsa daiteke ondoko hanpatze hauetaz:

Eta **orobat ere** Santiago eta Juan, Zebedeoren semeak (Lk. 5:10)

Eta salako agintariak dastatu zuenean ura ardo egin zana, nongoa zan jakin gabe, serbitzari ura ateratu zutenak **jakin arren ere**, deitu zion esposoari, (Jn. 2:9)

...beste bat etortzen balitz **bere izenean berean**, hura errezeituko dezute (Jn. 5:43)

Azkenik, bitxikeria gisa, zenbaitetan “ere” adizlagunaz egiten duen erabilera aipatuko dugu. Gaurko ikuspegitik begiratu-

ta gehienak toki desegokian agertuko zaizkigu.

Kafarnaumen egiñak izandu dirala aditu degun gauza guztiak, egin ditzazu ere emen zure jaioterrian. (Lk. 4:23)

Judas Santiagoren anaia, eta Judas Iscarióte, zeñi egin zan ere traidorea. (Lk. 6:16)

Masalla batean jotzen zaituenari jarrioz ere bestea. (Lk. 6:29)

Ez dezazute ere juzgatu, eta ez zerate izango juzgatuak: (Lk. 6:37)

Au da ere ni bialdu nauenaren borondatea (Jn. 6:40)

Laburbilduz, borondate oneko itzulpen lana dela esan dezakegu, eta ez dugu hau

esaten bere lana gutxiesteko, zentzu errealistan baizik. Lana txukun egiteko borondatea agertzen du, edozein irakurlek erraz ulertuko duen hizkera erabiliz, apaingarri gehiegirik gabe. Eta duintasunez egin zuela aitortu behar zaio. Apaiza izan gabe, erlijio gaia duten testuak itzuli zituen, negozio-gizon hutsa izanik, eta hain zuzen apaizen, euskararen alorrean gehien zekitenen laguntza jaso ezinik egin behar izan zuen bere itzulpen lana. Gehienez ere bere herriko hizkera, bere euskarazko irakurketak eta Larramendiren eta Lardizabalen bezalako gramatikak eskueran zituela agian; horregatik, aintzat hartzekoa da Brunetek euskararen alorrean egin zuen lana.



BIBLIOGRAFIA

- BOZAS-URRUTIA, Rodolfo: “Ecos de unos ‘Ecos’: Joaquín Bermingham, traductor y escritor euskérico”, in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Donostia, 1972, 2-3 koaderno, 350-354 or.
- CATALÁN MARTÍNEZ, Elena: *El precio del purgatorio: los ingresos del clero vasco en la edad moderna*, Bilbo, UPV, 2000.
- ETXAGARAI BIKUÑA, Jose Bizente: *Festara*, aita Zavalaren edizioa, Donostia, Auspoa, 1964.
- GARATE OJANGUREN, Montserrat: “La familia Brunet, San Sebastián y América: presencia catalana en el puerto donostiarra, s. XVIII-XX”, in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, Donostia, 1990, 105-134 or.
- GARMENDIA ARRUBARRENA, José: *Guía de vascos en el Archivo General de Indias de Sevilla*, Madrid, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, 1998.
- IRIGARAI IRIGARAI, Aingeru: “Ion Etxaide, Amasei seme Euskalerrí’ko [Diez y seis hijos de Vasconia], Zarauz, Editorial Itxaropena, 1958” in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Donostia, 1958, 3 koaderno, 278-281 or.
- ORDOÑEZ GAMÓN, Joaquín de: *San Sebastián en 1761: descripción de la ciudad, sus monumentos, usos y costumbres* (Alfredo Laffitteren hitzaurre eta oharrekin), Donostia, F. Jornet, 1900.
- PAGOLA, Rose Miren (zuz.): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak* (bilduma osoa CD-ROMen), Deustuko Unibertsitatea, 2004 [idatzizko bertsioa: PAGOLA, Rose Miren (zuz.), BEOLA, Ainhoa, et al.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: gipuzkera*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1993]
- RUIZ de LARRINAGA, Juan: “Cartas del P. Uriarte al príncipe Luis Luciano Bonaparte” in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Donostia, 1958, 3 koaderno, 397-443 or.
- VILAR RAMÍREZ, Juan Bautista: “La ciudad de San Sebastián, centro editor y difusor clandestino de libros protestantes a mediados del siglo XIX” in *Historia Contemporánea*, UPV, Bilbo, 1996, 13-14 zenbakiak, 413-27 or.

Beste iturri batzuk:

- Calahorrako eliz artxiboa
- Iruñeko eliz artxiboa
- Gipuzkoako elizbarrutiaren agiritegia
- Madrilgo Archivo Histórico Nacional
- Donostiako Udal Liburutegia
- Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia

Tres traductores donostiarras

En una retrospectiva de traductores donostiarras, sería injusto no detenerse en los tres más antiguos de cuantos tenemos noticia: Frantzisko Xabier Lariz, Jose Bizente Etxagarai y Fernando Brunet. Todos ellos realizaron traducciones de textos religiosos, contando para ello con formaciones muy dispares; no es extraño, por tanto, que los resultados ofrezcan diferentes calidades. El primero de ellos vivió en la época anterior al incendio de 1813, el segundo a caballo entre los siglos XVIII y XIX y el tercero pertenece plenamente al XIX. Se trata de tres personajes poco o nada conocidos que nos dan testimonio de una realidad hoy en día inconcebible: la absoluta necesidad de recurrir a la lengua vasca para hacer llegar su mensaje al grueso de la población donostiarra. En ese sentido, nos facilitan, además, una vía para acercarnos al habla de San Sebastián de los siglos XVIII y XIX, al que no se le han otorgado precisamente excesivas alabanzas y que resulta, aun así, en muchos casos, no ser tan incorrecta como tantas veces se ha dicho.

Trois traducteurs de Donostia

Dans le cadre d'une rétrospective des traducteurs originaires de Donostia-San Sebastian, il serait injuste de ne pas s'arrêter sur les trois plus anciens dont nous ayons connaissance : Frantzisko Xabier Lariz, Jose Bizente Etxagarai et Fernando Brunet. Tous réalisèrent des traductions de textes religieux, ayant pour cela des formations très diverses ; il n'est donc pas étonnant que les résultats offrent des qualités différentes. Le premier d'entre eux vécut à l'époque précédant l'incendie de 1813, le second à cheval entre les XVIII^e et XIX^e siècles, et le troisième appartient pleinement au XIX^e siècle. Il s'agit de trois personnages peu connus ou totalement inconnus qui témoignent d'une réalité aujourd'hui inconcevable : l'absolue nécessité de recourir à la langue basque pour faire parvenir leur message à la majorité de la population de Donostia. En ce sens, ils nous permettent une approche de la langue parlée à San Sebastian durant les XVIII^e et XIX^e siècles, ce à quoi ne sont pas parvenues d'excessives louanges et qui n'est pas, au bout du compte, aussi incorrect qu'on l'a maintes fois prétendu.

Three translators from San Sebastian

Any retrospective of translators from San Sebastian must necessarily include the three oldest that we know about: Frantzisko Xabier Lariz, Jose Bizente Etxagarai and Fernando Brunet. All three translated religious texts, though for this work they had very different training; it is not surprising, therefore, that their results show different qualities. Lariz lived in the period before the fire of 1813, Etxagarai straddled the 18th and 19th centuries, and Brunet belongs completely to the 19th century. These are three individuals who were little known or not known at all but who bear witness to a reality that is inconceivable today: the absolute necessity of using the Basque language in order to convey a message to most of the population of San Sebastian. Thus, they also provide us with a way to closely examine the speech of the San Sebastian of the 18th and 19th centuries, which has not exactly been highly praised but which turns out, in many cases, to be less incorrect than has been claimed so many times.

Idazlea itzultzaile

UNAI ELORRIAGA

Nekez aurkituko dugu, mundu osoko literaturetan, obra propioa itzultzen duen idazlerik. Eta arrazoi asko egon daitezke egile batek aukera horri uko egiteko; bakan batzuk aletzen ahaleginduko naiz hemen...

Arrazoi guztien arteko nabarmenena: idazleak ama hizkuntzaz gain beste batzuk jakin arren, ez ditu behar bezala ezagutzen; ez da beste hizkuntza batean obra literario sendoa sortzeko kapaz. Hau da, beste hizkuntza batean (edo batzuetan) idatzitako testuak irakur ditzake beharbada, hizkuntza horretako edo horietako hiztunekin modu egokian komunika daiteke eta irakurtzeko moduko testuak idatz ditzake. Beste kontu bat da, ordea, testu literarioa sortzea hizkuntza arrotz horretan: estiloa, tonua, ahotsak... Zail egingo zaio obra originalak zeukan espiritu bera lortzea.

Witold Gombrowicz, esate baterako, kasu argia da. Mundu Gerra zela eta, Argentinan bizi izan zen idazle poloniarra urte askoan. Gerra hasi baino urtebete lehenago,

baina, *Ferdydurke* izeneko liburua argitaratu zuen polonieraz, eta Argentinan luzarorako geratu beharko zuela ulertu zuenean, jaioterrian idatzitako liburu hura gaztelaniara itzultzea erabaki zuen.

Ordurako gaztelaniaz egiten zuen Witold Gombrowiczek, baina bere hizkuntz gaitasunak zalantza eragiten zionez, itzulpena lagun batzuei eskatzea erabaki zuen. Liburua ezagutzen duenak, oster, jakingo du nolako zailtasun estilistikoak dauzkan, eta Gombrowiczek ulertu zuen berak ere, unero, itzulpenaren gainean egon beharko zuela. Eta halaxe burutu zuten itzulpena: egilea bera eta itzultzaile taldea elkarlanean.

Testuaren zailtasuna gorabehera, gaztelaniazko itzulpena bikaina da. Izan ere, modu hori izango da ziurrenik (itzultzaile eta egilea elkarlanean) itzulpena egiteko modurik egokienetako bat.

Badira, baina, hizkuntza batean zein bestean gaitasun handia daukaten idazleak ere. Julio Cortázarren kasua da. Jakina da

bizitzak eta politikak behartuta, Frantzian bizi izan zela idazlea. Frantsesa umetan ikasi zuen, gainera (itzultzailea zuen ama), artean Argentinan bizi zela. Esan daiteke, zalantza handiegirik gabe, beraz, frantziar askok baino askozaz hobeto idatziko zuela Cortázarrek frantsesez. Hala ere, ez zituen bere testuak itzultzen. Argentinarraren kasua, gainera, azpimarratzeko modukoa da, itzultzailea baitzen lanbidez...

Jean Barnabé itzultzaileari idatzitako gutun batean hala dio:

Laure Guille ha traducido “Lejana” y “Las puertas del cielo”. Acabo de ver su versión de “Lejana”. Hay cosas que me gustan y otras que usted resolvió mil veces mejor que ella. Laure es la primera en sostener que usted acierta siempre en los pasajes más difíciles.

Argi dago Julio Cortázar bere ipuinen itzulpen guztien gain-gainean egon zela; xehetasun txikienei ere erreparatzen zien, baina burutik ere ez zitzaion pasatu bere testuak itzultzen hastea.

Ingelesarekin ere antzeko harremana zeukan. New Yorkeko poeta batek, Paul Blackburnek, argentinarraren ipuin bat baino gehiago itzultzeko ahalegina egin zuen. Cortázarrek etengabe zuzentzen zizkion txarto itzulitako pasarteak. Blackburni idatzitako eskutitzak, esaterako, ingelesez idazten zituen batzuetan. Irakurtzeko modukoa da idazleak hizkuntzekin zeukan harremana argi adierazten duen pasarte hau:

Dear cronopio Paul,

As you wrote me in a magnificent Spanish, I am going to answer in a no less remarkable English.

Julio Cortázarrek, beraz, ama hizkuntzaz aparte beste hizkuntza batzuk (frantsesa eta ingelesa bereziki –Edgar Allan Poe gaztela-

niaratu zuen, besteak beste–) etxeakoak izan arren, beste batzuen eskuetan utzi zituen bere testuak. Gutunei esker dakigu, baina, ardura handiz aztertzen zituela itzulpen guztiak.

Argi dago, ondorioz, hizkuntza bietan gaitasun bera (edo antzekoa, ia inoiz ez baitira maila berean egoten) daukaten idazleek ere erreparatzen dituztela itzultzen haserako. Hori da, hain zuzen ere, gure inguru linguistikokoan gertatzen dena...

Euskaraz idazten duten idazleek, oro har, ondo ezagutzen dituzte idazteko aukeratu duten hizkuntza zein gaztelania, ahozkoa nahiz literarioa (euskara eta frantsesa batzuen kasuan). Esan daiteke ez daukatela arazorik batean zein bestean modu naturalean aritzeko: ahoz, idatziz, lagunartean, egoera akademikoagoetan... Zer esanik ez eskola hizkuntza gaztelania (edo frantsesa) izan dutenek...

Gure kasua, umetatik euskaraz eskolatu garenona, apur bat desberdina da; denbora gehiago behar izan dugu gaztelaniaz ohitzeko (gaztelaniaz eskolatuek euskaraz ohitzeko baino askozaz gutxiago hala ere). Baina azkenean puntu berera heldu gara guztiok, eta horren arrazoietakoa bat, ziurrenik, honakoa izango da: literatura gehiago irakurri izan dugula gaztelaniaz euskaraz baino. Haiek eta guk. Eta horrek eta beste ahalegin askok jarri gaituzte hizkuntza bietan neurri bertsuan eroso. Esan daiteke hizkuntza batean zein bestean obra literarioa sortzeko gai izan gaitzekeela zorionez.

Heldu naiz, azkenean, heldu nahi nuen lekura. Gaitasun hori eduki arren (ez gara hiztun perfektuak, jakina, zalantza ugari dauzkagu, baina ez da idazlerik munduan zalantza linguistikorik gabe), euskaraz idaz-

ten duen idazle gutxik itzultzen ditu bere testuak.

Arrazoi bat baino gehiago egon daiteke:

- Idazle batzuek ez dute euren burua itzultzaile lanetan aritzeko kapaz ikusten. Sumatzen dute hizkuntza biak ondo jakiteaz gain, itzulpen-erregelak ere badirela eta ez dituztela ezagutzen. Arrazoa daukate neurri handi batean, baina oinarrizko arauen ikasketa-prozesua ez da horren luzea ere. Hala ere, ez dira ausartzen. Edo ez dute ahaleginik egiten, bigarren arrazoiarekin estu lotuta dagoen puntu bat dela eta...
- Bigarren arrazoa askozaz ere prosaikoagoa da: denbora falta. Idazle profesional gutxi dago gure artean: beste lanbide batzuetan ematen dituzte idazle gehienek eguneko ordurik egokienak. Denbora gutxi daukate, beraz, seguru asko onura ekonomikorik ekarriko ez dien itzulpen bati hainbeste ordu eskaintzeko.
- Ez dute obra berreraiki nahi. Egileak sinisten du testua amaituta dagoela eta itzultzen hasiz gero, berreraiki ez ezik beste obra bat ere osatuko lukeela. Horretara heldu nahi ez duenez, beste baten esku uzten du itzulpena.

Lan nekeza da, beraz, alde guztietatik begiratuta, eta denbora da faktorerik garrantzitsuenetako bat. Idazleren batek, hala ere, ahalegina egin dezake bestelako itzulpenak egiten dituen erritmo berean itzultzeko. Esan nahi dut lan gutxi gorabehera mekaniko moduan egin daitekeela (egunean hiru edo lau edo bost orri, esate baterako, bakoitzaren trebetasunaren arabera). Halakoetan, ordea, ohikoena da idazleak berak ere esti-

loa, ahotsa eta abar galdu dituen sentsazioa izatea. Testu literario batek lana eskatzen du, hau da, denbora, hau da, orduak esaldi bakoitzaren gainean. Hizkuntzarekin eta estiloarekin estu aritu ezean, asko galtzen du testuak.



Guztiarekin ere, beste idazle batzuen lanak itzuli ditudanean, argi baino argiago ikusi dut inork ezin duela itzulpena egileak berak bezain egoki egin. Inorena itzultzen aritu naizenean, konturatu naiz egileak euskaraz jakingo balu, ez lukeela pasarte hau edo hura nire moduan itzuliko, aldatu egingo lukeela, euskaraz ez duelako ondo ematen, ez diolako jatorrizkoan zeukan bide literarioari eusten...

Elkarrizketak dira adibiderik onenak. Egoera berean leku desberdinetako hiztunek desberdin erantzuten diote gehienetan galdera bati. Are gehiago: hizkuntza berean ere erantzuteko modu oso desberdinak daukate. Gaztelan aritzen den batek, egoera beraren aurrean, desberdin erantzuten du Liman, Buenos Airesen, Lleidan, Malagan edo Vigoko herri txiki batean. Kulturak, egoera sozialak, inguruak... gauza askok hitz egiten dute egoera bakoitzean. Eta, nola ez, aldea askozaz handiagoa da hizkuntza aldatzen denean. Itzultzailea, ordea, ezin da hasi egoera bakoitzean hiztun bakoitzak erantzungo lukeena asmatzen. Jatorrizko testuan dakarrena itzuli behar du (oso nabarmena ez bada). Aldaketa hori egin dezakeen bakarria egilea bera da...



Amaitzeko eta aurreko guztiari kolore apur bat emateko, kasu praktikoren bat ko-

mentatu nahi nuke. Aipatu nahi nituzke nire testuak itzultzean izan ditudan trabak eta nola gauditut ditudan. Batzuk uste baino hobeto egokitu nituen gaztelaniaz eta beste batzuekin, ostera, badakit ez nuela behar bezala asmatu... Dena dela, hemen hitz gutxitan laburbilduko badituzte ere, batekin baino gehiagorekin orduak eta egunak eman nituen orduan.

Hiru taldetan banatu dituzte itzulpenetan izan ditudan arazoak. Banaketa arbitrarioa da, jakina; hiru, zortzi edo hamaika talde egin daitezke, baina hiru hauek hautatu dituzte argiago azaldu ahal izateko: arazo literarioak, arazo kulturalak eta ideolekto arazoak.

1. *Arazo literarioak*. Testuak –hitz edo talde linguistiko bakoitzak– duen doinuari garrantzi handia ematen diogun idazleontzat –gehienak, esango nuke–, ikaragarri zaila da metaforak, konparazioak, metate-siak... itzultzea.

Demagun metafora bat sortzen dugula “igela” hitzarekin. Gaztelaniara itzuli eta ‘rana’ topatzen dugu ezinbestean. Euskarazko hitzak kontsonante ahostun eta likidoe-kin leuntasun sentsazioa transmititzen du; gaztelaniazko hitza, ordea, gogorra da gure pertzepzioan, hasierako ‘r’ latz horrekin. Horrek, laburbilduz, metafora garrazten du... Kasu horretan egin nuena honakoa izan zen: euskarazko “igela” gaztelaniazko ‘iguana’ bihurtu. Argi dago, hala ere, beste desoreka bat sortzen dela hor: iguana askozaz pizti exotikoagoa da etxeko igela baino... Urruntasun sentsazio hori baretzeko, kasu horretan, metaforaren bigarren terminoarekin jokatu beharko genuke, esate baterako. Jolas hori baina, lehen ere hitz egin

dugu horretaz, idazleak baino ezin du egin (edo itzultzaileak idazlearen baimenarekin).

Bada beste adibide bitxi bat: *SPrako tranbia* idatzi nuenean, kapitulu guztiak zati bitan banatu nituen: “Egun argia” eta “Iluntzea”. Itzulpena egin nuenean, lehenengo ‘El día en sí’ eman nuen, baina bigarrenaren kasuan, itzultzeko errazagoa den arren, ez ninduen asetzen ‘El anochecer’ itzulpenak. Poetikoezia iruditzen zitzaidan, erabiliegia, egunaren banaketari zentzu estetikoegia ematen zion (euskaraz, ordea, eguneroko hitza da “iluntzea”; “Iluntzeko bederatzietan heltzen da egunero etxera”...). Gauza bera esateko, beraz, esaldi inozo bat bilatu nuen gaztelaniaz, konnotazio poetiko guztiak baztertzeko. Asteak pentsatzen egon eta gero, honela itzuli nuen: ‘Cuando el día empieza a dejar de ser día’ (kapituluren batean aldakiren bat ematen dut: ‘Cuando el día empieza a ser más noche que día’).

Sorpresa hartu nuen, bada, Kataluniako egunkari bateko kazetari batek honako hau idatzi zuenean: “La lengua original no siempre ha encontrado acomodo en el castellano...”. Eman zuen adibideetako bat, hara: “La peculiar manera de nombrar las diferentes partes del día, acaso en exceso dependiente de la lengua original del libro”.

2. *Arazo kulturalak* (hizkuntza eta kultura nahasten dira hemen, jakina). Nire testu batean paragrafo hau idatzi nuen euskaraz: “Erizainak barre egin zuen. Erizainak zuriz joan ohi dira ospitaleetan.” Besterik ez. Edozein irakurlek asmatuko luke jolasa “zuri” adjektiboan dagoela. Edozein euskaldunek daki zeren sinbolo den euskaraz “zuri” berba. Itzuliz gero, ordea, guztia gal-

duko litzateke. Koloreek hizkuntza (kultura) guztietan daukate esanahiren bat (edo esanahi ugari), baina oso desberdina sarritan. “Blanco” adjektiboak gaztelaniaz bestelako ezaugarriak dakarzkigu burura (araztasuna, garbitasuna, zentzu sexualean ere bai). “Las enfermeras suelen ir de blanco en los hospitales” esaldiak, beraz, euskaraz daukan gaizto puntu hori galduko luke, eta, nola ez, beste esanahi bat hartu, erabat bestelakoa. Testuaren espiritua galduko litzateke nolana ere. Azkenean honela itzuli nuen: “Las enfermeras, con esa personalidad de goma de borrar.”

Bada beste pasadizo berezi bat. Ez dago nik itzulitako testu batean baina itzulpenarekin zerikusi zuzena du. *Van't Hoffen ilea* alemanera itzuli zidatenean, bazen Klaus Klewer itzultzaileak ulertzen ez zuen pasarte bat. Halako batean, herri txiki batean, ehizatutako txoriekin ordaintzen zioten behartsuek medikuari. Klausek behin eta berriro esaten zidan ez zuela ulertzen; nik behin eta berriro azaltzen nion mezu elektronikoetan. Azkenean, hori eta bestelako zalantza batzuk argitzeko, batzar bat egitea erabaki genuen, aurrez aurre. Bera etorri zen Alemaniatik. Pasarte horri buruz hitz egin genuen, luze. Azkenean konturatu zen: jakina, Alemanian aberatsen kontua da ehi-za; dirurik ez daukan jendeak ezin du ehi-za egin. Eta hori bera zen Klausek ulertzen ez zuena... medikua ordaintzeko dirurik ez daukanak nola egingo du ehizan... Oinoharra jarri genuen azkenean.

3. Ideolekto arazoak (ez dakit, egia esan, hirugarren talde honi zein izen eman: ideolekto arazoak, psikologikoak, pertsonalak, intuitiboak...). Arrazionalki azaltzeko ata-

lik zailena da hau, baina esan dezagun zenbait pasartetan egileak ondo dakiela esaldi, aditz edo aditzondo jakin bat ez duela zuzen itzuli behar, literalki itzulita ez duela ondo ematen, ez diola jatorrizkoan zeukan espirituari eusten (narratzailearen edo pertsonaien hitz egiteko moduari ez diola eusten), baina ezin du arrazoitu.

Sarri askotan hiztunaren maniak baino ez dira, gurari neurotikoak beharbada. Euskaratik gaztelaniara itzultzen dudanean, esate baterako, lehen konjugazioko partizipioekin gertatzen zait, hau da, -ado amaiera daukatenekin. Aski ezaguna da gure artean, euskararen eraginez seguruenik neurri handi batean, -au bihurtzen ditugula guk ahoz. Eguneroko hartu-eman batean “he jugado”, “hemos cantado” eta parekoak entzuten ditugunean, oso arrotz egiten zaizkigu, lekuz kanpo. Horregatik da zaila nire pertsonaien ahotan halakoak jartzea (elkarrizketa informalean batez ere; bestela da narrazioan). Beste bide batzuk bilatzen ditut orduan...

Pertsona burutsuek esango dute ez dela gauza bera ahozko testua eta testu idatzia. Teoria denok ezagutzen dugu, baina literatura begietatik sartzen da eta begiek ematen diote indarra pertsonaia bati. Nik neuk ez badut pertsonaia esaten ari dena sinisten, irakurleak ere sumatuko du, nola ez. Bestetik, gainera, sorkuntza-motore bezala oso esker onekoa izaten da halako itzulinguruak egiten ibili behar izatea.

Beste kasu berezi bat nire lehenengo eleberraren izenburuaren itzulpena bera da. Euskaraz *SPrako tranbia* eta gaztelaniaz *Un tranvía en SP*. Itzulpen literala ‘(El) tranvía hacia SP’ izango litzateke. Nik banekien “tranvía” eta “SP” hitzek gaztelaniazko izenburuan egon behar zutela, baina zalantza

egiten nuen beste bi elementuekin. Aldatu behar nituela iruditzen zitzaidan baina ez nekien oso ondo zergatik. Mila proba egin (mila izenburu pentsatu nituen) eta hainbat aste gogoeta egiten egon eta gero, “Un” eta “en” hautatu nituen. Zergatik? Orduan arrazoitu gabe egin nuen, belarriak agintzen zidan. Gero hausnartu dut, eta azalpen posible bat topatu ere bai (behabada sail honetan sar nitzakeen adibide guztiek daukate aurkitu ez dudan azalpen sakoneko bat). Azaltzen ahaleginduko naiz.

Nik tranbia zehaztugabea nahi nuen, anonimoa. “El tranvía” emanez gero (edo “Tranvía” hutsik), tranbia bakan bati buruz ari nintzela ematen zuen, tranbia zerbaiten sinbolo. Eta ez nuen hori nahi. Horregatik “Un tranvía”. Bestetik, “hacia SP” emanez gero, ekintza iradokiko zuen izenburuak (are gehiago SP horren atzean Shisha Pangma, zortzi mila metroko mendia, dagoela

jakinda). Eta *SPrako tranbia* eleberri estati-ko da, gehiegi ere mugitu ezin den pertsonaia baten gainean eraikia. Mugimendurik gabeko izenburua nahi nuen. Horregatik *Un tranvía en SP*.



Itzulpen literarioaren ardatza, nire ustez, honakoa da: espiritu berari eustea jatorrizko testuan eta itzulpenean. Horretarako, baina, eta artikulu honetan argi geratu denez, forma bera goitik behera eraldatu behar izaten da batzuetan. Itzultzaile arrotz batek, ordea, ezin du halakorik egin (idazlearen beraren baimena ez badauka behintzat). Hori guzti hori kontuan hartuta, beti sumatu izan dut inork ezin duela idazleak berak baino itzulpen egokiagorik egin, betiere itzulpena munduko gauzarik inperfektuena dela onartuta.

Autore, traduttore

En opinión del autor Unai Elorriaga, que ha vertido hasta ahora al castellano sus propias obras, entre ellas *SPrako tranbia*, novela merecedora del Premio Nacional de Literatura en el apartado de narrativa, el eje de la traducción literaria es mantener el mismo espíritu tanto en la obra original como en la traducida. Para que así sea, sin embargo, a veces resulta preciso, como intenta aclarar a lo largo del artículo, transformar incluso la forma del escrito original. No obstante, al traductor o a la traductora no se le permite modificar el contenido (a menos que cuente con el consentimiento expreso del autor o de la autora), algo que no siempre es posible obtener (a veces, por razones obvias). Concluye afirmando que tiene la impresión de que nadie puede traducir mejor una obra literaria que la persona que la ha escrito, siempre dentro del supuesto de que la traducción es el hecho más imperfecto de la creación.

Autore, traduttore

De l'avis de l'auteur Unai Elorriaga, qui a jusqu'ici lui-même traduit en castillan ses propres oeuvres, parmi lesquelles *SPrako tranbia*, roman lauréat du Prix National de Littérature dans le domaine de la narration, l'axe de la traduction littéraire est de maintenir le même esprit dans l'oeuvre originale et dans sa version traduite. Pour qu'il en soit ainsi, cependant, il est parfois nécessaire, comme il s'efforce de le démontrer tout au long de l'article, de transformer y compris la forme de l'écrit original. Toutefois, on ne permet pas au traducteur ou à la traductrice de modifier le contenant (sauf à pouvoir compter sur le consentement explicite de l'auteur(e)), ce qu'il n'est pas toujours possible d'obtenir (parfois pour des raisons évidentes). Il conclut en affirmant qu'il a l'impression que personne ne peut mieux traduire une oeuvre littéraire que son auteur, en partant toujours du postulat que la traduction est le fait le plus imparfait de la création.

Autore, traduttore

In the opinion of author Unai Elorriaga, who has translated his own works into Spanish, including the novel, *SPrako tranbia* [*The Tram to SP*], which won the National Literature Prize in the category of narrative, the crux of literary translation is to maintain the spirit of the original work in the translation. In order for this to happen, however, it is sometimes necessary, as he attempts to clarify throughout the article, to change even the form of the original writing. Nevertheless, the translator is not permitted to change the content (unless he has the express agreement of the author), something that is not always possible to achieve (sometimes for obvious reasons). Elorriaga concludes by stating that he has the impression that no one can better translate a literary work than the person who wrote it, though always under the assumption that translation is the most imperfect aspect of creation.



Gainbehera dator dena: Chinua Acheberen *Things fall apart* eleberriaren itzulpena

ALBERTO MARTÍNEZ DE LA CUADRA

—Gizon zuriak aditzen du lurren arloan ditugun ohiturez?

—Nola adituko du gure hizkuntzaz mintzatzen ez bada?

Gainbehera dator dena, 197-198. or.

Aurten berrogeita hamar urte da *Things Fall Apart* eleberria lehenbiziko aldiz argitaratu zela. Chinua Acheberen geroagoko adierazpen hauetan laburbil daiteke zer asmo izan zuen eleberria idatzi zuenean: «gure konpromisoa Afrikaren ondare aberatsa berreskuratzea da, baita haren arrastorik txikiena ere, eta berriro marraztea afrikar historiaren lerroak, asmo txarrez eta faltsukeria lazgarritz marraztu baitituzte besteen eskuek...». Berak aitortua da, halaber, Joyce Cary irlandarraren *Mister Johnson* eleberriak (1939) bultzatu zuela, beste arrazoi batzuen artean, *Things Fall Apart* idaztera: eleberri horretako pertsonaia nagusia afrikar barregarri bat da, Johnson izenekoa, bere nagusi kolonizatzaile zuria hainbesteko mirabekeriaz gurtzen duena non pozarren onartzen baitu bere nagusiak tiroz hil dezan. 1975eko otsailean, eztabaida sutsua piztuko zuen hitzaldia eman zuen Achebek Massachusetts-eko Unibertsitatean, ondoren *An Image of Africa: Racism in Conrad's «Heart of Darkness»* izenburuaz argitaratu zena; hitzaldi hartan, arrazistatzat jo zuen *Ilunbeen bihotzean* eleberria, Joseph Conradek uko egin baitzion afrikarrak «giza adierazmen»z hornitzeari, eta hizkuntzaz ere gabetu baitzituen; Afrika «beste mundua» bezala tratatu zuen, «Europaren eta, ondorioz, zibilizazioaren antitesi bat bezala».

Gainbehera dator dena eleberrian afrikar gizarteaz marrazten den irudia, berriz, oso bestelakoa da. Ilunbeen bihotzeko basatiek gizarte konplexu eta dinamikoa osatzen dute Acheberen

liburuan. Irakurlea eleberrian aurrera egin ahala ezagutuz doa iboen lehengo justizia arauak, auzi prozedurak, gizarte eta familia errituak, ezkontza ohiturak, jakiak ekoizteko eta prestatzeko prozesuak, gobernatzeko moduak, erlijio sineste eta praktikak, eta gizonek klanean gora egiteko aukerak. Afikarren irudi horrek zalantzan jartzen ditu, beraz, afrikarrak basati primitibokiak direlako estereotipoak, eta agerian uzten afrikar gizartearen konplexutasunak eta aberastasunak.

Eleberri hau kulturalki hain markatua izatetik eta afrikar eta europar kulturen arteko urruntasunetik datozkio zailtasun asko itzulpenari, eta gehienbat zailtasun horiei lotuko naztaie artikulu honetan. Hala ere, ez da horregatik ahaztu behar kultura hurbileko hizkuntzen artean ere izaten direla itzulpen arazoak. Hain zuzen ere, zailtasun batzuk euskararen eta ingelesaren artean dauden desberdintasunen ondorio dira. Hizkuntza bakoitzak bere berezitasunak ditu eta bere esanahi berezia ematen du aditzera: esanahi lexikoei dagokienez hitzek beste hizkuntzetako beren baliokiderik hurbilenek izaten ez dituzten inplikazio eta asoziazioak izaten dituzte. Ingelesak eta euskarak ez dute modu berean hautematen mundua, eta, ondorioz, linguistikoki ez ezik kulturalki ere izaten dira desberdintasun handiak bi hizkuntzen artean. Kultura eta hizkuntzak hertsiki lotuak daude, hizkuntzek ez baitute bakarrean jarduten, baizik eta kulturen barruan, haien zati baitira, eta kulturak desberdinak dira elkarren artean. Kultura hizkuntzaren bitartez adierazten da eta, era berean, kulturak beraren adierazpidea den hizkuntza elikatzen du; horregatik, kultur esperientzia berriek hizkuntzaren baliabideak gehitzea izaten dute beharrezko.

Hizkuntzaren eta kulturaren arteko eragin-trukeak zaildu egiten du, beraz, hizkuntza batek besterako itzulpena; kasu honetan, ingelesetik euskararako itzulpena. *Things Fall Apart* eleberriaren kasuan, ordea, arazoa are korapilatsuagoa da sorburu hizkuntzaren barruan bi kultura baitaude: ingeles kultura, ingelesa delako eleberriaren bitarteko linguistikoa, eta afrikar kultura, eleberriak iboen mundu ikuskera adierazten duelako.

Norberaren kulturakoa ez den hizkuntza batean idazteak baditu ondorio jakin batzuk. Hizkuntza baten hitzunez bigarren hizkuntza bat ikasten dutenean, beren lehen hizkuntzaren jorkabide linguistikoetako batzuk transferitzeko joera izaten dute bigarren hizkuntza hori erabiltzen dutenean. Transferitze hori ohartu gabe egiten dute askotan. Herbert Igboanusi-ren arabera (2001: 55), iboak diren idazleek irakurle mota bi izan ditzakete buruan ingelesez idazten dutenean: alde batetik, ibo edo afrikar irakurleak eta, bestetik, europar irakurleak. Hortaz, beren irakurle multzo bi horietako edozeinetatik sobera ez urruntzen saiatzen dira. Europar hizkuntza —kasu honetan, ingelesa— halako eran erabiltzen dute non iboerazko esamolde eta hizkuntza baliabideak txertatzen baitituzte, nahiz eta aldi berean segurtatzen diren ingeles hizkuntzaren gramatika ez dela gehiegi desitxuratzen. Ahalegin hori kontzientea izan daiteke. Afrikar idazleek fikzioa ingelesez idazten dutenean izaten duten arazoa kultura arazoa da neurri handi batean. Gizarte baten hizkuntza bere kulturaren alderdi bat da. Afrikar idazleek ingelesera helarazi eta transferitzen dituzte afrikar indigenen kultur ñabarduretako batzuk. Hori modu eraginkorrean egin ahal izateko, jatorrizko ingelesaren egitura moldatu beharra izaten dute. Achebek dioenez (1965), fikzio idazle afrikarrek ingeles hizkuntza aldarazi behar dute

afrikar testuinguruak adierazteko gauza izan dadin. Gogoeta horren ondorio den ingelesak «berria» izan behar du afrikar idazlearen esperientziaren zama eraman ahal izateko.

Gainbehera dator dena eleberria itzultzeko proiektua EIZIEk sustatutako «Literatura Unibertsala» bildumaren barruan gauzatu da¹. Itzulpena zuzenean ingelesetik egina dago eta *Things Fall Apart* liburuaren Penguin Classics bildumako testua (Achebe 2001) erabili nuen horretarako². Sorburu testua euskarara ekartzeko moduari buruz zalantzarik izaten nuenean eta, batik bat, sorburu testuko kultura elementuak xede testuan nola txerta nitzakeen jakiteko arrastoren bat bilatu nahi nuenean, ingelesezko testuaz gainera, frantsesezko itzulpena (Achebe 1972), katalanezkoa (Achebe 2000) eta gaztelaniazko bi (Achebe 1986 eta 1997) ere erabili nituen. Artikulu honetan, itzulpen testu horietako pasarte batzuk ezarriko ditut sorburu testuaren eta euskarazko testuaren ondoren, itzulpenean egindako hautuak hobeto azaltzeko. Pasarte horietako bakoitzaren ondoan, itzulpenari dagokion izenburua eta pasarteak aurkitzen den orri zenbakia zehaztuko ditut parentesi artean.

Jatorrizko testuaz gainera, beste itzulpen batzuk kontsultatzeko modua izatea lagungarri gerta daiteke sorburu testuaren edizio batzuetan izaten diren akats eta hutsuneak agerian uzteko. Neuri, behintzat, hala gertatu zait. Pasarte batean itzulpen batzuen testua ez zetorren bat itzulpena egiteko erabili nuen ingelesezko edizioaren testuarekin (Penguin, 2001), ezta esku artean izan nuen beste edizioaren testuarekin ere (Heinemann, 2000), ingelesezko ediziook ez zekarten testu zati bat zekartelako beste itzulpen horiek. Bederatzigarren kapituluan, herririkako jendeak uste du Okonkworen alaba, Ezinma, *ogbanjea* dela; hau da, espiritu gaizto baten mende erori den ume bat, hil ondoren ume gorputza utzi eta amaren sabelean sartzen dena hurrengo umearen gorputzarekin berriro jaiotzeko. Orduan, Okagbue azitia neskarengana doa aitortarazi nahi baitio non dagoen ehortzia bere *iyi-uwa*; *iyi-uwa* delakoa *ogbanjearen* eta espirituen munduaren arteko lotura eratzen duen harri berezi bat da eta, harri hori aurkitu edo deuseztatzen ez bada, *ogbanjea* babestua dago eta, ondorioz, hil daiteke umea. Nik erabilitako edizioetan, honela hasten da aztiaren eta Ezinmaren arteko elkarrizketa:

‘Where did you bury your *iyi-uwa*?’ she asked in return. (*Things Fall Apart*: 59)

Baina *she asked in return* horrek ez du zentzurik, elkarrizketa galdera horrekin hasten delako eta aurretik ez zaiolako beste ezer galdetu. Eskura izan nituen itzulpenetan, honela eman zen pasarte hori:

-
1. Aipatu beharra dago aurretik ere bazela Chinua Acheberen eleberri honen bertsio bat euskaraz, 1991n argitaratua. 1974an, John Bayk *Things Fall Apart* liburuaren bertsio bat egin zuen ingeles errazean Heinemann Guided Readers bildumarako. J. A. Mujikak ingelesezko bertsio hori euskaratu zuen eta *Kitto dena!* izenburuaz argitaratu zen Elkarlanean-en, Irakurmendi sailen. *Gainbehera dator dena* eleberria itzultzeko, halere, ez nuen bertsio laburtu hori kontuan hartu.
 2. Esku artean beste edizio bat ere izan nuen, Heinemann argitaletxearena (Achebe 2000); edizio horretatik, sarrera gisa erantsitako testuak erabili nituen, beste testu batzuen artean, *Gainbehera dator dena* liburuaren sarrera idazteko. Simon Gikandiren «Chinua Achebe and the Invention of African Literature» eta Don Ohadikeren «Igbo Culture and History» dira Heinemann edizioko testuok. Iboen historia eta kultura testuingurua hobeto ulertu nahi duenak Ohadikeren sarreran aurkituko ditu argibide asko.

— Où as-tu enterré ton *iyi-uwa*? avait demandé Okagbue à Ezinma. Elle avait neuf ans alors et se remettait à peine d'une grave maladie.

— Qu'est-ce qu'un *iyi-uwa*? Demanda-t-elle en retour. (*Le monde s'effondre*: 99-100)

—¿On has enterrat el teu *iyi-uwa*? —va preguntar Okagbue a Ezinma, que aleshores tot just tenia nou anys i s'estava recuperant d'una greu malaltia.

—¿Què és un *iyi-uwa*? —va preguntar ella al seu torn. (*Tot se'n va en orris*: 86)

—¿Dónde enterraste tu *iyi-uwa*? —había preguntado Okagbue a Ezinma. Entonces ésta tenía nueve años y acababa de recuperarse de una grave enfermedad.

—¿Qué es *iyi-uwa*? —preguntó en respuesta. (*Todo se derrumba*: 84)

—¿Dónde enterraste tu *iyi-uwa*? —dijo la niña como respuesta cuando le preguntaron. (*Todo se desmorona*: 86)

Azkeneko itzulpen horretako testua bat dator nik esku artean neuzkan ingelesezko edizio bietako testuarekin; beste itzulpenetan, ordea, bi galdera daude eta bi pertsonaia dira, bata bes-tearen ondoren, galderak egiten dituztenak. Zentzu aldetik ere egokiagoak dira beste itzulpen horiek. Azkenean, nire ustez osoagoa zen pasarte hori zeukan ingelesezko edizio bat bilatu behar izan nuen eta Anchor Books argitaletxearen edizioan (1994) aurkitu nuen:

“Where did you bury your *iyi-uwa*?” Okagbue had asked Ezinma. She was nine then and was just recovering from a serious illness.

“What is *iyi-uwa*?” she asked in return.

Ingelesezko edizioaren huts horrek eraman zuen *Todo se desmoronaren* itzultzailea hutsa errepikatzen eta testuaren barne logika hausten duen testu zati bat idaztera. Urte batzuk geroago, Patricia Martínek *Estudio y análisis de dos traducciones de Things Fall Apart: vertientes lingüísticas y culturales* izeneko tesia egin zuen ingelesezko edizioa eta gaztelaniazko bi itzulpenak elkarrekin alderatuz, eta huts berean erori zen testuari galdera bat gehitzea egotzi baitzion 1986ko itzulpenaren (*Todo se derrumba*) egile Fernández Santosi; hutsa, ordea, berak erabilitako ingelesezko edizioan eta Álvarez Flórezzen itzulpenean zegoen. Hona hemen Patricia Martínen tesiko pasarte hori:

Como podemos apreciar, en la traducción de 1986 el traductor decide variar el fragmento añadiendo una pregunta. En el original, un brujo está preguntando a la hija de Okonkwo, Ezinma, dónde ha enterrado su *iyi-uwa*, respondiendo la niña con una pregunta al brujo preguntándole lo mismo. En cambio, el traductor decide añadir una pregunta directa acerca de qué es *iyi-uwa* formulada por la niña, mientras que pone en la boca del brujo la pregunta que en el original realiza Ezinma. (2006: 113)

Pasarte honen euskarazko itzulpena Anchor Books argitaletxearen 1994ko ediziotik egin nuen, beraz. Honako hau da:

—Non ehortzi zenuen zeure *iyi-uwa*? —galdetu zion Okagbuek Ezinmari. Orduan bederatziru zituen eta suspertzen ari zen eritasun larri baten ondoren.

—Zer da *iyi-uwa*? —galdetu zuen Ezinmak erantzun moduan. (*Gainbehera dator dena*: 109)

Beste itzulpen batzuk esku artean izatea lagungarria bada ere, itzultzaileak kontu handia ipini behar du, okerbidera ere eraman baitezakete batzuetan. Esate baterako, liburuko lehen paragrafoan kontatzen da nola Okonkwok, hemezortzi urte besterik ez zuela, lurrera egotzi zuen Amalinze *Katua* borrokalaria handia. Paragrafo horren azken esaldia honako hau da ingelesezko testuan eta haren euskarazko itzulpenean:

It was this man that Okonkwo threw in a fight which the old men agreed was one of the fiercest since the founder of their town engaged a spirit of the wild for seven days and seven nights. (*Things Fall Apart*: 3)

Okonkwok gizon hori lurreratu zuen, beraz, borrokaldi batean, zeina zaharrak bat etortzen baitziren gogorrenetako bat izan zela herriaren fundatzaileak oihaneko espiritu batekin zazpi egunetz eta zazpi gauetz borrokan jardun zuenetik. (*Gainbehera dator dena*: 39)

Beste itzulpenetan honela azaldu zen pasarte hori:

Ce fut cet homme qu'Okonkwo terrassa dans une lutte dont les vieux s'accordèrent à dire que c'était une des plus acharnées depuis que le fondateur de leur ville s'était attaqué à un esprit de la brousse et l'avait affronté pendant sept jours et sept nuits. (*Le Monde s'effondre*: 3)

Fins que un dia Okonkwo el va tombar en una lluita que els més vells no van dubtar a considerar la més ferotge des que el fundador del poble havia retingut un esperit salvatge durant set dies i set nits. (*Tot se'n va en orris*: 11)

Ese era el hombre al que derribó Okonkwo en una pelea que los ancianos convenía había sido la más dura desde que el fundador de su pueblo combatió siete días y siete noches con un genio de la espesura. (*Todo se derrumba*: 16)

Okonkwo había derribado precisamente a aquel hombre en un combate que el viejo reconocía que había sido uno de los más fieros desde que el fundador de su poblado había luchado durante siete días y siete noches. (*Todo se desmorona*: 11)

Frantsesezko testuan, aditz bat (*engaged*) eta hari dagokion perpausa itzultzeko, bi aditz eta bi perpaus erabiltzen dira: *le fondateur de leur ville s'était attaqué à un esprit de la brousse et l'avait affronté pendant sept jours et sept nuits*. Katalanezko testuan, alde batetik, sorburu testuan ez dagoen zati bat gehitzen du (*Fins que un dia*) eta, bestetik, gaizki itzultzen du *one of the fiercest* zatia, *la més ferotge* ematen baitu. Azkeneko huts hori bera egiten da *Todo se derrumba* gaztelaniazko testuan: *la más dura*. Gaztelaniazko beste testuan, sorburu testuko *the old men* sintagma gaizki itzulua dago, *el viejo* itzuli baita.

Askotan sasi-adiskideak izaten dira itzultzailea okerbideratzen dutenak. Sasi-adiskideak deitzen zaie hizkuntza desberdinetan, erro bera edo antz handia izan arren, esanahian alde nabaria duten hitzei. Bederatzigarren kapituluko ondorengo esaldi honen itzulpen batzuetan ikus daitezke horrelako huts batzuk:

He was light in complexion and his eyes were red and fiery. (*Things Fall Apart*: 57)

Azal argikoa zen eta haren begiak gorri eta biziak ziren. (*Gainbehera dator dena*: 107)

Son teint était clair et ses yeurs rouges et flamboyants. (*Le Monde s'effondre*: 96)

Era de complexió lleugera i tenia los ojos enrojados y fieros. (*Tot se'n va en orris*: 84)

Tenía la piel clara y los ojos rojos y ardientes. (*Todo se derrumba*: 82)
 Era de constitución frágil y tenía los ojos enrojecidos y fieros. (*Todo se desmorona*: 84)

Katalanezko testuan eta *Todo se desmorona* gaztelaniazkoan itzultzaileek gaizki itzuli dute *complexion* hitza, ziur aski katalanezko *complexió* hitzarekin eta gaztelaniazko *complexion* hitzarekin duen antzogatik, eta horren ondorioz, gaizki interpretatu dute ondoren *light* hitzaren esanahia.

Things Fall Apart eleberria itzultzen duenari batzuetan iruditu dakioke ez ote den itzultzen ari dagoeneko itzulpen prozesu batetik igaro den testu bat; izan ere, iboera ez den hizkuntza baten bitartez heltzen zaizkio ibo herriaren kultur elementu eta kontzeptu asko. Europar hizkuntzetan idazten duten afrikar idazleek beren afrikar esperientzietatik eta eremu indigenatik hautatzen dituzte fikzio lanen gaiak, eta Pamela J. Olabunmi Smith-ek (2001) «itzulsormena» deitzen duen prozesua erabiltzen dute horretarako. «Itzulsormena» (*transcreative*) terminoa «itzulpena» (*translation*) eta «sormena» (*creation*) terminoetatik eratorria da eta aditzera ematen ditu afrikar idazleek erabiltzen duten sormen prozesu eleaniztunaren funtsa eta transkripzio prozesuaren azken emaitza.

«Itzulsormenak» inplikatzeko du afrikar idazleak nahitaez itzultzaileak direla: sortu ahala itzuli egiten dute. Itzultze/sortze egintzaren aldiberekotasuna kultura indigenen (mailegatzeko diren gai, pentsamendu eta ideiak) eta bakoitzari dagozkion Mendebaldeko kultura/hizkuntzen (kultura indigenak haietara bihurtzea) arteko elkarketa puntua da.

Paul F. Bandiak «Translation as Culture Transfer: Evidence from African Creative Writing» artikuluan (1993) adierazitakoaren arabera, afrikar sorkuntza lanak itzultzea «transposizio» prozesu bikoitza da: itzulpenaren lehen mailan, afrikar idazleak afrikar pentsamendua iraultzen du europar hizkuntza batera; itzulpenaren bigarren mailan, itzultzaileak europar hizkuntza batetik beste batera iraultzen du afrikar pentsamendua. Itzulpenaren lehen mailak europar hizkuntzaren afrikar aldaera bat sortzen du eta hizkuntza ez estandar deitutakoak sortzen dizkion arazoez arduratzea da itzultzailearen zeregina. Itzulpenaren bigarren mailan, hizkuntzarteko itzulpen prozesuaz gainera intersemiotikoaz ere arduratu beharra dago; izan ere, ahozko afrikar narratibaren eduki eta forma ezaugarriak funtsezkoak dira xede hizkuntza idatzian esanahia osorik irudikatzen. Zatiak handienez, afrikar autoreak atzemanak ditu afrikar edukia eta forma, idazten duen europar hizkuntzan. Itzultzaileak afrikar eduki hori eta forma hori irauli behar ditu xede hizkuntzara.

Itzulpenaren lehen maila

Itzulpenaren lehen maila honetan, idazlea da afrikar pentsamendua ingelesera «itzultzen» duena. Mendebaldeko Afrikaren kolonizazio osteko idazle askok «indigenatu» egiten dute erabiltzen duten europar hizkuntza, adierazi nahi duten afrikar errealitatera makurrarazten baitute hizkuntza hori. Testua indigenatuz, idazlea saiatzeko da testuan hizkuntz bereizkuntza ageriarazten eta afrikar kontzeptuak, pentsatzeko moduak eta hizkuntz bereizitasunak aditzera ematen kolonizatzaile ohiaren hizkuntzaren bitartez. Ondorioz, hizkuntza eurofonoek beren

hizkuntz eta erreferentzi egituran sartzen dituzte Mendebaldeko Afrikako hizkuntza autoktonoak.

Chantal Zabus-ek *The African Palimpsest: Indigenization of Language in the West African Europhone Novel* (2007) liburuan azaltzen duenez, Mendebaldeko Afrikako fikzio idazleek estrategiak landu dituzte beren testuetan europar hizkuntzen diskurtso hegemonia azpikoz gora iraultzeko; horretarako, indigenatu egiten dituzte europar hizkuntzak, eta gudu egiten dute idazte arloan hizkuntza horien aurka. Hizkuntza politika kolonialek baztertu zituzten afrikar hizkuntzak birgaitzeko ahalegina da nolabait.

Indigenatzearen lehenbiziko urratsa birlexifikatze semantikoa edo sintaktikoa da. Chinua Achebe, Ayi Kwei Armah eta Aminata Sow Fall bezalako idazleek iboeratik, fantitik eta wolofetik birlexifikatu dute, hurrenez hurren, europar exolektoa. Birlexifikatzea deskolonizatzeo estrategia bat da, baina ez da nahasi behar kalkoarekin, berau bigarren hizkuntzaren jabetze eskas edo gutxi gorabeherako baten ondorio baita. Edozein kasutan ere, ulertu beharra dago, birlexifikatzea estrategia subertsiboa izan arren, oraindik oinarritzen dela europar hizkuntza afrikar kultura adieraztera irits daitekeelako premisan. Baina testu birlexifikatuan dauden afrikar hizkuntzaren ezkutuko zantzuak ama hizkuntzaren ageriko zantzuekin ere izaten dira lehian batzuetan: «kulturalki markatutako objektu edo gertaerak deskribatzen dituzten afrikar hitzak edo esaldiak gardenki adierazi (itzuli edo birlexifikatu) ezin direnean europar testuan, idazlea «bigungarriak jartzeko» (*cushioning*) edo «kontestualizatzeo» (*contextualizing*) metodoez baliatzen da» (Zabus: 2007).

Afrikar hitz edo esaldi bati «bigungarriak» jartzen zaizkio esplikazio hitz edo esaldi bat gehitzen zaionean xede hizkuntzan. Kontzeptua testuaren barruan itzultzen da, beraz. Hona hemen Chinua Acheberen eleberriko adibide bat:

His own hut, or obi, stood immediately behind the only gate in the red walls. (*Things Fall Apart*: 11)

Haren etxola, edo obia, horma gorrietan irekitako sarbide bakarraren ondo-ondoan zegoen. (*Gainbehera dator dena*: 49)

Obi mailegu bat da, familia buruaren etxea edo gonbidatuak hartzen dituen etxearen zatia esan nahi duena. Ingeleseztako kalkoak afrikar hitzaren irudikapen lauso bat ematen du, ezau-garririk orokorrenak; ez du xehetasun handirik ematen. Nahiz eta metodo honek, muturretarra eramaten bada, testuaren esanahia murriz dezakeen, eragingorra da kulturalki nahasgarri den erabilera saihesteko eta glosategi luzeegiak eta oinaldeko oharrak erabili beharrik ez izateko. Adibide asko daude eleberrri osoan:

The elders, or ndichie, met to hear a report of Okonkwo's mission. (*Things Fall Apart*: 51)
Zaharrak, edo ndichieak, Okonkworen misioaren kronika entzuteko bildu ziren. (*Gainbehera dator dena*: 48)

He even remembered how he had laughed when Ikemefuna told him that the proper name for a corn-cob with only a few scattered grains was eze-agadi-nwayi, or the teeth of an old woman. (*Things Fall Apart*: 26)

Gogoan zuen baita ere nolako barreak egin zituen, Ikemefunak kontatu zionean ale gutxiko artaburuaren izen egokia eze-agadi-nwayi zela, atsoaren hortzak alegia. (*Gainbehera dator dena*: 68)

On her arms were red and yellow bangles, and on her waist four or five rows of jigida, or waist-beads. (*Things Fall Apart*: 51)

Besoetan besoko gorri eta horiak zeuzkan eta gerrian lau edo bost jigida erreskada, gerriko gir-gileria. (*Gainbehera dator dena*: 100)

None of them was a man of title. They were mostly the kind of people that were called efulefu, worthless, empty men. The imagery of an efulefu in the language of the clan was a man who sold his matchet and wore the sheath to battle. (*Things Fall Apart*: 105)

Inor ez zen tituluduna. Batik bat efulefu deitzen zuten pertsona klasekoak ziren, gizon geldo ez-deusak. Klanaren hizkuntzan, efulefu baten irudikapena gizon bat izaten zen, aihotza saldu eta gudura zorro hutsarekin zihoana. (*Gainbehera dator dena*: 166)

Azalpena ematen denean, esaldi baten luzera har dezake:

This man told him that the child was an ogbanje, one of those wicked children who, when they died, entered their mother's wombs to be born again. (*Things Fall Apart*: 57)

Gizon horrek esan zion haurra ogbanje bat zela, hil ondoren berriz jaiotzeko beren amaren sabelera itzultzen ziren haur gaizto haietariko bat. (*Gainbehera dator dena*: 106)

Ogbanje terminoak «etorri eta joan» egiten dena esan nahi du hitzez hitz. Mitologia sines-teek eta tradiziozko jakituriak oso markatua dagoen terminoa da. Achebe ohartua zegoen, terminoaren esplikazio itzulpenik egiten bazuen, ez ziola laguntza handirik emango iboa ez den irakurleari. Hortaz, terminoaren ondoren, testuaren barruko esplikazio bat prestatu zuen, ibo-ar eta, ondorioz, afrikar mitologiaren gai konplexu honi buruzko zenbait argibide ematen hasi besterik egingo ez duena.

Kasuren batean, kalkoa eta azalpena, biak ematen dira:

It came from the direction of the ilo, the village playground. Every village had its own ilo which was as old as the village itself and where all the great ceremonies and dances took place. (*Things Fall Apart*: 31)

Iloa edo herrixkako zelaia zegoen aldetik zetorren. Herrixka bakoitzak bazuen bere iloa, herria bera bezain zaharra, zeinetan egiten baitziren zeremonia eta dantza garrantzitsu guztiak. (*Gainbehera dator dena*: 75)

Kontestualizatzeko teknikan, berriz, afrikar hitzak deskodetu daitezkeen eremu semantiko baten barruan sartzen dira. Inguruko hitz edo pasarteetan ematen diren azalpenak aski izaten dira, itzulpenik gabe, ulergarri gertatzeko. Hitz indigena aura batez inguratzen da, irakurlea iragarpen joko halako batean sartzen duten testuinguru eremuak ematen dira hitz indigenaren in-

guruan. Hitzak duen esanahiaren inguruko espekulazioak definizioa eman arte irauten du. Besteak beste, honako adibide hauek aurki daitezke *Gainbehera dator dena* eleberrian:

Even as a little boy he had resented his father's failure and weakness, and even now he still remembered how he had suffered when a playmate had told him that his father was *agbala*. That was how Okonkwo first came to know that *agbala* was not only another name for a woman, it could also mean a man who had taken no title. (*Things Fall Apart*: 11)

Mutil koskorra zenean ere, aitaren porrota eta ahulezia gaitzituak zitzaizkion, eta orain ere gogoan zuen nola mindu zen jolaskide batek aita *agbala* zela esan zionean. Horrela jakin zuen, lehenengoz, *agbala* emakume esateko beste izen bat baino zerbait gehiago zela, titulurik eskuratu gabeko gizona ere adieraz zezakeela. (*Gainbehera dator dena*: 49)

You carve a piece of wood - like that one' (he pointed at the rafters from which Akunna's carved *Ikenga* hung), 'and you call it a god. (*Things Fall Apart*: 131)

Zur puska bat zizelkatzen duzue, halako bat —Akunnaren *Ikenga* zizelkatua esekita zegoen ha-beak seinlatu zituen—, eta jainko esaten diozue. (*Gainbehera dator dena*: 200)

Hala ere, beste kasu batzuetan ez da inolako azalpenik ematen:

For many market weeks nothing else happened. They have a big market in Abame on every other *Afo* day and, as you know, the whole clan gathers there. (*Things Fall Apart*: 102)

Merkatu aste asko igaro ziren ezer gertatu gabe. *Afo* egun bitik batean merkatu handia izaten dute Abamen, eta, dakizuen bezala, han biltzen da klan osoa. (*Gainbehera dator dena*: 162)

He could hear in his mind's ear the blood-stirring and intricate rhythms of the *ekwe* and the *udu* and the *ogene*, and he could hear his own flute weaving in and out of them, decorating them with a colourful and plaintive tune. (*Things Fall Apart*: 5)

Bere gogoan entzun zitzakeen *ekwe*, *udu* eta *ogeenen* erritmo zirrargarri eta katramilatua, eta entzun zezakeen, halaber, nola bere txirularen soinua erritmo horiekin bilbatu eta doinu koloretsu eta auhenezko batez apaintzen zituen. (*Gainbehera dator dena*: 42)

'It is *iba*,' said Okonkwo as he took his matchet and went into the bush to collect the leaves and grasses and barks of trees that went into making the medicine for *iba*. (*Things Fall Apart*: 5)

—*Iba* da —esan zuen Okonkwok, eta, aihotza harturik, basora joan zen *ibaren* sendagaia egiteko behar ziren hosto, belar eta zuhaitz azalak biltzera. (*Gainbehera dator dena*: 105)

Teknika biak afrikar kultura bere berezitasun etno-linguistikoa adierazte ideologikoari lotuak daude. Afrikar eleberraren europar hizkuntzak «besterentzeko» ahalegin horretan, estrategia erradikalagoa da glosei, bigungarriei eta kontestualizatzei uko egitea. Orduan, irakurlea testuaren kultur zeruertzez arduratzera behartua dago, lortu nahi badu eleberria bere osotasunean ulertzea.

Itzulpenaren bigarren maila

Horago aipatu dudanez, itzulpenaren lehen mailan, idazlea da afrikar pentsamendua ingelesera «itzultzen» duena. Bigarren maila honetan, berriz, itzultzailea da afrikar idazleak ingele-

sera «itzulia» beste europar hizkuntza batera itzultzen duena. Itzultzaileak, beraz, ingelesez idatzitako testu bat itzuli behar du euskarara lehenik; baina hizkuntza eta kultura elkarri lotuak daudela onartzen badugu, ingeles hizkuntzari atxikitako ingeles kultura ere itzuli beharra du. Orobat, afrikar idazleak ingelesera ekarritako afrikar kultura ere itzuli behar du; baina afrikar idazleak erabilitako ingelesa afrikar kulturaz zamatua ez ezik afrikar hitzez, atsotitzez, mitoez, hizkuntza erritmoez, kontzeptuez betea ere badago. Kanpoko kultura batek hain markatua dagoen eleberri bat itzultzearen arazoetako batzuk kultura erreferenteak dira.

Kultura erreferenteak

Kultura erreferenteak testu elementu batzuk dira, hitzezkoak nahiz ez-hitzezkoak, sorburu kultura batean kultura zama batez edo konotazio berezi batzuek hornituak daudenak eta beste kultura batera aldatzean transferentziarik ez edo sorburukoaren desberdina den transferentzia eragin dezaketenak.

Eleberri honetako kultura marka edo erreferente asko ekologia arlokoak dira. Eleberria geografía eremu jakin batean dago kokatua, eta ingurune fisikoa oso bereizgarria da. Ondorioz, haizeen, landarediaren, faunaren eta geografiaren esparruetakoak diren kultura markek tokiko kolorea eta adierazkortasuna ematen dizkiote eleberriari. Elementu horietako asko ezezagunak dira xede hizkuntzaren kulturaren. Ondoren bakarren batzuk aipatuko ditut. Adibideetan, sorburu testuko eta euskarazko testuko pasarteek gainera, frantsesezko, katalanezko eta gaztelaniazko bi testuetako pasarteak aipatuko ditut, hurrenkera horretan. Parentesi artean, testuari dagoen edizioiko izenburua eta pasartea agertzen den orria zehaztuko dira.

harmattan. Harmattan haizea ipar-ekialdetik edo ekialdetik jotzen duen haize lehorra da Mendebaldeko Afrikan. Saharatik Gineako golgora joan ohi da eta hautsa eraman ohi du. Berezi-ki, azaroaren amaieratik martxoaren erdialdera bitartean jotzen du. Sei aldiz agertzen da eleberriaren lehen zatian. Lehenengo agerpenean, harmattan izena ageri da, beste azalpenik gabe:

That was many years ago, twenty years or more, and during this time Okonkwo's fame had grown like a bush-fire in the harmattan. (*Things Fall Apart*: 3)

Urte asko ziren hori gertatu zela, hogeitau urte edo gehiago, eta harrezkero gehiago hazi zen Okonkworen ospea, hala nola basoko sua harmattanarekin. (*Gainbehera dator dena*: 39)

(...) comme un feu de brousse sous l'harmattan. (*Le monde s'effondre*: 10)

(...) com un foc empès per l'aire sec del harmattan. (*Tot se'n va en orris*: 11)

(...) como un incendio en el bosque cuando sopla el harmatán. (*Todo se desmorona*: 12)

(...) como un fuego de sábana durante el harmattan. (*Todo se derrumba*: 15)

Euskaraz letra zuzenez eman nuen, ingelesez bezala, eta hitz arrunt gisa deklinaturik. Frantses eta katalan bertsoetan eta gaztelaniazko bertsoetako batean letra zuzena erabili da; gaztelaniazko bertso horretan transkripzioa jo da: harmatán. Gaztelaniazko beste bertsoan, letra etzana erabili da, nahiz eta hitzaren hurrengo agerpenetan letra zuzena erabili den. Katalan bertsoaren kasuan, jatorrizko testuan ez dagoen zerbait gehitu du (l'aire sec del), nahiz eta infor-

mazio hori bi paragrafo beherago arte ez zen eman jatorrizkoan:

And it not was not too hot either, because the cold and dry harmattan wind was blowing down from the north. Some years the harmattan was very severe and a dense haze hung on the atmosphere. (*Things Fall Apart*: 4)

Eta bero handiegirik ere ez zuen egiten, harmattan haize hotz eta lehorrak jotzen baitzuen iparraldetik. Urte batzuetan, harmattan haizea oso gogorra izaten zen eta gandu trinko bat zabaltzen zen atmosferan. (*Gainbehera dator dena*: 40-41)

Euskarazko testu itzulietan, erreferentzia bat baino ez dut aurkitu. Iñaki Iñurrietak James George Frazer-en *Urrezko Abarra* liburuari egindako itzulpenean, honela idatzi zuen:

Berari leporatzen zaio euria emateko edo gordetzeko ahalmena, eta haizeen jauna da, baita Harmattan delakoarena ere, barrualdetik jotzen duen haize lehor beroarena.

Landarediari dagokionez, izen guztiak letra zuzenez idaztea izan da irizpide nagusia, izena jatorriz indigena izan arren.

iroko. «Iroko» (*Chlorophora excelsa*) Afrikako arbola mota bat da, 50 m-ko garaiera izan dezakeena. Bertsio guztietan letra zuzenez idatzi da eta euskarazkoan ere halaxe idatzi dut.

udala. «Udala» (*Chrysophyllum albidum*) letra etzanez idatzi da katalanezko eta *Todo se desmorona* itzulpenetan, eta letra zuzenez beste guztietan. Aurreko kasuan bezala letra zuzenez idatzi dut.

silk-cotton tree. «Silk-cotton» tree delakoa (*Ceiba pentandra*) «cotonier» itzuli da frantsesez, «ceiba» katalanez, «ceiba» gaztelaniaz (1997) eta «bómbax» gaztelaniaz (1986). Kasu guztietan letra zuzenez idatzi da. Euskaraz, kapok itzuli dut. Bombax generoko zuhaitz handi tropikala (*Bombax* eta *Ceiba* generokoa) da, hazien inguruan fruitu kapsularrak dituen bixar leunekin. Acheberen eleberrian, kapok zuhaitza gurtu egiten da oraindik jaio ez diren ume onen espirituak dauzkalako: «Haien atzean, kapok zuhaitz handi eta zaharra zegoen, zeina sakratua baitzen. Zuhaitz horretan haur onen spirituak bizi ziren, noiz jaioko zain. Egun normaletan, haurdun gelditu nahi zuten emakume gazteak esertzen ziren haren abaroen».

plantain. «Plantain» delakoa (*Musa paradisiaca*) banana familiaren (Musaceae) landarea da, banana arruntari (*M. sapientum*) estu lotua dagoena. Erreta jaten da.

On the third day he asked his second wife, Ekwefi, to roast some plantains for him. (*Things Fall Apart*: 46)

Hirugarren egunean, banana batzuk erretzeko eskatu zion bere bigarren emazte Ekwefiri. (*Gainbehera dator dena*: 93)

Le troisième jour, il demanda à sa seconde femme, Ekwefi, de lui rôtir des bananes à cuire. (*Le monde s'effondre*: 79)

El tercer día va demanar a la seva segona dona, Ekwefi, que li rostís uns quants plàtans. (*Tot se'n va en orris*: 79)

Al tercer día pidió a su segunda esposa, Ekwefi, que le asase unos plátanos. (*Todo se desmorona*: 69)
 El tercer día pidió a Ekwefi, su segunda esposa, que le asara unos plátanos. (*Todo se derrumba*: 68)

Euskaltermek «banana» ematen du *Musa paradisiaca* adierazteko. Beraz, «banana» idatzit dut, nahiz eta beste aukera bat zen, frantsesaren ildotik («bananes à cuire»), «erretzeko banana» idaztea. Hala ere, aukera hori baztertu nuen testuinguruak berak argitzen duelako erretzekoak direla, eta bitan ageriko zelako «erretzeko» hitza.

alligator pepper. «Alligator pepper» delakoa (*Aframomum melegueta*) Afrikako zuhaixka baten fruitu marroi txiki bat da; zuhaixka horren hazi idorrak piperbeltz beltzaren antzekoak dira; *offea* ere esaten zaio. Haziak xehatu eta kola intxaurrekin nahastu daitezke bisitarien ongietorri erritualean. Beste itzulpenetan honela itzuli da:

alligator pepper (*Things Fall Apart*: 5); piment d'alligator (*Le monde s'effondre*: 12); pebre de cocodril (*Tot se'n va en orris*: 13); pimiento de cocodrilo (*Todo se desmorona*: 13); cubeba (*Todo se derrumba*: 17).

Euskaraz, 'Melegueta piperbeltz' itzuli nuen Elhuyarreko Alfontso Mujikaren argibideei jarraiturik eta Wikipedia entziklopediaren definizio honetan oinarriturik:

Aframomum melegueta is a species in the ginger family, Zingiberaceae. It is commonly known as **Guinea pepper**, **Melegueta pepper**, **alligator pepper** and **Guinea grains**. **Grains of paradise**, a West African spice that gives a pungent, peppery flavor, is obtained from this plant. It is a herbaceous perennial plant native to swampy habitats along the West African coast. Its trumpet-shaped, purple flowers develop into 5 to 7 cm long pods containing numerous small, reddish-brown seeds.

coco-yam. Taro landarearen (*Colocasia esculenta*) tuberkulua da, esfera formakoa, jateko on dena; tropikoetan hazten da eta patatak bezala jaten da, irin bihurtzeko ehotzen da, ore egiteko prestatzen da edo garagardoa egiteko hartzitzen da. Hemen, taro biribila (emakumezkoen uzta) ñame luzanga (gizonezkoen uzta) ez bezalako tuberkulua da.

At last Sky was moved to pity, and he gave to Vulture rain wrapped in leaves of coco-yam. (*Things Fall Apart*: 39)

Azkenean, Zerua errukitu eta euria eman zion Saiari taro hostoetan bildurik. (*Gainbehera dator dena*: 84)

(...) enveloppée dans des feuilles d'igname. (*Le monde s'effondre*: 69)

(...) embolicada en fulles de malanga. (*Tot se'n va en orris*: 60)

(...) envuelta en hojas de malanga. (*Todo se desmorona*: 60)

(...) envuelta en hojas de coco-ñame. (*Todo se derrumba*: 59)

kola nut. Ingelesez *kola nut* esaten zaiona kolaren hazia da. Kola Afrikako zuhaitz mota bat da. Haziak kafeina du eta estraktu bat ateratzen da hartatik; bizitasuna irudikatzen du eta gonbidatuei adeitasunezko ahamentzat eskaintzen zaie abegi egiteko, sarritan Melegueta piperbeltza-

rekin batera. Alfontso Mujikaren (Elhuyar) arabera, *Cola nitida* eta *Cola acuminata* espezieak dira. Honela ageri dira testuetan:

kola nut (*Things Fall Apart*: 5); noix de cola (*Le monde s'effondre*: 12); nou de cola (*Tot se'n va en orris*: 13); nuez de cola (*Todo se desmorona*: 13); nuez de cola (*Todo se derrumba*: 17).

Alfontso Mujikak adierazi zidanez, *Botanika hiztegian* «hur» hautatu zuten *nuez de coco*, *nuez de areca*, *nuez de burí*, *nuez de nipa* eta *nuez moscada* adierazteko, eta, ondorioz, «kola-hur» ageri da Euskaltermen, nahiz eta gero «intxaur muskatua» eman. Euskarara itzulitako literatura lan batzuetan, berriz, «kola-intxaur» hautatu zen ondoren ikus daitekeen bezala:

Buruzagi bakoitzak sei ñame ekartzen ditu, eta palma-hostoen abarrak moztu eta bere ate aurrean ipintzen ditu, hiru ñame erre eta kola-intxaur batzuk eta arraina jirartzen ditu. (FRAZER J. G., *Urrezko Abarra II*, Itz.: Iñaki Iñurrieta)

[...] eta beste imajina bat ikusi genuen, kola-intxaurrez betetako saskikada bat zeukana aurrean, orduan nik kola-intxaur haietako bat hartu nuen [...]. (TUTUOLA A. [1993], *Mozkor bat sasi-rik sasi*, Itz.: Maria Garikano. Iruñea, Pamiela)

Azkenean, literaturan hartutako bidetik jotzea erabaki nuen eta «kola intxaur» eman nuen.

sisal. Kaktus landare mota bat da (*Agave sisalana*), hosto handi, mamitsu eta arantzadunak dituen. *Harluxet* hiztegiak «agabe» ematen du agabazoen familiako eta *Agave* generoko landareen izen arruntaren ordain gisa. Apaingarri modura landatzen dira.

He had tried to protect them from the smouldering earth by making rings of thick sisal leaves around them. (*Things Fall Apart*: 18. or.)

Aihenok lur goritik babesten saiatua zen, haien inguruan agabe hosto lodizko hesiak ezarriz. (*Gainbehera dator dena*: 58)

Il avait essayé de les protéger contre la terre incandescente en les entourant d'épaisses feuilles de sisal. (*Le monde s'effondre*: 33)

Va intentar proteger-los de la tierra roent col-locant-hi cercles de fulles gruixudes d'atzavara al vontant. (*Tot se'n va en orris*: 30)

Había intentado protegerlos de la tierra ardiente poniéndoles alrededor aros de gruesas hojas de sisal. (*Todo se desmorona*: 29)

Había tratado de protegerlos de la tierra ardiente haciendo círculos de gruesas hojas de sisal en torno a ellos. (*Todo se derrumba*: 32)

«Sisal» Mexikoko Yucatángo portu baten izena da, handik esportatzen baitzen landare horretatik arropa egiteko ateratzen zen zuntza.

Ekologiaren barruan sartutako kultura erreferenteez gainera, badira beste batzuk kultura materialaren barruan sar daitezkeenak.

foo-foo. Ñame birrindua da, janari gehienekin batera jaten dena. Beste itzulpenetan honela itzuli da:

foo-foo (*Things Fall Apart*: 27); *fofo* (*Le monde s'effondre*:); *fu-fu* (*Tot se'n va en orris*: 44); *fufú* (*Todo se desmorona*: 44); *fu-fú* (*Todo se derrumba*: 44).

Heinemann argitaletxearen 2000ko edizioari erantsitako «Testuan erabilitako hitz eta esapideen glosategia»n *fufu* ere ematen da *foo-fooren* aldaeratzat. Euskarazko testuan naturalizazioa jo nuen: *fu-fu* eman nuen (69. or.), letra etzanez eta hitz arrunt gisa deklinaturik, hala zego-kionean (*fu-fua*).

Gizarte kulturaren barruan sartzen dira, berriz, ondoren datozenak.

bride-price. Afrikako toki askotan, ezkontzak hitzartzen direnean, ondasun material iraunkor-rak, zerbitzuak edo biak eskualdatzen dira ezkongaien familien kide jakin batzuen artean. Orokorrean, ezkongaietako baten edo bien gizarte estatusaren arabera izaten dira prestazio horien garrantzia eta osaera. Halako prestazioak izaten diren gizarteetan, eskualdaketa horiek balio juridikoa ematen diote ezkontzari, eta haiek ez emateak baliogabetea ekar dezake.

«Glossaire de la parenté»n (Barry eta beste batzuk 2000) ageri den bezala, prestazio horietako batzuk dotea eta emaztegai-prezioa dira. Glosategi horretan honela daude definituak:

Dotea (dot - dowry): emazte gazteak bere taldetik edo bere aitarengandik ondasun materialetan jasotzen dituen ezkontza prestazioak. Gehienetan eutsi egiten dio haien jabetasunari, baina bakanago ondasunon gozamenari. Dotea jaraunsiaren aurrerapentzat hartzen da batzuetan.

Emaztegai-prezioa (prix de la fiancée - bride price - bridewealth): suhiak edo haren talde-ak emaztearen aitari ematen dizkion ezkontza prestazioak. Emakumearen taldeari bere kide baten galeragatik emandako ordaintzat jotzen dituzte autore askok. Prestazio horiek direla medio, senarrak eskubide batzuk bereganatzen ditu bere emakumearen gainean (lana, sexu batzea, kasu batzuetan seme-alabak bere leinuan atxikitzea, etab.); hala ere, ez da heltzen esklabotza kasuen pareko pertsona jabetza izatera.

Azkeneko prestazio horiek izendatzeko, Basden-ek (1966: 227), *dowryz* («dotea») hitz egiten du baina ohartarazten du hitz hori Mendebaldeko Afrikan ematen zaion zentzuaz ulertu behar dela, hau da, senargaiak emazteagatik ordaindu beharreko dirua dela. Ondoren gehitzen duenez, *bride price* («emaztegai-prezioa») ere proposatu da baina iboek *iche oji nne na nna* deitzen dute («amari eta aitari opariak eskaintzea»). Bere ustez, *earnest money* («erresak») da interpretaziorik zuzenena.

Edozein kasutan ere, kontzeptu biak ondo bereizi behar dira eta senargaiak ordaindu beharreko dirua adierazi nahi denean kontuan izan behar da *dote* hitzak oso bestelakoa esanahia duela europar hizkuntza eta kulturetan, eta interpretazio okerrera eraman dezakeela. Izan ere, protagonistak ez dira berdinak: dotea emaztegaiaren familiak ematen du; emaztegai-prezioa, berriz, senarrak edo haren senitartekoez ematen dute.

Afrikar etnia bakoitzak bere terminoa du ezkontzara batzen diren ondasun guztiak izendatzeko. Ondorioz, guztiak ezagutzen dituzte haren balioa eta esanahia. Europar hizkuntza eta kulturetan termino egokia bilatu denean afrikar terminologia sorta handia itzultzeko, hautatu

diren esapide asko desagokiak dira edo okerrera daramate. Kontsultatu nituen itzulpenetan, bide bi ageri ziren nagusiki, kalkoa edo egokipena, jarraian ikusten den bezala:

She did not marry him because he was too poor to pay her bride-price. (*Things Fall Apart*: 47)
Ez zen Okonkworekin ezkondu, gizona behartsuegia zelako bere emaztegai-prezioa ordaintzeko. (*Gainbehera dator dena*: 72)

Il ne l'épousa pas alors parce qu'il était trop pauvre pour payer sa dot. (*Le monde s'effondre*: 53)
Aleshores Ekwehi no s'hi va casar perquè Okonkwo era massa pobre per pagar el preu que demanaven els pares d'ella. (*Tot se'n va en orris*: 46) (preu de la núvia: 71)

No se casó con él porque era demasiado pobre entonces para pagar el precio de la novia. (*Todo se desmorona*: 46)

No se casó con él entonces porque Okonkwo era demasiado pobre para pagar su dote. (*Todo se derrumba*: 47)

Katalanezko itzulpenean nozioaren azalpen bat egiten da (*el preu que demanaven els pares d'ella*) eleberrian kontzeptu hau lehenbiziko aldiz agertzen den pasarte honetan, baina hortik aurrera *preu de la núvia* esapidea erabiltzen da. Gainerako kasuetan, lehen aipatu dudana bezala, kalkora edo egokipenera jotzen da. Lehen aipatutako arrazoiengatik ez dut uste zuzena denik egokipenaz baliatzea, «dote» hitzak beste adiera bat baitu gure artean; horregatik *emaztegai-prezio* kalkora jo nuen.

inyanga. Erakuseria edo arrandia egitea da. *Inyanga*, berez, *nganga* ibo hitzetik eratorritako hitza da. Bandiaren arabera (1996), pidgin hitza da, ingelesezko esaldian tokiko kolorea emateko sartu dena eta eleberrian identitate eta elkartasun eginkizun pragmalinguistikoa betetzen duena. Achebek eleberriaren afrikar izaera nabarmendu nahi du:

Achebek erakusten du nola *inyanga* bezalako hitz indigena baten erabilerak batasunera biltzen duen herrikka bateko komunitatea. Hitzak herrixkaren eguneroko bizimoduaz informatzen du irakurlea. Jen-deak partekatzen ditu jakinduria komun bat, sinesmen sistema komun bat eta identitatearen eta talde baten kide izateko sentimendua ematen dion tradizio bat. (Bandia 1996: 149)

Okunoyek eta Obedunmik (2003), berriz, ibo hitzat jotzen dute. Itzulpenetan honela ageri da:

The fact was that Obiageli had been making *inyanga* with her pot. (*Things Fall Apart*: 32)

Egiaz, Obiageli *inyanga* egiten jarduna zen pegarrarekin. (*Gainbehera dator dena*: 76)

En réalité, Obiageli avait fait *inyanga* avec son pot. (*Le monde s'effondre*: 58)

El cas es que Obiageli havia estat fent *inyanga* amb la seva gerra. (*Tot se'n va en orris*: 50)

La verdad era que Obiageli había estado haciendo *inyanga* con el cántaro. (*Todo se desmorona*: 50)

La verdad era que Obiageli había estado haciendo *inyanga* con su recipiente. (*Todo se derrumba*: 51)

Beste kultura erreferente batzuk hizkuntzari lotuago daude.

the sons of men. Zazpigarren kapituluan, Nwoyek gogora ekartzen du bere amak kontatzen zion istorioa, nola Lurrak eta Zeruak liskar bat izan zuten eta Zeruak zazpi urtez atxiki zuen

euria. Saia bidali zuten Zeruaren bihotza samurtu zezan «gizonen semeen» oinazeari buruzko abesti batekin. Ingeleseko testuko *the sons of the men* sintagmari baztergarria iritzita, itzultzairenen batek sexu bazterkeria saihesteko hautua egin du, ondoren ikus daitekeen bezala:

At last Vulture was sent to plead with Sky, and to soften his heart with a song of the suffering of the sons of men. (*Things Fall Apart*: 39)

Azkenean, Saia bidali zuten Zeruari otoi egitera eta haren bihotza samurtzera gizonen semeen oinazeari buruzko abesti batekin. (*Gainbehera dator dena*: 84)

A la fin, on envoya le Vautour plaider avec le Ciel et attendrir son cœur avec un chant qui disait les souffrances des filz des hommes. (*Le monde s'effondre*: 69)

Al final es va enviar el Voltor per suplicar al Cel i estovar-li el cor amb una cançó sobre el sofriment de la humanitat. (*Tot se'n va en orris*: 60)

Por último se envió a Buitre a suplicar al Cielo, y a ablandar su corazón con un canto sobre los sufrimientos de los hijos de los hombres. (*Todo se desmorona*: 60)

Por fin se envió a Buitre a exhortar a Cielo y a ablandarle el corazón con una canción sobre los sufrimientos de los hijos de los hombres. (*Todo se derrumba*: 59)

Katalanezko itzulpenean, ordaintzat *la humanitat* emanaz saihestu nahi izan da genero bereizketa. Itzulpen horrek ez du kontuan hartzen iboen gizarte antolaketa patrilineala dela. Okonkworen amaren aldetiko osaba Uchenduk liburuaren pasarte batean (157. or.) gogorazten duenez, «Denok dakigu familia burua gizona dela eta emazteek haren esanak betetzen dituztela. Haurra aitarena eta haren familiarena da eta ez amarena eta haren familiarena. Gizona bere aitaren lurraldekoa da eta ez bere amaren lurraldekoa». Izan ere, iboak aitetatik semeetara doazen ondorengo lerroen arabera antolatuak daude. Azkenik, ez da ahaztu behar oso denbora gutxira arte mendebaldeko kristau testu zaharretan ere gizonen semeak erabili dela «gizakiak» adierazteko, eta hori hala egin dela bai ingelesez bai euskaraz (Duvoisin, Uriarte, Arxu...).

Kasu batzuetan, ezagun-ezagun da esamolde batzuk ingelesera hitzez hitz itzulitako ibo esamoldeak dira. Hona hemen haietako batzuk:

twenty an ten years. Iboen zenbatzeko sistemak ez du zenbaki bakar bat *thirty* («hogeita hamar») adierazteko; Achebek, beraz, hitzez hitz itzultzen du ingelesera iboen esapidea, eta *twenty and ten* ematen du. Euskararen zenbatze sistemak ere zenbaki bi gehitzen ditu, iboeran bezala, eta «hogeita hamar» egiten du («hogeita eta hamar»). Zaila da, beraz, iboeraren berezitasun hori euskaraz nabarmentzen. «Hogeita eta hamar» esapidea erabiltzea zen aukeretako bat, baina gehienez ere itzultzaileari ortografia-huts bat itzuri zitzaiola pentsatuko zuen irakurleak. Azkenean, berezitasun hori eman gabe utzi nuen.

His name was Uchendu, and it was he who had received Okonkwo's mother twenty and ten years before when she had been brought home from Umuofia to be buried with her people. (*Things Fall Apart*: 95)

Uchendu zuen izena, eta bera izan zen hogeita hamar urte lehenago Okonkworen ama hartu zuena Umuofiatik etxera ekarri zutenean bere jendearekin lur emateko. (*Gainbehera dator dena*: 153)

(...) vingt et dix ans (...). (*Le monde s'effondre*: 157)

(...) deu o vint anys (...). (*Tot se'n va en orris*: 131)

(...) veinte y diez años (...). (*Todo se desmorona*: 133)

(...) veinte y diez años (...). (*Todo se derrumba*: 127)

Beste itzulpenetan arazorik gabe jaso da iboen zenbatze sistemaren berezitasun hori; ez, ordea, katalanezko itzulpenean: juntagailu hautakari batez lotu ditu *deu* eta *vint* zenbakiak, eta beste zerbait adierazi du.

Gizon zuriaren gorputza, agur egiten dizut. *Egwugwuak* espiritu maskaratuak dira. Klane-ko buruzagiek erritu jakin batzuetan maskara jarri eta espirituen ordeztzatzen dira. *Egwugwuak* zeharka mintzatzen dira, espiritu hilezkorren hizkuntza formal bat erabiliz. Hizkuntza formal hori batzuetan ez da ulertteraza izaten Umuofiako herritarrentzat: hamargarren kapitulu-
luan, esaterako, *Aru oyim de de de dei!* diote, «agur adiskide baten gorputz fisikoari» esan nahi duena eta hogeita bigarren kapitulu-
luan Smith jaunari zuzendutako hitzen («Gizon zuriaren gorputza, agur egiten dizut») antza duena.

Badira hitz batzuk, atsotitzez gainera, autoreak ahozko literaturarekin duen zorra erakusten dutenak. Esaterako, «**burdinazko zaldia**» esaten zaio gizon zuriak, itxuraz galdu zenean, zerbilen bizikletari. Birlexifikatzeko prozesuak berrikuntza semantikora eramaten du, neologismora edo adiera zabalkuntzara jotzen baita afrikar hizkuntzan oinarriturik. Beste kasu bat «**Zuek guztiok**» da, Dortokak aukeratzen duen izena; baita «**soka**» ere, sugeari esateko erabiltzen den hitza. Kasu batzuetan, iboen metaforak erabiltzen dituzte, hala nola «**zeruko ur in-txaurrak**», txingorra esateko.

Igboanusik azaldutakoaren arabera (2001: 65), irudiak informazio mota berezi batzuk adierazteko sartzen dira elkarrizketan eta narrazioan. Hizketaren baliabideak diren aldetik, irudiek esanahi berezi batzuk adierazten dituzte, hiltun komunitatearen testuinguru sozio-kulturaletatik eratorriak. Irudien esanahiak maila bi hauetan izan daitezke interpretatuak: literala eta metaforikoa. Esanahi literala hitz esanahiaren eta esaldi esanahiaren arteko konbinazio batetik ateratzen da. Esanahi metaforikoa, berriz, hizkuntzaz kanpoko faktore batzuk kontuan hartuz ondorioztatzen da; hizkuntzaz kanpoko faktore horiek ustekizunak, testuinguru sozio-kulturalak eta hiltunen jarrera izaten dira, adibidez, eta esaldiaren esanahi orokorrean izan dezakete eragina. Ingelesezt idazten duten ibo idazleek iboen kultura indigenetatik hartzen dituzte askotan irudiak (bereziki metafora eta similen bitartez), eta ingelesean txertatzen dituzte itzulpenaren bidez. Irudiak, atsotitzak bezala, iboen literatura estrategiaren alderdi garrantzitsuak dira. Atsotitzak, hala ere, adierazpen ezagunak dira, hiltunari aukera ematen diotenak bere asmenena, jakinduria eta hizkuntza manipulatzeko gaitasun berezkoa erakusteko; irudiek, berriz, konparazio irudimentsuak erabiltzen dituzte esanahi bat adierazteko. Hona hemen eleberriko adibide batzuk:

That was many years ago, twenty years or more, and during this time Okonkwo's fame had grown like a bush-fire in the harmattan. (*Things Fall Apart*: 3)

Urte asko ziren hori gertatu zela, hogeï urte edo gehiago, eta harrezkero gehiago hazi zen Okonkworen ospea, hala nola basoko sua harmattanarekin. (*Gainbehera dator dena*: 39)

(...) comme un feu de brousse sous l'harmattan. (*Le monde s'effondre*: 10)

(...) com un foc empès per l'aire sec del harmattan. (*Tot se'n va en orris*: 11)

(...) como un incendio en el bosque cuando sopla el harmatán. (*Todo se desmorona*: 12)

(...) como un fuego de sábana durante el *harmattan*. (*Todo se derrumba*: 15:)

«Basoko sua harmattanarekin» simalak Okonkworen ospea arin hedatu zela adierazten du. Katalanezko itzulpenak ingelesezko *bush* hitza itzuli gabe utzi du.

Ahoa-betetzen-duen-okela-idorra naiz / Egur-sortarik-gabe-erretzen-duen-sua naiz. Gaizkiaren Basoa ahalguztiduna dela iradokitzen duten esaldi bi dira. «Oso arriskutsua naiz» izango litzateke haien baliokidea.

Atsotitzak

Chinua Achebek iboeraren esamoldeak simulatzen dituen afrikar estiloko hizkera bat diseinatu du. Horregatik, hitzen aukeraketaz eta haiek antolatzeke modu bereziaz gainera, atsotitz, metafora eta simalak erabiltzen ditu oparo, gertakizunei eta pertsonaien bilakaerari dagokien giro kulturala deskribatzeko. Ingelesez idazten duten iboen artean ohikoa da ibo kulturako atsotitzak ingelesera itzultzea. Atsotitzok iboen pentsamendu ereduari eta estiloari jarraitzen dieten adierazpen laburrak dira, ingelesez emanak. Idazleok beren lanetan erabiltzen dituzten atsotitzen ugaritasuna iboen ahozko tradizioaren eraginaren ondorio da alde batetik, eta atsotitzen garrantzi literarioaren ondorio bestetik. Eleberriarren lehen kapituluan honela dio konztaileak:

Having spoken plainly so far, Okoye said the next half a dozen sentences in proverbs. Among the Ibo the art of conversation is regarded very highly, and proverbs are the palm-oil with which words are eaten. (*Things Fall Apart*: 5-6)

Ordura arte garbi hitz egin bazuen ere, hurrengo dozena erdi esaldiak atsotitz gisa bota zituen Okoyek. Iboek begiramen handia izaten diote solasteko arteari, eta atsotitzak hitzen gozagarri eransten den palma olioaren parekoak izaten dira haientzat. (*Gainbehera dator dena*: 42)

Hainbestetan aipatua izan den esaldi horrek erakustera ematen du zein estimu handitan duen iboek atsotitzen erabilera. Atsotitzak ideiak argitzeko eta entzuleei zirrara eragiteko erabiltzen dira. Adierazpen filosofiko eta moralak dira, hitz gutxitan sintetizatuak, komunitatearen sinesteei eta filosofiari eusten dietenak. Era berean, pertsonaien nortasuna adierazi eta erakusten dute. Azkenik, hiztuna etnia talde baten kidea dela adierazi eta talde horrekin identifikatzen dute.

Atsotitzak dituzten testuak itzultzen direnean, askotan itzulpen komunikatiboaren aldeko hautua egiten da. Egoera jakin batean sorburu testuak sorburu hizkuntzako esamolde estandar

bat erabiltzen duenean egoera horretarako, itzultzaileak xede hizkuntzako esamolde estandar bat erabil dezake eta horrela xede kulturako egoera baliokide bat eman xede testuan. Itzulpen estrategia horren helburua da sorburu testuak bere irakurleengan sortzen duen eragin bera sortzea xede testuaren irakurleengan. Itzulpen mota hori atsotitz, esapide, klixe eta antzekoekin erabiltzen da eta autore askok gaitzetsi egiten dute halako esamoldeetarako hitzez hitzeko itzulpena erabiltzea. Hala eta guztiz ere, eleberri honetako atsotitzak hitzez hitz itzultzen saiatu naiz, itzulpen komunikatiboarekin galdu egingo litzatekeelako Achebek sortu nahi izan zuen efektu estilistikoa. Itzulpen komunikatiboak ez bezala, itzulpen semantikoak jatorrizko testuaren giroa eta tonua birsortzen ditu. Kontuan izan behar da, gainera, Achebek berak erabili zuela estrategia hori iboerazko atsotitzak ingelesera itzuli zituenean, kalkora jo baitzituen, ibo hizkuntzaren egitura linguistikoa eta hizketa ereduak oinarri harturik. Ibo atsotitza ingelesetik beste hizkuntza batera itzultzen denean itzulpen komunikatiboa erabiliko balitz, iruzur egingo litzaioke Achebek ibo atsotitzak ingelesez emateko hautatutako estrategiari.

Gainbehera dator dena eleberraren itzulpenean hartu nuen irizpidea bat dator, bestalde, Catherine Sumner-Paulin-ek «Traduction et culture: quelques proverbes africains traduits» (1995: 554) artikuluan afrikar atsotitzak itzultzeko proposatzen duenarekin. Afrikar atsotitz batzuen azterketatik abiatu, urrutiko kulturen hizkuntzekin (adib. afrikar tradizioak eta zurien mundua) lan egiten duten itzultzaileek aurre egin beharreko arazo linguistiko eta soziolinguistikoak azpimarratzen ditu. Atsotitzen itzulpena literalagoa izatea gomendatzen du kulturalki urrutikoak diren komunitateen identitatea errespetatzeko. Hona hemen atsotizetako batzuk:

When the moon is shining the cripple becomes hungry for a walk. (*Things Fall Apart*: 8)

Ilargiak distira egiten duenean, elbarriari ere ematen dio paseatzeko gogoak. (*Gainbehera dator dena*: 46)

Ilargi-argiak babesa emateko ahala duela sinesten dela ematen du aditzera atsotitz honek, eta iboek iluntasunari dioten beldurrarekin egiten du kontrastea.

Atsotitz batzuek sarrera hitz batzuk izaten dituzte aurretik testua kontestualizatzeko; sarre-ra hitzok «zaharrek ziotenez», «gure jendeak dioenez» bezalakoak dira:

As the elders said, if one finger brought oil it soiled the others. (*Things Fall Apart*: 91)

Zaharrek ziotenez, hatz batek oliorik badauka, lohitu egingo ditu besteak. (*Gainbehera dator dena*: 150)

As our people say, a man who pays respect to the great paves the way for his own greatness. (*Things Fall Apart*: 15)

Gure jendeak dioenez, handiari ohore egiten dion gizonak bere handitasunerako bidea prestatzen du. (*Gainbehera dator dena*: 54)

Batzuetan, ondoko esaldian azaltzen da zer esan nahi duen; adibidez, kasu honetan:

As the elders said, if a child washed his hands he could eat with kings. Okonkwo had clearly washed his hands and so he ate with kings and elders. (*Things Fall Apart*: 6-7)

Zaharrek ziotenez, ume batek eskuak garbitzen bazituen, erregeekin jan zezakeen. Argi zegoen Okonkwok garbituak zituela eskuak, eta horregatik errege eta zaharrekin jaten zuen. (*Gainbehera dator dena*: 44)

Zentzua gizakiaren eta animaliaaren arteko antzekotasun eta konparazio inplizituaren bidez higitzea (metafora zoomorfikoa) ohiko prozedura da atsotitz itzulietan. Sorburu hizkuntzan sinbolikoa dena zuzenean higitzen da xede hizkuntzara, nahiz eta batzuetan ulertzeko zailtasunak sor daitezkeen.

Let the kite perch and let the eagle perch too. If one says no to the other, let his wing break.' (*Things Fall Apart*: 15)

Pausa dadila mirua, eta pausa dadila arranoa ere. Batak besteari ezetz badiotso, hauts dakiola hegoa. (*Gainbehera dator dena*: 54)

Gizon lehiakor eta aurkariak inplizituki alderatzen dira miruarekin eta arranoarekin. Metafora zoomorfiko batzuk hezkuntzari edo amatasun-aitatasunari lotuak daude:

'As our people say, "When mother-cow is chewing grass its young ones watch its mouth." Maduka has been watching your mouth.' (*Things Fall Apart*: 51)

Gure jendeak dioenez, «Behi amak belarra jaten duenean, txahalek ez dute haren muturra bistatik galtzen». Madukak ez dik hire muturra bistatik galtzen. (*Gainbehera dator dena*: 100)

Pidgina

Nigeriar pidgina ingelesean oinarritutako pidgin edo kreole hizkuntza da, Nigerian zehar hizkuntza franko moduko bat bezala hitz egiten dena. Askotan ez da kreoleztat hartzen haren hiztunik gehienek ez dutelako ama hizkuntza, ume askok aski goiz ikasi arren. Haren superestratua ingelesa da eta yorubera, iboera eta hausa dira sub-estratu hizkuntza nagusiak.

Ihemere-ren arabera (2006: 297), Nigeriako pidgina bigarren hizkuntza dutenak 75 milioi inguru dira, eta lehen hizkuntza dutenak 3tik 5 milioira bitartean egongo dira. Kopuru bata nahiz bestea bizkor ari dira hazten, hizkuntza hau gazteen artean baitago zabalduen; izan ere, gazteak populazio osoaren gehiengoa dira, 133 milioi inguru. Nigeriar pidgina Mendebaldeko Afrikako beste herrialde batzuetan ere mintzatzen da, hala nola Ghanan eta Kamerunen.

Nigeriar guztira 250 tribu inguru daudenez, badira aldaketa asko talde etnikoek hitz egiten duten pidgin moten artean. Halaz guztiz, aldaketa horiek gorabehera, federazioko eskualde, etnia, hizkuntz eta erlijio talde guztien kideek erabiltzen dute eta hori Nigeriako beste hizkuntzetatik bereizten duen ezaugarri bat da. Nigeriar pidgina nigeriar ingeles estandarretik bereizten duena beste zerbait da: edozein talde sozio-ekonomikoren kideek hitz egiten dute; ingeles estandarra gutxienezko gaitasun batez hitz egiten dutela adieraz dezaketena, berriz, urte askoz hezkuntza formala jaso dutenak baino ez dira.

Nigeriar pidginaren ezagupenen bat izatea ezinbestekoa ari da bilakatzen Nigeriako gaiak ulertzeko eta Nigerian komunikazio praktikoa izateko. Nahiz eta nigeriar pidgina, alderdi as-

kotatik, aukerarik logikoena den, Ihemere-ren iritziz, nazio hizkuntza izateko, aitorpen txikia egiten diote Nigeriako hizkuntza politikaren arduradunek. Nigeriar pidginarekiko jarrera ofiziala negatiboa da oraindik ere.

Pidginaren barruan ere mailakatze halako bat egin daiteke (Adler 1977): mutur batean, «pidgin gutxieneko» bat dago, europarren eta haien otseinen artean erabiltzen dena; bestean, batzuen kasuan egiazko kreolea izatera iritsi dena. Hiri handien hazkundearekin garrantzitsu bilakatu da. Hiri handiotan, afrikarren eta europarren artean ez ezik hizkuntza desberdineko afrikarren artean ere erabiltzen dute elkarrekin komunikatzeko. Hiri horiek Nigeriako tribuen arragoa bilakatu dira eta hirietako biztanlerik gehienak elebidunak dira. Nigeriako hirietako biztanleen belaunaldi berriek ez dituzte bakarrik beren hizkuntzak eta pidgina erabiltzen, baizik eta gero eta gehiago ingelesez ere hitz egiten dute gehienek. Hala ere, nigeriar pidgina oso garrantzitsua da eta ahaleginak egiten ari dira idatzira ere igarotzeko, baina zailtasun handiak daude nigeriar pidginak ez duelako forma estandar batu bat eta, ondorioz, ezta zabal onartutako ortografiarik ere. Komunitate bakar baten barruan ere desberdintasun handiak izaten dira pidginaren ahoskeran: gazteek eta jende ikasiagoak beste modu batean hitz egiten dute, zaharagoek eta ikasgabeek ez bezala.

Hamabosgarren mendean Europako ontziak etorri aurretik eta are musulmanak hamahirugarren mendean heldu aurretik ere, baziren mende batzuk Nigeriak merkataritza jarduera indartsua garatua zuela hiri handietan. Hizkuntza desberdinez mintzatzen diren nigeriarrek hurreman estuan egon ziren elkarrekin ehundaka urtez. Elebitasuna eta eleaniztasuna araua izan da beti, salbuespena baino gehiago, Nigeriako tokirik gehienetan (Faraclas 1996: 2). Horregatik oso litekeena da nigeriar hizkuntzen pidgin bertsioak zabal erabili izana alderdi askotan. Esaterako, hausa pidgina oraindik ere erabiltzen dute hausera ama hizkuntza ez dutenek Txad lakuaren inguruko merkatuetan, eta iboeraren pidgin bertsio bat hitz egiten da gaur egun Nigerren deltako merkatuetan.

Faraclaren arabera (1996: 3), baliteke itsasertzean europarrak etorri baino lehenago hitz egiten zen nigeriar hizkuntza baten edo batzuen pidgin bertsioetatik garatu izana nigeriar pidgina. Europar merkataritzaren garrantziaren ondorioz, nigeriar hitzen ordez europar hitzak erabiltzen hasi ziren komunikazioa errazteko. Portugaldarrak iristen lehenak izan zirenez, portugesezik eratorritako hitz batzuk hartu ziren, baina britainiarrek Nigerian beren boterea sendotu zutenetik, ingeles hitz gehiago sartu ziren. Britainiarren kolonialismoarekin batera, europar hezkuntza ere etorri zen misiolarien eskutik; misiolari horietako asko Sierra Leonako kreole hiztunak ziren (gehienak esklabo ohiak edo «sorterriratutako» esklaboen ondorengoak).

Chinua Acheberen eleberri batzuk hirietan daude kokatuak, eta protagonistek pidgin hitz eta esapide asko erabiltzen dituzte. *Gainbehera dator dena* eleberrian, berriz, landa eremuko herrixka batean gertatzen da istorioa, eta eleberriaren hasieran, artean ere iritsi gabe daude europarrak herrixka edo eskualde horretara. Ondorioz, pidgin hitz banaka batzuk baino ez dira ageri eleberri osoan. Pidgin hitz horien presentziak erakusten du istorioa gertatzen zen urteetan pidgin moduko bat hasia zela zabalitzen, eta pidginaren zabalpenak aurre hartzen ziola europa-

rren presentziari. Eleberri honetan azaltzen diren pidgin hitzak *tie-tie*, *kotma* eta *sah* dira. Bandiaren arabera (1996), *inyanga* ere pidgin hitza da.

tie-tie. Mahats aihena da, soka moduan erabiltzen dena; pidgin hitza da, *to tie* ingeles aditzetik eratorria. Kasu honetan ikusten da ondoen nola ingeles hitzen presentziak aurre hartzen dien britainiarrei Umuofian. Achebek esanahia argitzen du aurretik ingelesezko hitz baliokidea juntagailu batez lotuz.

There were little holes from one side to the other in the upper levels of the wall, and through these Okonkwo passed the rope, or *tie-tie*, to the boys and they passed it round the wooden stays and then back to him; (*Things Fall Apart*: 40)

Hormaren goialdean baziren zulo txiki batzuk aldez alde irekiak, eta Okonkwok zuloetatik pasatzen zien mutilei soka, edo *tie-tiea*, eta haiek hesoholen inguruan pasarazi eta itzuli egiten zioten; (*Gainbehera dator dena*: 86)

Il y avait de petits trous qui traversaient de part en part la partie supérieure du mur et Okonkwuo y faisait passer la corde, ou *tie-tie*, aux garçons qui, à leur tour, la passaient autour des étais de bois, puis la lui redonaient. (*Le monde s'effondre*: 70)

A la part alta del mur, hi havia uns petits forats per on Okonkwo passava als nois una corda, o *tie-tie*, i ells la lligaven als puntals i la hi tornaven a passar a l'altra banda; (*Tot se'n va en orris*: 62)

El muro tenía agujeros pequeños que lo atravesaban de lado a lado por la parte de arriba y Okonkwo pasaba por ellos la cuerda, o *tie-tie*, a los chicos y ellos se la devolvían; (*Todo se desmorona*: 62)

En la parte alta del muro había agujeritos que lo traspasaban de un lado al otro, y por esos agujeritos Okonkwo pasaba la cuerda, o *tie-tie*, a los muchachos, que la enrollaban en torno a los postes de madera, y luego se la volvían a pasar a él, (*Todo se derrumba*: 61)

Itzulpen guztietan, bere hartan erabili da pidgin hitza, eta letra etzanez idatzi da, sorburu testuan bezala.

Ngozi O. Ozulu-k (1992: 372) onartzen du pidgina itzultzea arazo bat dela itzultzaileen-tzat, eta idazleek berek ere arazoak izaten dituztela pidgina beren lanetan sartzeko. Chinua Acheberen *No Longer At Ease* eleberriaren frantses itzulpenaz egiten duen azterketan, *Things Fall Apart* eleberriaren frantses itzulpena aipatzen du eta *tie-tie* hitza bere hartan utzi izana kritikatzeko dio Michel Ligny itzultzaileari. Ozuluk interpretatzen du itzultzaileak ez zuela hitz hori itzuli ziurrenik ez zekiela pidgin hitza dela. Hala ere, ez du argitzen zein den ingelesezko pidgin hitz horri Mendebaldeko Afrikan dagokion frantses ordain baliokidea.

Tie-tie hitzaren esanahia Achebek berak argitzen du bigungarriak jartzeko teknikaren bidez. Hortaz, nire irizpidea, frantses itzultzaileena eta kontsultatu ditudan beste itzultzaileena bezala, hitza bere hartan uztea izan da. Euskaraz, gainera, ezin daiteke egin Ozuluk frantses itzulpenarako proposatzen duena: ingelesak eta frantsesak pidgintzat hartzen diren aldaerak dituzte Afrikan, eta aldaera horietan bila daitezke afrikar hitz baliokideak. Euskaraz, ordea, ez dago horrelako aukerarik.

Eleberriko hiru pidgin hitz horiek ez dute beste helbururik, nire ustez, ingeles pidginaren aldaera bat zabaltzen hasia zela agerraraztea baizik. Acheberen beste eleberri batzuk itzultzeko,

berriz, beste estrategia bat erabili behar da. Hurrengo eleberrietan gertakizuna oraintsuagoko denboretan eta hiri inguruneetan kokatua dago eta pidginaren presentzia askoz ere ugariagoa da, ez da hitz solteetara murrizten.

kotma. Agente judiziala da; britainiarrek beren legeak betearazteko kontratatutako afrikarrak dira. *Kotma court* eta *messenger* hitzetatik eratorritako pidgin hitza da. Hitz hori lehenbizikoz agertu baino lerro gutxi batzuk gorago aipatuak ditu Achebek *court messengers* direlakoak, eta azaldua du, halaber, zein diren. Testuinguruak ematen du, beraz, pidgin hitz honen esanahia-
ren berri. Honela ageri da sorburu testuan eta itzulpenetan:

They were called *kotma*, and because of their ash-coloured shorts they earned the additional name of Ashy-Buttocks. (*Things Fall Apart*, 127. or.)

Kotma deitzen zieten eta hauts koloreko beren galtza motzengatik Hauts-ipurdi izengoitia hartu zuten. (*Gainbehera dator dena*, 196. or.)

On les appelait *kotma*, et à cause de leurs shorts couleur de cendre, il méritèrent le nom supplémentaire de Fesses-Cendrées. (*Le monde s'effondre*, 211. or.)

Els anomenaven *kotma*, i com que portaven uns pantalons gris, encara es van guanyar el segon sobrenom de «culs de cendra». (*Tot se'n va en orris*, 174. or.)

Les llamaban *kotma* y se ganaron el mote adicional de «traseros cenicientos» por el color de sus pantalones cortos. (*Todo se desmorona*, 62. or.)

Los llamaban *kotma* y como llevaban pantalones cortos de color gris claro, también los llamaban Culos de Ceniza. (*Todo se derrumba*, 168. or.)

Itzulpen guztietan, bere horretan erabili da pidgin hitza, eta, sorburu testuan bezala, letra etzanez idatzi, gaztelaniazko itzulpen bietan izan ezik. Euskaraz letra etzanez idatzi dut.

sah. «Jauna» esan nahi du pidgin hitz honek. Sorburu testuan eta haren itzulpenetan honela agertzen da:

'Yes, *sah*,' the messenger said, saluting. (*Things Fall Apart*, 151. or.)

—Bai, *sah* —esan zuen agenteak, agur eginez. (*Gainbehera dator dena*, 225. or.)

—Oui, *sah*, dit le messenger en saluant. (*Le monde s'effondre*, 253. or.)

—Sí, *senyor* —va dir el delegat, saludant. (*Tot se'n va en orris*, 207. or.)

—Sí, *señor* —dijo el agente, saludando. (*Todo se desmorona*, 209. or.)

—Sí, *señó* —dijo el hujier con un saludo. (*Todo se derrumba*, 198. or.)

Xede testuetan hiru prozedura erabili dira. Frantses testuak bere hartan utzi du pidgin hitza, letra etzanez idatzirik. Katalanezko testuan eta gaztelaniazko testuetako batean (*Todo se desmorona*) hitzaren esanahia itzuli da, besterik gabe. Azkenik, gaztelaniazko beste testuan (*Todo se derrumba*), hitzaren esanahia emateaz gainera, itzultzaileak hitza desitxuratu du, pidginak in-gelesaren gainean egiten duen efektua birsortu nahian.

Euskaraz, bere hartan utzi dut hitza, letra etzanez idatzirik eta oinaldean ohar bat erantsirik. Liburu osoan, oinaldeko ohar hori baino ez dut ezarri. Autoreak hitz indigenak oinaldeko oharrez argitzeari uko egiteko hautua egin zuen bere eleberrian. Izan ere, pidgin hitzez gaine-


ra iboerazko hitz asko erabiltzen ditu eleberri osoan, eta bigungarriak jartzeko eta kontestualizatze teknika erabiltzen ditu haien esanahia adierazteko, itzulpenaren lehen mailari buruzko atalean azaldu dudan bezala.

Nigeriarrek *ah* ahoskatzen dute *r* esaten dutenean. Ondorioz, *mastah* ahoskatzen dute *master* barik, *sah* esaten dute *sir* barik, eta *expaht expert* barik. Beste bi pidgin hitzetan ez bezala, Achebek letra zuzenez idazten du eta hortik eta hitzaren esanahia azaltzeko estrategiarik erabili ez izanetik ondoriozta daiteke *sah* pidgin hitzaren esanahia nahikoa ezaguna dela ingeles irakurleen artean.

BIBLIOGRAFIA

- ACHEBE, Ch. (1965), «English and the African Writer», in *Transition* 18: 27-30.
- . (1972), *Le monde s'effondre*. Itz.: Michel Ligny. Paris, Présence Africaine.
- . (1991), *Kitto dena!*. Itz.: J. A. Mujika. Donostia, Elkarlanean (John Bayk Heinemann Guided Readers bildumarako egin zuen ingeles errazeko bertsioaren itzulpena da, Irakurmendi sailean argitaratua).
- . (1986), *Todo se derrumba*. Itz.: Fernández Santos. Madril, Alfaguara.
- . (1994), *Things Fall Apart*, New York, Anchor Books.
- . (1997), *Todo se desmorona*. Itz.: Álvarez Flórez. Bartzelona, Ediciones del Bronce.
- . (2000), *Tot se'n va en orris*. Itz.: Bernat Puig i Tobella, Bartzelona, Edicions 62.
- . (2000), *Things Fall Apart*, Londres, Heinemann.
- . (2001), *Things Fall Apart*, Londres, Penguin.
- . (2007), *Gainbehera dator dena*. Itz.: Alberto Martínez de la Cuadra. Alberdania-Elkar.
- ADLER, M. K. (1977) *Pidgins, Creoles and Lingua Francas: A sociolinguistic Study*, Hamburgo, Buske Verlag.
- BANDIA, P. F. (1993), «Translation as Culture Transfer: Evidence from African Creative Writing», in *Traduction, Terminologie, Rédaction* 6.2: 55-77. Paris. [Interneten], <<http://www.erudit.org/revue/ttr/1993/v6/n2/037151ar.pdf>>.
- BANDIA, P. F. (1996), «Code-switching and code-mixing in African creative writing: some insights for translation studies», in *Traduction, Terminologie, Rédaction*, 9 (1): 139-153. Paris. [Interneten], <<http://www.erudit.org/revue/ttr/1996/v9/n1/037242ar.pdf>>.
- BARRY, L. S., BONTE, P., GOVOROFF, N., JAMARD, J. L., MATHIEU, N. C., PORQUERES I GENÉ, E., D'ONOFRIO, S., WILGAUX, J., ZEMPLÉNI, A. eta ZONABEND, F. (2000), «Glossaire», in *L'Homme*, 154-155, Question de parenté. [Interneten], <<http://lhomme.revues.org/document58.html>>.
- BASDEN, G. T. (1966), *Niger Ibos (a Description of the Primitive Life, Customs and Animistic Beliefs, Etc of the Ibo People of Nigeria By One Who, for 35 Years, Enjoyed the Privilege of the Intimate Confidence and Friendship)*, London, Frank Cass.
- CHUA, J. eta PAVLOS, S. (2001), *CliffsNotes Things Fall Apart*. New York, Wiley Publishing.
- FARACLAS, N. G. (1996), *Nigerian Pidgin*. London, Routledge.
- FINE, A. eta LEDUC, C. (1998), «La dot, anthropologie et histoire. Cité des Athéniens, VI^e-IV^e siècle/Pays de Sault (Pyrénées audoises), fin XVIII^e siècle-1940», in *Clio*, 7/1998, *Femmes, dots et patrimoines*, [Interneten], <<http://clio.revues.org/document343.html>>.
- FRAZER J. G., *Urrezko Abarra II*, Itz.: Iñaki Iñurrieta.

- IGBOANUSI, H. (2001), «The Igbo Tradition in the Nigerian Novel» in *African Study Monographs* 22 (2): 53-72. [Interneten],
 <http://www.africa.kyoto-u.ac.jp/kiroku/asm_normal/abstracts/pdf/22-2/53-72.pdf>.
- IHEMERE, K. U. (2006), «A Basic Description and Analytic Treatment of Noun Clauses in Nigerian Pidgin» *Nordic Journal of African Studies* 15 (3): 296–313. [Interneten],
 <<http://www.njas.helsinki.fi/pdf-files/vol15num3/ihemere.pdf>>.
- MARTÍN MATAS, P. (2006), *Estudio y análisis de dos traducciones de Things Fall Apart: vertientes lingüísticas y culturales*. Doktore gradua lortzeko tesia. Madril, Universidad Pontificia de Comillas.
- OKUNOYE, N. eta OBEDUNMI, A. (2003), «Different story, different strategy: a comparative study of Achebe's style(s) in *A Man Of The People* and *Anthills of the Savannah*», in *Studia Anglica Posnaniensia* 39: 289-301.
- OZULU, N. O. (1992), «Problems of Translating Nigerian Authors: The Case of Chinua Achebe's *No Longer at Ease*», in *Meta* 37, 2: 370-374. [Interneten],
 <<http://www.erudit.org/revue/meta/1992/v37/n2/003776ar.pdf>>.
- SMITH, P. J. O. (2001), «Making Words Sing and Dance: Sense, Style and Sound in Yoruba Prose Translation», in *Meta* 46, 4: 744-751. [Interneten],
 <<http://www.erudit.org/revue/meta/2001/v46/n4/004197ar.pdf>>.
- SUMNER-PAULIN, C. (1995) «Traduction et culture: quelques proverbes africains traduits», in *Meta* 34, 4: 703-710. [Interneten],
 <<http://www.erudit.org/revue/meta/1995/v40/n4/003802ar.pdf>>.
- TUTUOLA, A. (1993), *Mozkor bat sasirik sasi*, Itz.: Maria Garikano. Iruñea, Pamiela.
- ZABUS, Ch. (2007), *The African Palimpsest: Indigenization of Language in the West African Euphone Novel*. Amsterdam, Atlanta, Rodopi.



Gainbebera dator dena: la traducción de la novela Things Fall Apart de Chinua Achebe

El autor del artículo expone las dificultades que tuvo que sortear durante el proceso de traducción a la lengua vasca de la novela *Things Fall Apart* del escritor nigeriano Chinua Achebe. A las dificultades que conlleva la propia traducción al euskera de una obra escrita en inglés hay que sumar aquellas otras que son consecuencia de la fuerte carga cultural africana de esta novela. Dicha carga cultural así como la incorporación de elementos de las lenguas indígenas africanas, ha llevado a varios críticos a sostener que los escritores africanos de habla indígena que desarrollan su producción literaria en una lengua europea actúan hasta cierto punto como traductores. Las traducciones de obras escritas por tales autores serían producto, por lo tanto, de lo que pudiéramos llamar un doble proceso de transposición. En un primer nivel de traducción, el escritor africano vierte el pensamiento africano a una lengua europea y, a través de un proceso de indigenización que habilita la lengua europea para poder expresar su propia experiencia africana, utiliza una serie de estrategias tales como la relexificación semántica o sintáctica y la incorporación directa de elementos indígenas mediante métodos de amortiguación o contextualización. En el segundo nivel de traducción, el texto «traducido» al inglés o francés por el escritor africano es vertido a otra lengua europea por el traductor. Las dificultades en este segundo nivel de traducción de la novela de Achebe se refieren principalmente a la traslación de los referentes culturales africanos, palabras, giros, refranes e imágenes ibo, así como palabras del pidgin nigeriano.

Gainbehera dator dena: la traduction du roman Things Fall Apart de Chinua Achebe

L'auteur de l'article expose les difficultés qu'il eut à surmonter au cours du processus de traduction en langue basque du roman *Things Fall Apart* de l'écrivain nigérian Chinua Achebe. Aux difficultés que suppose la traduction même en basque d'une oeuvre écrite en anglais, il convient d'ajouter celles consécutives à la forte charge culturelle africaine de ce roman. Cette charge culturelle, ainsi que l'incorporation d'éléments issus de langues indigènes africaines, a conduit plusieurs critiques à soutenir le fait que les écrivains africains de langue indigène qui développent leur production littéraire dans une langue européenne, agissent jusqu'à un certain point comme des traducteurs. Les traductions d'oeuvres écrites par ces auteurs seraient, par conséquent, le produit de ce que l'on pourrait qualifier de double processus de transposition. A un premier niveau de traduction, l'écrivain africain traduit la pensée africaine dans une langue européenne, et par le biais d'un processus d'indigénisation qui habilite la langue européenne à pouvoir exprimer sa propre expérience africaine, il utilise une série de stratégies comme la relexification sémantique ou syntactique et l'incorporation directe d'éléments indigènes au moyen de méthodes d'amortissement ou de contextualisation. A un deuxième niveau de traduction, le texte "traduit" en anglais ou en français par l'écrivain africain est traduit dans une autre langue européenne par le traducteur. Les difficultés de ce second niveau de traduction du roman d'Achebe concernent principalement la translation des référents culturels africains, mots, tournures, proverbes et images ibo, ainsi que des mots du pidgin nigérian.

Gainbehera dator dena: the Basque translation of the novel Things Fall Apart by Chinua Achebe

The author of the article discusses the difficulties that he had to overcome in the process of translating into Basque the novel *Things Fall Apart* by Nigerian author Chinua Achebe. In addition to the difficulties inherent in the translation into Basque of a work written in English, there were others resulting from the heavy load of African culture in this novel. This cultural load, which includes the incorporation of elements of African indigenous languages, has led several critics to maintain that African writers who speak an indigenous language and who write in a European language act to a certain extent as translators. The translations of works written by such authors would thus be a product of a double process of transposition. On the first level of translation, the African writer translates African thought into a European language and, through a process of indigenization that enables the European language to express his own African experience, uses a series of strategies such as semantic or syntactic relexification and the direct incorporation of native elements through absorption or contextualization. On the second level of translation, the text "translated" into English or French by the African author is then translated into another European language by the translator. The difficulties in this second level of translation of Achebe's novel have to do primarily with the translation of African cultural references, words, turns of phrase, sayings and Ibo images, as well as of words in the Nigerian pidgin.

Lehen esperientzia literatur itzulpenean: Franz Kafka

NAROA ZUBILLAGA

Sarrera

2005ean EIZIEk urtero antolatzen duen “Literatura Unibertsala” itzulpen-lehiaketan parte hartu eta Franz Kafkaren hainbat kontakizun euskaratzeko lana esleitu zidaten. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, nire lehen literatur itzulpena.

Aldizkari honetan esperientzia horren nondik norakoak azaltzeko gonbita luzatu zidaten. Egia esan, lotsa puntu bat ere ematen zidan hasieran, ez baitaukat hainbat urtetako eskarmenturik bizkar gainean, eta, beraz, ez natorkizue alemana-euskara literatur itzulpenaren inguruko teorizatze saio bat aurkeztera. Ordea, poza ere badut —aitortu behar dut— nire esperientziaren berri emateko aukera dudalako. Lehen literatur itzulpena eta, gainera, Franz Kafka: erronka handia, baina baita ardura ikaragarria ere.

Beraz, ondoko lerroetan itzulpen-enkarigu horri nola aurre egin nion kontatuko dizuet, zein izan zen jarraitu nuen bidea, eta,

jakina, zein izan diren bide horretan egin ditudan aurkikuntzak.

Bide horretan emandako urratsak laburbildu beharko banitu, honako hauek lirake:

- **Egilea ezagutzea:** Kafkaren ezer irakurri ez duenak ere badu egile unibertsal horren berri, edo, gutxienez, bereganatua du kafkatarra den horren kontzientzia. Baina, jakina, itzultzeak egilearen ezagutza sakonago bat eskatzen du, halabeharrez, haren sorkuntza ulertu nahi bada. Horregatik, ezer itzultzen hasi aurretik, Franz Kafkaren biografiak irakurri nituen, *girotzeko* bazen ere. Hala, hortik aurrera, Kafkaren ipuinak irakurtzen hasita, Europako literatur sorkuntza-gune zoragarri batean murgildu nintzen.
- **Itzultzea:** egilearen ingurukoak ezagututa eta itzulgaiak irakurrita, itzultzeari ekin nion, ez arazo gutxirekin, nos-

ki. Erreferentziak erabiltzearen argi-ilunak ezagutzeko aukera ere izan nuen (aurrerago azalduko dut hori, labor-labor).

- **Zuzenketa-prozesua:** egindako itzulpenak funtzionatu egin behar du xede-hizkuntzan, eta, zentzu horretan, argitaletxeko zuzenketa-prozesua ezin baliagarriagoa izan da; lehen esperientzia berez izan ohi den eskarmentuari gehitu zaion irakasgai paregabea.

Egilea ezagutzea

“Arranguraren eta malenkoniaren artean badago beste desberdintasun funtsezko bat. Arranguratuari lekoreko mundua hondatu zaio, malenkoniatsuari bere burua desegin zaio. Arranguratuarentzat lekoreko mundua da basamortua; arranguraren poesia da, ene ustez, T.S. Eliotena. Malenkoniatsua-entzat, berriz, bere nitasuna da ahula, bere baitan dago basamortua, eta ez da gai maitatzeko, ez lan egiteko, ez ezertarako, malenkoniak norbere buruaren desestimua baitakar; Franz Kafka, esate baterako, malenkoniatsua da.” (J. Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*).

Goiko hori Joseba Sarrionandiak *Ni ez naiz hemengoa* liburuan Kafkari egiten dion aipamenetako bat da, baina ez da, jakina, bakarra. Bada, liburu berean, *Kafka eta umea* izeneko ipuin bat. Horretaz gain, ezin aipatu gabe utzi *Izuen gordelekuetan barrena* poema-liburuan Kafka eta Pragako beste idazle garaikideei eskainitako atala: *Prahako orenetan*.

Izan ere, une jakin batetik aurrera Europako espresionismoaren izen handien itzala

jasotzen hasiko da euskal literatura; estilo eta abangoardia literarioen leiho berri bat zabaldu izan balitz bezala. Eta eragin horretan pisu handia izan du Franz Kafkak.

Jon Mirande izango zen lehena idazle txekiarraren ipuinak itzultzen, baina atzetik etorri ziren Xabier Kintana, Rufino Iraola eta Antton Garikano ere; horiek guztiak itzulgai gisa inspiratu zituen Kafkak, baina, lehen esan moduan, espresionismoaren iturritik edaten hasi zen euskal idazleen belau-naldi oso batean ere izan zuen eraginik.

Gaur egun badirudi guztiz errotuta dautzagula Kafkaren presentzia, eta oharkabean sortu dugu, guk ere, egoera bat *kafkatarra* dela esatean, adjektibo berri bat, gure hizkuntza literatur kutsuz janzen dugularik.

Ni neu ere, horretan nengoen, alegia, kafkatarra zentzugabea, iluna eta aldrebesa den egoera bat dela. Itzulpena egiteko garaia iritsi zitzaidanean, ordea, egilea bera ezagutzea izan zen lehen urratsa; Europa erdialdeko literatura-loraldi hartako bidean barna murgilarazi zidan urratsa izan zen, inondik ere.

Franz Kafka 1883ko uztailearen 3an jaio zen Pragan eta 1924ko ekainaren 3an hil, Vienan. Beraz, eta autorea bere testuinguru historikoan kokatu behar badugu, pentsatu behar dugu Txekia austrohungariar inperioaren zati zela, eta, sistema zentralizatu horren barnean, aleman hizkuntza eta kultura ziren nagusi.

Horregatik, txekiarra izanagatik ere, Kafkak alemanez idatzi zuen, etxean alemanez hitz egiten zuen, eta ikasketak eta lanbidea ere hizkuntza horretan bideratu zituen. Edonola ere, Kafkak txekiera ere menderatzen zuen. Garai hartako Pragako beste hainbat familien moduan, Kafkatarrak ju-

dutarrak ziren. Horrek eragin handia izango zuen egilearen bizitzan, hebreera ikasteari ere ekin omen zion.

Zuzenbide ikasketak burututa, aseguru-bulego batean hasi zen lanean. Dena den, Kafkaren pasioa beti izan zen literatura. Ezintasuna eta pasioa nahasten zitzaizkion literaturarekiko harremanean; nolabaiteko maitemina sentitzen zuela esan liteke, ezin negona eragiten dion, baina, hala ere, maitatzeari utz ezin diezaiokeen maitale sutsuaren moduan.

Gauetz idazten zuen gehienetan, egunez aseguru-bulegoan lan egin, arratsaldez lo, eta iluntzean berriro hasten zen lanean.

Etxekoengandik ez zuen bere pasio horrekiko ulermenik jaso. Aitak inposatu nahi zion eredu patriarkala eramanezina zitzaion. Izatez, bere aitarekin izan zuen harreman zail horren isla ere aipatu izan da Kafkaren lanen interpretazioa egiterakoan.

Emakumeekin eduki zituen harremanak ere ez zitzaizkion oso arrakastatsua suertatu. Ziurgabetasun erabateko batek inguratzen zuen haietakoren batekin konpromisoaren bat hartzeko unea iristen zenean.

Izan ere, Kafkak bizi izan zituen beldur eta ziurtasun-falta guztien atzean literatura-ri emana zion bizitza sutsu baina, aldi berean, ikaratia dago. Literatura egiteko bizi nahi zuen, eta, beraz, bere bizitzan sar zitekeen beste ezeri ez zion konpromisorik txikiena ere eskaini nahi. Literatura zuen arma, eta arma horren atzean babesten zen.

Ordea, eta hau azpimarratu beharra dago, ez dugu pentsatu behar Kafkaren ingurunean dena iluna eta goibela zenik. Umorea eta ironia aurkitzen ditugu bere idazkietan, kontraesanak eta errealak ez diren egoerak ere barra-barra, eta horiek guz-

tiak irudikatu zituen burua, iluna ez ezik, argia ere bazen.

Bere ipuinetan hainbatetan errepikatzen diren gaiak, honako hauek:

- Deskribapen zehatzak: guztia deskribatzen du xehe-xehe, baina, batez ere, pertsonaien keinuak eta jarrerak. Irakurlea eszenaren aurrean jartzea lortzen du, bertatik bertara balego bezala sentiarazten dio.
- Errealaren dena naturaz gaindikoa edo bixia denarekin nahasten du; hala, hainbatetan ageri zaizkigu animaliak pertsonaia nagusi gisa, pertsona arrunten keinu eta jarrerak bereganatuta; eta, bestalde, animalien gisara portatzen diren pertsonak ere agertzen zaizkigu...
- Izan ere, kontraesanak dira nagusi, nola diskurtsoaren bitartez nola hizkuntzaren erabileraren bitartez. Horrela, modu batera hasten dena bestera amaitzen da, ezustean. Eta amets moduko aldaketa horiexek dira, aldi berean, Kafkaren narrazio gintzaren ezinbesteko ezaugarri.

Erreferentziak

Erreferentziak oso lagungarriak izan daitezke, baina, jakina, ez zaie itsu-itsuan jarraitu behar, lagun faltsu edo ustelak ere gerta daitezkeelako, eta, beraz, gure itzulpena ere okerra izan daiteke.

Ez da, beraz, gauza berria, ustez fidagarriak diren baina, egiatan, okerrak diren erreferentziei kasu egiteagatik itzulpena ere okerra atera izana.

Kafkaren lanetan bada adibide argi bat; *Vor dem Gesetz* edo *Legearen aurrean* ipuinarekin gertatzen da. Ipuin hori Jon Mirandek itzuli zuen lehenik, eta 1954an eman zuen argitara *Euzko Gogoan*. Xabier Kintanak 1995ean argitaratu zuen ipuin beraren itzulpena *Ipuinak* izeneko bilduma batean. Ordea, bi bertsiok aski desberdinak dira, eta ez soilik erabiltzen duten hizkuntza edo idazkerari dagokionez; edukian ere badira desberdintasun nabarmenak.

Hona hemen adibide bat, aipatutako *Vor dem Gesetz* ipuinetik Mirandek nahiz Kintanak emandako itzulpenena:

“Von Saal zu Saal stehen aber Türhüter, einer mächtiger als der andere. Schon den Anblick des dritten kann ich einmal ich mehr ertragen.”

“Aretoz areto, berriz, beste atezainak badituk, bata bestea baino ahaltsuago. Jada hirugarrenaren begiratzea, nihauk ere ezin jasan diezakeiat”. (Jon Mirande)

“Aretotik aretora badituk, halaber, atezainak, zein zein baino ahaltsuagoa. Eta hirugarren atezaina *hain ikaragarria denez*, nik neuk ezin diat haren itxura jasan”. (Xabier Kintana)

“Er wird kindisch, und, da er in dem jahrelangen Studium des Türhüters auch die Flöhe in seinem Pelzkragen erkannt hat, bittet er auch die Flöhe, ihm zu helfen und den Türhüter umzustimmen.”

“Haurtzen da, eta, urrthe luzeotan athezaina azterrturik, hunen larruzko lephokoan bizi diren khukusoek ere ezagutu baititu, khukusoak ere othoizten ditu lagunt dezatela eta athezainaren gogo haren aldera bigurrt dezatela.” (Jon Mirande)

“Haurtzarora itzultzen da, eta atezainari urte-tan egin dion behaketa luzean haren larruzko idunekoa arkakusoak ezagutzeraino heldu denez gero, arkakusoek ere otoi egiten die laguntzeko, atezaina komentzi dezaten.” (Xabier Kintana)

Miranderen itzulpena gehiago lotzen zaio jatorrizko testuak esaten duenari. Ez dakigu erreferentziarik erabili zuen ala ez, baina edukiaren aldeko akats nabarmenik behintzat ez zaio nabari. Kintanarenean ordea, badira edukiaren aldeko akatsak, beharbada alemanezko testua ongi ez ulertze-agatik sortuak, beharbada, erreferentzia oker bati jarraiki egindakoak.

Jakina, egia da, erreferentziarik ezean, galduta ere aurki zaitezkeela; zer esanik ez Kafka bezalako egile bat itzultzerakoan. Esaldi luze eta korapilatsuez gain, esanahia bera ere, zenbaitetan, ez baita garbi gelditzen.

Hasiera batean erreferentziarik gabe itzultzen hasi banintzen ere, berehala ohartu nintzen, beste hizkuntzetan nola itzulia izan den jakitea oso lagungarri izan daitekeela. Dena den, eta, lehen esan moduan, argi ibili beharra dago, eta erreferentziak erreferentzia huts gisa erabili, okerrak ez errepikatzearren.

“Wenn ich einem schönen Mädchen begegne und sie bitte: “Sei so gut, komm mit mir” und sie stumm vorübergeht, so meint sie damit:”

“Cuando encuentro una hermosa joven y le ruego: “*Tenga la bondad de acompañarme*” y ella pasa sin contestar, su silencio quiere decir esto:”

“Neska eder bat topatu eta honela erregutzen diodanean: “*Porta zaitez eta etorri nirekin*”, eta neska erantzun gabe pasatzen denean, berez, honako hau esan nahi du:”

Goiko adibidean, gaztelaniazko bertsiotan dotoreegi ematen du itzultzaileak gonbidapenaren itzulpena. Gaztelaniazko erreferentziari jarraituta, beraz, euskaraz ere dotoreegi itzultzeko arriskua genuke, jatorrizkoak, berez, halako doinurik ez duene-

an; eta, hori, azken batean, eduki-akats gisa ere har daiteke.

Beraz, beste hizkuntzetara egindako itzulpenak erreferentzia gisa hartzea oso lagungarria da, betiere tentuz jokatu behar dela kontuan hartuta.

Beste hizkuntzetara egindako itzulpen hutsak baino, beste hizkuntzetara egindako itzulpenen edizio kritikoak kontsultatzea oso baliagarria dela iruditzen zait. Kafkaren kasuan, adibidez, bada katalanek gaztelaniaz ateratako edizio kritiko bat, Jordi Lloveten gidaritzapean, eta, bertan, kontakizunnez gain, hainbat xehetasunen inguruko azalpenak eransten dituzte atzealdean gehitutako eranskinean. Eta azalpen horiek izugarri interesgarriak dira egilearen literaturgintzan sakondu nahi duen edonorentzat.

Beraz, esango nuke, erreferentzietara jo aurretik bi aldiz pentsatu behar dela, gutxiarik, zein erreferentzia hartu erabaki baino lehen.

Itzulpena eta erabakiak hartzea

Itzulpen hau egiterakoan, oro har, bi motatako arazoekin egin dut topo. Batetik, jatorrizko testua xede hizkuntzan emateko ohiko zailtasunak daude, alegia, sorburu hizkuntzan erabilitako egituretatik urrundu behar izatea sorburu hizkuntzan “funtzionatzen” duen modu batean adierazi ahal izateko.

Bestetik, ordea, egilearen beraren hizkera eta estiloa daude. Lehen esan moduan, Kafkaren testuetan deskribapen xeheak dira nagusi, eta, bestalde, etengabeko ironia eta kontraesana sorraraztea helburu duen diskurtso aldrebesa aurkitzen dugu.

Jakina, bi motatako zailtasunak elkar loturik daude, hein batean, jatorrizko hizkuntzak sorrarazi dizkidan arazoak, hain zuzen ere, egilea Kafka izateagatik etorri baitira, eta, beraz, idazkera kafkatarra euskaratzea ez delako lan makala.

Edonola ere, hona hemen adibide kafkatar batzuk:

Mendeko Perpausak

Perpaus nagusian tartekatzen diren erlatibozko perpausak oso luzeak izan daitezke alemanez, eta Kafkak gauzak xeheki deskribatzeko zeukan zaletasuna kontuan hartuta, esan beharrik ez dago perpaus amaigabeak topatu ditudala:

“Endlich gegen 10 Uhr abends kam ich mit einem mir von früher her nur flüchtig bekannten Mann, *der sich mir diesmal unversehens wieder angeschlossen und mich zwei Stunden lang in den Gasen herumgezogen hatte*, vor dem herrschaftlichen Hause an, *in das ich zu einer Gesellschaft geladen war.*”

“Azkenean, gaueko hamarretan iritsi nintzen gonbidatu ninduen lagunartea bilduta zegoen etxe dotore haren aurrera, *lehendik ia-ia ezagutu ere egiten ez nuen gizon harekin iritsi ere, bi ordu luze haietan kaleetan zehar ibiliz nigandik banandu ez zena.*”

Kontraesanak

Kontraesan mordoa dago Kafkaren idazkietan. Banakako esaldietan ez ezik, diskurtso osoan, oro har, kontraesana da nagusi. Bereziki nabarmena da hori *Gosearen artista* ipuin-bilduma osatzen duten istorioetan. Ia-ia bakarrikzeta direla ere esan genezake, irakurlea erotzeraino eramaten duten diskurtsoak, betiere pertsonen egoera jakin

bati buruzko edo beren izaerari buruzko ingurumarietan kateatzen zaituzten hizketa etengabea. Hona hemen adibide batzuk:

“Manche seiner Aussprüche möchte man oft wiederholen, *allerdings nur manche*, denn in seiner Gesamtheit krankt er *doch* wieder an allzu großer Leichtigkeit. Er ist wie einer, der bewundernswert abspringt, schwalbengleich die Luft teilt, dann aber doch trostlos im öden Staube endet, ein Nichts.”

“Batek askotan nahiko lituzke bere esaretako batzuk errepikatu, *baina batzuk bakarrik*, bere osotasunean gehiegizko arinkerian erortzen baita berri-ze ere. Jauzi miresgarri bat egin, enararen moduan airea zulatu, baina gero errukarriki hauts hutsean amaitzen duen norbait bezalakoa da, Ezer Ez bat.” (miresmenetik gaitzespena egiten du hemen jauzi)

“Mein neunter Sohn ist sehr elegant und hat den für Frauen bestimmten süßen Blick. So süß, dass er bei Gelegenheit sogar mich verführen kann, *der ich doch weiß*, dass förmlich ein nasser Schwamm genügt, um allen diesen überirdischen Glanz wegzuwischen.”

“Bederatziparren semea oso dotorea da eta emakumeek gustuko duten begirada gozoa dauka. Hain da gozoa, zenbaitetan ni neu ere lilura bainazake, *baldin badakit ere*, belaki busti bat baino ez dela behar haren distira estralurtarra ezabatzeko.” (hemen ere ezereztu egiten du hasiera batetik semeari aitortzen zion dotorezia)

“Hohe Herren von der Akademie: Sie erweisen mir dir Ehre, mich aufzufordern, der Akademie einen Bericht über mein äffisches Vorleben einzu-reichen. In diesem Sinne kann ich leider der Auf-forderung nicht nachkommen. (...) *In eingeschränktesten Sinn aber kann ich doch vielleicht* Ihre Anfrage beantworten und ich tue es sogar mit großer Freude.”

“Akademiako jaun txit gorenak: ohore handia da niretzat akademiari nire aurreko tximino-bizi-

tzari buruzko txosten bat aurkezteko gonbita jaso izana. Zentzu horretan, zoritxarrez, ezin erantzun diezaioket gonbitari. (...) *Ordea, zentzu oso mugatu batean, baliteke* zuen eskaerari erantzun ahal izatea.”

Aditzondoak

Aditzondoek pisu handia dute alemanez. Partikula gisa kokatzen dira perpausetan, eta horiek itzultzeak buruhauste bat baino gehiago ekarri ohi du.

Ez da artikulu honen helburua aditzondo-
doen itzulpenaren inguruko azterketa bat egitea, eta, beraz, ez naiz teorizatzen saiatu-ko, benetan interesgarria eta baliagarria li-
tzatekeela uste badut ere, horretarako azter-
keta eta hausnarketa sakonagoa egin beharko bailitzateke.

Ordea, ezin aipatu gabe utzi hemen, Kafkaren itzulpenaren nondik norakoak azaltzen ari naizen honetan, aditzondoekin zer-nola jokatu dudan.

Lehen esan bezala, zenbait aditzondok esanahi bat baino gehiago izan dezake. Esate baterako, *nur* aditzondoak “soilik” esanahia har dezake, baina egoera bat edo esandako zerbait azpimarratzeko funtzioa ere bete dezake:

“[...]durch fortwährend abbiegende Korridore, durch ein leeres Zimmer mit einem verlassenen Schreibtisch mühselig suchen, bis er sich tatsächlich, da er diesen Weg *nur* ein- oder zweimal und immer in größerer Gesellschaft gegangen war, ganz und gar verirrt hatte.”

“[...]etengabe batera eta bestera egiten zuten korridoreetan barrena, eta idazmahai bat bere horretan utzita zegoen gela huts batetik iraganik, harik eta, azkenean, erabat galdu zen arte, bide hori behin edo bitan *baino ez* baitzuen egin, eta beti pertsona gehiagorekin batera.”

“Gotteswillen, ich habe ja ganz meinen Koffer vergessen! “Wo ist er denn?” “Oben auf dem Deck, ein Bekannter gibt acht auf ihn. Wie heißt er *nur*?”

—“Jainkoarren, nire maleta erabat ahaztu dut eta!

—Non dago ba?

—Goian, itsasontziaren bizkarrean, ezagun bat ari da zaintzen; *baina*, nola izena zuen?”

Dena den, esanahi bera gordeta ere, konturatu naiz, euskaraz, aditzondo hori bera beti automatikoki ordezkaturiko duen baliokiderik ezean, modu bat baino gehiagotan eman daitekeela, betiere testuinguruaren eta perpausaren esanahiaren arabera. Eta hala behar duela uste dut, gainera; alegia, egongo da aditzondook itzultzeko modu sistematiko bat, gehiegi pentsatu gabe, horietako bat agertu eta nola itzuli esango ligukeena, baina literaturaz ari gara, beraz, sorburu testuaren esanahia eta erritmoa jaso, testutik urrundu, eta hori bera euskaraz ematen saiatu naiz, euskaraz izan ditzakegun baliabideak erabilia.

Esate baterako, *freilich* aditzondoa *jakina*, *noski* adierazteko erabiltzen da perpausuan, baina pasarte guztietan ezin aplikatu dezakegun baliokidetasun hori automatikoki:

„*Freilich*, sein menschlicher Verkehr war eingeschränkt, nur manchmal kletterte auf der Strickleiter ein Turnerkollege zu ihm hinauf, dann saßen sie beide auf dem Trapez, lehnten rechts und links an den Haltestricken und plauderten[...]“

“*Jakina*, gizakiekiko hartu-emana mugatua zuen, noizean behin baino ez zitzaion igotzen akrobata-kideren bat sokazko eskaileteran gora; orduan, trapezioan esertzen ziren biak, bata eskuinaldeko sokan bermatuta eta, bestea, ezkeraldekuan, eta berriketan aritzen ziren;”

„[...] in den alten Zeiten unseres Volkes gab es Gesang; Sagen erzählen davon und sogar Lieder sind erhalten, die *freilich* niemand mehr singen kann.“

“garai batean, gure herrian bazen kantua; kondairek horren berri ematen digute eta kantu batzuk ere gorde dira, inor gehiagok kantatu ezin dituenak, *noski*.”

“Sprang dann einer über die Fensterbrüstung und meldete, die anderen seien schon vor dem Haus, so stand ich *freilich* seufzend auf.”

“Orduan norbaitek leiho-koskaren gainetik salto egin eta gainerakoak dagoeneko etxetik kanpo zirela esaten bazuen, zutitu egiten nintzen, *hasperenka*.” (adibide honetan hurrenkerarekin jokatutako, “*jakina*” edo “*noski*” jartzeak testuak berez duen lirikotasuna ezabatuko bailuke)

Zuzenketa-prozesua

Ezin amai nezake nire lehen literatur itzulpeneko esperientzia hau kontatzeaz zuzenketa-prozesuak izan duen garrantzia aipatu gabe.

Esan gabe doa bi begik ikusi eta atzematen dutena baino askoz gehiago ikusi eta atzematen dutela lauk, seik, zortzik... zenbat buru hainbat aburu, esango du baten batek, eta, beharbada, nahasgarri ere gerta daitekeela, batek irtenbide bat eta beste batek beste bat eman baitezake. Baina hori aberastasuna baino ez da.

Zalantzen aurrean ezinbestekoa gertatzen da, sorburu testuko hizkuntza ongi menderatzen duen norbaiti kontsulta egitea, eta, bestalde, xede-hizkuntzako besteren bati ere irakurle-begiekin irakur dezan uztea.

Kritikak, errieta baino, irakasgai paregabea dira. Eta niri argialetxetik jaso ditudan

kritika eta zuzenketa guztiek begiak zabal-
tzeko balio izan didate. Nabaritu ere egiten
dut, itzulpen hau egin aurretik nekiena bai-
no askoz gehiago dakidala orain, eta, hori,
norberak jasotzen duen eskarmentuaz gain,
kontsulta egindako jendeari eta, nola ez, ar-
gitaletzeko zuzentzaileari zor diot.

Ondorio gisa

Itzulpen-lan hau egitetik ondorio bat
baino gehiago atera dut, lehen esan mo-
duan, ikasgai ederra izan baita.

Batetik, alemanetik euskarara itzultzen
aritzeko aukera eman dit, eta hori oso mo-
tibagarria izan da niretzat, alemanarekin ha-
rreman ona gordetzen dudalako, eta, alde
horretatik, oso gustura hartu nuen enkar-
gua izan zen.

Bestetik, euskal itzultzaile gisa esperien-
tzia hartzeko aukera eman dit, artean litera-
tura itzuli gabea bainintzen, eta bidean sor-

tu diren arazo eta zalantzek eta horien au-
rrean hartu behar izan ditudan erabaki eta
irtenbideek asko erakutsi didate.

Ez dut esango bide gozoa izan denik,
plazer bat izan denik edota, are, ondo pasa
dudanik ere. Lan motibagarria eta, beraz,
merezi zuena izan bada ere, nolabaiteko la-
saitua ere hartzen da azkenean ere, lana
amaitua dagoela ikusten denean. Baina,
atzera begiratuta, izerdia eragin didaten
esaldi luzeek eman didaten eskarmentuaz
ohartuta, bide ona, polita izan dela diot.
Errepikatuko nukeen bidea.

Tarteka kafkatarra izatera iristen zen la-
rritasun bat ere sartu izan zait, pentsatzea,
Kafkak bizian argitaratu zituen ipuinak nik,
literatur itzulpeneko lehen esperientziaren
aurrean nengoen honek euskaratu behar zi-
tuela. Baina, listo, hor daude. Lan kafkatar-
ra izan da, baina, zalantzarik gabe, kafkatar-
ra dena ederra ere bada.

Traducir a Kafka como primera experiencia en traducción literaria

El objetivo de este artículo es dar a conocer la experiencia que ha supuesto para mí este primer trabajo de traducción literaria y cómo la he afrontado.

Antes de empezar a traducir, resulta imprescindible conocer los detalles biográficos del autor, para saber cuándo y en qué circunstancias se creó la obra y así entender mejor sus características. A la hora de traducir, conviene ser prudente en tomar como referencias traducciones realizadas de la misma obra a otras lenguas. Y por último, está la fase de la revisión y la corrección, la cual se convierte en una lección para el/la traductor/a.

Sin duda, lo que ha sido toda una lección para mí es tener la responsabilidad y capacidad de poder traducir a F. Kafka, una experiencia que me ha enriquecido enormemente.

Traduire Kafka comme première expérience de traduction littéraire

L'objectif de cet article est de faire connaître l'expérience qu'a représentée, pour moi, mon premier travail de traduction littéraire et comment je l'ai abordé.

Avant de commencer à traduire, il est indispensable de connaître les détails biographiques de l'auteur, afin de savoir quand et en quelles circonstances l'oeuvre a été créée, et ainsi mieux comprendre ses caractéristiques. Au moment de traduire, il convient d'être prudent lorsqu'il s'agit de prendre pour références des traductions de cette même oeuvre réalisées dans d'autres langues. Et enfin, vient la phase de révision et de correction, laquelle se transforme en véritable leçon pour le/la traducteur/trice.

Il ne fait aucun doute qu'avoir la responsabilité et la capacité de pouvoir traduire F. Kafka a été pour moi une grande leçon, une expérience qui m'a enrichi énormément.

Translating Kafka as a first experience in literary translation

The purpose of this article is to report on my first experience in literary translation and how I dealt with it.

Before beginning a translation, it is essential to learn the biographical details of the author in order to know when and under what circumstances the work was created and thus to better understand it. When translating, it is best to be prudent in using translations of the same work into other languages as references. And finally, there is the process of revision and correction, which is a lesson in itself for the translator.

Undoubtedly, the most important lesson for me was having both the responsibility and the ability to translate Kafka; it was an incredibly enriching experience for me.



Lagun desleialak eta leialak¹

— — — — —
JAUME CABRÉ²

Itzulpena: Antton Olano

Joan den abenduan Mercè Rodoredaren itzultzaileak elkartu ziren Bartzelonan, eta ezin nagoke horren inguruan zenbait gogo-eta egin gabe. Jatorrizko testuak jatorrizko testuaren irakurleengan pizten dituen antzeko emozioak eragin nahi ditu itzultzaileak bere hizkuntza eta kulturako irakurleengan. Itzultzailea autorearen atzean ezkutatuta geratu ohi da, eta lana gaizki egiten duenean edo hutsegiteak egiten dituenen bakarrik gogoratzen gara berataz. Gardentasun zuhur eta baitezpadako batean eustean datza, beraz, itzultzailearen lanaren handitasuna, era horretan bere testu berriaren baitan utz baitezake osotara irakurlea hunkitzeko helburua (egia esan, autorearena da oraindik testua, baina itzultzaileak egin du).

Noizbait esan izan dut itzultzailea katedraletan lan egiten zuten eskultoreak bezalako delatza, leku erpinetako moldadurak, xurrutariak eta eskulturak lantzen zituzten harako zizelkari haiek bezalakoak, alegia, zeinen filigrana lanari usoek baino ezin baitzioten erreparatu. “Gu Jainkoarentzat ari gara lanean” esaten omen zuten haiek. Itzultzaileak bere lanari usoek baino antzeman ez diezaioten egiten du lan. Testu itzuliak zirrara eragin, aise korritu eta plazerra sortzen badu ongi itzulita dagoela badakiten horiek baino antzeman ez diezaioten, alegia.

Itzultzaileak oso ongi jakin behar du jatorrizko hizkuntza, eta batez ere, ongi baino hobeto jakin behar du bere hizkuntza, xede hizkuntza. Poesia itzultzeko, poeta izan be-

1. 2008ko urtarrilaren 3an *AVUI* egunkariko kultura-gehigarrian argitaratua

2. Jaume Cabré i Fabrè (Bartzelona, 1947) idazlea da.

har du itzultzaileak. Eta eleberria itzultzeko, ez du zertan eleberrigile izan, baina bai poeta sena eduki. Hizkuntzarekin tratuan ibiltzea oso gauza serioa da; itzultzaileak ez ditu hitzak iraultzen, emozioz betetako tresna estilistikoak baizik. Broma gutxi. Eta hainbeste aldiz igarotzen da testutik, ezen, lan horretan buru-belarri diharduen bitartean, autoreak berak baino hobeto ezagut baitezake obra.

“Lehen hitzetik azkeneraino, gozo-gozo eraman nau testuak, uhin maltso baten gainean bezala”, esan zidan behin itzultzaile batek, bion ustez itzultzen zaila behar zuen nire testu bat itzultzeak zeinen lan gutxi eman zion adierazteko. Sortzaileak bezala, itzultzaileak pozik geratu behar du bidean behin eta berriz topatzen dituen oztopoak gainditzeko proposatutako irtenbideekin. Uhin maltsoen gainean gozo-gozo joate hori izatera jo behar du itzultzailearen lanak.

Hizkuntza ez-ahaltsuen literaturek tradizio sendoa dute itzulpengintzan, eremu urriko hizkuntzek zubiak eraiki beharra baitute, idazle gehiago eta argitalpen-industria indartsuagoa dituzten hizkuntza ahaltzua goek adinako obra kantitatea eta kalitatea eskainiko badizkiete beren irakurleei. Katalan literatura ez da salbuespena: bertako argitaletxe gehienek lehentasuna ematen diote beste hizkuntza askotatik katalanerako itzulpenari. Beraz, Europako testuingurura begira jarrita, non hirurogeitik gora hizkuntza bizirik baitaude, erraz ulertuko dugu Umberto Ecoren harako baieztapen hura: “Europako hizkuntza itzulpena da”.

Bada gertaera bitxi bat: klasikoen itzulpenen zahartzearena. Askotan, bi edo hiru belaunaldiz behin, berriro itzultzen dira le-

hendik itzulita zeuden obrak. Kontua da belaunez belaun ongi zahartuz doan jatorrizko testua baino askoz arinago zahartzen dela testu itzulia. Hori dela eta, hainbat urtez behin, obra beraren beste itzulpen bat egin beharra dago, unean uneko irakurleengandik hurbilago egoteko, irakurle horiek beren aiton-amonen hizkuntza arranditsua gogorarazten dieten bertsioei muzin egitea nahi ez badugu behintzat. Misterioa, hau da: nolatan dario naftalina-usaina testu itzuliari, eta jatorrizkoari, berriz, ez?

Miquel Desclot lehen mailako poeta eta poesia itzultzaile handiaren hitz batzuk ekarri nahi nituzke orain hona, zeinetan T. R Steiner aipatzen baitu, zeinak John Denham aipatzen baitu, bere Virgiliren itzulpenei buruz ari dela. Denhamek diosku, eta Steinerrek helarazten, Desclotek azaltzen eta nik hona aldatzen, ezen “itzulpenaren zeregina ez dela soilik testu bat hizkuntza batetik bestera iraultzea, poesiatik poesiara iraultzea baizik”. Hain da aldi berean sarkona eta hauskorra poesiaren indarra, ezen, prozesu horretan, lurrundu ere egin baitaiteke: itzultzaileak berriz osatu behar du urrina. Eleberri baten prosak ere, nik uste, urrin propioak ditu, eta itzulpena berez den garbitze horretan galdu egin daitezke urrinok. Nolako erantzukizuna sentitu behar duen itzultzaileak, berriz sortu eta hizkuntza batetik bestera aldatu behar duen testuaren aurrean!

Orain dela hiru urte, nire hamaika itzultzailearekin elkartzeko pribilegioa izan nuen. Nire argitaletxearen babesaz eta instituzioen laguntzaz bultzatutako ekimen horrek aurrera egin du geroztik, eta horren antzeko topaketak egin dira beste idazle batzuen itzultzaileekin. Azkenekoa, aur-

tengoa, Rodoredarenekin. Kultur jatorri desberdineko pertsonak, eta antzeko hizkuntzen edo erabat desberdinen hiztunak izanik, zalantza eta irtenbide trukea izugarri aberasgarria da itzultzaileentzat; baina baita autoreentzat ere, begirada sakoneko irakurle batzuek —maitasunez eta maitasunagatik testuaren sakoneko sekretua bilatzen duten irakurle batzuek— beraien

obrari buruz duten pertzepzioa zein den jakiteko. Gogoan dut behin Amos Ozi irakurri eta inoiz baliatuko ez nituela uste nuen hitz batzuk esan nizkiela itzultzaileoi, horretarako aukera suertatu zitzaidalako erabat hunkiturik: “Ausart zaitetze nirekiko desleial izaten, nirekin leial jokatu ahal izateko”.



Amigos infieles y leales

A raíz de la reunión de los traductores de Mercè Rodoreda en diciembre del año pasado, el escritor Jaume Cabré reflexiona sobre la traducción. Para Cabré la grandiosidad del trabajo del traductor es mantenerse en una discreta transparencia para dejar que su texto, el que ha traducido, sea el que emocione al lector. El traductor quiere provocar en los lectores de su lengua emociones parecidas a las que provoca el texto original a los lectores del texto original.

El autor también apunta en el artículo un par de temas relacionados con la traducción: la gran tradición traductológica de las lenguas minoritarias y un fenómeno que califica de curioso: el envejecimiento de las traducciones antes que las obras originales, hecho que conlleva que cada dos o tres generaciones se traduzcan de nuevo obras que ya habían sido traducidas.

Cabré transmite su admiración por los traductores y lo ejemplifica en el encuentro que él mismo tuvo hace pocos años con algunos traductores de su obra.

Amis infidèles et loyaux

Consécutivement à la réunion des traducteurs de Mercè Rodoreda en décembre de l'année dernière, l'écrivain Jaume Cabré apporte sa réflexion au sujet de la traduction. Pour Cabré la grandeur du travail du traducteur est de se maintenir dans une discrète transparence pour faire en sorte que son texte, celui qu'il a traduit, soit source d'émotions pour le lecteur. Le traducteur veut provoquer chez les lecteurs de sa langue des émotions semblables à celles que provoque le texte original chez les lecteurs du texte original.

L'auteur pointe également dans l'article deux thèmes en rapport avec la traduction : la grande tradition traductologique des langues minoritaires et un phénomène qu'il qualifie de curieux : le vieillissement plus rapide des traductions que des oeuvres originales, ce qui suppose que toutes les deux ou trois générations on traduise à nouveau des oeuvres qui avaient déjà fait l'objet de traductions.

Cabré évoque son admiration pour les traducteurs et l'illustre par la rencontre qu'il eut lui-même, il y a quelques années, avec certains traducteurs de son oeuvre.

Friends true and false

After a meeting of the translators of Mercè Rodoreda in December of last year, writer Jaume Cabré reflects on translation. For Cabré, the grandeur of the work of the translator lies in maintaining a discrete transparency in order to allow his text, that is, the translation, to move the reader. The translator wishes to evoke in the readers of his language emotions similar to those that the original text evokes in its readers.

The author also discusses other topics related to translation, specifically, the great tradition of the translation of minority languages and a phenomenon he describes as curious: the aging of a translation before that of the original work, which means that every two or three generations, works that have already been translated are translated again.

Cabré communicates his admiration for translators and exemplifies it in the meeting that he himself had a few years ago with translators of his work.

la gauza bera esatea

Liburuaren Sarrera*

UMBERTO ECO

Itzulpena: Ander Irizar

Zer esan nahi du itzultzeak? Lehenbiziko erantzuna, kontsolagarria gerta dakigukeena, hau izan liteke: “gauza bera beste hizkuntza batean esatea”. Gertatzen dena da, lehenbizi, zailtasun handiak ditugula erabakitzeke zer esan nahi duen “gauza bera esate” horrek; izan ere, ez dakigu ongi zehazten zer diren parafraisi, definizio, azalpen edo birformulazio deitzen diegun operazioak, eta are gutxiago zehazki zer den ordezkatzeko sinonimiko bat. Bigarrenik, itzuli beharreko testu baten aurrean gaudela, ez dakigu zer den *gauza bera*. Azkenik, zenbait kasutan, *esate* horrek zer esan nahi duen ere zalantzazkoa izaten da.

Ez dugu zertan bila hasi (itzulpengintza-aren arazoak eztabaida filosofiko askotan duen zentraltasuna azpimarratzeko) ea ba

ote dagoen *Iliadan* edo Leopardiren “Canto di un pastore errante dell’Asia” poeman *berrezko gauzarik*, obra horien itzulpena egiten duten hizkuntzez haratago eta gainetik agertu eta distiratu behar lukeenik, edo, alderantziz, ba ote dagoen zerbait obra horietan inola ere harrapatuko ez denik beste hizkuntza horrek ahalegin asko eginik ere. Nahikoa izango dugu hegan beheragotik egitea, eta hurrengo orrietan sarritan ibiliko gara horrela.

Eman dezagun ingelesezko eleberri batean pertsonaia batek *it’s raining cats and dogs* esaten duela. Inozoa litzateke itzultzailea baldin eta, gauza bera esaten ari delakoan, hitzez hitz *zakur eta katu botatzen ari du* itzuliko balu. *Euria goian-behean ari du* edo *barra-barra ari du* izango litzateke itzulpen

* Eco, Umberto (2003), *Dire quasi la stessa cosa. Esperienze di traduzione*. Milan, Bompiani. Liburuaren Sarreraren itzulpena da hau.

egokia. Zer egingo genuke, ordea, zientzia-fikziozko eleberri bat balitz, zientzia fortiar* deitutako horien zale batek idatzia, eta kontatuko balu zerutik benetan ari direla zakurrak eta katuak erortzen? Hitzez hitz itzuliko genuke, konforme. Baina pertsonaia bera Freud doktorearengana joango balitz kontatzearren zakurrekin eta katuekin obsesio bitxi bat duela, eta euria ari duenean ere obsesio horren mehatxua sentitzen duela? Orduan ere hitzez hitz itzuliko genuke, baina ñabardura bat galduko litzateke: Katuen Gizona esapideekin ere obsesionatua dagoela. Eta italierazko eleberri batean, zakur eta katu ari duela esaten duena Berlitz Ikastegi-ko ikasle bat balitz, bere mintzaira anglizismo penagarritz apaintzeko tentazioari ezin eutsiz dabilena? Hitzez hitz itzulita, italierazko irakurle ez-adituak ez luke ulertuko hura anglizismo bat erabiltzen ari dela. Eta gero italierazko eleberri hori ingelesera itzuli beharko balitz, nola emango litzaioke ingeles kutsu eder-nahi hori. Pertsonaiari nazionalitatea aldatu beharko genioke eta italiar kutsu eder-ustea duen ingeles bihurtu? Edo, akaso, Oxfordeko doinuaren nabarmenkeriaz hitz egiten badu ere, azentu hori bereganatu ezin duen Londreseko langile bihurtu? Atrebentzia jasanezina litzateke. Eta *it's raining cats and dogs* frantsesezko eleberri bateko pertsonaiak esango balu, ingelesez? Nola itzuliko litzateke ingelesera? Ikusten duzue zein zaila den esatea zein den

testu batek transmititu nahi duen *gauza*, eta hori nola transmititu.

Honakoa, bada, hurrengo kapituluaren zentzua: jakinda ere ezin dela inoiz gauza bera esan, ulertzen saiatzea nola esan daitekeen *ia* gauza bera. Behin honetara iritsita, arazoa ez da hainbeste gauza *beraren* ideia, ezta *gauza* berarena ere, baizik eta *ia* horrena.¹ Zenbateraino behar du izan elastikoa *ia* horrek? Ikuspuntua zein den: Lurra ia Marte bezalakoa da, biak Eguzkiaren inguruan biratu eta forma esferikoa baitute, baina beste eguzki-sistema batean biraka dabilen beste edozein planeta bezalakoa izan daiteke ia, eta ia Eguzkia bezalakoa, biak ala biak zeruko gorputzak baitira, eta azti baten kristalezko bola bezalakoa, edo ia baloi bat bezalakoa, edo ia laranja bat bezalakoa. Malgutasuna zehaztea, *ia* horren zenbaterainokoa, aldez aurretik negoziatu beharreko irizpide batzuen baitan dago. Ia gauza bera esatea, ikusiko dugunez, *negoziazioaren* printzipioaren pean gauzatzen den prozedura dugu.

Segur aski 1983an hasi nintzen lehenbizikoz itzulpen-problemez modu teorikoan arduratzen, Queneauren *Estilo-ariketak* nola itzuli nuen azaltzean. Gainerakoan, uste dut arazoari buruz aipamen gutxi batzuk baino ez nituela egin laurogeita hamarreko hamarkadara arte, garai hartan hitzaldi batzuk prestatzea suertatu baitzitzaidan jardunaldiren batean, eta hitzaldi haietan, ikusiko denez, nire esperientzia pertsonalak

1. Genettek (1982), hain zuzen ere, palimpsestotzat hartzen du itzulpena: pergamino bat zeinari lehenbizikoz idatzita zuena "harrrakatu" egin zitzaion, baina halako moduz non, oraindik, argi-kontran jarrita, testu berriaren azpian irakurri egin baitaiteke testu zaharra. "Ia"ri dagokionez, Susan Petrillik (2001) itzulpengintzari buruzko testu bilduma bati *Lo stesso altro* izenburua jarri zion, hau da, *Beste berbera* edo halako zer bait.

2. Ikus Eco (1991, 1992a, 1993a, 1995a, 1995b).

izan nituen hizpide, idazle itzulia naizen aldetik.² Itzulpenaren arazoa ezin zen nire *Ricerca della lingua perfetta* (1993b) liburua-
ren azterlanetik kanpo gelditu, eta itzulpenen azterketa xeheari heldu nion orduan, zela Joyceren itzulpen bat hizpide hartuta (Eco 1996), zela Nervalen *Sylvie* liburuari neronek eginiko itzulpenaren kariatara (Eco 1999).³

Baina, 1997tik 1999ra bitarte, Bologna-ko Unibertsitateko Semiotikako Ikerketa Doktoretzarako, urte osoko bi mintegi egin ziren itzulpen intersemiotikoa aztertzeko; alegia, ez hizkuntza natural batetik bestera egiten diren itzulpenak, baizik eta elkarren artean desberdinak diren sistema semiotikoen arteko kasu horiek guztiak, konparazio baterako eleberri bat film batera “itzultzten” denean, poema epiko bat komiki batera, edo poema baten gaia hartuta margolan bat egiten denean. Jardunaldi haietako zenbait hitzalditan, gertatu izan zitzaidan bat ez etortzea doktoregai eta irakaskideetako batzuekin, “hertsiki itzulpena esaten zaiona”ren eta “itzulpen intersemiotikoa” deitutakoaren arteko loturei buruz. Eztabaidaren gaiak argi gelditu behar luke liburu honetako orrialdeetan, eta argi gelditu behar luke, era berean, pizgarri eta akuilu izan nituela baita ere, eta bereziki, nirekin bat ez zetozenak. Nire orduko erreakzioak, bai eta beste parte-hartzaileek esandakoak *VS* aldizkarian ageri dira (*VS* 82, 1999, eta *VS* 85-87, 2000).

Bitarte hartan, 1998ko udazkenean, Torontoko Unibertsitateak *Goggio Lectures* batzuk ematera gonbidatu ninduen, eta, bertan, gaiari buruz nituen ideiak berriro lantzen hasi nintzen. Hitzaldi haien emaitzak *Experiences in Translation* liburuxkan argitaratu ziren gero (Eco 2001).

Azkenik, 2002an, zortzi *Weidenfeld Lectures* eman nituen Oxforden, gai berari buruz betiere, eta haietan itzulpenaren nozio bat garatu nuen: itzulpena negoziazio gisa.⁴

Liburu honek berriro heltzen die arestian aipatutako aldietan prestatutako idatziei, dibagazio eta adibide berri askorekin; oraingoan, izan ere, ez dut hitzaldi soilen edo jardunaldietako parte-hartzeen denbora-mugarik. Hala ere, nahiz eta hemen gaia nabarmen zabaldu dudan eta materiala beste modu batera antolatuta ageri den, nire aurreko testuen hizketa doinuari eusten saiatu naiz.

Hizketa doinuak arrazoi jakina zuen eta du: hurrengo orrialdeetan, nahiz eta, zalan-tzarik gabe, itzulpenaren teoria baten zenbait alderdi ukitzen diren, esperientzia konkretuak dira abiapuntua. Hau da, ez dira aipatzen esperientziak, gaur egun tradukto-logia ikerketei interesatzen zaien arazo teorikoren baten erreferentzia egiteko. Ez, problema teoriko horiek beti *esperientziek* –hein handi batean, esperientzia pertsonalek– sorraraziak dira.

3. Gogoratu nahi nuke ezen, dozenaka urte baneramatzan ere itzulpen esperientziak izaten, honakook piztu zituztela gai honi buruzko nire interes teorikoak: Siri Nergaarden bi tesiak, lizentziatura-tesiak eta doktoretzakoak, eta hark argitaratutako bi liburu antologikoren prestaketak; bi lan horiek nik zuzendutako bilduma batean argitaratu ziren 1993an eta 1995ean.

4. *Mouse or Rat? Translation as Negotiation*. Londres: Weidenfeld-Orion, 2003.

Sarri askotan, traduktologiako zenbait testuk ez naute asebate; hain zuzen ere, argudio teorikoen ugaritasunarekin batera ez zelako behar adinako adibide sortarik agertzen. Hori ez da horrela, noski, arlo horretako liburu edo saiakera guztietan, eta hor dugu, konparazio baterako, George Steinerren *After Babel* liburuan ageri den adibide saila, baina beste askotan susmoa pizten zitzaidan itzulpengintzako teorialariak ez zuela sekula ezer itzuli eta ez ote zen ari, beraz, zuzeneko esperientziarik gabe.⁵

Giuseppe Francescatok behin ohartarazi zuenez (eta buruz ari naiz), elebitasunaren fenomenoak ikertzeko, eta beraz gaitasun bikoitza lortzeari buruzko esperientzia baliagarriak bildu ahal izateko, orduz ordu aztertu behar da, egunez egun, behar linguistikoko bikoitz baten pean jarritako umearen jokatibidea. Bakar batzuek egin dezakete esperimentu hori: (i) hizkuntzalariek, (ii) bikotekidea atzeritarra edo atzerrian bizi dena dutenek, (iii) haurrak izan dituztenek, eta (iv) hasiera-hasieratik beren umeen adierazpideen jarraipena modu erregularrean egiteko moduan direnek. Baldintza horiek ezin dira beti bete, eta hori da elebitasunari buruzko ikerketak hain motel garatu izanaren arrazoietakoa bat.

Neure buruari galdetzen diot ea itzulpenaren teoria bat eraikitzeko ez ote den berdin beharrezkoa, itzulpen-ariketa ugari aztertzeaz gainera, gutxienez esperientzia hauetakoren bat eduki izana: besteen itzulpenak zuzendu izana, itzulpenak egin izana

edo norberari testuak itzuli izana, edo, hainbat hobeto, itzultzaileari norberaren testuak itzultzen lagundu izana.

Aurrekoari kontra egin lekiok ebanes poesiaren teoria on bat egiteko ez dagoela poeta izan beharrik, eta atzerriko hizkuntza batean idatzitako testu batez goza daitezkeela hizkuntza horretan gaitasun pasibo hutsa izanda ere. Baina, argudio hori hein batean baizik ez da baliagarria. Izan ere, poesia bat inoiz idatzi ez duen norbaitek ere badu bere hizkuntzaren esperientzia, eta bere bizitzan zehar saiatuko zen agian (edo saia liteke, betiere) hendekasilabo bat idazten, errima bat asmatzen, objektu bat edo gertakari bat metafora bidez irudikatzen. Atzerriko hizkuntza batean gaitasun pasiboa duenak ere badaki zein zaila den esaldi egokiak osatzea. Pentsatzen dut, halaber, marrazten trebetasunik ez duen arte-kritikari bat (edo beharbada horrexegatik, trebetasunik ez duelako) gauza dela ohartzeko zer zailtasun datxekion ikusizko edozein adierazpideri, eta, orobat, ahots kaskarra duen opera-kritikari batek uler dezakeela, zuzeneko esperientzia duelako, zenbateko trebetasuna behar den itxurazko nota altu bat emateko.

Nire ustez, beraz, itzulpenari buruzko oharpen teorikoak egiteko, ez da alferriakoa itzulpengintzarekin esperientzia aktiboa edo pasiboa eduki izana. Bestalde, artean itzulpenaren teoriarik ez zenean, San Jeronimoren garaietatik gure mendera bitarte, gai honi buruzko oharpen interesgarri baka-rrak itzultzaileek berek egiten zituzten, eta

5. Adibideen zabaltasuna ez da soilik kezka didaktikoek eragina. Nahitaezkoa da baldin eta pasatu nahi badugu itzulpengintzaren gaineko pentsamendu orokor batetik, edo are hausnarketa arauemaile sail batetik, azterketa *lokaletara*, uste osoa baitut itzulpenek testuekin dutela zerikusia, eta testu bakoitzak problema desberdinak ematen dituela. Horri dagokionez, ikus Calabrese (2000).

jakinak dira San Agustinen larritasun hermeneutikoak; izan ere, hark itzulpen ego-kiez hitz egin nahi bazuen ere, atzerriko hizkuntzen gaineko ezagutza oso mugatua zuen (hebreerarik ez zekien, eta grekoa ere gutxi).

Konturatu naiz besteen itzulpen asko zuzendu behar izan ditudala nire bizitzan, hala editore moduan eginiko bide luzean nola saiakera-bildumen zuzendari gisa. Lan eta ardura handia eskatzen duten bi lan itzuli ditut: Queneauren *Estilo-ariketak* eta Gérard de Nervalen *Sylvie*, eta biekin ere urte asko eman ditut. Eta hala saiakera-lanen nola narratiba-lanen idazle gisa, harreman estuan egin dut lan nire itzultzaileekin. Itzulpenak zuzendu ez ezik (nolabait-edo nekizkien hizkuntzetara eginikoak gutxienez, eta horrexegatik aipatuko ditut sarritan zenbait itzultzailearen itzulpenak: William Weaver, Burkhart Kroeber, Jean-Noel Schifano, Helena Lozano eta beste itzultzaile batzuenak), itzultzaileekin hitzaldi luzeak ere izan ditut, itzultzen hasi aurretik eta itzulpen-lanean ari zirela, halako moduz non jabetu bainaiz ezen, itzultzailea inteligentea bada, gauza dela bere hizkuntzan sortzen diren problemak azaltzeko, baita hizkuntza hori ez dakien autore bati ere, eta, autoreak, are horrelakoetan, lagundu dezakeela konponbideak iradokiz, hau da, iradokiz bere testuarekin zer askatasun har daitezkeen oztopo bat saihesteko (sarritan gertatu zait, konparazio baterako, Elena Kostioucovitch errusierazko itzultzailearekin, Imre Barna hungarierazkoarekin, Yond Boeke eta Patty Krone nederlanderazkoekin, Masaki Fujimura eta Tadahiko Wada japonierazkoekin).

Horrexegatik erabaki dut, hain zuzen, itzulpenez aritzeko, problema zehatzak hartzea abiapuntu, zeinak, gehienetan, nire idazlanekin baitute zerikusia; horrexegatik erabaki dut *in copore vili* eginiko esperientzia horiek oinarri hartuta zirriborratzea konponbide teorikoak.

Horrek bi arrisku zekarzkidakeen: bata, nartzisismoa; bestea, berriz, aldezea *nire* testuez *nik* egiten nuen interpretazioak balio handiagoa zuela beste irakurleenak baino, eta, beste horien artean, *in primis*, nire itzultzaileak daude –printzipio horrekin polemizatu nuen, adibidez, *Lector in fabula* edo *I limiti dell'interpretazione* liburuetan—. Lehenengo arriskuak ondorio oso gaiztoak izan zitzakeen, baina nire jokabidea da, azken batean, gizartearentzat zoritxarrekoak diren gaixotasunak izan eta hori jendaurrean adierazten dutenena bezalakoa; bestentzat ere baliagarriak izatearren, zer egoeratan dauden eta zer tratamendu hartuko dituzten esaten duten horiena. Bigarren arriskuaz denaz bezainbatean, espero dut hurrengo orrietan nabaritzea nola nik beti adierazi izan dizkiedan nire itzultzaileei neure testuetako puntu kritikoak, anbigutasuna eragin zezaketenak, eta nola puntu horietan kontuz ibiltzeko aholkua eman didan, beren interpretazioan eragiteko asmorik gabe; edota nola erantzun didan haien eskaera zehatzei, galdetzen zidatenean konponbide batzuen artean zein aukeratu-ko nukeen beren hizkuntzan idatzi behar izan banu; kasu horietan, nire konponbidea zilegia zen, azken batean nik sinatzen bainuen liburua.

Bestalde, autore itzuli gisa izandako esperientzietan, gogoia erdibiturik ibiltzen nintzen etengabe: batetik, bertsioak nik ida-

tzitakoari “fidela” izan behar zuen; eta, bes-tetik, aurkikuntza kitzikagarri bat egin nuen, hain zuzen ere nire testua, beste hizkuntza batean emana behar zuenean, transformatu egin zitekeela (are gehiago, batzuetan transformatu egin *behar* zuela). Eta nahiz eta batzuetan ezintasunak nabaritzen nituen –nolabait ere konpondu beharra zeudenak–, are sarriagotan aukera berriak nabaritzen nituen; hau da, nabaritzen nuen nola testuek, beste hizkuntzarekiko kontaktuan, neuretzat ere ezezagunak ziren interpretazio potentzialak agertzen zituzten, eta nola batzuetan itzulpenak testua hobetu zezakeen (“hobetu” diot, hain zuzen, testua bera ustekabean adierazten ari zen *asmoari* dagokionez, alde batera utzita nire, hau da, autore enpirikoaren jatorrizko asmoa).

Esperientzia pertsonalak abiapuntu, eta bi hizketaldi sorta iturburu, *honako hau ez da itzulpenaren teoriaren liburu gisa aurkezten* (eta ez du horrelako liburu baten sistematikotasuna) arrazoi simple batengatik: ezin konta ahala problema traduktulogiko uzten ditu agerian. Ez dut hitz egin klasiko grekoekiko eta latinoekiko harremanez, ez dudalako sekula Homero itzuli eta ez dudalako Homeroren itzulpenik epaitu behar izan klasikoen bilduma baterako, ez beste ezerengatik. Itzulpen intersemiotikoaz, gain-gainetik baizik ez dut hitz egin, ez baitut inoiz eleberri bat oinarri duen filmik zuzendu edo poema bat ballet bihurtu. Ez ditut hizpide hartu, bestetik, Mendebaldeko testu bat beste kultura batzuen sentsibilitatera egokitzeko taktika edo estrategia post-

kolonialak, ez baitut modurik izan nire testuen arabierazko, pertsierazko, koreerazko edo txinerazko itzulpenak aztertu eta eztabaidatzeko. Ez dut sekula emakume baten testu idatzirik itzuli (kontua ez da gizonen testuak itzultzeko ohitura dudala; bi besterik ez ditut itzuli nire bizitzan), eta ez dakit zer problema izango nituen. Nire itzultzaile emakumezko batzuekin izandako harremanetan (itzultzaile errusiarra, espainiarra, suediarra, finlandiarra, herbeheretarra, kroaziarra, greziarra), nire testura egokitzeko hain prest ikusi ditut, non ez baitut haiengan sumatu itzulpen “feminista” egiteko inongo borondaterik.⁶

Fideltasun hitzari buruz aritu naiz zenbait paragrafotan; izan ere, bere itzultzaileen jarraipena egiten duen autore batek, inplizituki, “fideltasun”aren exijentzia du abiapuntu. Ohartzen naiz termino horrek zaharkitua irudi dezakeela zenbait proposamen kritikoren aurrean, zeinen arabera itzulpen batean balio duen bakarra baita xede-testuan eta xede-hizkuntzan izaten den emaitza, eta, gainera, une historiko zehatz batean izaten dena, baldin eta beste garai batean sortutako testu bat eguneratzeko saioa bada. Baina fideltasunaren kontzeptuak sineste batekin du zerikusia: itzulpena interpretazioaren formatiko bat dela eta xede izan behar duela beti, irakurlearen sentsibilitatea eta kultura abiapuntu hartuta bada ere, topatzea, ez autorearen asmoa, baizik eta *testuaren asmoa*, testuak esaten edo iradokitzen duena, betiere kontuan hartuta zer hizkuntzatan eta zer testuinguru kulturaletan sortutakoa den.

6. Azken hiru problemei dagokienez, ikus Demaria *et al.* (2001) eta Demaria (1999 eta 2003).

Jo dezagun Estatu Batuetako testu batean pertsonaia batek beste bati esaten diola *you're just pulling my leg*. Itzultzaileak ez luke emango *nire hankatik tiraka ari zara*, ezta *hanka jotzen ari zara* ere, baizik eta *ziria sartu nahi didazu* edo, hobeto oraindik, *adarra jotzen ari zara*. Esapidea hitzez hitz itzuliz gero, xede-hizkuntzan hain ezohikoa den esapide batek pentsaraziko luke pertsonaia (eta berarekin batera autorea) figura erretoriko berri bat asmatzen ari dela, eta ez da horrela, pertsonaia bere hizkuntzako esera bat erabiltzen ari baita. Hankaren orde adarra esanez, aldiz, testuak ingelesezko irakurlearentzat nahi zuen egoera berean jartzen dugu xede-hizkuntzako irakurlea. Horra hor, bada, nola itxuraz fideltasun eza dena (ez da hitzez hitzeko itzulpena) azkenean fideltasun-egintza dela ageri den. Eta hori, hein batean, itzultzaileen patroia San Jeronimok esaten duena errepikatzea da; hau da, itzultean ez dela egin behar *verbum e verbo sed sensum exprimere de sensu* (nahiz eta, gero ikusiko dugunez, baieztapen horrek ere anbiguotasun ugari eragin ditzakeen).

Itzultzeak esan nahi du, beraz, ulertzea zein den hizkuntza baten barne-sistema eta hizkuntza horretan emandako testu jakin baten egitura, eta sistema testualaren kopia bat sortzea, *deskribapen jakin baten pean* irakurlearengan efektu analogoak eragin ahal izateko, bai arlo semantikoan eta sintakti-

koan, bai arlo estilistikoan, metrikoan, fonosinbolikoan, bai eta sorburu-testuak bilatzen zituen efektu pasionalei dagokionez ere.⁷ “Deskribapen jakin baten pean” horrek esan nahi du itzulpen orok baduela fideltasuna urratzeko halako tarte bat, fideltasunaren ustezko muina erreferentzia hartuta; baina muinaren kokagunearen gaineko erabakia eta tartearen zabaltasuna, ordea, itzultzaileak jartzen dituen helburuen baitan daude.

Edonola ere, ez dut orain sakondu nahi baieztapen horietan, hurrengo orri guztietan baitago azalpena. Gauza bakarra egin nahi dut: adierazi berriz ere traduktologian erabiltzen diren kontzeptuetako asko (baliokidetzak, helburuarekiko atxikipena, fideltasuna edo itzultzailearen ekimena) *negoziazioaren* goiburuen pean jartzekoak direla.

Azken hamarkadetan ugari izan dira itzulpenaren teoriari buruzko lan idatziak; besteak beste, gero eta gehiago direlako auzi hau aztergai duten ikerketa zentroak, ikastaroak eta departamentuak, bai eta itzultzaile eta interprete eskolak ere. Interes traduktologikoak ugaritzearen arrazoiak asko dira, eta bateragarriak. Hasteko, globalizazioaren fenomenoak, elkarrengandik gero eta hurbilago jartzen baitituzte hizkuntza desberdinetako talde eta gizabanakoak; hurrengo, interes semiotikoen garapena, horientzat itzulpenaren kontzeptua oinarrizkoa bihur-

7. Jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko harremani buruz aritzean, zenbait adierazpide erabiltzen dituzte teorialariek: ingelesez, *sourceen* eta *targeten* arteko bereizketa zabaldu da. Lehenbiziko terminoa italiarara ekartzeko *fonte* (sorburu) oso egokia izan badaiteke ere, bigarrenak *jo-puntu* bihurtzeko arriskua du, modu okerrean. Italian, orain, aski ohikoa da erabiltzea *testo di partenza* (abiapuntu-testu) eta *testo di arrivo* (helmuga-testu) edo *di destinazione* (xede-testu). Nik ia beti *testo fonte* (sorburu-testu) erabiliko dut; izan ere (ikus 7. kapituluaren amaiera), zenbait interferentzia metaforikotarako bidea ematen du. Bigarren terminoari dagokionez, hala *arrivo* (helmuga-testu) nola *destinazione* (xede-testu) erabiliko ditut, kasuaren arabera.

tzen baita, nahiz eta ez esplizitatu (pentsatu besterik ez dago, adibidez, esaldi baten esanahiari buruz pizten diren eztabaidetan ez-baia dagoena dela hizkuntza batetik bestera pasatzean teoriarik zerk iraun behar lukeen bizirik); eta, azkenik, informatikaren hedapena, askorentzat bultzagarri baita itzulpen artifizialaren ereduak sortzeko eta fintzen joateko (hor problema traduktologikoa funtsezkoa bihurtzen da, ez hainbeste ereduak funtzionatzen duenean, baizik eta, hain zuzen, erabat ongi funtzionatzen ez duela erakusten denean).

Gainera, aurreko mendearen lehen erditik aurrera, hizkuntza bakoitzaren egiturari buruzko teoriak landu ziren, edo hizkeren dinamikei buruzkoak, eta teoria horiek errotiko itzulezintasuna nabarmentzen zuten; teoriarik horiek ez zuten ez desafio makala, teoria horiek landuta ere oihartzen baitziren *jendeak, itzuli, itzultzen duela*, eta milaka urte daramatzala itzultzen. Behar bada gaizki itzuliko du, eta pensatu besterik ez dago nolako eztabaida gogorak izan diren betidanik Biblia-adituen artean, eta adituok nola ibiltzen diren etengabe testu sakratuen itzulpen zaharagoak kritikatu eta kritikatu. Hala ere, zabarrak eta kaskarrak izanda ere hizkuntza desberdineko milioika fededuni iritsi zaizkion Itun Zaharreko nahiz Itun Berriko itzulpenok, hizkuntzatik hizkuntzara pasatze horretan, eta vulgatatik vulgatarara igarotze horretan, gizadiaren zati handi bat bat etorri da testuotan heldu zaizkigun egitate eta gertakiarik, hasi Hamar Aginduetatik eta Mendiko Sermoira arte, hasi Moisesen istorioetatik eta Kristoren nekaldiraino, eta testuok bizi dituen espirituari buruz ari naiz.

Beraz, nahiz eta –legez eta bidez– itzul-tzea ezinezkoa dela aldeztu, praktikan beti Akilesean eta dortokaren paradoxarekin egingo dugu aurrez aurre topo: teoriarik Aki-lesek ez luke sekula dortoka harrapatu behar, baina benetan (esperientziak erakusten duenez) gaintitu egiten du. Teoriak, agian, biribiltasuna du helburu, baina esperientziak hori alde batera utz dezake; baina auzia da, auzi interesgarria, zenbateraino eta zer gauza utz ditzakeen esperientziak alde batera. Itzulpena zenbait negoziazio-prozesutan oinarritzen dela esatearen ideia hortik heldu da, eta negoziazioa da, hain zuzen ere, prozesu bat non zerbait lortzeko beste zerbaiti egiten baitzaio uko, eta, azkenean, dena izatea ezinezkoa dela dioen urrezko printzipioaren argitan, tartean diren alderdiek poza sentitu beharko bailukete, zentzuzko poza, nork bere buruarekin eta besteekin.

Geure buruari galde diezaiokegu zeintzuk diren negoziatio-prozesu honetan tartean diren alderdiak. Asko dira, nahiz eta batzuetan ez duten ekimenik: batetik, sorburu-testua dugu, bere eskubide autonomoekin, eta batzuetan autore empirikoarekin –maiz, oraindik ere bizirik–, hark izan ditzakeen kontrol-asmoekin, eta testuaren jaioterriko kultura guztia; bestetik, xede-testua, eta helmuga duen kultura, testuaren irakurle potentzialen espektatiba-sistemarekin, eta baita batzuetan industria editoriala ere, zeinak itzulpen-irizpide desberdinak ezartzen baititu xede-testua bilduma filologiko zorrotz baterako den edo entretenimendurako liburu sorta baterako den. Editore batek nahi izan lezake, adibidez, errusieratik itzulitako polizia-eleberri batean zeinu diakritikoak ken daitezzen pertso-

naien izenen transliterazioa egitean, irakurleei pertsonaiok ongi ezagutzeko eta errazago gogoan hartzeko bidea emate aldera. Itzultzaileak negoziatzailearena egiten du alderdi erreal edo birtual horien artean, eta, negoziatio horietan, ez dago beti aurreikusia alderdien adostasun esplizitua. Dena dela, negoziatio inplizitua egiten da *egiazkotasun itunetan* ere, zeinak desberdinak izango baitira historia liburu baten irakurleentzat eta eleberrien irakurleentzat, azken horiei, izan ere, milaka urteko itun bat dela-eta, *sinesgogortasuna baztertzea* eska baita-kieke.

Esperientzia pertsonaletatik abiatzen naizenez, argi dago *hertsiki itzulpena esaten zaiona* interesatzen zaidala, argitaletxeetan egiten dena. Bada, nahiz eta teoriariek behin eta berriro esan ez dagoela araurik erabakitzeke itzulpen bat beste bat baino hobea ote den, argitaletxeetako lanak beste zerbaite erakusten digu: gutxienez akats nabarmenez eta eztabaidea zinez ari garelarik, nahiko erraza dela erabakitzea itzulpen bat okerra den eta zuzendu behar ote den. Sen onak berak esango digu, baina argitaletxe bateko zuzentzaile normal bati sen onak aginduko dio deitzeko itzultzaileari eta, arkatza eskuan, adierazteko zein kasutan den onartezina egin duen lana.

Jakina, batek sinetsita egon behar du “sen ona” ez dela hitz itsusi bat, eta, are gehiago, sinetsita egon behar du filosofia ugari-eta ez ausaz-oso serio hartu duten fenomenoak dela. Bestalde, irakurleari gonbit egiten diot buru ariketa bat egin dezan, ariketa xumea baina ulertzen erraza: jo dezagun itzultzaile bati frantseseko testu bat eman diogula, A4 formatuan, Times letra-

tipoa eta 12ko letra-tamainan, 200 orri guztira, eta lan egin ondoren itzultzaileak dakarkigun emaitza dela formatu, letra-tipo eta letra-tamaina bereko testu bat, baina 400 orrikoa. Sen onak ohartaraziko digu itzulpen horretan zerbaitek ez duela funtzionatzen. Iruditzen zait itzultzaile hori lana ireki ere egin gabe bota dezakegula. Alderantziz, ordea, zinema-zuzendari bati Leopardiren “A Silvia” eman eta hark bi orduko film bat egingo baligu, artean ez genuke elementurik izango emaitza onartezina ote den erabakitzeke. Aurretik filma ikusi beharko genuke, ulertzeko zer zentzutan interpretatu duen eta ekarri duen irudietara testu poetikoa.

Walt Disneyk *Pinotxo* film bihurtu zuen. Jakina, Collodizaleak kexatu izan dira *Pinotxo* txotxongilo tiroldar gisa ageri delako, ez delako Mazzantiren edo Mussinoren lehenbiziko ilustrazioek imajinario kolektiboan utzi zutena bezain zuzekoa eta zurruna, argumentuaren elementu batzuk aldatuta daudelako, eta beste zenbait gauzarentatik. Baina, behin Walt Disneyk egokitapenerako eskubideak eskuratuta (problema hori, bestalde, *Pinotxo*ekin jadanik ez zen sortu), inork ezin zuen auzitegitara eraman fideltasun falta horientatik; gehienez ere, Hollywoodi saldutako liburuaren autoreak, bizirik badaude, zuzendariarekin haserretu eta ezbaian has litezke. Baina ekoizleak eskubideen lagapenaren kontratua erakusten badu, ezingo da askorik egin.

Ordea, editore frantses batek *Pinotxoren* beste itzulpen bat enkargatzen badu eta itzultzaileak ematen dion testua *Longtemps je me suis couché de bonne heure* esaldiarekin hasten bada, editoreak eskubidea du idazla-

na errefusatzeko eta itzultzaileari ezgauza irizteko. Hertsiki itzulpena esaten zaion horretan badago printzipio bat, adierazi gabea, zeinaren arabera *besteek esandakoari errespetu juridikoa*⁸ zor baitzaio, nahiz eta problema juridiko interesgarria den erabakitzea zer den besteek esandakoa errespetatzea hizkuntza batetik beste batera pasatzean.

Hertsiki itzulpena esaten zaiona definitzeko, argi gera bedi, jatorrizko autorearen eta itzultzailearen arteko sentitze komunari buruzko espekulazio mistikoak baino lehenago, edo horien orde, irizpide ekonomiko ei eta deontologia profesionalekoei heletzen diedala, eta ez ahal du horrek inongo espiritu aukeratuko inor eskandalizatuko. Poeta handi batek beste poeta handi bati eginiko itzulpena erosten edo liburutegian bilatzen dudanean, ez dut espero jatorrizkoaren antz handi-handiko zerba itopatzea; aitzitik, normalean, itzulpena irakurtzen dut jatorrizkoa ezagutzen dudalako jadanik eta ikusi nahi dudalako itzultzaile artistak nola heldu dion (hala desafio modura nola omenaldi modura) artista itzuliari. Zinema batera joaten naizenean Pietro Germiren *Un maledetto imbroglio* ikustera, Gaddaren *Quer pasticciaccio brutto de via Merulana* liburuan dagoela oinarrituta badakidan arren (zuzendariak, gainera, filmaren hasieran ohartarazten du zinema-lan hori modu librean dagoela eleberrian oinarrituta), ez dut pentsatzen filma ikusteagatik liburua irakurri beharrik ez dudala (bestela ikusle atzera-

tu bat izango nintzateke). Hasieratik dakit filmean argumentuaren elementuak, pertsonaien ezaugarri psikologikoak eta Erromako zenbait atmosfera aurkituko ditudala, baina ez noski Gaddaren hizkeraren balio-kiderik. Ez dut espero adierazpide batzuk irudietara ekarr ita egoterik, hala nola *Paracaddè giù dai nuvoli e implorava che no, che non è vero un corno; ma ne buscò da stiantare, e neppure L'Urbe, proprio al tempo de' suoi accessi di buon costume e di questurinizzata federzonite...*

Aldiz, beste hizkuntza batean idatzitako lan baten italierazko itzulpena erosten dudanean edo liburutegi batean bilatzen dudanean, soziologiako tratatu bat izan edo eleberri bat izan (eta jakinik, egia esateko, arrisku handi goa dudala bigarren kasuan lehenengo kasuan baino) espero dudana da itzulpenak ahalik eta hobekien esan diezad an zer zioen jatorrizkoak. Iruzurtzat hartuko dut zatiak edo kapitulu osoak faltatzea; amorragarriak gertatuko zaizkit, noski, itzulpen-akats nabarmenak (gauza bera gertatuko zaio, ikusiko dugunez, itzulpena jatorrizkoa ezagutu gabe irakurtzen duen irakurle erneari ere), eta arrazoi gehi goz eskandalizatuko naiz baldin eta gero ohar tzen banaiz itzultzaileak pertsonaiari (trebetasun faltagatik edo, nahita, zentsuragatik) esandakoaren edo egindakoaren kontrakoa esanarazi edo eginarazi diola. Txikitan irakurtzen genituen Utet argitaletxeko “La Scala d’Oro” bildumako liburuki ederretan,

8. Ikus Basso (2000: 215). Petrillik (2000: 12) oso egoki adierazten du, honela esaten baitu: “itzulpena zeharkako diskurtsoa da, baina zuzeneko diskurtsoz moztortua”. Hain zuzen ere, itzulitako testu bakoitzaren hasieran inplizituki dagoen formula metalinguistikoa hau da: “Halako Autorek bere hizkuntzan honakoa esan du”. Ohar metalinguistikoa horrek itzultzailearen deontologia dakar berarekin”.

“beste era batera kontatzen zizkiguten” klasiko handiak, baina sarritan *ad usum delphini* egokitzen ziren. Gogoan dut nola Victor Hugoren *Miserableak* eleberriaren egokitzapenean Javertek, betebeharraren eta Jean Valjeani zor zion esker onaren arteko kontradikzioan harrapatuta, bere buruaz beste egin beharrean, kargua uzten zuen. Egokitzapen bat zenez, jatorrizkoa irakurrita egia deskubritu nuenean, ez nuen haserrikerik sentitu (aitzitik, ohartu nintzen egokitzapen horrek alde askotatik ongi transmititu zizkidala eleberriaren argumentua eta espiritua). Baina horrelakorik gertatuko balitz itzulpen batean, halakotzat aurkezten den testu batean, eskubide bat urratu didatela esango nuke.

Horren aurka esan liteke horiek argitaletxeen ohiturak direla, merkatuaren morrontzak, eta irizpide horiek ez dutela batere zerikusirik itzulpen moten filosofia edo itzulpen moten semiotika jakin batekin. Baina nik galdetzen diot neure buruari irizpide juridiko-komertzial horiek ez ote duten benetan zerikusirik juzgu estetiko edo semiotiko batekin.

Pentsatzekoa da Michelangelori San Pedro basilikako kupula diseinatzeko eskatu ziotenean, eskaera inplizitu bat zuela: kupula ederra, harmoniatsua eta berealdikoa izateaz gain, *ez zedila erori*; eta gauza bera eskatzen zaio gaur egun ere, zer dakit nik, Renzo Pianori, baldin eta eskatzen bazaio museo bat diseinatu eta eraiki dezan. Irizpide juridiko-komertzialak izango dira, baina

ez dira arteaz haraindikoak; izan ere, artelan aplikatu baten balioaren parte da, orobat, eginkizunen perfekzioa. Philippe Starcki zukugailu bat diseina zezala eskatu zionak jarri al zuen kontratuan zukugailuaren egin-kizunetako bat zukua ateratzeaz aparte haziari pasatzen ez uztea izan zedila? Bada, Starcken zukugailuak *haziak edalontzira erortzen uzten du*, beharbada diseinatzaileari haziak hartuko zituen halako “baranda” moduko bat antiestetikoa iruditzen zitzaio-lako. Kontratuan zehaztu izan balitz zukugailu berriak, forma berria gorabehera, betiko zukugailu baten ezaugarri guztiak izan behar zituela, orduan eskatu zuenak eskubidea izango zuen diseinatzaileari objektua itzultzeko. Baina ez da halakorik gertatu, eskatzaileak ez zuelako nahi benetako zukugailu bat, baizik eta artelan bat eta *conversation piece* bat, erosleek eskultura abstraktu gisa desiratuko zutena (oso polita ikusteko, bai, eta abismoetako munstro bat bezain izugarria) edo prestigiozko objektu gisa, eta ez tresna benetan erabilgarri gisa.⁹

Bestalde, oraindik gogoan dut umetan entzun ohi nuen istorio bat, artean oroime-nean fresko gordetzen zelarik italiarrek Libia konkistatu zuteneko garaia eta zenbait urtez matxino-taldeen kontra borrokan ibili zirenekoa (parte hartu zutenak bizirik zeuden artean). Bada, kontatzen zutenek, ba omen zen abenturazale italiar bat okupazio-armadaren atzetik ibiltzen zena eta arabierazko interprete har zezaten lortu zuena, nahiz eta ez zekien batere hizkuntza horre-

9. Nabarmenezkoa da Alessi etxeak, etxe horrek ekoizten baitu Starcken objektua, eskuragai jarri zuela zukugailu sail bat “Special Anniversary Edition 2000, gold plated aluminium” izenekoa, 9.999 ale zenbakidun ez osatua, ohar hau ageri duena: “Juicy Salif Gold zukugailua bildumetarako objektu bat da. Ez erabili zukua ateratzeko: gai azidoekin kontaktuan jarritz gero, urre kolorea hondatu egin daiteke”.

tan. Horrela, ustezko matxino bat harrapatu eta galdeketa egiten zitzaionean, ofizial italiarrak galdera italiaraz egiten zuen, interprete faltsuak esaldi batzuk esaten zituen bere gisako arabiera asmatu batean, galdekatuak ulertu ezin eta auskalo zer erantzuten zuen (seguruenik ez zuela ezer ere ulertzen), interpreteak nahi zuena itzultzen zuen italiarara, nik zer dakit, hark ez ziola erantzun nahi, edo dena aitortzen zuela, eta gehienetan matxinoa urkatu egiten zuten. Pentsatzen dut *gizatxar* hark noizbait errukitsu ere jokatuko zuela, zoritxarreko bere solaskideen ahotan salbatzeko balioko zizkien esaldiak jarritz. Edonola ere, ez dakit kontua nola amaitu zen. Interpreteta, akaso, modu ohoretsuan bizi izan zen irabazitako diruarekin, agian atzeman egingo zuten zertan ari zen –eta, bota bazuten, horixe da gerta zekiokoen okerrena–.

Istorio hori gogora ekarriz, beti pentsatu izan dut hertsiki itzulpena esaten zaiona ez dela txantxetako gauza, eta, ezinbestean, deontologia profesionala eskatzen duela, itzulpengintzaren inongo teoria dekonstruktibok inoiz neutralizatu ezingo duen deontologia bat.

Beraz, hemendik aurrera, itzulpen terminoa erabiltzen dudanean –komatxo artean jartzen edo nolabait bereizten ez badut– hizkuntza natural batetik besterako itzulpenaz arituko naiz, hots, hertsiki itzulpena esaten zaionaz.

Hurrengo kapituluetan, jakina, itzulpen intersemiotikoa deitutakoaz ere hitz egingo dut; hain zuzen ere, erakusteko zer antzekotasun eta zer desberdintasun duen hertsiki itzulpena esaten zaionarekin alderatuz gero. Bataren aukerak eta mugak ongi ulertuta,

oraindik ere hobeto ulertuko ditugu bestea-
ren aukerak eta mugak. Ez nuke nahi hori itzulpen intersemiotikoenganako mesfidantzatzat edo interes faltatzat hartzea. Esate baterako, Neergardek (2000: 285) “eszeptikoa” irizten dio nik itzulpen intersemiotikoei buruz dudan jarrerari. Zer esan nahi du eszeptikoa naizela? Ez dudala uste bada-goela film bihurtutako eleberririk edo musika bihurtutako margolanik? Ez dudala uste horietako batzuk balio artistiko handia dutela, intelektualki oso kitzikagarriak direla eta eragin zabala dutela txertatzen diren ehun kulturalen? Ez, noski. Gehienez ere, itzulpen deitzearen egokitasunari buruz naiz eszeptikoa, horren ordez ez ote litzatekeen hobe, ikusiko dugun bezala, transmutazio edo egokitzapen deitzea. Baina hori ez da eszeptizismoa, zuhurtasun terminologikoa da, bereizten jakitea: alemaniar baten eta italiar baten arteko alde kulturalak eta etnikoak azpimarratzeak ez du esan nahi “eszeptikoa” izatea alemaniarren existentziari buruz, edo haiek Mendebaldeko zibilizazioaren garapenean jokatu duten rolari buruz. Itzulpen intersemiotikoa gai zirrargarria da: ikusi, iradoki ditzakeen hausnarketa ugariengatik, VS aldizkariaren 85-87 aleetan ageri diren ekarpenak. Behar diren informazioa eta sentsibilitatea izan nahi nituzke ekarpen handiagoak egiteko idazki haietako analisei eta ondorio teorikoei. Baina, eztabaida haietan hain zuzen (liburu hau haien laburpen luzatua da), bereizketak egiteari inportantea iritzi nion, eta horixe egin dut. Behin bereizketa horiek argi daudela, urte luzeko bizitza opa diot antzekotasunen, analogien eta erro semiotiko komunen bilaketari.

Beste behin gogoratuko dut testuok hitzaldi gisa sortu zirela, eta hitzaldi batean ez da aipamen bibliografiko gehiegirik egiten, haiek belarri batetik sartu eta bestetik irte-ten baitira, non eta aipamenok ez diren ekarpen kanonikoak gogora ekartzeko eginak. Gainera, nire diskurtsoaren izaera ez-sistematikoak ez ninduen behartzen gaiari buruzko bibliografia guztia kontuan hartze-
ra. Irizpide berari jarraitu diot liburu hone-
tan ere: amaieran, erreferentzia bibliografi-
koak jarri ditut –ez bibliografia orokorra–,
aipatu ditudan testuen ohar gisa; era bere-
an, zenbait oin-ohar ere jarri ditut, batzue-
tan nire ideien berrespena beste norbaiten
ideia batean aurkitzen nuelako, eta beste
batzuetan zuzeneko zorrak ordaintzeko eta,
hala, ideiak beste batzuek iradokiak zirela
jakinda, nire baratzeko letxugak balira beza-
la ez aurkezteko. Jakina, ez ditut zor guztiak
kitatu, baina hori da, gehienbat, itzulpen-

gintzari buruzko zenbait ideia orokor, da-
goeneko, ondare komun gisa dabiltzalako
batetik bestera, eta ikusi besterik ez dago,
horri dagokionez, Bakerrek 1998an taxutu-
tako *Encyclopedia of Translation Studies*.

Ahaztu baino lehen. Baten bat kexa lite-
ke esanez orriok, zehazki espezializatua ez
den publiko bati zuzenduta egonik, itxuraz
gehiegi eskatzen diotela irakurleari, gutxie-
nez sei hizkuntzatan emaniko adibidez zi-
priztinduak baitaude. Batetik, adibide ugari
jarri ditut, hain zuzen ere, hizkuntza bat
arrotza gertatzen zaionak beste hizkuntza
bat erabil ahal izan dezan azterbide gisa, eta,
horrenbestez, irakurleak alde batera utz di-
tzan deszifratu ezin dituen adibideak. Bes-
talde, liburu hau itzulpenari buruzkoa da,
eta, beraz, pentsatzekoa da irekitzen duenak
badakiela zer aurkituko duen.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- AVIROVIČ, LJLJANA-DODDS, JOHN (ed.) (1993), *Umberto Eco, Claudio Magris. Autori e traduttori a confronto (Trieste, 27-28 novembre 1989)*. Udine: Campanotto.
- BAKER, MONA (ed.) (1998), *Routledge Encyclopedia of Translation Studies*. Londres: Routledge.
- BASSO, PIERLUIGI (2000), "Fenomenologia della traduzione intersemiotica". Dusi eta Nergaard, ed., 2000, 199-216 or.
- CALABRESE, OMAR (2000), "Lo strano caso dell'equivalenza imperfetta". Dusi eta Nergaard, ed., 2000, 101-120 or.
- CALEFATO, PATRIZIA-CAPRETINI, GIAN PAOLO-COALIZZI, GIULIA (ed.) (2001), *Incontri di culture. La semiotica tra frontiere e traduzioni*. Turin: Utet Libreria.
- DEMARIA, CRISTINA (1999) "Lingue dominate/Lingue dominanti". Franci eta Nergaard, ed., 1999, 61-86 or.
- (2003), *Genre e differenza sessuale. Aspetti semiotici della teoria femminista*. Milan: Bompiani.
- DEMARIA, CRISTINA-MASCIO, LELLA-SPAZIANTE, LUCIO (2001), "Frontiera e identità fra Semiotica e Cultural Studies". In Calefato *et al.*, ed., 2001.
- DUSI, NICOLA-NERGAARD, SIRI (ed.) (2000), Sulla traduzione intersemiotica, VS 85-87
- ECO, UMBERTO (1991), *Vocali*. Napoli: Guida.
- (1992a), "Due pensieri sulla traduzione". *Atti della Fiera Internazionali della Traduzione, Riccione 10-12 dicembre 1990*. Forlì: Editrice Ateneo, 10-13 or.
- (1993a), "Intervento introduttivo". In Avirovič e Dodds, ed., 1993, 19-26 or.
- (1993b), *La ricerca della lingua perfetta*. Bari: Laterza.
- (1995a) "Riflessione teoriche-pratiche sulla traduzione". In Nergaard, ed., 1995, 121-146 or.
- (1996), "Ostrigotta, ora capesco". Joyce, James, 1996, *Anna Livia Plurabelle*, Rosa Maria Bosinelli, ed., Turin: Einaudi.
- (1999b), *Traduzione, Introduzione e commento a Gérard de Nerval, Sylvie*. Turin: Einaudi.
- (2001), *Experiences in translation*. Toronto: Toronto U.P.
- FRANCI, GIOVANNA-NERGAARD, SIRI (ed.) (1999), *La traduzione*, VS 82
- GENETTE, GÉRARD (1982), *Palimpsestes. La littérature au second degré*. Paris: Seuil.
- NEERGARD, SIRI (2000), "Conclusioni". Dusi eta Nergaard, ed., 2000, 285-296 or.
- NERGAARD, SIRI (ed.) (1995), *Teorie contemporanee della traduzione*. Milan: Bompiani.
- PETRILLI, SUSAN (2000), "Traduzione e semiosi". Petrilli, S, ed., 2000, 9-21 or.
- PETRILLI, SUSAN (ed.) (2001), *Lo stesso altro*. Athanor aldizkariaren ale berezia, XII, 4.

Decir casi lo mismo. Experiencias traductológicas: Introducción.


Este artículo es una traducción al euskera de la introducción del libro de Umberto Eco *Dire quasi la stessa cosa*, o sea, *Decir casi lo mismo*. El autor intenta desentrañar algunos de los problemas inherentes al ejercicio y análisis del hecho traductor, comenzando por el intento de aclarar qué quiere decir el término en sí, o qué se suele entender por traducir, ya que son numerosos los problemas que existen para establecer qué significa “decir la misma cosa”, dificultades que se deben a todas esas operaciones que llamamos paráfrasis, definiciones, reformulaciones, sin olvidar la pretensión de sustitución sinonímica. En segundo lugar, porque ante un texto traducido, no sabemos cuál es esa cosa. En ciertos casos, hasta resulta dudoso saber qué quiere decir la palabra “decir”. En último extremo, la traducción es una cosa seria, que exige una ética profesional que ninguna teoría deconstructivista de la traducción podrá anular jamás.

Dire presque la même chose. Expériences traductologiques : Introduction.

Cet article est une traduction en langue basque de l'introduction du livre d'Umberto Eco *Dire quasi la stessa cosa*, à savoir, *Dire presque la même chose*. L'auteur s'efforce de pénétrer quelques-uns des problèmes inhérents à l'exercice et l'analyse du fait traducteur, en commençant par la tentative d'éclaircissement de ce que signifie le terme en soi, ou ce que l'on entend par traduire, car nombreux sont les problèmes qui existent pour établir ce que signifie “dire la même chose”, difficultés qui sont dues à toutes ces opérations que nous appelons paraphrases, définitions, reformulations, sans oublier la prétention à la substitution synonymique. En second lieu, parce que face à un texte traduit, nous ne savons pas quelle est cette chose. Dans certains cas, on peut aller jusqu'à douter de ce que signifie le mot “dire”. Au bout du compte, la traduction est une chose sérieuse, qui exige une éthique professionnelle qu'aucune théorie deconstructiviste de la traduction ne pourra jamais annuler.

Saying Almost the Same Thing. Experiences in translation: an introduction.

This article is a translation into Basque of the introduction to Umberto Eco's book, *Dire quasi la stessa cosa* (*Saying Almost the Same Thing*). The author tries to decipher some of the problems inherent in the exercise and analysis of translation, beginning with an attempt to clarify the meaning of the term itself, or what translation is usually understood to mean, since there are numerous problems that arise in establishing what it means to “say the same thing,” difficulties due to various operations such as paraphrase, definition, reformulation, and of course the use of synonyms. Secondly, when faced with a translated text, we don't know what it is. In some cases, it is even difficult to know what “means” means. In the final analysis, translation is a serious activity that requires a professional ethic that no deconstructivist theory of translation will ever be able to declare null and void.



Babeletik EIZIera

Mendekostetik pasata



KAXILDO ALKORTA

Bibliako bi pasadizo aipatuko ditut hemen: lehenengoa Itun Zaharrekoa eta, bigarrena Itun Berrikoa.

Itzulpenaren beharra, –eta, beraz, EIZI Erena eta enparauena–, nola edo zer dela-eta sortu zen azaltzen digu aurrenekoak. Hau da aipamena:

“Garai hartan mundu guztiak hizkuntza eta mintzaira berberak zituen. Ekialdetik etorririk, gizonak lautada bat aurkitu zuten Xinear lurraldean eta bertan kokatu ziren. Honela esan zioten elkarri: “Ea, adreiluak egin eta sutan erre ditzagun”. Honela, harriaren ordez adreilua erabili zuten eta kare-orearen ordez bikea. Gero, esan zuten: “Ea, eraiki ditzagun hiri bat eta zerurainoko dorre bat. Ospetsu egingo gara eta ez gara munduan zehar barreiatuko”.

Jaitsi zen Jauna gizasemeak eraikitzen ari ziren hiria eta dorrea ikustera, eta esan zuen: “Hara, guztiak herri bat bera dira, hizkuntza bat berekoak. Hau beren lehenengo lana badute, ez zaie aurretantzean egin nahiko duten ezer ezinezko gertatu-

ko. Jaitsi eta nahas diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten”.

Horrela, Jaunak handik bota eta mundu zabalera sakabanatu zituen; hiria eraikitzeari utzi egin behar izan zioten. Horregatik, Babel –hau da, “Nahasketa”–, eman zioten izen, han nahasi baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik sakabanatu baitzituen mundu zabalera”.

(Elizen arteko Biblia, Itun Zaharra,
Hasiera 11, 1-9)

Utzi bakean nahasketa nork eragin zuen, Jainkoa izan zen ala gizonak izan ziren; kontua da ordura arte hizkuntza eta mintzaira berberak zituen mundu guzti hartan harrezkero ez zutela elkar ulertzen eta sakabanatu beharra izan zutela, ez haserterik gabe seguru asko. Sakabanatu baziren, sakabanatu ziren: Ekialde Erdi hartatik Alaskaraino ere joan ziren-eta batzuk.

Ulerpidea eten: errazena! Hanka edo lepo-hezurra haustea ere ez da zaila; gero

kontuak. Laster igarri zioten galdutako ulerpidea komenigarria ez ezik, behar-beharrezkoa zutela. Bai. Izan ere, denborak bere luzean gorabeherak ditu, eta giza bizitzak, berriz, dualismoan jokatzeko joera, eta, hala, elkarrengandik urruntzeko sentitu zuten amorrua bezain premia bizia hasi zitzaizen barrua zirikatzen aurrena eta erretzen laster, elkarrengana hurbiltzeko edo, behintzat, elkar ulertzeko.

Egoera hartatik irten beharrak iraultza izugarria eragin zuen, ez nolana hikoia. Zentratu jarduera eta lanbide berri! Besteen hizkuntzak ezagutu behar ziren; lortzen zutenek gradu berri bat iristen zuten gizartean, hitzun berrien gradua. Hitzun berri haiek hizkuntza bera ez zutenen arteko zubi ziren, hara: interpretari, itzultzaile bihurtu ziren. Eta ondorioz:

- hizkuntzak ikasteko eskolak sortu ziren eta, bai ba, hizkuntza-irakasleak prestatzekoak ere bai
- jarduera horretarako beharrezkoak dira hiztegiak eta metodoak
- baita itzulpen-teoria eta pragmatikari buruzko aldizkariak ere (*Senez* esaterako), jardunaldiak, kongresuak
- itzulpen espezializatuak: zientzietakoak, teknologikoak, zinpekoak...
- ikusentzuetako bikoizketak...
- itzultzaileen eta interpretarien estatutu profesionalak
- e.a., e.a.

Babelekoak astindu zituela bazterrak! Lan ederra eman zion EIZIERi.

Bide horretatik gabiltzala, egingo dudana beste aipamen hau Itun Berrikoa da:

“Mendekoste-eguna iritsi zenean, toki berean bildurik zeuden guztiak. Bapatean, haize-boladarena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta beraiek zeuden etxe guztian durundi egin zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Denak Izpiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitzegtien hasi, bakoitza Izpirituak eragiten zion eran.

Egun haietan judu jaingoazale asko ziren Jerusalemenean, eguzkiaren azpian diren nazio guztietatik etorriak. Burrunba hura entzutean, hara bildu zen jendea samaldan, eta txunditurik gelditu ziren, nor bere hizkuntzan hitzegtien entzuten baitzien. Zur eta lur, honela zioten: “Mintzo direnok, ez ote dira denak galilearrak? Nola daiteke, bada, guretako bakoitzak bere jatorrizko hizkuntzan horiekin entzutea?. Baditugu gurekin partiar, mediar nahiz elamdarrak...”

(Elizen arteko Biblia, Itun Berria, Eginak 2, 1-8)

“Eguzkiaren azpian diren nazio guztietatik etorriak”... Ba ote zen han euskaldunik, galiziarrik edo laponiarrik? Hala izan ez eta ere, berdin da. Baina polita izango litzateke jakitea zer gertatu zen han apostoluek beren hizkuntzan, galileeraz hain zuzen, egin eta galilearrak ez zirenek mezua bakoitzak bere hizkuntzan hartzeko bat-bateko itzulpenik gabe: Mesopotamiakoak mesopotamieraz, Kapadoziakoak kapadozieraz e.a. Ez jakin. Zer jan behar ote da horrelakorik lortzeko? Hori ere ez dakigu.

Han gertatutakoa edo hango ahalegin haiek hurrengorik, jarraipenik ez izana ere... Tamalgarria? Bai batetik. Ondo pentsatuz gero, hala ere, lehen aipatutako egin-kizun guztietako bat bera ere ez genuke izango gaur egun, eta hori ere ez komeni. Abortuaren alde edo kontra egon, EIZIERik ez genuke izango, ez zen jaioko eta.

De Babel a EIZIE pasando por Pentecostés

En este artículo, de claro contenido metafórico, se mencionan dos pasajes de la Biblia. El primero de ellos, perteneciente al Antiguo Testamento, para mostrar como surgió la necesidad de la traducción, y, por lo tanto, de EIZIE y demás asociaciones análogas, así como de otras profesiones asociadas con las lenguas y la traducción. Se trata del episodio de la torre de Babel.

El segundo pertenece al Nuevo Testamento y cuenta cómo el día de Pentecostés un ruido venido del cielo hizo que todos los allí reunidos, llegados de todas las naciones, comenzaran a entender, cada uno en su propia lengua, el mensaje divino, de boca de personas que se suponía no sabían aquellos lenguajes. De haber tenido continuidad aquel hecho, actualmente no existiría la profesión de traductor y EIZIE no habría llegado ni siquiera a nacer.

De Babel à EIZIE en passant par Pentecôte

Dans cet article, au clair contenu métaphorique, deux passages de la Bible sont évoqués. Le premier d'entre eux, appartenant à l'Ancien Testament, pour montrer comment apparut la nécessité de la traduction et, par voie de conséquence, de EIZIE et d'autres associations analogues, ainsi que d'autres professions associées aux langues et à la traduction. Il s'agit de l'épisode de la Tour de Babel.

Le second est extrait du Nouveau Testament et raconte comment le jour de la Pentecôte, un bruit venu du ciel fit que tous ceux qui étaient rassemblés là, venus de toutes les nations, commencèrent à comprendre, chacun dans sa propre langue, le message divin, de la bouche de personnes qui étaient supposées ne pas connaître ces langues. Si ce phénomène avait persisté, la profession de traducteur n'existerait pas à l'heure actuelle et EIZIE n'aurait jamais vu le jour.

From Babel to EIZIE by way of the Pentecost

This article, which is obviously metaphorical, mentions two passages of the Bible. The first, from the Old Testament, shows how the necessity for translation arose and, as a result, the necessity for the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte, EIZIE) and other similar associations, as well as for other professions having to do with languages and translation. This is the story of the tower of Babel.

The second passage is from the New Testament and tells how on the day of the Pentecost, a sound from Heaven caused all the people gathered there, from all nations, to begin to understand the divine message, each in his own language, from the mouths of people that supposedly did not know those languages. Had that situation continued, there would be no need today for the profession of translator and EIZIE would never have been formed.



